



BERMEO eta ONDARROA, HIZKUNTZAREN GARAPENEAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Eneritz Albizu Lizaso
Goizane Arana Arexolabeiba
Tutorea: Olatz Altuna Zumeta
HIZNET
Hizkuntza Plangintza Graduondokoa



ESKERTZA

Eskerrik asko, bihotzez, ikerlan hau aurrera ateratzen lagundu diguzuen guztioi. Batetik, Ondarroako zein Bermeoko udalei; bereziki, Maite Rey eta Maite Alvarezi, behar izan dugun informazio eta laguntza eskaini diguzuelako. Bestetik, elkarrizketetarako, talde eztabaidetarako zein galdetegia erantzuteko tarte hartu duzuenoi, zinez eskertzen dugu zuetako bakoitzaren ekarpena. Eta, noski, baita lana hobetzeko gomendioak egin dizkigun Olatz Altuna tutoreari ere.

Bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi lan hau egin ahal izateko denbora utzi eta eman diguzuen guztiak: lankide, lagun eta senideak. Eskerrik asko zuei ere.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. GAIAREN KOKAPENA ETA MARKO TEORIKOA.....	2
2.1. Gaiaren kokapena.....	2
2.2. Marko teorikoa.....	3
3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK.....	8
4. UDALERRIEN DESKRIBAPENA.....	9
4.1. Bermeo.....	9
4.1.1. Datu soziolinguistikoak.....	9
4.1.2. Kokapen geografikoa.....	12
4.1.3. Demografia.....	13
4.1.4. Migrazio joerak.....	14
4.1.5. Ekonomia eredia.....	15
4.1.6. Zerbitzuak eta ekipamenduak.....	16
4.1.7. Turismoa.....	16
4.1.7. Elkartegintza.....	18
4.1.9. Hizkuntza politika.....	19
4.2. Ondarroa.....	20
4.2.1. Datu soziolinguistikoak.....	17
4.2.2. Kokapen geografikoa.....	20
4.2.3. Demografia.....	24
4.1.4. Migrazio joerak.....	26
4.2.5. Ekonomia eredia.....	27
4.2.6. Zerbitzuak eta ekipamenduak.....	27
4.2.7. Turismoa.....	28
4.2.7. Elkartegintza.....	29
4.1.8. Hizkuntza politika.....	30
5. IKERKETA METODOAK.....	31
5.1. Ikerketa kuantitatiboa.....	31
5.1.1. Inkesta: metodoaren azalpena.....	31
5.1.2. Laginketa.....	31
5.1.3. Laginaren osaera.....	32
5.1.4. Emaizten aurkezpena.....	34
5.2. Ikerketa kualitatiboa.....	60
5.2.1. Elkarriketa sakonak.....	60

5.2.2. Datuen aurkezpena.....	61
5.2.4. Talde eztabaidak.....	85
5.2.5. Datuen aurkezpena.....	85
6. DATUEN KONPARAZIOA ETA INTERPRETAZIOA.....	102
7. ONDORIO OROKORRAK.....	118
8. HIZKUNTZA PLANGINTZAN KONTUAN IZATEKO LEHENTASUNAK...	122
8.1. Bermeora begirako proposamenak.....	122
8.2. Ondarroara begirako proposamenak.....	125
9. BIBLIOGRAFIA.....	127
10. ERANSKINAK.....	129

1. SARRERA

Itsasoari lotuta bizi izan diren bi udalerri dira Bermeo eta Ondarroa. Kostako bizitza bezala, euskara izan dute bereizgarri Bizkaiko bi txoko horiek. Ikerlan honen helburua da aztertzea zergatik izan den horren desberdina Bermeoko eta Ondarroako euskararen garapena. Izan ere, Bermeon azken hamar urteetan 27 puntu inguru egin du behera kaleko erabilerak, eta bere horretan eutsi diote Ondarroan. Behin lan hori eginda, identifikatuta izango ditugu zer aldagaik izan dezaketen eragina, oro har, herritarren hizkuntz hautuetan. Horrela, bi udalerrietan proposatuko dugu zer lan-ildo jarrai daitezkeen hizkuntzaren normalizazioari begira.

Itsasoa, mareak eta olatuak. Mareek bezala jokatu du azken urteetan hizkuntzaren ezagutzak. Itsasertze batzuetan gora egin du, eta besteetan behera. Dena den, badugu logika bat hori azaltzeko: gune erdaldunenetan gorantz doa hizkuntzaren ezagutza; beherantz, ordea, udalerri euskaldunenetan. Erabilerak, baina, olatuek bezalako jarrera du. Ez dakizu zer hondartzetara iritsiko den, eta uste ez duzun lekuan leher daiteke. Haren jokabidea ez da horren homogeneoa eta iragarkorra. Saiatuko gara fenomeno horri erantzunen batzuk aurkitzen.

2. GAIAREN KOKAPENA ETA MARKO TEORIKOA

Datozen lerroetan azalduko dugu zer testuingurutan kokatzen dugun ikerketa-lan hau, nola justifikatzen dugun azterketaren planteamendua eta zer oinarri teoriko izango diren lanaren abiapuntu. Bestalde, orain artean eginiko ikerketek, teorizazioek eta lanek zer bidezidor irekitzen dizkiguten aurkeztuko dugu.

2.1. Gaiaren kokapena

Bermeo eta Ondarroa Bizkaiko kostaldeko bi udalerri euskaldun dira. Busturialdean dago kokatuta Bermeo, eta Lea-Artibai eskualdean, berriz, Ondarroa. Udalerrri horiek euskaldunak direla esaten dugu biek dutelako %70etik gorako euskararen ezagutza indizea. UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide izateko, horixe da eskatzen den zifra, eta Bizkaiko bi udalerriak daude udal elkartean. Dena den, jakina da euskararen ezagutzak ez duela erabilera bermatzen, ezta inguru euskaldunenetan ere. Azken urteetako datu soziolinguistikoek erakutsi dutena zera da, udalerri euskaldunenetan, behera egin duela hizkuntzaren ezagutzak; eta, batik bat, erabilerak. Honela azaldu du Miren Segurola UEMAko koordinatzaileak Euskal Herriko bilakaera soziolinguistikoaren oinarria: “Herri erdaldunetan ezagutza gorantz doa, eta hori ona da, baina erabileran ez dago gorakada nabarmenik; eta herri euskaldunetan, berriz, ezagutza beherantz doa, eta erabilera ere bai (Gipuzkoako Hitza, 2016).

Illo horretan, oso adierazgarria da lñaki lurrebasa soziologoak eginiko ikerketa lana, Udalerrri euskaldunak EAEn, egoera eta bilakaera 1981-2011 (2014, Soziolinguistika Klusterra). Bertan soziologoak azaltzen du nola 1981-2011 bitartean, euskararen ezagutzak gora egin duen %0 eta %70 arteko indizea zuten udalerrietan; eta, batik bat, %0 eta %40 arteko tarte horretan. Hortik gorako indizea duten udalerrietan, ordea, beherakada pairatu dute. Honela azaldu du bilakaera lurrebasok:

Hamar multzoen artean erdaldunena (euskaldunak %10era iristen ez ziren udalerriena) desagertu egin da. Dagoeneko ez dago ezaugarri horietako udalerri bakar bat ere EAEn. Azpimarra dezagun 1981. urtean multzo hori zela guztien artean nagusia, udalerri eta biztanle gehien biltzen zituena. Are gehiago, EAEko biztanleen erdiak baino gehiago (%52,3) euskaldun dentsitate oso txikiko (%10etik beherako) udalerri horietan bizi ziren.

Gaur egun, esan bezala, desagertu egin da habitat mota hori.

Aurkako muturrean, multzo euskaldunenak (euskaldunak %90-%100 bitartean dituzten udalerriek osatzen zutenak), atzera egin du izugarri. 1981. urtean 56 udalerri zeuden multzo horretan eta 33.605 biztanle bizi ziren horietan. Azken 30 urteotan agortzen joan da habitat hori, eta gaur egun 13 udalerri txikik besterik ez dute ezaugarri hori, eta 4.003 biztanle bakarrik bizi dira horietan.

Testuinguru horretan, esan dezakegu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskararen ezagutza homogeneizatzen ari dela. Hau da, ezagutzaren batez bestekoak orekatzea dela joera, eta muturreko gune erdaldunak zein euskaldunak desagertzea. Hori dela-eta, udalerri euskaldunak zaintzeko politika berezituak aldarrikatzen dituzte UEMAk eta beste erakunde zein elkarte batzuek, udalerri euskaldunek Euskal Herriko gainontzeko guneetan ere eragin estrategikoa dutela sinistuta.

Dena den, datuetara itzulita, ikusten dugu euskararen ezagutzak gure mapan duen joera nahiko garbia dela. Ez dugu, ordea, pertzepzio bera erabilerari dagokionez. Egia da, oro har, oraindik eta nabarmenagoa dela hizkuntzaren erabilerak gune euskaldunetan izan duen beherakada. Iurrebasok erabili dituen datuei erreparatzen badiegu, 1991n 35 udalerritan hitz egiten zuten herritarren %90ek edo gehiagok euskaraz etxean; 2011n ez dago ehuneko horretara iristen den herririk. Hala ere, erabileraren kasuan izandako beherakadak ez dio joera orokor bati erantzuten, ezagutzaren kasuan azal daitekeen bezala. Hau da, udalerri batzuetan beherakada nabarmena izan du euskararen erabilerak kalean eta etxean; baina beste udalerri batzuetan heldu egin diote euskarari, herriko hizkuntza gisa. Horren atzean egon daitekeena aztertu nahi izan dugu ikerketa-lan honekin.

Zer faktorek eragiten dute, horrenbestez, hizkuntzaren erabileraren garapenean? Galdera horri erantzuna emateko, bi udalerrien arteko alderaketa egin dugu: Bermeo eta Ondarroa. Bermeon, %72,7koa da euskararen ezagutza, 2011ko datuei erreparatzen badiegu. 2001etik 2011ra, hiru puntuko jaitsiera izan du. Kaleko erabilerari dagokionez, Soziolinguistika Klusterrak 2016an eginiko neurketaren arabera, %33,6koa da erabilera, eta azken hamar urteetan 27,07 puntu egin du behera. Beste aldean dugu Ondarroa: %79,1eko ezagutza indizea zuen 2011n, 2001ean baino 4,3 puntu gutxiago. Erabilerari

dagokionez, %79,7ko erabilera zifra eman zuen 2016an Soziolinguistika Klusterrak eginiko neurketak, 2001ean baino 1,3 puntu gutxiago (2006an ez zen neurketarik egin). Beraz, zera ikus daiteke, Ondarroan ezagutzak eta erabilerak jaitsiera antzekoa izan duten arren, Bermeon, bi aldagaiek ez dutela inongo orekarik mantendu.

2.2. Marko teorikoa

Ikerlanaren praktika nolabaiteko euskarri teorikoan murgiltzeko, udalerri euskaldunen izaera eta funtzioa hizkuntz ekologiaren ikuspegitik azalduko dugu. Izan ere, ikuspegi edo ideologia horretan kokatzen dugu arnasguneen diskurtsoa, baita ikerlan honek landu nahi duen idela ere.

- Hizkuntz ekologia

Belen Uranga Soziolinguistika klusterreko teknikariak Bat Soziolinguistika aldizkaria-rako idatzitako artikuluan, honela aurkezten du ekologia kontzeptuaren “azalpen orokorra”: “Ekologia izaki bizidunen arteko harremanak eta eurek inguruarekin dituztenak aztertzen dituen zientzia da”. Bide horretatik abiatzen gara, hain zuzen, zientzia hori hizkuntzara, eta gure kasuan, euskarara ekartzeko.

Ernst Haeckel (1837-1919) zientzialari alemaniarrek erabili zuen ekologia kontzeptua lehen aldiz, eta Einar Haugen (1906-1994) hizkuntzalari estatubatuarrek ekarri zuen hizkuntza ekologia definizioa aurrenekoz, 1972an argitaratu zuen *The Ecology of Languages* liburuan. Haugenek ekarpenaren aurretik bi zientzia bezala ulertzen ziren ekologia, animaliekin eta naturarekin zerikusia zuen diziplina; eta hizkuntzalaritza, komunikazio tresna horren azterketara bideratutako adarra. Haugenek harremanetan jarri zituen. Honela definitu zuen: “Hizkuntza-ekologia hizkuntza orok bere ingurunearekin dituen elkar eraginen azterketa da” (Haugen 1972, 325).

Kontzeptua bera plazara irten zenetik gaur artean, hamaika autorek landu dute hizkuntza ekologiaren gaia. Hala ere, hona ekar dezakegu halako ikuspegi partekatu bat diziplina honen inguruan: “Hizkuntzen prozesu sozialek inguruarekin duten harremana aztertzen duen esparrua da hizkuntza ekologia eta horretarako ekologiaren metafora erabiltzen du, alegia, izaki bizidunak bezala hizkuntzak ere elkarrekin bizi direla eta hizkuntza arteko eremu geografiko batean elkarri eragiten diotela dio” (Vork eta Alwin, 2014).

- Arnasguneak

Hizkuntza ekologiaren kontzeptua erditu eta bi hamarkadara, 1991n, Haugenen teorizazioari jarraiki, Joshua Aaron Fishman hizkuntzalari estatubatuarrak arnasgune kontzeptua ekarri zuen, Reversing Language Shift argitalpenarekin. Esan gabe doa, ekologiaren ikuspegitik begiratzen diela Fishmanek arnasguneei. Physical reathing space [arnasa hartzeko espazio fisikoak] deitu zien hizkuntzalariak, eta hola definitu zituen: “Demografia aldetik hizkuntza bere kabian sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe etxeko jaun sentitzen den eremua” (Fishman, .

Kontzeptu hori euskarara ekartzen badugu, Mikel Zalbide pedagogo eta Euskaltzainak landu du gehien euskararen arnasguneak kontzeptua. Honela aurkez dezakegu:

Euskaldunak euskaldunekin euskal giro sendoan bizi diren lekuetan, gurasoen hizkuntza belaunez belaun eskuratzen den lekuetan, hizkuntza plangintzarik eta inolako interbentzio berezi (zenbaitentzat “xelebre”)-rik gabe diharduten ingurumenetan, horietan dago euskara bizien. Hor du euskarak osasunik hoberena. Hori da euskal arnasgune petoa, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa bere betean (beste leku gehienetan baino askoz nabarmenago) segurtatzen duena.

Aparteko antolamendurik gabe ikasten dute horietan haur txikiek bertako hizkuntzan. Hala ikasten dute hitz egiten. Lehenik hitz egiten eta gero, eskola eta abar lagun, irakurtzen, idazten eta bertan ahoz aho dabilen hizkuntza horren errejistro eta aldaera jaso, landu, formalizatuagoak erabiltzean. Hori da osasun oneko hizkuntzen belaunez belauneko jarraipen-bide normala, prototipikoa. Hori izan da euskararen mendez mendeko transmisio-bide nagusia ere, lehen zatiari (etxeko eta auzoko hizkera bizia eskuratzeko bideari) dagokionez. Bigarrenean (errejistro formaleko, bereziki idatzizko lanketan eta garapenean) arras eskas eta ibili gara, ongi ezaguna denez.

Bestalde, Zalbidek berak aitortzen du gunee horiek “lehentasuna” dutela, hizkuntza normalizaziorako prozesuan:

Lehentasuna dute, horregatik, hizkuntzari bizirik eutsi nahi bazaio eta indarberritu egin nahi bada. Horiek dira, Fishman-en eta beste zenbaiten ustean, hizkuntza indarberritzeko saioaren abiaburu natural eta baliagarrienak. Hori gabeko normalkuntza ez da normalkuntza.

Ingurumen horien zaintza-ardura bigarren edo hirugarren lehentasun-mailara daramana ere ez. (Zalbide, 2008: 7-9)

Eusko Jaurlaritzak egindako Euskara 21 txostenean ere nabarmentzen du hizkuntza batek, garatuko bada, bera nagusi den esparruak behar dituela: “Arnasgune horiek zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehentasunezko trataera garbia eman beharko zaie euskararen arnasguneei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan”.

- Udalerrri euskaldunak eta arnasguneak

Udalerrri euskaldunak eta euskararen arnasguneak parean jarri izan badira ere, ikusi dugu udalerrri euskaldun guztiak ez direla arnasgune. Udalerrri euskaldunek betetzen dituzte arnasgune izateko baldintza soziolinguistikoak, hau da, badute hiztun masa nahikoa inguru horietan euskaraz bizitzeko. Dena den, hainbat faktore soziologiko tarteko, herri guztiek ez diete berdin erantzuten izaera horri. Gainera, arnasguneak, oro har, hauskorrak dira oso, txikiak direlako, eta edozer aldaketak eragiten dielako nortasunean. Honela dio Miren Segurola UEMAko koordinatzaileak: “Egun udalerrri euskaldun direnak garai batean arnasgune izandakoak dira, baina azken urteetan egoera aldatuz joan da, eta askok arnasgune izateari utzi diote”. Gai horrekin lanean ari da UEMA, eta Soziolinguistika Klusterra zein UEU-rekin elkarlanean jardunaldiak antolatu ditu 2017ko urrirako, aipagai dugun gaia erdigunean jarrita.

Arestian esan bezala, azterlan honen helburuetako bat izango da iker-lerro bat irekitzea gai honen inguruan. Zer faktorek eragiten dute hizkuntzaren erabileran?, Zergatik euskaldun indize beretsua izanda, udalerrri batzuk arnasguneak dira eta besteak ez?, nola eragin dezakegu arnasguneen zaintzan eta mantenuan?

3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Ikerlan honek helburu orokorrak eta zehatzak ditu, eta horien azalpena egingo dugu zati honetan. Helburu orokorrak dira aurrerantzean euskararen erabileraren gorabeherak aztertzeko patroia komun batzuk aurkitzen lagunduko dutenak; zehatzak, berriz, ikergai diren bi udalerriengan eragina izango dutenak.

Helburu orokorrak:

- Udalerrri batean hizkuntza gutxituaren garapenean eragiten duten faktoreak identifikatzea.
- Hizkuntza plangintza diseinatzerakoan zehaztu beharreko lehentasunak identifikatzea.

Helburu zehatzak:

- Bermeo eta Ondarroan euskarak izan duen joeraren atzean dauden arrazoiak identifikatu eta aztertzea.
- Bermeoko egoera aldatzen hasteko neurriak proposatzea.

Ikerlan honen oinarrian honako hipotesiak nabarmendu daitezke:

- Hizkuntza baten garapenean erabakiorrak dira udalerriaren kokapen geografikoa, biztanleriaren aldaketa demografikoak, ekonomia ereduak eta herritarren bizi-ohiturak.
- Bermeoko eta Ondarroako bizilagunek inguruko udalerriekin duten harremanak eragin zuzena du herri horietan euskarak izan duen joeran eta herritarren hizkuntza hautuetan.
- Azken 30 urteetako turismoaren eta demografiaren aldaketak eragin negatiboa izan dute euskararen ezagutza eta erabileran Bermeon. Ondarroan ez du horrenbeste eragin, hazkundera ez delako izan horrenbestekoa.

4. UDALERRIEN DESKRIBAPENA

Zati honetan, aztergai ditugun bi udalerrien deskribapena egingo dugu. Horretarako, honako faktoreei erreparatuko diegu: datu soziolinguistikoak, kokapen geografikoa, demografia, migrazio joerak, ekonomia eredua, zerbitzuak eta ekipamenduak, elkartegintza, turismoa eta udalaren hizkuntza politika. Datu horiek biltzeko, Bermeoko eta Ondarroako udalen laguntza izan dugu, batetik; eta datu estatistikoaren bankuetan eta bestelako webguneetan jaso dugu falta zen informazioa: EUSTAT, INE eta Lanbiden, besteak beste.

4.1. Bermeo

4.1.1. Datu soziolinguistikoak

- Ezagutza

EUSTAT-en datuen arabera, Bermeoko euskararen ezagutzaren indizea nahikoa egonkor mantendu da azken 36 urteetan. 1981n, %72,8 zen datua. Horren ondoren, 1991rako, lau puntu gora egin zuen, %76,8; baina hurrengo urteetan behera egin du. 2011koa da eskura ditugun datuen artean baxuena, %72,7koa; baina, aurrez esan bezala, udalerriaren bestelako aldagetei erreparatzen badiegu, berdintsu mantendu da.

1981	1991	2001	2011
%72,8	%76,8	%75,7	%72,7

Iturria :Eustat

- Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntza da etxetik jasotzen dugun hizkuntza, gure bizitzako komunikatzeko lehen bitartekoa. Horri dagokionez, ezagutzarena baino nabarmenagoa da beherakada. Kasu honetan, 0,2 puntuko gorakada izan zuen 1986 eta 1991 urteen artean; izan ere, %71k jasotzen zuen euskara etxetik 1986an, eta %71,2k 1991n. Horren ondoren, aise egin du behera indizeak. 4,2 puntu 1991 eta 2001a artean -%67-, eta 12,3 puntu 1991 eta 2011 bitartean -58,9-. Gaur egun, hamar lagunetik 5-6rek jasotzen dute, beraz, euskara etxetik.

1986	1991	2001	2011
%71	%71,2	%67	%58,9

Iturria :Eustat

- Etxeko erabilera

Etxeko erabilerari begira ere beherakada nabarmena ikusten dugu azken hamar urteetan. 1991tik 2001era, 2,4 puntu egin zuen behera; %56,2tik %53,8ra. 1991ko datua 2011koarekin erkatzen badugu, ordea, 11,7 puntuko aldea dago. Horrek esan nahi du Bermeoko bizilagunen erdiek ere ez dutela erabiltzen euskara etxeko komunikazio hizkuntza bezala, nahiz eta ezagutza %72,7koa den. Horrek eta lehen hizkuntzako datuek esan nahi dutena da Bermeon gero eta gehiago direla euskara eskolatik edo beste leku batzuetatik jasotzen duten pertsonak.

1991	2001	2011
%56,2	%53,8	%44,5

Iturria :Eustat

- Kale erabilerako datuak

1989az geroztik egin ditu Soziolinguistika Klusterrak Bermeoko kale erabileraren inguruko neurketak. Taulan ikus daitekeen bezala, 1989tik hasi, eta 2006a bitartean gora egin zuen erabilerak adin tarte guztietan, baina azken bi neurketetan, 2011n eta 2016an, nabarmena izan da jaitsiera. Datu orokorreari erreparatzen badiegu, 2006tik 2011ra, lau urtean, 24,07 puntu egin zuen behera, %60,67tik %36,6ra. Hiru aldiz errepikatu zuten 2011ko neurketa, datuak oso baxuak zirelako, baina hiruetan eman zuen antzeko emaitza. Ondoren, ikusi dugu 2011tik 2016ra ere joera horri heldu zaiola. Beste 3 puntu behera egin du kaleko erabilerak, %33,6an gelditu arte. Horrek esan nahi du euskaraz dakitenen erdiek ere ez dutela kalean euskaraz egiten.

1989	1993	1997	2001	2006	2011	2016
%42,90	%47,12	%48,09	%54,5	%60,67	%36,6	%33,6

Iturria: Soziolinguistika klusterra. 2001era arteko neurketak Euskal Herriko neurketaren baitan egin ziren, eta udalerri mailan hain adierazgarriak ez badira ere, datu orientatibo gisa baliagarriak dira.

Datuei adin-taldeka erreparatzen badiegu, irakurketa antzekoa da; izan ere, adin-tarte guztietan egin du behera erabilerak azken hamar urteetan. Oso esanguratsuak dira haurren, gazteen eta helduen indizeen jaitsierak; izan ere, hiztunen erdiak galdu dituzte talde horiek, gutxi gorabehera. Beraz, une honetan ikusten dena da adineko pertsonak direla euskaraz gehien egiten dutenak, %52k; eta gazteak, berriz, hizkuntza gutxien erabiltzen dutenak, %14,8. Kontuan izan behar da haur eta gazte guztiak, hau da, 24 urtetik beherako bizilagunak euskaraz alfabetatu direla, D eredua soilik dagoelako Bermeon, eta horiek direla erabilera datu baxuenak eman dituztenak azken bi neurketetan, 2011n eta 2016an.

	1989	1993	1997	2001	2006	2011	2016
Haurrak	%44	%40,17	%56,06	%62,6	%69,86	%42,3	%36,3
Gazteak	%7,10	%11,69	%23,55	%39,5	%36,34	%19,1	%14,8
Helduak	%43,10	%53,16	%41,18	%51,5	%49,30	%29,5	%27,8
Adinekoak	%77,10	%86,83	%71,56	%68,4	%80,14	%59,8	%52


Iturria: Soziolinguistika klusterra. 2001era arteko neurketak Euskal Herriko neurketaren baitan egin ziren, eta udalerri mailan hain adierazgarriak ez badira ere, datu orientatibo gisa baliagarriak dira.

- Inguruko udalerriak

Bermeotik hurbilen dauden hiru udalerri koskor hartu ditugu ikusteko zer desberdintasun dauden egoera soziolinguistikoan. Gernika, Mundaka eta Busturia aukeratu ditugu, bermeotarrentzat erreferentziazko udalerriak direlako, eta herritik hurbil daudelako. Ikus dezakegun bezala, ezagutza, lehen hizkuntza zein etxeko hizkuntza indize altuena

Bermeok du lau udalerrien artean. Hau da, lehen begiratuan, bera baino erdaldunagoak diren herriak edo, behintzat, euskaraz egiteko baldintza okerragoak dituztenak ditu inguruan. Halere, aipatu behar da udalerri guztiek dutela %60tik gorako euskaldun indizea, beraz, neurri batean, euskaraz egiteko baldintzak badirela udalerri guztietan.

Dena den, kale-erabilerako datuei erreparatzen badiugu, ikusiko dugu Gernikako datuak hobeak direla. Beraz, Gernikaren kasuan, nahiz eta euskaldun masa txikiagoa izan, kaleko erabilera handiagoa da Bermeon baino. Mundakako eta Busturiako erabilera daturik ez dugu, baina etxeko erabilera Bermeokoa baino baxuagoa da.



Iturria: Eustat eta Soziolinguistika klusterraren neurketak.

4.1.2. Kokapen geografikoa

Bermeo Bizkaiko Busturialdea eskualdean kokatutako kostaldeko udalerria da. Itsasoaz eta mendiez dago inguratuta, eta Sollube eta Burgoa mendien magalean dago. Mugako udalerriak honakoak ditu: Bakio, Mundaka, Mungia, Meñaka, Arrieta eta Busturia. Eskualdeko udalerri jendetsuenetakoa da, Gernikarekin batera.


Hamar auzo ditu Bermeok: Arana, Artika, Agirre, San Andres, Almika, Arranotegi, San Migel, Demiku, Mañu eta Gibelortzaga. Dena den, biztanleriaren %95a herrigunean bizi da.

4.1.3. Demografia

- Biztanleriaren bilakaera

Biztanleriaren bilakaerari dagokionez, bi epealdi har ditzakegu; batetik, 60ko hamarkadako hazkundera; eta, bestetik, 80ko hamarkadaren ostean izandako beherakada eta haren mantentzea. 1960tik 1981a bitartean 5.200 biztanle baino gehiagoko hazkundera izan zuen udalerriak, eta hori azal daiteke 60ko eta 70eko hamarkadan Espainiako Estatutik itsasora zein beste sektore batzuetara lanera joandako jende andanarekin.

Ondoren, 1981 eta 2001 urteen artean, 1.374 pertsonako jaitsiera izan zuen, eta hori lotu daiteke portuko lanarekin. Izan ere, hamarkada horietan jaitsiera izan zuen sektore horrek, eta horrekin batera, baita lanpostuek eta bizitza aukerek ere. 2001etik aurrera, nahikoa egonkor mantendu da biztanleria, hazkunde leun batekin.




Iturria: Bermeoko Udala

- Biztanleria adin taldeka eta generoaren arabera

Biztanleriaren irudiari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu 60ko eta 70eko hamarkadan izan zirela jaiotza gehienak Bermeon. Horren ondorioz, helduak dira, 41 eta 60 urte artekoak, biztanleriaren gehiengoa udalerrian. 80ko hamarkadatik aurrera, nabarmen jaitsi zen jaiota-tasa herrian; eta, ondoren, puntu batzuk berreskuratu badira ere, haur

eta gazteak dira adin talde murriztena une honetan.



Iturria: Bermeoko Udala


4.1.4. Migrazio joerak

Migrazioari dagokionez, 2016ko datuei jarraiki, Bermeon bertan edo Bizkaian jaioetakoak dira bermeotarren %81,9. Bestalde, EAEn jaioetakoak %83,1 dira; Nafarroan edo Espainiako estatuan jaioak %8,6 dira eta %8,3, berriz, Espainiakoa ez den beste estatu batzuetan jaioak. Azken hamabost urtean, nabarmen hasi da Espainiatik kanpoko etorkinen kopurua: 213 ziren 2001n, eta 1.384, berriz, 2016an. Espainiako estatutik Bermeora joandakoena, aldiz, jaitsi egin da: 1.787 ziren 2001ean eta 1.434, 2016an. Gainontzeko zifrak, gutxi gorabehera, bere horretan mantendu dira.

- Biztanleria jaiolatuaren arabera

Atzera begiratzen badugu, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerri gehientsuenetan bezala, 60ko eta 70eko hamarkadan jaso zituen Bermeok etorkin gehien. Etorkin horiek Espainiako estatukoak ziren, eta Bermeoren kasuan, itsasora lanera iritsi ziren galiziar ugari. Horrez gain, XX. mendean, beste herrialde batzuetako pertsonak ere jaso ditu,

horiek ere lan edo bizitza hobe baten bila iritsiak.



Iturria: EUSTAT

4.1.5. Ekonomia eredua

Ekonomia ereduari begira, Bermeok lehen sektorea izan du oinarri historikoki, arrantza eta kontserbagintza. Dena den, gaur egun, ikus dezakegu udalerriko bizitza eredua aldatu dela, eta beste sektore batzuk hartu dutela pisua. Horrela, 2016ko datuei jarraiki, zerbitzuen sektorean lan egiten du herritarren gehientsuenak, %69,96k; industrian %16,43k; eraikuntzan %6,83k eta arrantzan, azkenik, %6,75ek. Beraz, esan dezakegu portuko lanak nabarmen galdu duela pisua udalerrian. Izan ere, alturako zein baxurako arrantzak tradizio handia izan du Bermeon, eta erreferentea izan da Bizkaian ez ezik, Euskal Herri osoan ere; batik bat, baxurako arratzari dagokionez. Erdi Aroan, arrantza eta komertzioko gune garrantzitsuenetakoa izan zen Bermeoko portua, eta urteetan eutsi zion horri. Gaur egun, 500 pertsona inguru aritzen dira lanean portuan eta bertako itsasontzietako bidaietan.

Dena den, aipatu behar da industriaren zati handia bat, gaur egun, kontserbagintzari lotuta dagoela. Astilleroek ere lana ematen dute herrian. Landabaso poligonoan daude Bermeoko lantegi gehienak. Jasotako langabezia tasa %9,89koa da.

4.1.6. Zerbitzuak eta ekipamenduak

17.000 biztanletik gorako udalerria izaki, hainbat zerbitzu, ekipamendu eta instalazio ditu Bermeok eguneroko bizitza bertan egiteko modua izateko. Honakoa da udalerriaren eskaintza publikoa:

Kultura

- Udal Liburutegia
- Nestor Basterretxea Aretoa
- Arrantzaleen Museoa
- Udal Artxiboa
- Gaztelekua
- LudTEOka

Kirola

- Araneko Udal Kiroldegia
- Itxas gane Futbol Zelaia
- Udal Pelotalekua /estalia
- Artza Udal Pelotalekua/estalia
- Udal Probalekuak
- Bermeoko Arraun Alkartea

Osasuna


- Anbulategia
- Bermeoko Ospitale Psikiatrikoa
- Adimen osasun zentroa
- Itsasoko Gurutze Gorria
- Bermeoko Gurutze Gorria

Hezkuntza

- Bermeoko Institutua
- CEPA Bermeo
- Luis de Eleizalde Ikastola
- Lanbide Hastapena eta Sustapena
- Udal Ikastegia
 - CEP Bermeo – San Frantzisko LHI
 - Bermeoko MGEren Nautika eta Arrantzako Lanbide Heziketako Ikastegia
 - Sagrado Corazon Ikastetxea
 - Haurreskola
 - Hizkuntza Eskola Ofiziala Bermeo


4.1.7. Turismoa

Bisitarien kopuruak nabarmen egin du gora Bermeon azken urteetan. 2008 eta 2016 urte arteko zifrei erreparatzen badiegu, %57ko gorakada izan du. 2008an, 24.246 pertsona pasatu ziren turismo bulegotik; eta 38.067, berriz, 2016an. Bermeok turistikoki erakargarriak diren txokoak ditu, eta azken urteetan izena hartu dute, besteak beste, Gaztelugatxeko San Juan ermitak edo arrantzaleen museoko Ertzilla dorreak. Horren eragile izan daiteke Game of Thrones telesail Estatu Batuarreko zati batzuk bertan errodatu izana. Oro har, egun bakarreko turistak jasotzen ditu Bizkaiko udalerriak.



Iturria: Bermeoko turismo bulegoa

Bisitarien jatorriari dagokionez, gehienak Espainiako estatukoak dira, %66a, azken datuen arabera. Ondoren, beste estatu batzuetakoak daude, %20,2; gero, Hego Euskal Herrikoak eta, azkenik, Busturialdekoak. Balore absolututan, 2008tik 2016ra, Hego Euskal Herriko eta atzerriko turistak bere horretan mantendu dira, gutxi gorabehera, baina Espainiatik iristen diren turisten kopurua igo da. Aurrez esan bezala, egun bateko bisitariak dira gehien-gehienak. Hain zuzen, udalerrria bera ere ez dago prest turistak gauez hartzeko, egoitza gutxi daudelako lo egiteko.



ITURRIA: Bermeoko turismo bulegoa

4.1.7. Elkartegintza

Bermeon elkarte ugari daude kirolaren, kulturaren eta aisiaren bueltan. Tartean, Euskeraz Berbetan euskara elkarteak ere bada. Talde guztiek ez dute funtzionatzen euskaraz, eta udalak dagoeneko abiatu du lanketa bat eragile horiekin elkarlanean hizkuntza irizpideak finkatzeko. Aisiari eta kirolari heldu diote, oraingoz. Honakoak dira herriko elkarteak:

Kirola

- Bermeo Elkartea (Karate)
- Urdaibai E.T.
- Xixili Taldea
- Bermeoko H.K. Zalea
- Judo Club Bermeo
- Sollube 707 Bermeoko M.T.
- Artza Bermeo
- Ehiza, Arrantza eta Tiro Elkartea
- Bermeoko Saskibaloi Taldea
- Arkuzko Tiroaren Bermeoko

Elkartea

- Arraun elkarteak
- Aritzatxu Triatloi taldea
- Txirrindularitza taldea
- Bermeo Futbol taldea
- Taraska Atletismo Taldea
- Kickboxing Taldea
- Izaro-Sub taldea
- Kankinkabara txistu taldea
- Familiaren garapena elkarteak
- Spookypheria Productions taldea
- Jakin badakigu informatika elkarteak
- H. FACTORY-DXE literatura eta arte banda
- Gaztelugatxe Taldea
- Bermioko Irrintzilari elkarteak
- Bermeoko Umeen Danborrada eta Erregeen Kabalgata (BUDEK)
- Bermeoko Erraldoien konpartsa
- Batun-Batun Aisialdi Kultur Elkartea
- Zantzue kultur taldea
- Alkartasuna dantza taldea
- Barrueta arte elkarteak
- Bermeoko abesbatza
- Bermeoko Txistulariak
- Bermeotarrak fanfarrea
- Erroxape emakumeen elkarteak
- Euskeraz berbetan taldea
- Asociacion Motera Izaro Bikers - Bermeo

Kultura

- La Kapilla Rock elkarteak
- Nuntxaku Kultur Elkartea
- La Kapilla Rock elkarteak
- Asociación Coro Rociero Maika
- Saregiñek - Bermeoko emakume feministen elkarteak
- Portuko Sorgiñe kultur taldea
- Itsuki irratia - Berko kultur taldea
- Izaro abesbatza
- Buztina zeramika taldea
- Kiñe bermeoko foruma
- Kokotxa kultur taldea

- MB 2000 alkartea
- Asociacion Sociocultural Bilbosalsa
- Txo Sevilla Dantza taldea
- Asociación Coro Rociero Maika
- Asociación de Bailes Caribeños
- MERKATARIAK
- Azoka berriko Merkatarien alkartea
- Berton
- Konponbide politikoa
- Bermeoarantz

"Dantzatu Gurekin"

- Jizz-Jazz
- Asociación de los senegaleses de Bermeo "Diapalante Sunu Biir"
- Alde Zaharra
- Haitz nagusje - bermeoko alde zaharreko auzo elkartea

Jubilatuak

Gizartea

- Itsasoko Jubilatuen Alkartea
- Demiku Bermeoko Jubilatuen elkartea
- Asociación de amigos del pueblo saharaui- Besalde
- Portu Zaharra elkartea

4.1.8. Hizkuntza politika

Bermeoko Udalak Euskara zerbitzu sendoa du, eta arduradun politikoaz gain, lau langilek osatzen dute Euskara saila: euskara teknikari zerbitzuburuak, hizkuntza normalkuntzarako teknikari-trebatzaileak, itzultzaileak eta administrari laguntzaileak. Horiez gain, bi batzorde dituzte: batetik, Euskara Batzordea, hainbat zinegotzik, euskara teknikariak eta administrari laguntzaileak osatzen dutena; bestetik, Euskara Aholku Batzordea, herrian hizkuntza-normalkuntzan lanean ari diren taldeek, elkarteek edo norbanakoek osatzen dutena.

Honakoak dira Euskara sailaren helburuak:

- Udalerriko gizarte sektoreetan eragiteko Plan Estrategikoa eta urteko Kudeaketa Plana prestatu, garatu, jarraipena egin eta ebaluatu.
- Udalaren Erabilera Plana prestatu, garatu, jarraipena egin, eta ebaluatu.
- Hizkuntza normalizatzeko lana gizarte sektore guztietara hedatzeko, eragileekin elkarlanean aritu eta elkarlan hori sustatu. Eragileen arteko komunikazioa sustatu eta erraztu.
- Erabilera Plana udalean garatzeko sail eta zerbitzu guztiekin elkarlanean aritu.
- Hizkuntzari prestigioa ematen dioten funtzioetan euskararen erabilera zabaltu eta sustatu.
- Zerbitzuak eta ballabideak eskaini udal langileei, gizarte eragileei eta herritar guztiei.

- Diru-laguntzak eskaini euskara ikasteko, enpresa eta merkatarientzat, gida baimena euskaraz ateratzeko...
- Aholkularitza eta laguntza kalitatezko euskara erabil dadin eta euskararen erabilera sustatzeko aholkularitza, zuzenketa eta itzulpen zerbitzua.
- Euskara planak garatzeko behar den aurrekontua kudeatu.

Bestalde, Bermeo UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide da 1994az geroztik. Horrez gain, Bermeoko hiru eskolek D eredua soilik eskaintzen dute, eta euskara ikasteko lau aukera daude: AEK, Gotzon Garitonaindia euskaltegia, Hizkuntza eskola ofiziala eta HABE. Berbalagun egitasmoa ere abian dute, etorkinentzat zein gurasoentzat. Euskarazko hedabideei dagokionez, Busturialdeko Hitza eta Itsuki irratia dituzte, eta euskararen normalizazioaren alde lanean diharduen elkarte bat ere bai, Euskeraz berbetan.

Aipatzekoa da Bermeoko Udalak Urrezko Bikain ziurtagiria jaso zuela 2011n. Bizkaiko lehen udalerria izan zen.

4.2. Ondarroa

4.2.1. Datu soziolinguistikoak

- Ezagutza

EUSTATEko datuen arabera, 1981ean ondarrutarren %75,1ek zekien euskaraz, herritarren hiru laurdenak, hain zuzen. Hurrengo bi hamarkadetan euskaldunen ehunekoak gora egin zuen: 1991n %78,4ra igo zen, eta 2001ean beste bost puntu egin zuen gora, %83,4ra. 2001etik 2011ra, aldiz, lau puntu behera egin zuen euskaldunen proportzioak, %79,1era pasa baitzen. Horiek horrela, esan dezakegu euskaldunen kopurua %80aren bueltan dabilela. Gorabeherak izan badira ere, 1991tik kopuru horren bueltan ibili da gutxi asko.

1981	1991	2001	2011
%75,1	%78,4	%83,4	%79,1

Iturria: Eustat

- Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntzari erreparatzen badiogu, eskuratu dugun lehen datua 1986koa da, urte hartan zentsuetan herritarrek aitortutakoaren arabera, %71,1ek jasotzen zuen euskara etxean. Azken datuaren arabera, kopuru hori ez da asko aldatu, 2001ean gora egin

bazuen ere, %74,1era, 2011n %69,9koa da lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa. Gorabehera batzuk izan dira, baina ez dira oso esanguratsuak, eta esan dezakegu %70en inguruan egon dela euskara etxetik jasotzen dutenen ehunekoa.

1986	1991	2001	2011
%71,7	%71,3	%74,1	%69,9

Iturria: Eustat

- Etxeko hizkuntza

Etxeko erabilerari dagokionez, 1991ko datuen arabera, %66,3k zuen hizkuntza nagusia euskara, hiru urtera kopuruak gora egin zuen ia hiru puntu eta 2001etik 2011ra behera egin zuen, %69,1etik %63,9ra.

1991	2001	2011
%66,3	%69,1	%63,9

Iturria: Eustat

2001eko datuekin alderatuta, euskarak beherakada bat izan du Ondarroan, bai ezagutza, bai lehen hizkuntza bai etxeko erabilerari dagokionez. Udalerrri euskaldunekin alderatzen badugu, joera hori errepikatu egiten dela frogatu dezakegu. Hortaz, gainontzeko gune euskaldunetan gertatu den bezala, Ondarroan ere 2001etik 2011ra euskarak atzerakada bat izan du. Ezagutza %80aren bueltan badabil ere, euskara etxetik jasotzen dutenen kopuruak behera egin du; beraz, esan dezakegu, egun, duela urte batzuk baino gehiago direla euskara eskolatik jasotzen dutenak.

- Kale erabilerako datuak

Ondarroako kaleetako erabilera neurketak 1989an hasi ziren egiten eta ordutik sei aldiz egin dira, azkena 2016an egin zen, hain justu. Lehen kale erabilera neurketek, 1989koak eta 1992koak emaitza bertsua eman zuten, lehenengoan, entzundako elkarrizketen %70,9 euskaraz izan ziren; eta, bigarrenean, %69. Beraz, akats tartea kontuan izanda, orduko argazkiak erabilera %70en bueltakoa zela adierazi zuen. Azken neurketa horretatik bi urtera, 1994an, berriro egin zen neurketa eta emaitza hamar puntu altuagoa ateratu zen. Puntu batzuetako gorabeherak tarteko, 1997 eta 2001ean antzera mantendu zen egoera, %77,2 lehenengoan eta ia lau puntu gora egin zuen 2001ean. Hortik hamar urtera egindako neurketaren emaitzak markak puskatu zituen; izan ere, ia ez zen elkarrizketarik entzun erdaraz, jasotako elkarrizketa guztietatik %93,6 euskaraz

izan baitziren, esperotako erabileratik dezente datu altuagoa atera zen. Iaz egindako kale neurketak, aitzitik, 2001eko emaitza bertsua eman zuen, batez beste, erabilera %79,7koa zela atera baitzen.

Horrenbestez, 1989 eta 1992ko kale neurketen arabera, %70en bueltan zebilen erabilera; gero, hurrengo hiru neurketetan, %80ren bueltan kokatu zen eta 2011n 12 puntu igo zen kale erabileraren datua; baina, 2016an, berriro %80ren bueltan kokatu da. 2011ko emaitzekin alderatuta, datuak 14 puntu behera egin badu ere, esku artean ditugun ezagutza tasarekin alderatzen badugu, 2016ko erabilera datua positiboa dela esan dezakegu, ezagutza baino zerbait altuagoa baita erabilera, esperotako erabileratik dezente gorago kokatuz.

1989	1992	1994	1997	2001	2011	2016
%70,9	%69	%79	%77,2	%81	%93,6	%79,7

Iturria: 1989,1992,1994, 1997 eta 2001eko datuak Udalak pasatakoak dira, 2011 eta 2016koak Soziolinguistika klusterrak egindako neurketakoak dira.

Adin-multzoei dagokienez, urteak aurrera joan ahala, haur eta gazteen erabilera indartzen eta trinkotzen joan dela ondoriozta dezakegu, gorabeheraren bat tarteko, egun %90en bueltan finkatu da erabilera. Helduei eta adinekoei dagokionez, 2016ko emaitza azken urteetako baxuena izan da bi kasuetan. 2011koarekin alderatuta, gainera, ia 20 puntu egin du behera bi kasuetan. Adinekoen kasuan, oro har, erabilera %80tik gora egon izan da, eta 2001 eta 2011n %90en bueltan. Helduen erabilerari dagokionez, urte gehienetan %70en bueltan ibili da, 2011ko datua albo batera utzita.

Oro har, esan dezakegu, hizkuntzaren erabilera oso altua dela haur eta gazteen artean eta, adinekoen azken erabilera datua baxuagoa bada ere, ikuspegi orokor batetik, altua izan dela.


	1989	1992	1994	1997	2001	2011	2016
Haurrak	%72,8	%76,3	%84	%79,6	%86,7	%96,4	%92,1
Gazteak	%59,2	%71,2	%62	%71,5	%82,5	%93,3	%92,9
Helduak	%70,2	%63,6	%70	%75,7	%77,4	%91	%72,9

Adinekoak	%89,7	%72,2	%87	%80,8	%90,1	%95,1	%76,5

Iturria: 1989,1992,1994, 1997 eta 2001eko datuak Udalak pasatakoak dira, 2011 eta 2016koak Soziolinguistika klusterrak egindako neurketakoak dira.

- Inguruko herriein alderaketa

Bermeoren kasuan bezala, alderaketa egiteko, inguruko herri koskorrenak aukeratu ditugu, Mutriku, Lekeitio eta Markina. Ezagutza tasan, pare samarrean dabilta lau herriak, guztietan %80 inguruk daki euskaraz. Ondarroa bera da datu baxuena duena, %79,1ekoa, eta altuena Mutrikuk, %80,7koa. Lehen hizkuntzari dagokionez ere gauza bera esan dezakegu, kasu honetan %70 inguru dira lau herrietan euskara etxetik jasotzen dutenak. Etxeko erabilerari dagokionez, aldiz, aldeak handiagoak dira. Mutriku da etxeko erabilera tasa baxuena duena, mutrikuarren %57,1ek aitortu du euskara erabiltzen duela nagusiki etxean eta, aitzitik, Ondarroa da erabilera tasa altuena duena, %63,9koa. Lekeitioako erabilera datua Ondarroaren antzekoa da, %63,2koa, eta Markina zerbait gutxiago hitz egiten dute etxean. Kale erabilera datuetara joaten bagara, Ondarroako kaleetako erabilera dezente altuagoa dela ikus dezakegu, beste hiru herrietan baino 10 puntu altuagoa, gutxi gehiago. Ondarrutarren fideltasuna handiagoa dela ondoriozta dezakegu datu honekin, espero daitekeen erabileratik dezente gorago kokatzen da kale erabilera.



Iturria: Eustat eta Soziolinguistika klusterra. Ezagutza, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza datuak 2011koak dira,

erabilera datuak: Ondarroakoa 2016koa, Mutrikukoa eta Lekeitiokoa 2014koak.

4.2.2. Kokapen geografikoa

Ondarroa Bizkaiko ipar-ekialdeko ertzean dagoen kostaldeko udalerria da, Lea-Artibai eskualdekoa. Bilbotik 65 kilometrora dago, eta Bizkaiko udalerririk ekialdekoena da, Gipuzkoarekiko mugan. Ondarroak Berriatua eta Mutrikurekin egiten du Muga. Berriatua 1974tik 1983ra Ondarroako auzo izan zen, anexio baten ondorioz.

Udalerriko gunerik garrantzitsuena Errenteria da, bertan portua eta etxebizitza gehienak kokatzen dira.


Gorozika auzoan, berriz, nekazaritza da nagusi, izan ere, baserriak eta ortu ugari daude bertan. Baserri horietariko batzuk balio historiko eta arkitektoniko handikoak dira

4.2.3. Demografia

- Biztanleriaren bilakaera

1950. urtetik hona bi epealdi garbi bereiz daitezke; bata goranzkoa eta bestea beheranzkoa. Gorabehera horiek fenomeno demografiko eta migratorioei lotuak izan dira gehienetan, eta aldaketa administratiboei lotuta kasu batean, 1981eko datua, hain zuzen (Berriatuaren anexioa eta desanexioa).


Batetik, 1980. urtera arte etengabeko hazkuntza eman zuen udalerriak eta biztanle kopurua ia bikoiztera iritsi zen (6.389 herritar izatetik, 12.405 izatera). Biztanleriaren igoera esanguratsuena 60 eta 70eko hamarkadatan gertatu zen. Batez ere, Espainiar Estatuko herrialdeetatik lan bila joandako etorkinez elikatu zen gorakada hori. Horretaz gain, kontutan hartu behar da 1974 eta 1983 urteen artean Ondarroak bere barruan izan zuela Berriatua (1.000 biztanle ingurukoa). Bestetik, beherakako tendentzia, 80ko hamarkadatik aurrera Ondarroa biztanleria galduz joan da. 80 eta 90eko hamarkadetan ia 3.000 biztanle galdu ditu (tartean Berriatuakoak) eta handik aurrera galera hori etengabea izan da gaur egun arte. Immigrazio olatu 'berriaren' ondorioz (gehien bat XXI. mendeko lehen hamarkadan etorritako beste kontinenteetako herritarrak) biztanleriaren galera horren efektua txikitu egin da. Egun 8.617 biztanle ditu Ondarroak.



Iturria: Ondarroarren jaiotza lekuen mapa eta biztanleriaren bilakaerara azterlan kuantitatiboa, 2014 , Aztiker. 2017Ko datua wikipediatik hartutakoa da.

- Biztanleria adin taldeka eta generoaren arabera

Ondarroako 'adin piramideak' edo biztanleria osaketak aspalditik ez du piramide itxura. Gaur egun erronbo antza handiagoa du, 70eko hamarkadatik aurrera, jaiotza tasa jaisten hasi zelako. Horrek piramidearen oinarria asko estutzea ekarri zuen eta Ondarroan urtetik urtera oinarri hori estutzen doa oraindik.



Iturria: Ondarroarren jaiotza lekuen mapa eta biztanleriaren bilakaerara azterlan kuantitatiboa, 2014 , Aztiker

Ondarroaren zahartze indizea abiadura handian handitzen joan da eta esan daiteke Ondarroak Euskal Herriko batez bestekoa baino biztanleria dezente zaharragoa daukala.

4.2.4. Migrazio joerak


Ondarroak, Euskal Herriko udalerri gehienek bezala, bi immigrazio olatu nagusi jaso ditu azken mendean zehar. Lehenik, 50, 60 eta 70eko hamarkadetan zehar Espainiako estatuko herrialdeetatik etorritakoak, batez ere, galiziarak. Eta bestetik, 90ko hamarkadan eta 2000. Urtetik aurrera mapan urrunago kokatutako estatu eta kontinenteetatik etorritakoak.

XX. mendean zehar, udalerrian bertan edo EAEn jaiotako ondarrutarren pisua murrizten joan da. 1991an ondarrutarren % 85,9a udalerrian bertan edo EAeko herrialderen batean jaiotakoa bazen, gaur egun % 82,1a da. Aldiz, EAetik kanpo jaiotakoak 1991n %14,1 izatetik gaur egun %17,8 izatera pasatu dira. Azken talde horretan eman da aldaketa garrantzitsu bat. 1991an EAetik kanpo jaiotakoen ia guztiak Espainiako Estatuko herrialdeetan jaiotakoak ziren bezala, gaur egun munduko gainontzeko herrialdeetatik etorritako herritarrek gainditu egin dituzte Espainiako Estatuko herrialdeetan jaiotakoak.

- Biztanleria jaiolekuaren arabera

Ondarroako herritarren ia bi herena (% 64,9) Ondarroan bertan jaiotakoa da. Herritarren beste hamarretik bat (% 10,7) Bizkaiko beste udalerriren batean jaio eta Ondarroan bizi dena da. Eta herritarren % 6,8 Hego Euskal Herriko gainerako hiru herrialdeetan jaio da, batez ere, Gipuzkoan. Guztira, ondarrutarren gehiengo handi bat (% 82,5) Hego Euskal Herrian jaiotakoa da.

Ondarrutarren % 17,5ek Hego Euskal Herritik kanpo kokatzen du bere jaiolekua. Horien barruan, Europar jaioak (% 10,4), Afrikan jaioak (% 3,4), Amerikan jaioak (% 3,1), Asian jaioak (% 0,5) eta Ozeanian jaiotako lau herritar. Bereziki aipagarriak dira Espainiar Estatuko gainerako herrialdeetan jaiotakoen kopurua eta baita Saharaz Hegoaldeko Afrika edota Hego Amerikan jaiotakoena ere (725, 204 eta 201 ondarrutar, hurrenez hurren).



Iturria: Ondarroarren jaiotza lekuen mapa eta biztanleriaren bilakaerara azterlan kuantitatiboa. 2014 . Aztiker

4.2.5. Ekonomia eredua

Ondarroako ekonomiak lehen sektorea du oinarri. Arrantza da hiribilduko jarduera nagusia, baina herriak baditu beste zenbait jarduera garrantzitsu ere. Aipagarriak dira, batetik, arrantzarekin lotura zuzena dituztenak, adibidez, kontserba-lantegiak; eta bestetik, arrantza-jardueraren ondorioz sortutako lantegi eta tailerrak. Ondarroako industria hainbat gunetan banatuta dago: herriaren erdigunean, Berriatuko Gardotza industrialdean eta Mutrikuko Mijoa industrialdean.

Zerbitzuen sektoreari dagokionez, Ondarroak merkataritza-eskaintza zabala dauka. Nekazaritza eta abeltzaintza direla-eta, lehenengoaren jarduera eskasa ohiko nekazaritzara mugatzen da, hau da, ortuariak, barazkiak eta antzekoak. Abeltzaintzak, berriz, aldaketa handiak izan ditu: goldatzeko animaliak erabiltzeari utzi eta haragia zein esnea ekoizteko abereen etxalde kopurua handitu egin da. Basoen egiturari dagokionez, gehienak pinudiz osatuta daude. Bertako galen landaketa alde batera utzi da eta zenbait tokitan eukaliptoak eta mahatsondoak landatu dira. Langabezia-tasa %10,76koa da.

4.2.6. Zerbitzuak eta ekipamenduak

Zerbitzuz ondo horniturik dagoen herria da Ondarroa. Eguneroko ohiko egitekoak herrian bertan egiteko arazorik ez dute herritarrek. Udalerrriak ondoko zerbitzuak eskaintzen dituen ekipamenduak ditu, besteak beste:

Erakunde ofizialak:

- Udaletxea
- Udaltzaingoa
- Ertzaintza
- Postetxea
- Turismo bulegoa
- Arrantzaleen kofradia

- Helduen Hezkuntza Orokorra
- AEK euskaltegia
- Arrantza Eskola

Osasunari lotutakoak:

- Osasun Zentroa
- "Artibai" Egoitza
- "Antiguako Ama" Egoitza

Hezkuntzari lotutakoak:

- Gurutze Gorria
- Eskola publiko eta Ikastola hasi haur hezkuntzatik eta batxilergora arte

Gazteria:

- Gaztetxea
- Gazte lekua

Berdintasuna:

- Etxellila emakumin topalekua

Kultura:


- Udal liburutegia
- Udal erakusketa aretoa

Kirola:

- Kiroldegia
- Arraun Egoitza
- Hiru frontoi
- Futbol Zelaia


4.2.7 Turismoa

2008tik 2016ra arteko datuak aztertuta, bisitari kopuruak Ondarroan gora egin duela ikus dezakegu. 2008an baino bi mila bisitari gehiago jaso zituen 2016an. Bisitari horiek, batez ere, udako hilabeteetan kontzentratzen dira, uztaila eta abuztuan. Kostaldeko beste herri batzuekin alderatuta, Ondarroak jasotzen duen bisitari kopurua ez da oso esanguratsua.



Iturria: Ondarroako turismo bulegoa

Jatorriari erreparatuz, bisitarien kopuru handi bat, erdia baino zerbait gutxiago, bertakoa edo EAE eta Nafarroakoa da. Gainontzekoa estatukoa eta atzerrikoa da. Oro har, bisitari horiek ez dira herrian lotan gelditzen, inguruko beste leku batzuetatik joaten dira herria bisitatzen. Ondarroak ez du bisitariak egun luzez jasotzeko azpiegitura handirik, hotelen eskaintza urria da. Ondarroak kanpin bakarra du, Saturrarangoa, eta, bera, ez da oso handia. Horrez gain pentsio eta nekazalturismo gutxi batzuk ditu



Iturria: Ondarroako turismo bulegoa

4.2.8. Elkartegintza

Gizarte, kultura, aisialdi eta kirol arloko elkarte ugari daude Ondarroan. Gizarte arlokoen artean askotariko helburuak dituzten elkarteak daude, besteak beste: Alkoholiko Anonimoen elkartea, minbiziaren aurkako elkartea, Caritas, Eguzki ekologi taldea, Etxerat elkartea, Perurekin Gobernu Kanpoko Erakundea, Avifes, Gorabide, Gurutze Gorria, pertsona menpekoen zaintzaileen elkartea.

Hezkuntzari alorrari lotuta, lau guraso elkarte daude: Abantin, Egunsentia, Hondar Ahua eta Iparra.

Kulturari lotuta, hogeita hamar elkarte inguru aurkituko ditugu: akordeoi orkestra, abesbatza eta adintsuen aisialdiko ekintzak, argazkizaleak, Arranondo Kultur Elkartea, Artelan Kultur Elkartea, Astilleru Itsasontzi, Bertsutan elkartea, Casa de Galicia, Dantzarte Ballet Elkartea, metal taldea, Txo! Antzerki taldea, Senegaldarren Elkartea,

Jazz-Dantza Elkarteak, Txistularien Elkarteak, Kresala (musika banda, dantza taldea, trikitixa, solfeoak..)

Aisialdiari lotuta bi elkarte nagusi daude: Olga eta Txirrimorraski.

Azkenik, Kirol arloari lotuta askotariko elkarteak daude: Arrigorri Itsas Arrantza Elkarteak, Artibai Judo Taldea, Aurrera Mendi Taldea, Aurrera Futbol Taldea, Aurrera Txirrindu Elkarteak, Koaxi Triatloi Taldea, Ondarroa Arraun Elkarteak, Ondarroako Urpeko Elkarteak, Ondarru Igeri Taldea, Ondarru Karate Taldea, besteak beste.

4.2.9. Hizkuntza politika

Ondarroako Udalak Euskara Zerbitzua du, bertan euskara teknikari bat ari da lanean eta Euskara Batzordea ere badago egiten den lanari jarraipena egiteko eta eginkizun eta ildo berriak proposatzeko.

Udalak Erabilera Plana du eta baita herrira begirako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana ere. Horrez gain, udalerri euskalduna izaki, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide izan zen 2000tik 2006ra eta, gaur egun, 2012tik orain artean.

Udaleko Euskara Zerbitzuaren eginkizun nagusia da euskararen erabileraz arduratzea, eta horretarako, normalizatzeko neurriak proposatu eta planak garatzea. Bi jardueragune nagusi ditu: alde batetik, Udaleko jarduna, eta bestetik, herriko esparru zabala: familia, merkataritza, lan-mundua, zerbitzugintza... Udal barruan Euskararen Erabilera-Plana eta Euskararen Udal ordenantza betetzeaz arduratzen da eta herri mailan Euskara Sustatzeko Ekintza-Plana prestatu, ekintzak bideratu eta jarraipena egiten du.

Euskararen sustapenerako egitura eta baliabideei dagokionez, hona hemen informazio esanguratsuena:

- Ondarroan lau ikastetxe daude (bi publikoak eta bi ikastolarenak) eta guztietan D eredua baizik ez dago. Ikastetxeek abian dituzte hizkuntza-normalizaziorako programak.
- Euskara klaseak eskaintzen AEK euskaltegia ari da herrian.
- Euskarazko hedabideei dagokionez, Lea-Artibaiko Hitza dago eta nazio mailakoak daude.

5. IKERKETA METODOAK

Udalerrien inguruko deskribapen datuak bildu ostean, herritarren pertzepzio, ohitura eta iritzietan oinarritu nahi izan dugu ikerlan hau. Izan ere, hizkuntza hautuen inguruan ondorioak ateratzeko, beharrezkoa da herritarren esperientziatik begiratzea gaiari. Horretarako, ikerketa metodo kuantitatiboak eta kualitatiboak erabili ditugu. Inkesta erabili dugu metodo kuantitatibo bezala, eta horrela herritarren joera eta iritzien inguruko zenbakiak jaso ditugu, horiek unibertsalizatzeko. Bestalde, baliabide kualitatibo gida, elkarrizketa sakonak eta talde eztabaidak hautatu ditugu. Bi teknika horiek aukera eman digute herritarrekin hitz egiteko, beraien motibazio eta arrazoiak ezagutzeko, eta egoeraren azterketa pausatuagoa egiteko. Ikergaiarekiko gertutasuna eman digu horrek. Jarraian azalduko ditugu bi teknikak nola garatu diren, eta zer informazio eman diguten.

5.1. Ikerketa kuantitatiboa

5.1.1. Inkesta: metodoaren azalpena

Datu bilketa egiteko teknika kuantitatiboa erabili dugu. Laginketa egin, eta modu ordezkagarri batean ikusi nahi izan dugu zein diren herritarren hizkuntza ohiturak eguneroko harremanetan, lanean, aisian, kultur kontsumoan eta abarretan. Horrez gain, inguruko udalerriekin duten lotura eta horren eragina ere usaindu nahi izan dugu.

5.1.2. Laginketa

Lagina populazioaren edo unibertsoaren zati adierazgarria da, eta bere ezaugarriak aztertuz, populazioari dagozkion emaitzak eta ondorioak lortzea ahalbidetzen du. Laginaren helburua populazio osoaren eredu murriztuak eraikitzea da, ondoren unibertso osora, gure kasuan dagokion udalerrira, ondorioak zabaltzeko.

Laginketa egiteko, unibertsoa zehaztu behar dugu lehenbizi. Gure kasuan, Bermeoko eta Ondarroako bizilagunek osatzen dute unibertsoa: 17.145 pertsonak Bermeon eta 8.617 pertsonak Ondarroan. Unibertso finitua da, beraz, eskuartean duguna. Hori horrela, honako formularen bitartez atera dugu lagina:

$$n = \frac{Z^2 \cdot p \cdot q \cdot N}{(E^2 \cdot (N-1)) + Z^2 \cdot p \cdot q}$$


Errore tarte 5 puntukoa izanda, eta konfiantza maila %95ekoa, Bermeoren kasuan, 345 inkesta egin behar ditugu datuak unibertsalizatzeko; eta Ondarroan, 332 inkesta.


Laginketaren izaerari dagokionez, elur bolaren laginketa metodoa erabili dugu. Hau da, Interneten zintzilikatu dugu galdetegia, eta sare sozialen bidez zabaldu dugu bi udalerrietan. Horrez gain, herriko elkarteei eta norbanakoei eskatu diegu beraien inguruan galdetegia betetzeko eta zabaltzeko. Modu horretara, laginean ateratako gutxiengoa baino inkesta gehiago lortu ditugu: 526 Bermeon eta 498 Ondarroan.

Jakitun gara elur bolaren teknika ez dela egokiena langin bateko parte-hartzaileak aukeratzeko. Izan ere, inkestak zabaltzen dituen pertsona eta elkarteek izaera eta eragin-eremu zehatz bat dute, eta horien informazioa iristen da bueltan. Horrez gain, galdetegia Internet bidez egiteak ere bere mugak ditu. Dena den, gure denbora eta baliabide ekonomikoak kontuan izanda, horixe da ondoen zegokigun teknika, eta gabeziak gabezi, uste dugu datu esanguratsuak biltzea lortu dela.

5.1.3. Laginketaren osaera

Unibertsoa eta lagina alderatzen baditugu, Bermeoren kasuan, ikusten dugu unibertsoan laginean baino adineko gehiago daudela. Izan ere, Bermeoko bizilagunen %48 50 urtetik gorakoak dira, eta lagina bete duten herritarretatik %17,30 soilik dira adin-tarte horretakoak. Gazteei eta helduei dagokionez, ezin izan ditugu unibertsoa eta lagina zehatz mehatz alderatu, ez ditugulako datuak adin-tarte beretan banatu. Dena den, kasu horietan, adierazgarria da lagina; izan ere, bat egiten du, gutxi gorabehera, unibertsoaren eta laginaren osaerak.







Iturria: 1 grafikoa: inkestak.

2 grafikoa: Bermeoko Udala.

Ondarroaren kasuan, antzeko egoera dugu. 50 urtetik gorako bizilagunak erdiak baino gehiago dira, %55,4; eta laginean jaso ditugun inkestetatik, %23,1 dira adin-talde horretakoak. Gainontzeko adin-multoak ondo daude ordezkaturak.





Iturria: 1 grafikoa: inkestak.

2 grafikoa: Ondarroako Udala.

Laginen eta unibertsoaren inguruko konparaketa ikusita, garbi gelditzen da 50 urtetik gorakoen presentzia falta dagoela. Dena den, hizkuntz ohiturak aztertzerakoan, uste dugu interesgarria izan daitekeela gazteen eta helduen iritziak pusketa handia hartzea ere. Izan ere, haiek kalean eta gizartean eragina izaten hasi direnetik ikusten dira aldaketan euskararen erabileran. Beraz, adinekoek betetako inkesta gutxiago izatearen hutsunetik abiatzen bagara ere, uste dugu lagina interesgarria izan daitekeela.

5.1.3. Eraitzen aurkezpena

Bermeo


Bermeoko 526 bizilagunek bete dute galdetegia. Erantzun dutenen artean, %12,2 gazteak dira, 16 eta 24 urte artekoak; %70,5 helduak, 25 eta 50 urte artekoak eta %17,3 adinez nagusiak dira, 51 urtetik gorakoak. Horietatik, %71,3 emakumeak dira; eta %28,7, gizonak. Arestian aipatu bezala, unibertsoari begira jarritz gero, bizilagunen %18,8 dira gazteak; %33,2 helduak eta %48, berriz, adinekoak.

Jairolekuari dagokionez, %76,3 Bermeon jaiotakoak dira, %12,1 Bilbon jaioak eta %4 Gernikan. Kopuru baxuagoetan, baina, aipatu dituzten beste jaioleku batzuk dira, Barakaldo, Irun, Mundaka, Ondarroa edo Mutriku. Atzerriko lekuak ere aipatu dituzte, esaterako, Madril edo Valentzia.

- Hizkuntza-gaitasun erlatiboa


Hizkuntzaren gaitasunari dagokionez, erdiak baino gehiagok esan du euskaraz zein gaztelaniaz berdin moldatzen direla, %50,3k, alegia. Ondoren, %38,5ek esan du euskaraz moldatzen dela hobekien, eta %10,8k gaztelania aukeratu dute. %0,4 beste hizkuntza batean moldatzen da ondoen.

Bermeoko hizkuntza-gaitasuna, 2016 (%)




Adin-taldeei erreparatzen badiogu, badira desberdintasun batzuk. Esaterako, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, %51,6k erantzun du euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen dela, eta joera hori adierazi duen adin-talde bakarra izan da; %42,2k erantzun du bi hizkuntzak berdin menderatzen dituela, eta %4,7k, berriz, gaztelaniaz erosoago aritzen dela. 25 eta 50 urte bitartekoen kasuan, %49,8k erantzun du bi hizkuntzatan berdin moldatzen dela; %38,3k errazago egiten duela euskaraz; eta %11,5ek gaztelania hobetsi du. Adinekoen kasuan, %58,2 bi hizkuntzatan berdin sentitzen da; %29,6 euskaraz moldatzen da ondoen, %11k gaztelania aukeratu du, eta %1ek beste hizkuntza bat.

Bermeoko hizkuntza-gaitasuna, adin-taldeka, 2016 (%)



Gaitasunaz gain, galdetu zaie zer jarrera hartzen duten hizkuntza erabiltzerakoan. Erdiak baino zerbait gehiagok, %51,7k, aukera duen guztietan euskaraz egiten duela esan du, ondoren, beste %29k euskaraz nahiago badu ere, egoera erosoagoa bada gaztelaniaz egiteko ez duela arazorik erantzun du. Neurri txikiagoan, %15,7k hizkuntza batean edo bestean aritzea berdin zaiola esan du eta, azkenik, %3,6k erantzun du euskara egoerak horrela eskatzen duenean soilik erabiltzen duela.


Bermeoko hizkuntzen gaineko jarrera, 2016 (%)



Datu horri adin taldeka erreparatzen badiogu, ikus dezakeguna da adinekoak direla

euskarari gehien eusten diotenak, eta, aitzitik, gazteen adin-taldea gutxien eusten diotenak. Aukera duten guztietan euskaraz aritzen direla esan dutenak gehiengoa izan dira adin-talde guztietan, nahiz eta kopuruetan aldea egon, adinekoen %61,6k erantzun du aukera hori, helduen %50,3k eta gazteen %46k. Kopuru txikiagoan, euskaraz nahilago badute ere, egoera erosoagoa bada, gaztelaniaz egitea axola ez zaiela aitortu dute gazteen %36,5k, helduen %28k eta adinekoen %25,3k. Euskara egoerak hala eskatzen duenean soilik egiten dutela esan dutenak gehiago izan dira gazteak- %6,4k- eta gutxiago adinekoak -%1,1- .

Bermeoko hizkuntzen gainekeo jarrera, adin-taldeka, 2016 (%)




- Etxea

Erantzun dutenen artetik %86,7 etxetan denak dira euskaldunak eta %13,3n kideetakoren bat edo batzuk erdaldunak dira etxean.

%69,3k euskara du hizkuntza nagusia etxean, %26k euskara eta gaztelania eta %4,7k gaztelania. Honek adierazten du, etxean denak euskaldunak izan arren, familia batzuk erdararako joera badutela. Aitzitik, kideetakoren bat edo batzuk erdaldunak izan arren, hainbat etxetan euskara edo bi hizkuntzak erabiltzen dituzte.

1. Bermeoko etxeetako hizkuntza-gaitasuna, 2016 (%)

2. Bermeoko etxeetako hizkuntza-erabilera, 2016 (%)




Eustaten datuekin alderatuta, galdetegia erantzundako laginak euskara nabarmen gehiago erabiltzen du etxean, 2011ko datuaren arabera, %44,5ek erabiltzen baitu euskara nagusiki.

- Eskola/lana

Gelakideen edo lankideen artean nagusiki euskaraz aritzen dira %43,7; %27 bi hizkuntzatan eta %28,7 nagusiki gaztelaniaz. Ingelesez, katalanez edo beste hizkuntza batean aritzen denik ere bada, %0,6.

Bermeotarren eskola eta laneko hizkuntza, 2016 (%)




-Lagunartea

Lagunarteko hizkuntza nagusia euskara dute erantzun dutenen %56,8k. %27,4k euskara

eta gaztelania maila berean erabiltzen dutela aitortu du, eta %15,6k gaztelania erabiltzen du nagusiki.

Bermeotarren lagunarteko hizkuntza, 2016 (%)




Adin multzoei dagokionez, lagin honetako datuek ez dute bat egiten Soziolinguistika klusterrak eginiko kale-neurketarekin. Izan ere, gazteen artean, %68,2k esan dute euskaraz aritzen direla lagunartean; %14,3k bi hizkuntzak erabiltzen dituztela, eta %17,5k gaztelaniaz aritzen direla. Kale-neurketako datuen arabera, gazteen %14,8k erabiltzen du euskara elkarriketetan. Helduen kasuan ere lagineko zifrak altuagoak dira: %57,3k esaten du euskaraz hitz egiten duela lagunartean; %25,4k bi hizkuntzak erabiltzen dituela, eta %17k gaztelaniaz egiten duela. Kale-neurketako datuen arabera, %27,8 dira kalean euskaraz egiten dutenak. Adinekoei erreparatzen badiegu, %47,3k dio euskaraz aritzen dela; %44k bi hizkuntzak erabiltzen ditu, eta %8,8k egiten du gaztelaniaz. Datu hau da kale-neurketaren eta gehien hurbiltzen dena; izan ere, haren arabera, %52 dira euskaraz egiten dutenak.

Gazteak dira euskaraz gehien egiten dutela esaten dutenak, eta erabilera datuetan, hain justu, zifra baxuenak adin tarte horretan atera dira. Gainontzeko multzoetan ere lagin honetako emaitzak asko aldentzen dira Soziolinguistika klusterraren neurketatik.

Adin-multzoak konparatzen baditugu, gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutela esaten dutenak; baina gaztelania gehien erabiltzen dutela ere beraiek aitortzen dute. Beste aldean, adinekoak euskara eta gaztelaniaz, biak, gutxien erabiltzen dituen taldea

dira, eta biek dute bi hizkuntzak nahasteko joera handiena.

Bermeotarren lagunarteko hizkuntza, adin-taldeka, 2016 (%)




- Kultur kontsumoa


Kultur kontsumoari dagokionez, egoera bestelakoa da. %60,2k musika euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan maila berean entzuten dute, %27,7k bereziki beste hizkuntza batzuetan eta %8,9k euskaraz nagusiki. Horiez gain, %1,5ek ingelesez entzuten dute, gehien bat, eta %0,4k gaztelaniaz. Gainontzekoek ez dute musika entzuten edo irratian jarritakoa entzuten dute.

Liburuei dagokienez, %63,5ek erdaraz irakurtzen du, %24,7k euskaraz eta gaztelaniaz maila bertsuan eta %6,6k euskaraz. Bestalde, %1,3k ingelesez irakurtzeko ohitura du, %2,5ek esan du ez duela irakurtzen libururik, eta gainontzekoek beste hizkuntza batzuetan leitzeko ohitura dute.

Bermeotarren musika kontsumoa, hizkuntzen arabera, 2016 (%)



Bermeotarren liburuen kontsumoa, hizkuntzen arabera, 2016 (%)



- Sare sozialak eta komunikabideak


Whatsapp-eko erabilera nagusiki euskaraz -%50,2- edo bi hizkuntzatan -%35,4-, gaztelaniaz, %13,7k egiten du. Sare sozialetan, %30,2 aritzen dira nagusiki euskaraz eta, aitzitik, %39,7 gaztelaniaz. %20,3k esan du bi hizkuntzatan berdina aritzen dela. %0,6k gaztelaniaz idazten du, eta %6,8k ez du halako konturik. Gainontzekoek esan dute hizkuntzak nahasian erabiltzen dituztela, %2,4k.

Prentsa %12,2k irakurtzen du nagusiki euskaraz eta %55,5ek gaztelaniaz nagusiki. Bi hizkuntzetan irakurtzen dutenak %29,5 dira, eta gainontzekoek beste hizkuntzaren batean irakurtzen dute -%0,2- edo ez dute irakurtzen -%2,7-.

Interneteko nabigazioa, oro har, %11,4k egiten du nagusiki euskaraz eta erdiak baino gehiagok -%67,1ek- nagusiki gaztelaniaz. %18k bi hizkuntzak erabiltzen ditu, eta gainontzekoek ingelesez egiten dute bilaketa, %1,3k. %0,4k esan du hiru hizkuntza erabili ohi dituztela.

Azkenik, telebista da euskaraz gutxien kontsumitzen dena, izan ere, %2,5ek soilik ikusten du euskaraz, eta hiru laurdenak baino gehiagok gaztelaniaz, %67,12k. Gainontzekoek bi hizkuntzatan -%31,9- edo ingelesez -%0,6- ikusten dute, eta %1,7k ez du ikusi ere egiten.

Bermeotarren sare sozialen eta komunikabideen kontsumoa, hizkuntzen arabera sailkatuta, 2016 (%)



- Mugikortasuna, herritik kanporakoa


Lana eta ikasketak

Lana edo ikasketak direla-eta bermeotarren %58 kanpora atera behar izaten da. Kanpora ateratzen direnen artean, kopuru handiena Bilbora joaten da, %32,5a, hain zuzen. Gernikara -%6,2-, Leioara -%3,3-, Mundakara -%1,6-, Zamudiora -%1,6- eta


Zornotzara -%1,6- joaten da, ondoren, jende gehien. Horiez gain, Espainian, Europan eta munduan zehar bidaiatzen duten langileak ere badira.

Hizkuntza portaerari dagokionez, gehienek esan dute “ahal dutenean” euskara erabiltzen dutela, %68,8k. %10,5ek esan du beti egiten duela euskaraz, eta %11,4k gaztelaniaz egiten duela. %7,6k bi hizkuntzak berdintsu erabiltzen ditu. Gehiengoak, beraz, euskarari eutsi egiten dio kanpora ateratzen denean, edo helburu hori du.

Bermeon eta Bermeotik kanpo lan egiten dutenak, 2016 (%)



Bermeotarren laneko eta eskolako hizkuntza, 2016 (%)




Ez ohiko erosketak eta aisialdia

Nabarmentzekoa da Bermeoko bizilagunek joera handia dutela erosketak egiteko udalerritik irteteko. %40,3k esan du askotan irteten direla herriatik kanpora; %42,6k, batzuetan; %12,7k, gutxitan eta soilik %4k esan du Bermeon egiten dituela beti erosketak. Erosketetara herriatik irteten direnean, %42,2k esan du lehen hitza euskaraz


egiten duela beti; %44,1ek batzuetan egiten duela euskaraz; %8,2k ezagutzekin soilik egiten duela euskaraz, eta %4k, zuzenean gaztelaniaz egiten duela.

Aisiari dagokionez ere asko dira herritik kanpo irteten direnak zerbitzu horiek jasotzeko: %30,6k askotan erantzun du; %47k batzuetan; %16,9k gutxitan eta %4,4k soilik erantzun du inoiz ez dela irteten. Kasu honetan, %36,9k esaten dute lehen hitza euskaraz egiten dutela beti; %46k, batzuetan egiten dutela euskaraz; %7k ezagunekin soilik egiten dutela euskaraz eta %8,4k, zuzenean gaztelaniaz egiten dutela.

Bermeon ez ohiko erosketak eta aisialdia kanpoan egiten dutenak, maiztasunaren arabera, 2016 (%)



Bermeotarren erosketetako eta aisialdiko hizkuntza herritik kanpora, 2016 (%)



- Mugikortasuna, kanpotik herrirakoa


Bisitariak

Turismoak herriko euskararen egoeran eragina duen galdetuta, %41,8k uste du ez duela ia eraginik, %32,5ek uste du neurri apalean duela eragina, eta %24,9k eragin handia duela.

Lehenengo hitza euskaraz egiten dute beti kanpotarrekin %58k, euskaraz dakiela dakienean soilik egiten dutenak %35,1 dira eta %6,3k gaztelaniaz egiten du beti. Beraz, kanpotarrekin ere joera orokorra euskarari eustea dela esan dezakegu.

Bermeon turismoaren eraginaren gaineko iritzia, 2016 (%)
, 2016 (%)


Bermeotarren hizkuntza-ohiturak bisitariekin



Etorri berriak

Etorri berriek herriko euskararen egoeran eragina duten galdetuta, denetariko iritzia daude, baina baiezkoa gailentzen da, oro har. Gehiengoak dio, %41,6k, neurri handian eragiten dutela; %39k esaten du neurri apalean eragiten dutela, eta %18k uste du ez dutela ia eraginik herriko egoera soziolinguistikoan.

Bermeon etorri berrien eraginaren gaineko iritzia, 2016 (%)




Etorri berriekin izaten dituzten hizkuntza ohiturei dagokionez, euskara egiten dute haien maila kontuan hartuta %29,7k; %27 deseroso sentitzen da euskaraz, aurrean duenak ez badu maila ona, %30,3ri berdín zaio zer hizkuntzatan egin eta %13ak gaztelaniaz egiten du.

Etorri berriak (herrian bost urte baino gutxiago bizitzen daramatenak) herrikideekin euskaraz aritzen dira ahal duten guztietan, %71; euskaraz egiten dionarekin euskaraz egiten saiatzen da %17, kopuru txikiagoan; %7,8ri berdin zaio euskaraz edo gaztelaniaz egin eta %14k gaztelaniaz egiten du beti.

Bermeotarren hizkuntza jarrera bisitariekin, 2016 (%)
, 2016 (%)

Bermeotar etorri berrien hizkuntza ohiturak



Ondarroa


Ondarroako 498 bizilagunek bete dute galdetegia. Erantzun dutenen artean, %17,1 gazteak dira, 16 eta 24 urte artekoak; %59,8 helduak, 25 eta 50 urte artekoak eta %23,1 adinez nagusiak dira, 51 urtetik gorakoak. Horietatik, %70,9 emakumeak dira; eta %29,1, gizonak. Ondarroako unibertsoari begira jarritz gero, bizilagunen %9 dira gazteak; %35,6 helduak eta %55,4, berriz, adinekoak.

Jaiolekuari dagokionez, %82,7 Ondarroan jaioetakoak dira, %5,4 Bilbon jaioak, %1 Gernikan eta beste %1 Mendaron. Beste udalerrri batzuetan jaioak ere badira, baina kopuruak baxuagoak dira: Durango, Bermeo, Mutriku, Donostia, Azkoitia edo Usurbil, esate baterako. Atzerriko lekuak ere aipatu dituzte, esaterako, Madril, Italia eta Venezuela.

-Hizkuntza-gaitasun erlatiboa


Hizkuntzaren gaitasunari dagokionez, %75,7k dio euskaraz gaztelaniaz baino hobeto moldatzen dela. %22,3k bi hizkuntzan menderatzen dituzte maila bereran, eta %1,2k adierazi du gaztelania hobesten duela. Beste hizkuntza bat aukeratu dute %0,4k.

Ondarroako hizkuntza-gaitasuna, 2016 (%)




Adin-taldeei erreparatzen badiegu ere, adin talde guztietan gailentzen da euskararekiko gaitasuna gaztelaniarekin alderatuta. Esaterako, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, %84,7k erantzun du euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen dela; %15,3k erantzun du bi hizkuntzak berdin menderatzen dituela, eta inork ez du esan gaztelaniaz erosoago aritzen denik. 25 eta 50 urte bitartekoen kasuan, %78,5ek dio euskaraz duela gaitasun handiena; %19,1ek bi hizkuntzekin berdin moldatzen dela; %1,7k gaztelaniaz moldatzen dela ondoen, eta %0,3k beste hizkuntza bat aukeratu du. Adin-talde hori da gaztelania ondoen menderatzen duena. 51 urtetik gorakoen artean, %61,7k esan du euskaraz moldatzen dela ondoen; %35,7k bi hizkuntzak berdin menderatzen dituela; eta gaztelania zein beste hizkuntza bat %0,9k aukeratu dute.

Ondarroako hizkuntza-gaitasuna, adin-taldeka, 2016 (%)



Gaitasunaz gain, galdetu zaie zer jarrera hartzen duten hizkuntza erabiltzerakoan. Gehiengo handi batek, %81,7k, esan du aukera daukan guztietan euskaraz berba egiten duena, neurri txikiagoan, %15,7k esan du euskaraz nahiago badu ere, egoera erosoagoa bada, gaztelaniaz egiteko ez duela arazorik eta, neurri txikian, %2,6k esan du berdina zaiola hizkuntz abatean edo bestean aritu.

Ondarroako hizkuntzen gaineko jarrera, 2016 (%)



Datu horri adin taldeka erreparatzen badiogu, honakoak dira emaitzak:

16-24 urte:

- Aukera daukadan guztietan euskeraz egiten dot berba: %77,6.
- Euskeraz nahiago badot be, egoera erosoagoa bada gaztelaniaz egiteko ez daukat arazorik: %22,4.


25-50 urte:

- Aukera daukadan guztietan euskeraz egiten dot berba: %86,9.
- Euskeraz nahiago badot be, egoera erosoagoa bada gaztelaniaz egiteko ez daukat arazorik: %13.
- Bardin jate hizkuntza batean edo bestean berba egitea: %4,1.

51tik gorakoak:

- Aukera daukadan guztietan euskeraz egiten dot berba: %81,7.
- Euskeraz nahiago badot be, egoera erosoagoa bada gaztelaniaz egiteko ez daukat arazorik: %17,4.
- Bardin jate hizkuntza batean edo bestean berba egitea: %0,9.

Ondarroako hizkuntzen gaineko jarrera, adin-taldeka, 2016 (%)




- Etxea

Erantzun dutenen artetik %93,3 etxetan denak dira euskaldunak eta %6,7n kideetakoren bat edo batzuk erdaldunak dira etxean.

%94,4k euskara du hizkuntza nagusia etxean, %4,6k euskara eta gaztelania eta %0,6k gaztelania. Horren arabera, etxean guztiak euskaldunak ez izan arren, askotan, euskaraz egiten dutela ikusten da.

Ondarroako etxeetako hizkuntza-gaitasuna, 2016 (%)

Ondarroako etxeetako hizkuntza-erabilera, 2016 (%)




Eustaten datuekin alderatuta, galdetegia erantzundako laginak euskara nabarmen gehiago erabiltzen du etxean, 2011ko datuaren arabera, %63,9k erabiltzen baitu euskara nagusiki.

- Eskola/lana

Gelakideen edo lankideen artean nagusiki euskaraz aritzen dira %84,1; %4,8 bi hizkuntzatan eta %6,4 nagusiki gaztelaniaz. %0,2k, berriz, ingelesez egiten du lana.


Ondarrutarren eskola eta laneko hizkuntza, 2016 (%)



- Lagunartea

Lagunarteko hizkuntza nagusia euskara dute erantzun dutenen %97,6k. %1,4k euskara eta gaztelania maila berean erabiltzen duela aitortu du, eta %1ek gaztelania erabiltzen du nagusiki.


Ondarrutarren lagunarteko hizkuntza, 2016 (%)



Adin multzoei dagokionez, gazteen artean, %98,8k esan dute euskaraz aritzen direla lagunartean; eta %1,2k gaztelaniaz egiten duela. Kale-neurketako datuen arabera, gazteen %92,9k erabiltzen du euskara elkarrizketetan. Helduen kasuan ere lagineko lagunarteko erabilera altuagoa da: %96,6k esaten du euskaraz hitz egiten duela lagunartean; %2k bi hizkuntzak erabiltzen dituela, eta %1,4k gaztelaniaz egiten duela.

Kale-neurketako datuen arabera, %72,9 dira kalean euskaraz egiten dutenak. Adinekoei erreparatzen badiegu, %99,1ek dio euskaraz aritzen dela, eta %0,9k bi hizkuntzak erabiltzen ditu; kale neurketako datua baino -%76,5- dezente altuagoa hori ere.

Ondarrutarren lagunarteko hizkuntza, adin-taldearen arabera, 2016 (%)




- Kultur kontsumoa


Kultur kontsumoari dagokionez, egoera bestelakoa da. %59k musika euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan maila berean entzuten dute, %24,5ek euskaraz entzun ohi du, eta %15ek beste hizkuntza batzuetan. Horiez gain, %0,6k ingelesez entzuten dute. Gainontzekoek ez dute musika entzuten.

Liburuei dagokienez, %43,8ek erdaraz irakurtzen du, %35,3k euskaraz eta gaztelaniaz maila bertsuan eta %15ek euskaraz. Bestalde, %0,6k ingelesez irakurtzeko ohitura du, %2,4k ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz leitzen dute, eta %2,8k esan du ez duela irakurtzen libururik.

Ondarrutarren musika kontsumoa, hizkuntzen arabera, 2016 (%)



Ondarrutarren liburuen kontsumoa, hizkuntzen arabera, 2016 (%)



- Sare sozialak eta komunikabideak

Whatsapp-eko erabilera nagusiki euskaraz da, %93,4k egiten du euskaraz, eta gainontzekoek, %5,6k, gaztelaniaz erabiltzen du. Sare sozialetan, %59,4 aritzen dira nagusiki euskaraz eta, aitzitik, %15,5 gaztelaniaz. %14k esan du bi hizkuntzatan berdín


aritzen dela. %10ek ez du halako konturik.

Prentsa %33,7k irakurtzen du nagusiki euskaraz eta %26,1ek gaztelaniaz nagusiki. Bi hizkuntzetan irakurtzen dutenak %37,7 dira, eta gainontzekoek beste hizkuntzaren batean irakurtzen dute -%0,2- edo ez dute irakurtzen -%2,2-.

Interneteko nabigazioa, oro har, %21,5ek egiten du nagusiki euskaraz, eta %47,1ek nagusiki gaztelaniaz. %27,7k bi hizkuntzak erabiltzen ditu, eta gainontzekoek ingelesez egiten dute bilaketa, %2,2k.

Azkenik, telebista da euskaraz gutxien kontsumitzen dena, izan ere, %12,6k soilik ikusten du euskaraz, eta %36,3k gaztelaniaz. Gehien-gehienek bi hizkuntzatan ikusten dute, %47,8k. %1ek ingelesez ikusten du, eta %1,4k ez du ikusten telebista.

Ondarrutarren sare sozialen eta komunikabideen kontsumoa, hizkuntzen arabera, 2016 (%)




- Mugikortasuna, herritik kanporakoa

Lana eta ikasketak

Lana edo ikasketak direla-eta bermeotarren %60 kanpora atera behar izaten da. Kanpora ateratzen direnen artean, kopuru handiena Bilbora joaten da, %19,8a, hain zuzen. Gasteizera -%8-, Donostiara -%6,7-, Elgoibarrera -%5,7-, Markinara -%7,7- eta


Eibarrera -%3- joaten da, ondoren, jende gehien. Horiez gain, Espainian, Europan eta munduan zehar bidaiatzen duten langileak ere badira.

Ondarroan eta Ondarroatik kanpo lan egiten dutenak, 2016 (%)



Hizkuntza portaerari dagokionez, gehienek euskara erabiltzen dute beti lanean, %51,2k. Ia beste horrenbestek esan du "ahal duenean" egiten duela euskaraz lantokian, %49k. %2,6k erdaraz egitea beste erremediorik ez du beharrean.

Ondarrutarren laneko eta eskolako hizkuntza, 2016 (%)




Ez ohiko erosketak eta aisialdia

Nabarmenezkoa da Ondarroako bizilagunek joera handia dutela erosketak egiteko udalerritik irteteko. %34,7k esan du askotan irteten direla herrikan kanpora; %49,8k, batzuetan; %10,8k, gutxitan eta soilik %4,6k esan du Ondarroan egiten dituela beti erosketak. Erosketetara herrikan irteten direnean, %61,4k esan du lehen hitza euskaraz


egiten duela beti; %35,1ek batzuetan egiten duela euskaraz; %1,4k ezagutzekin soilik egiten duela euskaraz, eta %2k, zuzenean gaztelaniaz egiten duela.

Aisiari dagokionez ere asko dira herritik kanpo irteten direnak zerbitzu horiek jasotzeko: %22,3k askotan erantzun du; %51,4k batzuetan; %21ek gutxitan eta %5,2k soilik erantzun du inoiz ez dela irteten. Kasu honetan, %64k esaten dute lehen hitza euskaraz egiten dutela beti; %31,5ek, batzuetan egiten dutela euskaraz; %1,4k ezagunekin soilik egiten dutela euskaraz eta %1,6k, zuzenean gaztelaniaz egiten dutela.

Ondarroan ez ohiko erosketak eta aisialdia kanpoan egiten dutenak, maiztasunaren arabera, 2016 (%)



Ondarrutarren erosketetako eta aisialdiko hizkuntza herritik kanpora, 2016 (%)



- Mugikortasuna, kanpotik herrirakoa


Bisitariak

Turismoak herriko euskararen egoeran eragina duen galdetuta, %49,2k uste du ez duela ia eraginik, %30,1ek, neurri apalean duela eragina, eta %19,3ek eragin handia duela.

Lehenengo hitza euskaraz egiten dute beti kanpotarrekin %77,7k, euskaraz dakiela dakienean soilik egiten dutenak %21,3 dira eta %0,8k gaztelaniaz egiten du beti. Beraz, kanpotarrekin ere joera orokorra euskarari eustea dela esan dezakegu.

Ondarroan turismoaren eraginaren gaineko iritzia, 2016 (%)


Ondarrutarren hizkuntza-ohiturak bisitariekin , 2016 (%)



Etorri berriak

Etorri berriek herriko euskararen egoeran eragina duten galdetuta, denetariko iritzia daude, baina neurri handi edo txikiagoan, baietz diote gehienek. %21,7k dio neurri handian eragiten dutela; %44,4k esaten du neurri apalean eragiten dutela, eta %33,9k uste du ez dutela ia eraginik herriko egoera soziolinguistikoan.

Ondarroan etorri berrien eraginaren gaineko iritzia, 2016 (%)




Etorri berriekin izaten dituzten hizkuntza ohiturei dagokionez, euskara egiten dute haien maila kontuan hartuta %63,4k; %16,9 deseroso sentitzen da euskaraz, aurrean duenak ez badu maila ona, %15,7ri berdina zaio zer hizkuntzatan egin eta %2,4k gaztelaniaz egiten du.

Etorri berriak (herrian bost urte baino gutxiago bizitzen daramatenak) herrikideekin euskaraz aritzen dira ahal duten guztietan, %85,7; euskaraz egiten dionarekin euskaraz egiten saiatzen da %9,8, kopuru txikiagoan; %2,8ri berdina zaio euskaraz edo gaztelaniaz egin eta %1,4k gaztelaniaz egiten du beti.

Ondarrutarren hizkuntza jarrera bisitariekin , 2016 (%)
, 2016 (%)

Ondarrutar etorri berrien hizkuntza ohiturak



5.2. Ikerketa kualitatiboa

Alor kualitatiboari dagokionez, gaiari sakon heldu nahi izan diogu, argudioak, arrazoiak, sententzioak, justifikazioak eta abar bilduta. Horretarako, elkarrizketak eta talde eztabaidak erabili ditugu. Udalerrri bakoitzean lau herritar elkarrizketatu ditugu, euskararen alor soziolinguistikoaren ezagutza edo harreman maila handia dutenak. Herriaren errealitatea ezagutu eta hura ulertzeko gakoak bildu nahi izan ditugu horrela, interpretazio osatuagoak egiteko.

Talde eztabaidei dagokionez, herritarren uste eta pertzepzioak ezagutu nahi izan ditugu. Egoera desberdinen aurrean dituzten portaerak ezagutzea da helburuetako bat, baita haien jarrera, ohitura eta eguneroko joerak biltzea ere. Zerekin lotzen dute euskara?, zer garrantzia du euskaraz aritzeak? (...). Horretarako, udalerrri bakoitzean hiru eztabaida talde egin ditugu: gazteak (16-24), helduak (25-50) eta adinekoak (51tik gora). Horrela banatu dira adin-taldeak ondorio desberdinak atera daitezkeela uste delako.

5.2.1. Elkarrizketa sakonak

Elkarrizketek ordu eta erdiko iraupena izan dute gutxi gorabehera. Gidoi jakin bat jarraitu da elkarrizketa bideratzeko, unean-unean moldatzeko aukera zabalik utzita. Bermeon

begirada euskaraz ez egiteko arrazoietan jarri da, batik bat; eta, Ondarroan, arrakastarako gakoetan. Jarraian elkarrizketetatik atera dugun informazio esanguratsuena bilduko dugu, atal nagusietan sailkatuta.

5.2.2. Datuen aurkezpena

Bermeo

Bermeon euskararen normalizazioaren inguruan zeresana duten honako lau pertsonarekin egin ditugu elkarrizketak: Asier Abaroa, Maite Alvarez, Maribel Mentxaka eta Aizbea Renteria elkarrizketatu ditugu. Bermeoko bi eskolatan irakasleak dira Abaroa eta Mentxaka, Bermeoko Udaleko euskara teknikaria da Alvarez. Renteria UEMAko koordinatzaile ohia da, eta eskualdeko hainbat udaletan teknikari gisa ibilia.

INPRESIO OROKORRA

Hasteko, aipatu behar da lau elkarrizketatuek adierazi dutela Soziolinguistika Klusterrak eginiko kale-neurketako datuekin bat datorrela beraien pertzepzioa. Hau da, beherakada nabarmena izan da Bermeon, hizkuntzaren erabileran, eta hori kalean sumatzen da. Renteriak honela azaldu du:

Renteria: “Beherakada handia izan du euskararen erabilerak herrian, eta gainera ni gehien kezkatzen nauena da jendeari ez diola ardura”.

Abaroak eta Mentxakak kaleko erabilera eta eskolakoaren artean lotura zuzena ikusten dute:

Abaroa: “Kale-neurketek erakusten duten beherakada hori nabarmentzen da eskolan, eta gero eta indartsuagoa da. Gela barruan ere, duela hamar urte, gaztelaniaz entzuten zena ehuneko txiki bat zen, eta gaur egunean bai entzuten da, oro har, erdara hutsean. Sarritan, irakasleekin ere ikasleek, inkontzienteki, komentarioak eta galderak erdaraz egiten dituzte”.

Mentxaka: “Duela 15 urte apenas entzuten zen gaztelania eskolan, salbuespenak ziren gaztelaniaz egiten zutenak. Gaur egun, erdara hutsean ari dira gazteak. (...) 32 urtean ez zait inoiz gertatu euskara orduan ikasleak gaztelaniaz egotea, eta euskarako ariketak egiten ere gaztelaniaz egotea”.

Dena den, Alvarezek dio Bermeok aspalditik duela gaztelaniarako joera hori, nahiz eta azken urteetan oso nabarmen areagotu den: “Bermeon euskaldunak erdaraz egitearen kontua ez da kontu berria. Igarri dutena da olatu handi baten moduan ari dela erdara

sartzen, eta olatu handi horren kontzientzia nekez duela jendeak. Jendea ez da ohartzen hizkuntza aldatzen ari dela. Autopistan ikusten dut euskara galtzen ari dela, eta gu bidezidorretik gabiltza”.

DATUAK MAHAI GAINEAN

Datuak irakurtzerakoan, haur eta gurasoen arteko harremanari eta familia tipologiari begira jarri dira elkarriketatuak. Normaltzat ikusten duten arren erabileraren jaitsiera, gainontzeko adin-taldeetan izandako joerari begiratuta. Oso garbi dute transmisioan hutsune bat izan dela, eta horrek euskarari ez ezik, eragin diela beste balore batzuei ere.

Alvarez: “Helduak dira talderik aktiboenak hizkuntza kontuan, transmisioan eta gizartean. Umeek egingo dutena imitazioa da, ikusten badute zaharren erdiek, helduen laurdenak eta gazteen laurdenak baino gutxiagok egiten dutela euskaraz, zer egingo dute? Beraiek ere erdaraz egiten. Ispilua da. Imitazioz ikasten dugu umetan, beraz, nork arduratzen nau? Helduek eta gazteek”.

Abaroa: “Helduok ohitura galdu dugu. Helduez hitz egitean, nire ikuspuntutik, irakasleez eta gurasoez ari naiz. Guraso asko, zoritxarrez, erdararen munduan bizi dira. Erdaraz dira beraien komunikazio moldeak: poteoa, parkeko egonaldiak, erosketak, kafetegian... erdaraz dira. Euskaraz dakite? Ia den-denak bai”.

Mentxaka: “Ikusten dut gurasoen profila asko aldatu dela, familia tipologia asko aldatu da. Oso arrunta da bietako bat erdalduna izatea, eta horien kasuetan oso portaera ezberdinak daude. Batzuk nahiz eta gazteleraz erraztasuna izan, euskararekiko atxikimendua, inplikazioa, dute; baina badira beste batzuk etxeko konpromiso bakarra ikastolara bidaltzea dena, hara zoaz eta euskara ikasi”.

Renteria, berriz, adinekoek kezkatzen dute, haiek direlako haurrei hizkuntza transmititzen diotenak. Horrez gain, uste du hizkuntzaren kalitatea ere adinekoei esker mantenduko dela, mantenduko bada. Berak ere transmisioari erreparatu dio.

Renteria: “Adinekoak dira hizkuntza pasatzen diena umeei, ez gurasoak, gurasoak apur bat baita ere, baina amama eta aititak dira. Eta oraindik, kalitatezko euskara apur bat pasa behar bada, haiek dira pasatu behar dutenak”.

Bereziki azpimarratzekoa da lau elkarriketatuek aipatu dutela umeak geroz eta arinago hasten direla gaztelaniaz hizketan. Hau da, lehen nerabezaroa artean guztia egiten zutela euskaraz Bermeoko umeek; eta, gaur egun, 6 urte ingururekin pasatzen direla gaztelaniara.

Alvarez: "Lehen 13 urterekin hasten ziren hizkuntza aldatzen; gero, 11 urterekin; gero, 10ekin, 8rekin eta, gaur egun, 6 edo 7 urterekin jada hasten dira gaztelaniara jotzen. (...) 2011n ere sumatu genuen beste datu kezagarri bat: gurasoek sasoi batetik aurrera, erdaraz ere hitz egiten diete umeei. Beraz, gurasoek ere erlajatu dira pila bat. ".

Mentxaka: "Eskolan 5 urteko umeak ez genituen entzuten gaztelaniaz inoiz. Orain, bost bat urtez gero erderaz entzuten dira".

Renteria: "Lehen erderara pasatzen ziren 14 urterekin edo... 14 urtera arte eduki duzu kalitatezko euskara bat, eta gaur egun 6-7 urterekin jada... gurasoak pasatzen dira erderara, eta seme-alabak haiekin".

Gainera, egoera horrek kezka berezia sortzen diete. Izan ere, beraien ustez, umetatik mundu horretan murgiltzeak zailtasunak ekar ditzake, ondoren, aldaketa egiteko. Gaitasuna aipatu dute.

Abaroa: "Haurrek hain umetatik halako zifrak emanda, izango dute aukera hori berreskuratzeko? Hain umetatik halako mundu erdaldunean bizita, arazoa izan daiteke, baita ere, gaitasunarena. Hemendik urte batzuetara euskalduna izan nahi, baina ezin izatea, eta erdara izatea erosoena".

Mentxaka: "7 urtekoak ohitu dira gaztelaniaz egitera, gero nork ipintzen ditu euskaraz? Euren artean gaztelaniaz egon eta gero, errazago egingo dute gaztelaniaz euskaraz baino".

EZ EGITEKO ARRAZOIAK

Bizi ereduan etena

Bizi ereduan izan den etenarekin lotutako hainbat ideia nabarmendu dituzte. Elkarrizketatuek sumatzen dute Bermeo asko aldatu dela, gizartea aldatu dela eta herritarren izaera eta lehentasunak ere bai. Horrekin batera, uste dute balore kolektiboek pisua galdu dutela, tartean, euskararen aldeko aldarriak. Itsasoari lotutako bizimodua erabakigarria izan da Bermeoren izaeran, eta horrek euskaldun mantendu du herria. Hori galdu da.

Alvarez: "Itsasoko bizitzak gainbehera izan du Bermeon, eta hori bazen hizkuntza balioan jartzeko eta hari heltzeko modu bat. Apurketa handi-handia egon da lehengo bizimodua eta oraingoaren artean; ez Bermeon soilik, baina Bermeon ere bai. Gainera, hori, arrantzaleen gainbehera handia izan da, baina beste gune

batzuetan ere bai. Hemen baserri inguru handia dago, bederatzi auzo daude. Beraz, ez da bakarrik itsasoa”.

Renteria: “Hemen egon zan horrelako apurketa bat itsasoarekin. Nik uste dut, itsasoarekin eta atzeko ohiturak esaten duen denarekin, apurketa bat. Seme alaba guztiak, asko, joan ginen kanpora ikastera, unibertsitatara, itsasoko beharra oso gogorra zelako. (...) Apurketa bat egon zen, eta nik uste dut apurketa hori egon dela baita ere hizkuntzarekin. Adinei begiratzaren badiezu, hortik dator...”.

Abaroa: “Gizartearen baloreen galera ukitu behar dugu. Dena den, argi duguna da itsasoko giro horrek asko laguntzen zuela lehen. Arrantzaletasuna euskalduna zen, eta horrek balio handia zuen”.

Mentxaka: “Arrantzaleen euskara galtzen joan da, neurri handi batean, eta baserrikoa hor mantentzen da, baina baserrian geratu da. Kaletarrena [giroa] beti izan da erdaldunagoa”.

Identidadea

Bizitzeko moduarekin batera aldatu da izateko modua ere. Euskalduntasuna edo identitatearekiko atxikimendua galdu dela edo behar bezala ez dela transmititu uste dute elkarrizketatuek. Horrek, batik bat, helduen eta gazteen hautuetan eragiten du.

Alvarez: “Bermeotarra izatea bai, baina euskaldun izatearen harrotasun hori ez dute [gazteek]. Ez dute horrela sentitzen. Nazio identitatean galera handia dagoela pentsatzen dut”.

Renteria: “Euskal herritar izatea eta guzti hori, bueno... ez zaie inporta...”.

Abaroa: “Nik askotan esaten diet: noraino gara euskaldunak? Kultura? Bale, horrenbeste jai eta ohitura ditugu, izan daiteke. Baina egunero-egunero duguna hizkuntza da. Beraiek aitortzen dute hori, badakite euskaldunak direla eta euskaraz egin behar luketela. Baina, gero, non gelditzen da promesa hori? Handik bost minutura erdaraz ari dira”.

80ko hamarkadako kultur ereduak izandako eraginaz hitz egin du Alvarezek. Bermeo eta inguruko beste herri batzuk alderatzen ditu euskara teknikariak: “80ko hamarkadan 20-30 urte izan nituen, eta hamarkada horretan Ondarroan bizi nintzen. Musika eta kultura arloan, mugimendu handi bat sortu zen euskararen bueltan, eta euskaltzaletasuna horrexek loratu zuen, hein batean. Gu astero joaten ginen euskal taldeen musika entzutera. Bermeon, ordea, uste dut ez dutela horrenbeste edan euskal kulturatik. Hemen, movida madrileña horrek zuen indarra, Loquillo eta halakoek. Euskal musika,

euskal rocka, ez zen erdigunean egon. (...) Horrek buelta handi bat eman zion Euskal Herriari, euskaldun izateari, identitateari. Hertzainak eta beste mila talde.

Hizkuntzaren estatusa/herri hizkera

Hizkuntzaren statusa eta herri hizkera ere nahikoa ahul daude Bermeon, elkarrizketatuek adierazi dutenez. Batetik, ikusten dute euskaraz hitz egitea gaztelaniaz jardutea baino xumeagoa dela; eta, bestetik, bi kontu nabarmendu daitezke euskalkiari dagokionez. Batetik, euskara batua eta euskalkiaren arteko gatazka hori; eta, bestetik, herriko hizkeraren belaunaldiz belaunaldiko galera.

Alvarezek honakoa dio statusaren inguruan: "Jendeak pentsatzen du euskaraz berba egitea gutxiago izatea dela, aldeano kontua dela. Sentimendu hori oso-oso barneratuta dago. Hizkuntzaren bilakaeraren prozesuak oso luzeak izaten dira, eta orain ari gara ikusten aurreko urte askotan izandakoaren ondorioa".

Abaroa: "Popularragoa da, oro har, erdaraz hitz egitea. Ez ikasle guztiengan, eh. Baina askorengan bai. Euskaraz eginez gero, frikia da... beno, frikia ere ez dut esango, baina etxeko gauzatat bezala ikusten da. Dena den, ikusten dugu, gero, etxean ere ez dutela egiten".

Renteriaren ustez, berriz, euskararen inguruko ikuspegiak ez du, gaur gaurkoz, halako garrantzirik. Jendeak, oro har, gaztelaniaz egiten du, "edozeinek". Jada ohitura kontua bihurtu da, haren hitzetan, eta ez prestigio kontua: "Euskaraz egiten zuen jende multzoa eta erderaz egiten zuena, euren artean desberdinak ziren adibide batzuk baziren, baserritar bezala euskaraz egiten zutenak, eta erderaz egitea guayagoa-edo. Gaur egun, erderaz egiten du edonork".

Euskalkiari dagokionez, honakoak azaldu dituzte:

Alvarez: "Gutxiespen sentimendu handi bat dago. Euskara txarra berba egiten den irudia dago, eta euskara batuarekiko mesfidantza handia dago. (...) Jende askori entzun diot hori: "Nik ez dakit euskaraz, bermeotarrez soilik". Horrek eramaten nau pentsatzera hor badagoela konplexu edo gutxiespen sentimendu handi bat".

Mentxaka: "Nire gurasoentzat arruntak ziren hitzak nire belaunaldian ez dira erabiltzen, baina nire belaunaldikoentzat arruntak ziren hitzak, "burruntzali" esate baterako, ba, ez dute ezagutzen, etxean ez dute esaten".

Erreferenteak

Erreferenteen paperari ere garrantzia handia ematen diote elkarrizketatuek, baina ikusten

dute Bermeon oso ahul dabiltzala alde horretatik. Kirola aipatzen dute gunee estrategiko bezala, baina une honetan oso erdalduna den eremu bat dela ikusten dute. Futbola jarri dute erdigunean guztiek. Hori dela-eta, aurrera begira, landu beharreko gai bezala ikusten dute erreferenteena, batik bat, “erreferente domestiko” deritzena: irakasleak, begiraleak, gurasoak... halako pertsonak. Erreferente famatuak dagokionez, ikusten dute herrian ez dela “erabateko izarrik”.

Alvarez: “Jende asko dago euskal munduan nor dena, baina herrira ez da iristen. Idazleak, antzerki mundukoak, telebistakoak eta abar ditugu, baina ez dute ikusten herrian lidergo bat eragiten dutenik. Kirolean ez dago halako izarrik... (...) Lider domestikoagoekin ere ahalegindu gara; esaterako, futbol taldeko gurasoekin. Ez dugu asmatu edo ez dugu lortu gehien mugitzen direnengana iristea. (...) Begira, futboleak dabil 8 eta 12 urte bitarteko mutilen erdiak; eta nesken artean, %27k jokatzen du eskubaloian. Beraz, futbol eta eskubaloia taldeak hartzen badute gizarte erantzukizun hori, oso indartsua da. Norbere inguru hurbileko liderrak aurki daitezke: udalekuetako begiraleak, entrenatzaileak... hortik landu daitezke, baina horretarako beharrezkoa da askoren arteko inplikazioa”.

Renteria: “Zein da euren [gazteen] juntagailua? futbola. Eta futbola erderaz ematen da. Azkenengo bi urteetan egon dira euskaraz, eta nabaritu egin da entrenadoreak euskaldunak izan direla. Gaur egun daukate 75 urteko gizon bat, euskalduna, baina erdaraz hitz egiten diena. (...) Azkenean ordu asko pasatzen dute kirola egiten. Ordu asko, eta entrenadoreak dira klabeak. Bai. Kirolari famatuak ez, entrenadoreak. (...) Eta, harremanak egiten hasten dira, kirolaren inguruan. Kuadrillak-eta hazten dira kirolaren inguruan”.

Abaroa: “Ez dut uste lotura hori lortzen dugunik. Herrian ditugun erreferente asko ospetsuak dira, baina ez dute eragiten”.

Mentxaka: “Bermeon momentu honetan badago niretzat minbizi larri bat, eta da futbol mundua. (...) Egiten dira gauza asko euskararen alde, baina futbolariek dauka pisu handia, mutilak dira gehienak eta gaztelaniaz hitz egiten dutenak, baina futbol zaleak direnak dira umetatik erdalduntzen direnak”. (...) Ez dakit zenbat talde dauden euskara hutsean dabiltzanak, ez dakit dauden ere. (...) Nik gauza bakarra ikusi dudana, batzuentzat erreferente izan da da Goazen. Bestela ez dago. Eta herri mailan saiatu gara topatzen, baina eurentzat ez da esanguratsua, nahiz eta inportantea den”.

BESTELAKO FAKTOREAK

Bestelako faktoreen inguruan galdetzerakoan, honakoak izan ditugu mintzagai: migrazioak, turismoa, hirigintza, lan mundua eta aisia, besteak beste. Horiek banaka ikusiko ditugu:

Migrazioa

Migrazioari dagokionez, neurri batean, eragina izan duela diote elkarrizketatuek. Dena den, uste dute etorkinek ez ezik, bermeotarrek ere badutela horren ardura, ez dutelako jakin haien aurrean euskarari balioa ematen.

Alvarez: "50-60ko hamarkadetako migrazioak eragina izan du. Espainiako estatuko migrazioa izan da, Extremaduratik asko etorri ziren, eta lehen belaunaldia behintzat ez zen euskaldundu. Euskaldunen partetik ere haiek beti izan dira "trenak ekarritakoak", eta horrek ere ez du laguntzen".

Renteria: "Nire gizona da euskalduna orain dela 20 urtetik, baina oraindik jendeak egiten dio berba erdaraz. Oraindik da kanpotarra, hau da, ez dakigu horiek asumitzen lehen gure gurasoek asumitu zuten moduan".

Abaroa: "Bizkaian Athletic zaleak gara, berdin du etorkina izatea edo bertan jaiotakoa; berdin da ideologikoki ezkertiar edo eskuineko izan... denok Athletic zaleak gara. Athletic sentitu egiten dugu, geurea da. Kamiseta jartzen dugu pentsatu gabe, eta zoratuta bizi gara. Euskararekin ez da horrela. Imigranteak zergatik sentitzen du Athletic bere eta ez euskara?".

Mentxaka: "Eskolan gurasoen batzarrean, azalpenak eman zituen euskeraz irakasleak, eta guraso batzuk altxa ziren esanez errespetu falta zela jendea zegoelako euskaraz ez zekiena. Bere alboan zeuden bat errumaniarra eta bestea afrikarra, eta errumaniarrak euskaraz esan zion, nik ez dakit asko, baina ikasten ari naiz. Besteak gaztelaniaz esan zion ni nire alabarekin ikasten ari naiz, eta gurago dot entzun neure alabagaz berba egiteko".

Hirigintza/turismoa/aisia

Hirigintzari begira, azaldu dute Alde Zaharra hustu dela, eta horrek ekarri duela herriko bizitzaren galera bat; poteoa galtzea, esaterako. Batik bat, adinekoak eta etorkinak gelditu dira gune horretan, eta erabileran eragina izan dezakeela uste dut. Bestela, elkarrizketatuen iritziz, jenderen etorria baino esanguratsuagoa da joana.

Alvarez: "Duela urte batzuk auzo berri bat egin zen, eta horrek ere ekarri du bizimodu tradizionalarekin haustura. Neurri batean, Alde Zaharra hustea. Beno, 70-

80ko hamarkadetan hustu zen Alde Zaharra. Etxebizitza asko eraiki ziren urte horietan, eta eragina izan zuen. Alde Zaharra hustuta, ijitoak etorri ziren bizitzera, eta ijito komunitate handia dago Bermeon. Ez daude integratuta inondik inora, eta hizkuntzaren ikuspegitik gutxiago. (...) Bizitza, poteoa, Lamera eta portu inguruan daude. Dena asko daude Alde Zaharrean, baina biziberritze behar handia du. Uste dut eragin positiboa izango lukeela euskararen erabileran”.

Renteria: “Alde Zaharra hustea edo Alde Zaharrean jende nagusia gelditzea eta etorkinak etortzea, ijitoz beteta egotea, gauza horiek denek bai izango dute eragina”.

Mentxaka: “Bermeotik jendeak alde egin du. Bermeon etxeak garestiak izan dira, lana galdu egin da... errazagoa izan da joatea etortzea baino”.

Turismoari dagokionez, une erabakigarrian daudela uste du Renteriak. Orain artean baxua zen turismoa, baina azken urteetan telesailak-eta tarteko, aldatzen ari da egoera Bermeon. Hori dela-eta, uste dute momentua dela gai hori lantzeko. Dena den, Alvarezen hitzetan, egun bateko turismoa gailentzen da Bermeon, ez da Zarautzen edo Lekeitioaren bezalako eredia. Beraz, garrantzia nabarmena edo lehentasunezkoa ere ez du, gaur-gaurkoz.

Renteria: “Oraindik tabernak ez daude prestatuta turismoari begira, oraindik herritarrak ez daude prestatuta turismoari begira, dendak ere ez, oraindik inor ez dago prestatuta. Behin prestatuta dagoenean jendea, eta jada euren karteldegia, euren gauza guztiak dauzkatenean, berandu izango da. Oraintxe da momentua, oraintxe ari gara hasten”.

Aisia dela-eta, herritik kanpo irteteko joera dute bermeotarrek, elkarrizketatuen arabera. Kulturaren kontsumoarekin ere lotzen du hori Alvarezek: “Zinera ere Bilbora joaten dira bermeotarrak, eta hemen ere badute zinema. Hori ere bada zantzu bat. Musika edo antzerkia hemen programatzen bada, ez da horrenbeste jende etortzen, eta Bilbon programatuz gero, joaten dira. Kuriosoa da, gauza bera egiteko, herri handiek duten erakartze indar hori”.

Lan mundua

Lan munduari dagokionez, bi arazo identifikatzen dira. Batetik, prestakuntza handiko gazteak daudela herrian, eta horiei Bilbo Handira eta inguru horietara irten besterik ez zaiela gelditzen beharra egiteko. Bestetik, denetako iritziak dauden arren, oro har, uste dute herritik kanpo lan egiteak, eta eremu erdaldunagoetan lan egiteak, eragina duela,

ondoren, Bermeon erabiltzen duten hizkuntzan.

Alvarez: "Inbertsio handia egiten da hezkuntzan, gazteak oso prestatuta daude, baina gero hori ez da bueltatzen herrira, joan egiten da. Hori, oro har, Euskal Herrian oso kontuan hartzeko gaia da. Zerikusi handia du herri euskaldunetan: ari gara esportatzen euskaldunak, irlatxoetan egongo direnak, eta ez dutenak edukiko euskaraz norekin berba egin. Erdaldundu egingo dira horiek, eta herrira bueltatzean erdara ekarriko dute beraiekin".

Abaroa: "Ohitu egiten gara, edo erosotasunera jotzen dugu. Bilbon nago egun osoan, lankideekin erdaraz egiten dut, batzarrak erdaraz egiten ditut... banator Bermeora, eta erdaraz egiten dut? Uste dut gertatuko dela hori".

Mentxaka: "Nik uste dut lanak erdaldundu duela jende asko, eta jende asko ez dago prest bere lana euskalduntzeko ahalegina egiteko. Eurak oso eroso sentitzen dira. Mundu guzti hori gehienak gaztelaniaz bizi dute. Egun osoan gaztelaniaz ari direnen kasuan, horrek eragina dakarrela hona datozenean? Ba batzuegan bai".

EUSKALGINTZA

Herrigintza ere nahikoa eskas dagoela ikusten dute elkarrizketatuek, eta, batik bat, sumatzen da euskalgintzari buelta emateko behar bat. Izan ere, guztiek uste dute beharrezkoa dela euskararen bueltan herritik eragitea.

Alvarez: "Euskara elkarte baina gaur egun duguna kultur elkarte bat da. Bertsolari jaialdiak, olentzero, herri kirolak... halakoak antolatzen dituzte. Listo. Eragite lana ez da egiten herritik, udalak egiten duena bakarrik dago. Gainera, ez dugu harreman handirik elkarrekin".

Renteria: "Bada euskara elkarte herrian, baina nik esango nuke kultur elkarte bat dela. Antolatzen da olentzeroa, andramarietan pegata batzuk ipintzen dituzte..."

Abaroa: "Zoritxarrez, egiten dena ez da heltzen herritarrengana, eta egiten denak ere oso eragin pobrea du. (...) Lehen esan dut euskalgintza isolatua dela, ba... isolatua izateaz gain, betikoak dira, aurpegi berinak beti. Zuk imajinatu nik ematen diedala euskara eskolan, eta gero ekimen bat prestatzen denean kaleko giroarako, ni agertzen naizela han. Asier, nahikoa da, dena zuk, beti euskararekin lotutako gauza guztiekin zeu zatoz. Ba, bai, arrazoia dute. Beste era bateko jendea, aurkezpenak edo moduak behar ditu".

AURRERA BEGIRA

Aurrera begira landu beharreko diskurtsoa dela-eta, iritzi desberdinak dituzte elkarrizketatuek. Irakurketa positibo egin, eta irabazteko dauden aukera nabarmendu behar dela esan du Alvarezek; Renteriak dio beharrezkoa dela “egia” esatea, hau da, Bermeo jada ez dela udalerri euskalduna; eta Abaroak sentimenduen bidetik jotzea proposatzen du.

Alvarez: “Positiboa. Egoera objektiboa berez ona da. Eskoletan D eredua baino gehiago ez egotea lortu genuen. Umeak jaiozanean, guraso euskaldunek transmititu egiten dute hizkuntza. Horraino, behintzat, egiten dugu. Zelan eutsi diezaiokegu indar horri? Umeak koxkortu ahala ikusi behar dute euskaraz balio duela egunerokotasunerako eta mundu modernorako. (...)Gai bagara eragileekin elkarlanerako, euskalgintzari buelta bat emateko eta instituzioetatik indar gehiago bideratzeko, seguruena gai izango gara honi buelta emateko edo mugitzen hasteko. Horretarako, askoren borondateak mugitu behar dira”.

Renteria: “Orain asumitu egin behar duguna da herri ez euskaldun baten bizi garela. Hori da asumitu behar duguna. Lehenengoko gauza, esan behar dioguna jendeari, egia da. Jendeak uste du oraindik herri euskaldun batean bizi garela, eta lehenengo hori erakutsi behar diozu jendeari. Eta orain galdera da: herriak nahi du berriro euskaldun izan?”.

Abaroa: “Ez da bate ere erakargarria gazteei esatea euskara hiltzeko zorian dagoen hizkuntza bat dela, beraz, egin egin behar dutela. Galdetu behar dugu euskarak zer ematen digun. Sentimenduekin jokatu behar dugu. Faktoreak, zergatiak... aztertu behar ditugu; eta, ondoren, horiek zabaldu eta balioan jarri”.

Aurrera begira, honako proposamenak bildu ditugu: euskararen zeharkakotasuna, erabaki politiko ausartak hartzea, elkarlana, erreferenteen ardura eta papera lantzea, euskalgintza aktibatzea eta herri bizitzari bultzada bat ematea. Bestalde, elkarrizketatu guztiek balio handia ematen diote Bermeoko Udaleko Euskara zerbitzuetatik egiten den lanari, nahiz eta, beste eremu askotan bezala, ikusten duten ez duela nahikoa oinarri sortzen kalean.

Alvarez: “Asmatu behar dugu euskara erdigunean jartzen, arlo gutzietan. Horretarako esparru guztietako eragileekin egin behar da lana, eta orain martxan diren egitasmoetan gehiago sakondu behar dugu. Politikariei belarrietatik tiratzea tokatzen da, eta euskalgintza piztu eta indartzea”.

5.2.2.1. ONDARROA

Ondarroan euskararen normalizazioaren inguruan zeresana duten herriko honako lau pertsonarekin egin ditugu elkarrizketak: Urrate Etxaburu, Maite Rey, Igor Urresti eta Miren Urrestirekin. Etxaburu euskaltegian AEKn ibili zen hainbat urtez eta egun EMUNen dabil. Ondarroako Udaleko euskara teknikaria da Rey, bilbotarra izatez, urte dezente Ondarroan bizitzen egon ondoren, egun Berriatuan bizi da. I. Urresti Ondarroako udaletxean euskara batzordeko zinegotzia izan zen bi urtez eta herrian beti EHetik gertu ibili izan da, Bolo-bolo aldizkarian kolaborazioak egiten zituen eta “zegatik ez euskaraz” orrialdea egiten zuten, gaztelaniaz zeuden gauzak salatzeke. M. Urresti zinegotzi egon zen udaletxean eta UEMAKo lehendakaria izan zen lau urtez, beti ibili izan da euskararen bueltan lanean.

INPRESIO OROKORRA

Lehenengo inpresioari buruz galdetuta, elkarrizketatu guztiek inongo ezbairik gabe adierazi dute Ondarroa euskaraz bizi den herria dela eta ondarrutarren artean badagoela joera natural bat euskaraz egitekoa. Ez dute alde handirik nabaritu, gainera, duela urte batzuetatik hona, nahiz eta jende kopurua aldatu den, euskaldunen proportzioa eta erabilera antzekoa dela sumatzen dute. Ondarroa euskarari dagokionean “irla” bat dela aipatu du M. Urrestik

Aitzitik, Etxaburuk dio bikote mistoen kasuan, joera bat suma daitekeela erdararakoa. Reyk aipatu du atzerritik ere etorri izan dela jendea bizitzera, baina horiekin integraziorik apenas eman dela, ez direla bertakoekin harremantzen eta ez duela herriko hizkuntza ohituretan eragiten. Bestetik, lan eremura pasatzerakoan erdarak leku handiagoa duela nabarmendu dute Reyk eta Urrestik. Portuan erdarak baduela indarra, nahiz eta langileak euskaraz arituko diren, lan harremanak gaztelaniaz direla.

Etxaburu: “Nire inpresioa da erabilera mantendu egiten dela, hainbat esparrutara zabaltzeko egin dela gainera eta gero badaudela pertsona batzuen arteko harremanetan atzerakadatxo batzuk baina ez orokorrean, adin tarte batzuetan baino, saltoka ibiltzearena. Bertakoak ez hainbeste, bertakoak inguruko herrietakoekin ezkondu direnek dute joera handiagoa erdararako. “

Rey: “Hemen deigarriena da euskaraz bizi garena, euskaraz bizi ez dena

azkenaldian etorri diren etorkinak dira. Ez dago integraziorik, ez dira harremanetan jartzen gurekin eta horrek ez du eraginik izan ohiko harremanetan”.

Rey: “Hortik ateratzen garenean, lan eremura, hasten da erdara nagusitzen. Hemen portua dago, hemen badago esaera bat esaten duena “portutik harago Chicago”. Han beste mundu bat hasten da, beste lan dinamika batzuk eta han erdara asko erabiltzen da”.

I. Urresti: “Ondarroan erabilera mailan osasuntsu dago egoera, ez kantitateagatik, hitz egiten dutenak naturaltasun handiaz hitz egiten dutelako baino, konplexu barik. (...) Arriskurik handiena duen eremua lan eremua da, urteak aurrera joan eta ez zaio bueltarik ematen, drama bat da. Oso zaila da, kanpoko faktoreengatik batez ere. Portuan, adibidez, jende guztia beraien artean euskaraz ibiliko da, baina maila formalera salto egiten duzunean beti daude zailtasunak”.

M. Urresti: “beste herri batzuekin konparatuta, gu askoz hobeto gaude. Irla bat da Ondarroa...nire inguruan ez dut ikusten halako alderik edo euskaraz gutxiago hitz egiten denik. (...) Neu, adibidez, Berriatuan bizi naiz, eta konturatzen naiz han garen ondarrutarrok besteek baino gehiago hitz egiten dugula euskaraz, beti heltzen diogulako hizkuntzari. Hori gure erakusgarritako bat da. Herrian eta herritik kanpora euskararen erreferenteak gara”.

DATUAK MAHAI GAINEAN

Datuetara etorruta, 2011ko neurketaren emaitzek ez zutela benetako errealitatea islatzen iritzi diote aho batez. Etxaburuk “atipikoak” zirela adierazi du “matematikoki ere ez da posible”, Reyk “puztuta daudela” aipatu du, I. Urrestik datua “okerra” dela, “nahikoa da kalera ateratzea, oinez ibiltzen bazara pixka bat, hori horrela ez dela konturatzeko” eta M. Urrestik ez dela “oso logikoa”. Haatik, 2016ko datua normalagoa dela pentsatzen dute guztiek, “urteetan errepikatzen den datu bat da” esan du I. Urrestik.

Etxaburu: “Ondarroako ezagutza beti egon da %80aren bueltan, biztanleriak gorabeherak izan baditu ere, hor ibili izan da eta erabilera ere hor ibil izan da”.

Etxaburu: “Egia da azken aurreko erabilera neurketan emaitza atipikoak atera zirela. Azken emaitza normalagoa da...2011ko erabilera datua, matematikoki ere

ez da posible. Hamarretik zortzik dakigu euskaraz, eta egia da zortzi egon gaitezkeela egun osoa euskaraz hitz egiten, eta bederatzigarrenari ere euskaraz egin ahal diogula berak gaztelaniaz erantzun arren, baina bederatzigarrena eta hamargarrena ere batu egiten dira eta hori ez da ahaztu behar”.

Rey: “Ez gaitezen engaina 2011ko datuak hain onak izateagatik. Esan zirenean ere ez nien aparteko meriturik eman.” Begirada baten pentsatu ahal duzu puztuta daudela... Ni joerarekin geratuko nintzateke eta joera da ezagutzatik gora ari garela. ”

I. Urresti: “%93,6ko erabilera datua datu okerra da ziur, ez da inon existitzen, gehiegizkoa da. Nahikoa da kalera ateratzea, oinez ibiltzen bazara pixka bat, hori horrela ez dela konturatzeko... 2016ko datuak nahiko logikoak dira, sinistu dezaket, gainera urteetan errepikatzen den datu bat da”.

M. Urresti: “2011ko neurketa... ez da oso logikoa”.

Adin-tarteei dagokienez, haur eta gazteen erabilera hamarretik bederatzi euskaraz dela oso garbi dute guztiek. Gazteen erabilerari dagokionez, euskaraz aritzeko erraztasun handiagoa dutela nabarmendu dute denek. Aitzitik, I. Urrestik esan du “kale kantoietan, marjinalagoak diren gunetan” ibiltzen direnak gehiago mintzatzen direla gaztelaniaz.

Helduen adin-tarteari dagokionez, 25-65 arteko adin-tarte zabala dela aipatu du Etxaburuk eta hor askotariko egoerak daudela, “parkean gaztelaniaz aritzen entzuten direla” eta hori ez dela gertatu izan, “egongo dira batzuk kanpokoak eta beste batzuk ez, milaka faktore egon ahal dira hor”.

Bukatzeko, adineko jendea oso euskalduna izan dela aipatu dute bai Urrestik bai Etxaburuk. Horregatik, M. Urresti harritu egin da adin-tarte horretan erabilera 20 puntu jaitsi izanagatik, pentsatzen du inmigrazioak eragina izan dezakeela horretan. Gai horri lotuta, Etxabururen arabera ere “badago gaztelaniaz ez dakien adineko jendea”, baina kontuan izan behar dela dio tarte horretan ere badagoela sasoi batean lanera etorritakoak, batzuk ingurutik eta beste batzuk urrutiagotik etorritakoak, “haiek ezin dute euskaraz egin, haien seme-alabak ulertuko dute eta horien umeek hitz egiten dute”. Azken faktore hori erabileraren datua jaisteko datua izan daitekeela dio.

Etxaburu: “haur eta gazteen erabilera hamarretik bederatzi euskaraz dela oso

garbi daukat, ahozkoan batez ere. Beste gauza batzuk neurtuko bagenitu beharbada desberdina izango litzateke (...) Gazteetan ikusten dudana da ezintasuna dutela beste hizkuntzetan aritzeko. Batzuei gertatzen zaie ezgai direla hortik kanpoko hizkuntzetan aritzeko, esaldi solteak esateko eta ulertzeko arazorik ez, baina hizkuntza horretan aritzeko ez dira erabat gai. (...) 25etik 65erako esparrua zabala da, baina egia da. Hor dago, parkean gaztelaniaz aritzen entzuten direla, hori ez da hemen gertatu izan. Egongo dira batzuk kanpokoak eta beste batzuk ez, milaka faktore egon ahal dira hor. (...) Adineko jendea oso euskalduna izan dela esango nuke, hemen badago gaztelaniaz ez dakien adineko jendea. Adin tarte honetan badago sasoi batean lanera etorritakoak, batzuk ingurutik eta beste batzuk urrutiaotik. Haiek ezin dute euskaraz egin. Haien seme-alabak ulertuko dute eta horien umeei hitz egiten dute”.

Rey: “Azkenengo neurketan ikusten da zaharretan eta helduetan beherantz doala eta horri arreta jarri beharko zaiola”.

I. Urresti: “Gazteen artean bai betetzen da erabilera datu hori, baina joaten bazara kale kantoietan, marjinalagoak direnak, lokaletan ibiltzen diren, kalean ibiltzen ez direnak, plazan izkina batean daudenak, kaletik entzuten ez direnak, horiek gehiago mintzatzen dira gaztelaniaz”.

M. Urresti: “Ni harritzen nauena da adinekoen artean jaistea erabilera, 20 puntu, gainera. Harritzen nau uste dudalako adineko askok zailtasunak izan ditzaketela erdaraz egiteko. Ez dakit inmigrazioak eragina izango duen horretan, baina azalpen tekniko bat izan behar duela uste dut. (...) Justu uste dut adinekoak direla adin-tarterik euskaldunena, umeei batera. (...) Nik neuk, ordea, ez dut uste arrazoia denik euskaldunak erdaraz hitz egiten hasi izana. (...) ikusten dugu haur eta gazteak erabat egiten dutela euskaraz. Dena den, nik uste dut gazteengan jarri behar dugula fokoa. Haiek dira musika, telebista, sare sozialak... kontsumitzen dituztenak eta gaztelania gehien jasotzen dutenak”.

Behin inpresioei orokorrean buruz eta datuei uzten dizkieten gogoetei buruz arituta, arrakastarako egon daitezkeen arrazoei eta erabileran eragiten duten hainbat faktoreren inguruan galdetu diegu: herri izaera, herri hizkera, turismoa, migrazioa, hirigintza, mugikortasuna, erreferenteak...

ARRAKASTARAKO ARRAZOIAK

Euslea

Arrakastarako arrazoiez galdetuta, ondarrutarra orokorrean euslea dela aipatu dute guztiek, gaztelaniarako saltoa ematea ez dela horren erraz egiten, "hemen erdaldunak konplexu bat badauka ez bada euskaraz egiteko gai, askotan ikus dezakezu bat gaztelaniaz eta bestea euskaraz hitz egiten" adierazi du I. Urrestik. Etxaburuk ere gai beraren inguruan aipatu du nahiz eta besteak euskara ondo ez menderatu eutsi egiten diola euskarari. Jarrera hori belaunaldietan zehar transmititu dela iritzi dio, gainera. Euskaraz hobeto moldatzen direlako izaten dela esan du, "ez bestea molestatzeko eta gaineratik sentitzeko". Adinekoen artean joera hori nabarmenagoa dela adierazi du Etxaburuk, gazteak ezerosoago sentitzen direla egoera horretan. M. Urrestik ere aipatu du ondarrutarrak beti heltzen diola euskarari, ondarrutarraren erakusgarrietako bat hori dela.

Arau soziala

Guztiek argi dute Ondarroan badagoela arau sozial bat euskaraz aritzekoa bai etxean bai etxetik kanpora. Etxabururen arabera, kontzientziarik ez dutenek ere egin izan dute euste lana hemen. M. Urrestik etorkinek euskararen premia sentitzen dutela, eta entzunez eta erabiliz ikasten dutela aipatu du, "garbi ikusten dute harremanak izan nahi badituzte hizkuntzaren beharra dutela".

Gaitasuna

Gaitasuna euskararen aldeko faktore bat dela iritzi diote denek, praktikak gaitasuna handitzea dakarrela dio Etxaburuk. Ondarrutarrak euskaraz hobeto egitearen ustea dutela adierazi du Igor Urrestik, baduela gaztelaniaz ondo ez egitearen konplexua.

Etxaburu: "Kontzientziarik ez dutenek ere egin izan du euste lana hemen. Badago kontziente den lana, zuzenean edo zeharka, baina beste askok ez, baina hala eta guztiz ere denon joera da (...) Nire ustez arau soziala ere izan da Ondarroan euskaraz egitea, etxean eta etxetik kanpora. Gainera izan da modu naturalean (...) Transmisioa egon da bai, euskararen balioa transmititu da. Nire birramonaren sasoian ere oso euskaltzaleak ziren, ez da hiru belaunaldiko kontua, aurretik datorren kontua da".

Maite Rey: “Nik esango nuke hemen dagoela arau soziala. Arau soziala da gurea dela euskaraz hemen euskaraz bizi garela, hori dela gure identitatea”.

I. Urresti: “Ondarroan esango nuke gehiago kostatzen zaigula pauso hori ematea, hemen erdaldunak konplexu bat badauka ez bada euskaraz egiteko gai, askotan ikusi dezakezu bat gaztelaniaz eta bestea euskaraz hitz egiten.”

M. Urresti: “Gure kaleetan euskaraz hitz egitea arau soziala da. Horren erakusle da etorkinek euskararen premia sentitzen dutela, eta entzunez eta erabiliz ikasten dutela. Garbi ikusten dute harremanak izan nahi badituzte hizkuntzaren beharra dutela. Bestalde, iruditzen zait Ondarroako erdaldunek ere errespetatzen dutela euskara, eta beraiek ez jakin arren, normalizat ikusten dutela gainontzeko guztiak euskaraz egitea”.

Herri hizkera

Herri hizkerari dagokionez, hizkuntzarekin asko jolastu izan dela diote, barre eta burla egiten dutela Ondarroako hizkeran. Etxabururen arabera “horrek eragiten dizu zurearekin ondo sentitzea, eroso sentitzea eta horrek ondo sentiarazten zaituenez eramaten zaitu gehiago erabiltzera”. M. Urrestik ildo beretik aipatu du Ondarroan oso lotsagabeak direla, burlatiak ere bai, eta hizkuntzarekin barre asko egiten dutela. Reyk aipatu du gazteek nahiago dutela ondarrutarrez egin eta ondarrutar hizkera eramaten dutela azken punturaino eta I. Urrestik dio hizkuntza bizi dutela bere modura eta balio handia ematen diotela.

Etxaburu: “Asko jolastu izan dugu gure hizkuntzarekin, barre eta burla egin izan dugu gure hizkuntzan...Horrek eragiten dizu zurearekin ondo sentitzea, zeurearekin eroso sentitzea eta horrek ondo sentiarazten zaituenez eramaten zaitu gehiago erabiltzera. Zenbat eta gehiago erabili orduan eta erosoago sentitzen zara”.

Rey: “...nahiago dute ahal duten punturaino ondarrutarrez egin. Gaitasunak kasu honetan alde jokatzeko du”.

I. Urresti: “Hizkuntza bizi dugu gure modura eta balio handia ematen diogu, eta hori jaso dugun heziketaren parte da”.

M. Urresti: “Guk badugu berba informala, eta ez dugu gaztelaniara jo behar gurea

garatuz gero...Ondarroan oso lotsagabeak gara, burlatiak ere bai, eta hizkuntzarekin barre asko egiten dugu”.

Identitatea

Euskara ondarrutarren identitatearen ezaugarri nagusia dela aipatu dute, “identitatearekin lotzen dugu euskara eta ez dugu planteatzen hau horrela ezin denik izan” esan du, adibidez, Etxaburuk. Reyk guztizko leialtasun bat dagoela aipatu du, euskara uztartuta dagoela nortasunarekin eta I. Urrestik hizkuntza ezaugarri nagusi moduan sentitzen dutela aipatu du. Ildo beretik, herri izaera sendoa duen herria dela dio M. Urrestik.

Harrotasun hitza behin baino gehiagotan aipatu dute, adibidez, Reyk esan du “euskarak ezberdintzen gaitu eta harrotasuna badago” eta I. Urrestik “harrotasunez bizi da euskaltasuna eta naturaltasunez”.

Etxaburu: “Gu ondarrutarrak ga txo” esaten dugu, gu oso identitarioak gara. Ondarroa oso herri itsusia da baina oso herri bizia da eta horrela sentitu izan gara beti. Identitatearekin lotzen dugu euskara eta ez dugu planteatzen hau horrela ezin denik izan. Izaeran badugu zerbait markatua eta uste dut horrek batu egiten gaituela. (...) Ez da banaketa politikorik egon euskara kontuetan, euskaraz egitea naturala izan da”.

Rey: “Harrotasuna, leialtasuna, trinkotasuna... seguru denetik pixka bat egongo dela...Hemen guztizko leialtasun bat dago, uztartuta dago nortasunarekin, euskara da gure nortasuna, gure bidea. Niretzat Ondarroa eta euskara bat datoz, horrela da. Euskarak ezberdintzen gaitu eta harrotasuna badago”.

I. Urresti: “Nortasunaren ezaugarri nagusi moduan sentitzen dugu hizkuntza. Hizkuntza bizi dugu gure modura eta balio handia ematen diogu, eta hori jaso dugun heziketaren parte da. Harrotasunez bizi da euskaltasuna eta naturaltasunez. Harrotasun eta naturaltasun hori da heldutan beste herrietan asko galtzen dena, eta hemen gutxiengo galtzen dena, galtzen da eta horrek amorrua ematen dit, baina ez beste herrien neurri berean”.

M. Urresti: “Zabalduta dago herrian, “ni euskalduna naiz, eta listo, ez dut nire burua beste modu batera ikusten. Ondarroan bada herri izaera sendo bat.

Batzuetan onerako, eta besteetan txarrerako. Gainera, herri isolatua izan da. Ez dugu izan harreman handirik beste udalerriekin, eta hori nabaria da izaeran”.

Herri bizitza bizia

Herri bizitza eta elkartegintzari lotuta, Ondarroa herri bizia dela adierazi dute, kalean bizitza asko egiten dela. Kostaldeko herrien ezaugarritzat du Etxaburuk kale bizitza handia izatea eta horrek hizkera bizi-bizi mantentzea dakarrela iritzi dio. Bertako etxeak txikiak izateak eragin zezakeela kalean bizimodua egitea adierazi du, “gainera horri tonu ludiko bat eman izan diogu, guk negar ere egin izan dugu euskaraz eta barre ere bai. Horrek ekartzen du zirikatzea, elkarri adarra jotzea, erregistroa aberasten du, gaitasuna handitzen du, erraztasuna handitzen du”.

Etxaburu: “Kostako herrietan esaten dute badagoela zaletasun bat kalean bizitzekoa eta horrek ere asko markatzen du. Kalean egoteak esan nahi du sozialki harremanetan egotea eta horrek hizkuntza bizi-bizi mantentzea dakar. Ez zegoen lekurik etxeetan, derrigor joan behar zinen kalera, taberna zulo batera edo edonora. Horrek ekarri du espazio horietara eramatea hizkuntza, etxera ez mugatzea. Agian baserri edo etxe banakatan bizi baginen ateratzen zinen bakoitzean aldatu egingo zenuen, baina hemen zen derrigor kalean bizi beharra. (...) Horrek ekarri du belaunaldietan zehar hori bizitzea. Gainera horri tonu ludiko bat eman izan diogu, guk negar ere egin izan dugu euskaraz eta barre ere bai. Horrek ekartzen du zirikatzea, elkarri adarra jotzea, erregistroa aberasten du, gaitasuna handitzen du, erraztasuna handitzen du. Herri bizi bat izatea ekartzen du”.

Urresti: “Herri bizitza badago bai, ez orain dela urte batzuk bestekoa, baina pentsatzen dut nik hori joera orokorra dela”.

Elkartegintza bizia

Elkarte ugari daudela nabarmendu dute, kirol arloko, kultur arloko 40 talde inguru daudela eta horiek euskaraz funtzionatzen dutela, bat edo beste kenduta, era naturalean eta inork adierazi beharrik izan gabe euskaraz aritzeko.

Etxaburu: “Talde guztiek euskaraz funtzionatzen dute. Talde asko dago,

mugimendu asko dago, talde berriak ere sortzen dira. Ez dago estatutu edo paper ofizialik, baina era naturalean sortzen diren talde guztiek euskaraz egiten dute”.

Rey: “Badago elkartegintza bizia, talde asko daude eta jende asko lanean talde horietan....taldeek euskaraz funtzionatzen dute. (...) Kulturarekin lotutakoak, kirolarekin lotutakoak, dantzarekin lotutakoak... 40 talde inguru daude. Bai eta udalera batzen direnean edo beraien elkartean batzen direnean ere euskaraz ari dira, baina hori ez da planteatzen. Nire uste hori da, hori ez da planteatzen, berez dator euskaraz dela”.

I. Urresti: “Hain da naturala euskaraz egitea, talde batek normal normal egingo dizu euskaraz”.

Erreferenteak indartsu

Pertsonak baino gehiago jarduerak direla erreferenteak adierazi du Etxaburuk, “herrian lanean ari diren talde eta eragile aktiboak euskaraz ari dira eta horiek bihurtzen dira gazteen erreferente”. Reyk ere ildo beretik aipatu du elkartegintza bizia dagoela eta horiek direla erreferente. Horrez gain, “gure etxeko hizkuntza, gure kaleko hizkuntza” aipatu ditu Reyk erreferente nagusi moduan. Erreferenteak herrikoak diren bitartean euskaldunak izango direla adierazi du I. Urrestik. Arazoa kanpoan ikusten du, telebistan, batez ere. “Futbolari, “Conquis”eko euskaldun asko gaztelaniaz ari dira, ETB2 delako...Horrek bai ikusten dut direla nik oso arriskutsuak, eta gazteentzako horiek dira erreferenteak, futbolariak...”.

Etxaburu: “Pertsonak baino gehiago jarduerak, portaerak esango nuke direla erreferenteak. Nik esango nuke badaudela eragile aktibo batzuk erakarpen handia sortzen dutenak gainontzeko ondarrutarrengan, ez dut esaten denak direnik eragile, baina batzuk badute erakarpen indar bat. Ez da oraingo gauza beti egon da, eta horiek joan direla gauza berritara gauzak zabaltzen, eta besteak joan dira era naturalean sartzen.”

Rey: “Badago elkartegintza bizia...herrira begira, egiten dituzten komunikazioak, kartelak, ohiko asanbladak euskaraz dira eta ez bietara. Orduan horiek dira gure erreferentziak. Gure erreferentziak dira gure etxeko hizkuntza, gure kaleko hizkuntza eta gure inguruan euskaraz bizi garela puntu horretaraino.

I.Urresti: “Herrian hain naturaltasunez bizi da hizkuntza, adibidez Kirmen Uribe, berez ez dira bereziak. Hain da naturala euskaraz egitea, talde batek normal normal egingo dizu euskaraz. Arazoa betikoa da, entrenatzailea kanpotik etorri eta euskalduna ez izatea, horrek denok jartzen gaitu erdaraz. Bueno, berak egingo du erdaraz, baina futboleak dabilizanak beraien artean euskaraz egingo dute. Edo arraun elkartera doa eta gehienak euskaraz egingo die, eta esango die laster ikasiko duela euskaraz. Erreferente horiek zorionez herrikoak diren bitartean oso euskaldunak dira, bizi da naturaltasunez. (...) Kanpoko erreferenteak, ETB adibidez, arazoa da. ETB esan zuten ikusgarritasuna eman nahi zitzaiola euskarari eta bi kateetarako euskaldunari euskaraz soilik egingo zitzaiola elkarriketa eta ETB2n azpiztituluekin azalduko zela. Bada gezurra da... Futbolari , “Conquis”eko euskaldun asko gaztelaniaz ari dira, ETB2 delako... Horrek bai ikusten dut direla nik oso arriskutsuak, eta gazteentzako horiek dira erreferenteak, futbolariak...”.

BESTELAKO FAKTOREAK

Aisialdia

Aisialdiari dagokionez, eskaintza guztia euskaraz dela esan dute guztiek. Gaztelaniaz eskaintzen den jardura bat edo beste aipatu dituzte, baina oso puntualak. Gainera, horrelakoetan herritarrek kexatu egin izan direla aipatu du I. Urrestik, yogaren kasua azaldu du, adibidez.

Etxaburu: “Euskaraz da guztia. Kirol taldeetan gehien bat ahozko jarduna, paperak beharrezko tramiteetarako baino ez dute betetzen eta jarduna euskaraz izaten da”.

I.Urresti: “Bertan eskaintza guztia euskaraz egiten da. Yoga irakasle bat bazegoen eskolak gaztelaniaz ematen zituen... Gaztelaniaz ikasi zuenez, erraztasuna zuen gaztelaniaz emateko, dena dela, herritarren aldetik jaso izan ditu kexak”.

Rey: “Ez zait okurritzen jardura bat gazte batek erdaraz egin ahal duenik”.

Turismoa

Turismoari lotuta, turista gutxi etortzen den sentsazioa dute elkarriketatutako guztiek. Etortzen direnak bertakoak eta Madril eta Kataluniako direla, batez ere. Reyk aipatu du

“erreserba” honetara etortzea zaila daukatela, herrian ez baitago turistentzako baliabiderik, ez aparkalekurik, ez lotarako tokirik... I. Urrestik aipatu du udan egunero Ermutik autobus bat etortzen dela eta hondartza erdaldundu egiten dutela, baina, aldi berean, erdalduntzea hondartzan bakarrik gertatzen dela, horiek gero ez direlako herrian ibiltzen. Urrestik aipatu du herri erdaldunagoetatik ere joaten da jendea oxigenatzera.

Rey: “nik esango nuke hona datorren turismoa, galdetu dudanagatik, hemendik datorren turismoa dela eta Madril eta Kataluniatik. Gero heltzen dira Lekoition sobran daudenak, frantsesak, alemaniarren batzuk, baina aparkaleku arazoa dago... egun pasa etorriko dira aparkatzea lortzen badute, baina erreserba honetara etortzea zaila daukate”.

I. Urresti: “Inguruan baditugu herri politak, Mutriku eta Lekoition, guri etortzen zaizkigu Ermukoak autobusez hondartzara. Denak erdaldunak dira eta hondartza erdaldundu egiten dute. Baina ez dute bizi hemengoa. (...) Jendea festetara etortzen da beste euskal herrietatik Ondarroa herri euskalduna delako. Ondarroak herri euskaldunaren irudia saltzen du. Herri handiagotan bizi den jendea eta inguru erdaldunagoan bizi dena Ondarroara etortzen da oxigenatzera”.

Migrazioak

Ondarroak jasandako immigrazioari dagokionez, bi olatu esanguratsu aipatu dituzte elkarrizketatuek, bata, 60-70eko hamarkadan estatutik etorritakoena eta, bestea, azken hamarkadetan atzerritik etorritakoena. Estatuko immigrazioari dagokionez, garai hartan etorritako asko inoiz euskaldundu ez badira ere, horien seme-alabak eta bilobak herrian erabat integratu daude elkarrizketatutakoen arabera. Etorritakoen adina faktore garrantzitsua dela adierazi dute denek, helduaroan etorri direnak zailagoa izan zaiela euskalduntzea, baina txikiek ez dutela inongo arazorik izan. Atzerritik joan direnei dagokionez, kulturalki ezberdintasun handiagoa dute eta integrazioa zailagoa izaten da. Dena dela, seme-alabak euskaraz inongo arazorik ez dute beraien arabera.

Etخابuru: “60-70eko hamarkadan asko etortzen ziren galziarrak arrantzara, beste batzuk gerratik ihesi etortzen ziren. Extremaduratik... Tantaka etortzen zirenak asimilatu egiten ziren. Taldean etortzen baziren, beraien artean babesten ziren eta beraien taldea egiten zuten, beraien elkarteak, beraien taldea sortu zuten. (...) Adin batekin datorrena belarriz zerbait ikasten joaten da, beraien seme-

alabak arin sartzen dira hemen. Etorri eta aurrera salto egitea da, ez dago besterik".

Rey: "Presentzia badago, baina harreman biderik ez dago. Harreman biderik ez badago hizkuntzen arteko gatazka gutxiago, baina etorri etorriko da, denbora kontua izango da, beti ez dira egongo beraien txokoan sartuta".

I. Urresti: "60-70eko hamarkadan etorri den belaunaldiak ez du euskara ikasi, baina beraien seme-alabak euskaldundu egin dira presioaren ondorioez. Gutxi batzuk badaude ez dutenak inoiz ikasi euskara, uko egin diotenak ikasteari, baina orokorrean oso ondo hartu dute. (...) Orain migrazioa ez da kantitatez hain handia, lehen belaunaldiak arazoak ditu integratzeko baina beraien seme-alabak integratzen dira".

M. Urresti: "Jaso ditugu etorkinak, 60ko hamarkadan batik bat. Galiziatik, Andaluziatik eta Portugaletik etorri zen jendea hona, arrantzara...nik ez dut uste migrazioak eragin handia izan duenik. Getoak egin zituzten, eta beraien artean biltzen ziren. Badira Ondarroan auzo jakin batzuk, non herrialde jakin batzuetako pertsonak bertan bizi diren".

Demografia/hirigintza

Hirigintzari buruz, 60-70eko hamarkadan etxebizitza asko eraiki zirela adierazi dute, baina gero geldialdi handi bat egon zela. Ondarrutarrak herrian bertan bizitzen geratzeko zailtasunak dituztela aipatu dute. Batetik, leku faltagatik etxe gutxi eraiki izan delako eta bestetik, prezioak garestiak direlako. Horren ondorioz, ondarrutarrek kanpora atera behar izan duela bizitzera esan dute: Mutrikura, Berriatura inguruko herrietara. Etxebizitzen prezioak ere garestiak direla aipatu dute. Babes ofizialeko etxeak eraiki zirenean bizitzera joan zirenak ondarrutarrak izan ziren, batez ere. Beraz, etorri ere jende gutxi etorri da bizitzera.

Etxaburu: "60-70eko hamarkadan etxe asko egin ziren eta gero geldialdi bat egon zen. (...) Ondarroan urte askoan ez da etxerik egin izan eta ondarrutarrak kanpora joan behar izan du bizitzera. Ez eraikitzeak ekarri du kanpora joan beharra eta kanpotik ere ez da etorri izan. Ondarroako etxeak ere ez dira merkeak izan. Senegaldarrek ere inguruko herrietan bilatu dituzte etxeak. Jendea hartzeko ez du lekurik Ondarroak. Aukera ere gutxi du eraikitzeke, metro karratu gutxi ditu

Ondarroak, eraikigarria den eremurik ere ez du”.

Rey: “Bai egin dira etxeak, babes ofizialeko etxeak dezente egin ziren baina ondarrutarrak joan dira, horrela jarri zen, Lea Artibai aldekoak izan behar ziren bizitzera etortzeko”.

I. Urresti: “Ballara bat da Ondarroa eta ez du ematen etxeak eraikitzeko. Ez da jenderik etorri bizitzera, etorri dena kanpokoak izan da, itsasora lanera etorri dena”.

M. Urresti: “Ez da etxe asko eraiki izan hemen, eta kanpoko jendea etorri denean, oro har, inguruko udalerrietakoa izan da: Mutriku, Ondarroa... Herri aislatua izaten jarraitzen dugu, baina aldatu da. Jakina, erabileran lotura zuzena du aparte dagoen herri bat izateak”.

Mugikortasuna

Mugikortasunari dagokionean, erosketak direla, hainbat zerbitzu direla, aisialdia dela...jendea kanpora horrenbeste ateratzen ez den sentazioa duela aipatu du Urratek, ez bada lanera joateko edo ospitalera joateko. Bestetik, M. Urrestik adierazi du ikasketa maila baxuagoak daudela Ondarroan, eta joera gehiago egon dela inguruko herrietan baino herrian bertan gelditzeko.

Hizkuntza jarrerei dagokionez, ondarrutarrak doan lekura doala euskara berarekin eramaten duela esan du Urrestik, “euskararen enbaxadoreak” deitu die. Kanpora doanean “jarrera trinkotu” egitean duela pentsatzen du Etxaburuk.

Etxaburu: “Nik esango nuke jendeak ez dela horrenbeste ateratzen kanpora. Ondarroakoak joatekotan joan dira Bilbora edo Donostiara. Merkatalguneetara joateko ohitura ere hedatu zen, baina kontuan izan behar da bai Donostia bai Bilbo ia urtebetera daudela biak, hortaz, jendea ez da astero mugitzen, nekatu egiten du horrek. (...) Ahalegindu egingo da euskaraz egiten, gainera esango nuke aktibo ere bihurtzen dela, jarrera trinkotu egiten dutela askotan, hasten direla euskara batzordeetan parte hartzen”.

Rey: “Durangora Eroskira bai, Makrora... badago joera nagusi hori toki guztietan gertatzen dena, ez da salbuespena hemen ere bai. Urbilera ere bai, Bilbo ingurukoetara. (...) Nik uste dut ondarrutarra doan lekura euskara eramaten

duela. Nik esaten dut ondarrutarrek direla euskararen enbaxadoreak”.

I. Urresti: “Durangorako eta Bilborako joera dago batez ere. Kanpora ateratzerakoan ondarrutarrek beraien artean ez dute hizkuntza aldatzen”.

M. Urresti: “migratzaileak gu izan garenean, uste dut geurekin eraman dugula euskara beste leku batzuetara. Neu, adibidez, Berriatuan bizi naiz, eta konturatzen naiz han garen ondarrutarrok besteek baino gehiago hitz egiten dugula euskaraz, beti heltzen diogulako hizkuntzari. Hori gure erakusgarritako bat da. Herrian eta herritik kanpora euskararen erreferenteak gara”.

EUSKALGINTZA

Euskalgintzaren egoerari buruz galdetuta, talde antolatuetan aritzeko ohitura galdu egin dela adierazi du Etxaburuk, baina, aldi berean, jendearen jarrera aktiboa dela iruditzen zaio. Kontzientziazioa badagoela uste du Reyk, “esporak moduan EHE daukazu talde guztietan”. Esfortzu minimoa eskatutakoan jendeak erantzuten duela aipatu du Urrestik. Hortaz, talderik ez badago ere, kontzientziazioa badagoela uste dute.

Etxaburu: “Talde antolatuetan funtzionatzeko ohitura jaitsi bada ere, norbanakoen jarrerak aktiboagoak direla esango nuke. Euskalgintza betiko terminotan ulertuta makal dago, lehengo patroietan ez du funtzionatzen, baina esfortzu minimoa eskatzen baduzu jendeak erantzuten du”.

Rey: “kontzientziazioa badago. (...) Euskalgintza egon izan da, nik esango nuke orain ez dagoela. Espora moduan talde guztietan daukazu EHE herri guztian zehar zabalduta. (...) Jendea ez dago horrenbeste konprometitzeko, jendea nahiko erlaxatuta dago, baina joera orokorra da”.

I. Urresti: “Ez dago, norbanakoak daude...Dena dela, behar bat sortuko balitz, atxikimendua beharko balitz, jendea badago aktibatzeke prest dagoena, kontua ez da euskaltzaletasuna ez dela bizi... Norbanako asko oso kontzientziazatuta dago”.

M. Urresti: “bada kontzientzia maila bat ere esparru batzuetan”.

AURRERA BEGIRA

Aurrera begirakoei buruz, batetik, arlo ofizialean eman beharreko urratsak aipatu dituzte: lan munduan, notaritzan, auto eskolan, osasungintzan... I. Urrestik kanpoko faktoreei lotutako gauza guzti horietan atzera egiten ez uztea aipatu du. Bestetik, dugunari eutsi behar zaiola aipatu dute, horretarako, "herritarrak hezi egin behar ditugu, jabe izan egoera zein den, datuen parte egin, harro sentitu dugunaz". Reyk, ildo honetan, "bertako hizkera indartzeko eta azpimarratzeko gure berezko joerarekin ondo pasatzeko aukera" daukagula azpimarratzea garrantzitsua iruditzen zaio.

Bukatzeko, Etxaburuk azpimarratu du estrategia garatu behar dela, jendea zirikatuz eta saltsa sortuz. Gaineratu du hori ez dela lortzen talde antolatu baten funtzionatuta, estrategia pentsatu eta sare bidez funtzionatuta baizik.

Etxaburu: "Arlo ofizialean, lan munduan, auto eskolako karneta ateratzeko, notaritzako kontuak, osasungintzako kontuetan badago zer hobetua. Baina ez dut uste horrek euskalgintza eratu batek erantzungo dionik, beste modu batzuk bilatu behar dira. Erakargarritasun beste modu batetik bilatu behar da. Ondo egongo litzateke erabilera parametro haietan mantentzea. Herritarrak hezi egin behar ditugu, jabe izan egoera zein den, datuen parte egin, harro sentitu dugunaz. (...) Estrategia da garatu behar dena, jendea zirikatu eta saltsa sortu. Eta hori ez da lortzen talde antolatu baten funtzionatuta, estrategia pentsatu eta sare bidez funtzionatuta".

I.Urresti: "Kanpoko faktoreei lotutako gauza guzti horietan ez uztea atzera egiten"

Rey: "Bertako hizkera indartzeko eta azpimarratzeko gure berezko joerarekin ondo pasatzeko aukera daukagula. Inziditzen harrotasun puntu horretan, mantentzea hori".

5.2.4. Talde eztabaidak

Adituen ekarpenak jaso ostean, herritarrekin eseri gara, talde eztabaiden bitartez. Datuak konpartitu ditugu adin, sexu eta eremu-sozial desberdinetako pertsonekin, eta beraien iritziaz, ohiturez eta egunerokoaz galdetu diegu. Bestalde, aurrera begira ikusten dituzten lehentasunez ere jardun dugu. Talde dinamika hauek balio izan dute herrian sumatzen den hori gertutik ezagutzeko eta hitzunen motibazioak ikusteko. Talde

eztabaida bakoitzean, ordu eta erdiko gidoi bat prestatu dugu. Elkarriketak erdi-bideratuak izan dira, hau da, guk proposamen zehatza eman dugu, baina parte-hartzaileen arabera eman diegu pisu gehiago edo gutxiago kontu bakoitzari.

5.2.5. Datuen aurkezpena

Bermeo

Bermeoko kasuan, 21 lagunek parte hartu dute eztabaidetan: 16 eta 24 urte arteko lau lagunek, bi emakumek eta bi gizonek; 25 eta 50 urte arteko bederatzi pertsonak, bost emakumek eta lau gizonek; eta 51 urtetik gorako beste bederatzi pertsonak, lau emakumek eta bost gizonek. Tartean daude euskaldun zaharrak eta berriak, ikasleak, langileak, langabetuak, gurasoak, aiton-amonak, Bermeon sortutakoak eta kanpotik joandakoak, Euskal Herriko beste txoko batzuetatik zein Espainiako beste herrialde batzuetatik. Guztiek partekatzen duten ezaugarria da Bermeon bizi direla.

Honako datuak ekarri ditugu txostenera:

PERTZEPZIOA

Pertzepzioari dagokionez, adin talde guztietako parte-hartzaile denek onartu dute datuek adierazten duten jaitziera bera sumatzen dutela kalean. Gainera, adin-talde guztien arazoa dela esaten dute; izan ere, guztiek egin dute aldaketa hori. Dena den, haurrek arduratzen dituzte gehien, eta horiek iruditzen zaizkie datu sinesgaitzenak. Behin eta berriz diote oso goiz hasten direla haurrak erdaraz hitz egiten, lehen ez bezala. Horrez gain, aipatzen dute gaur egun guraso direnek ez dutela jakin ez hizkuntza ezta euskaldun izaera transmititzen.

TEB-G1: “Nik uste dut ez dagoela kontzientziarik beharra dagoena, euskaraz egiten ez bada galdu egingo dena, jendeari ez zaio inporta. Ni orain ari naiz partikularrak ematen txikiagoei, eta nik konparatzen dut nire lagunekin, eta nire lagunak hasi ziren erdaraz egiten, baina ez zuten mespretxatzen euskara, eta orain esaten diezu euskaraz egiteko, euskara lantzeko eta ez zaie inporta”.

TEB-G2: “Institutuan inork ez du egiten euskaraz, DBHn inork ez du egiten euskaraz”.

TEB-H7: “Gazteek beti izan dute joera erdarara pasatzeko: adibidez, 12 urte arte euskaraz, eta ondoren, erdaraz. Baldintza horiek lehen ere ematen ziren.

Diferentzia da, gaur egun, 4 eta 5 umeek erdaraz egiten dutela. Zuek guraso zaretenez, galdetu egingo dizuet zergatik... zeren nik 5 urterekin ez dut jakin erdaraz”.

TEB-A1: “Ikusten duguna da lehen 12 urte ingururekin hasten baziren gaztetxoak erdararen modagaz, jaitsi egin dela. 8 urtera jaitsi zen hori, eta orain 6 urtekoak erdara hutsean dabilta”.

TEB-A6: “Nik iloba dut 13 urtekoa. Erdaraz egiten du hark... Eta esaten diogu euskaraz egiteko, baina esaten du lagunekin erdaraz egiten duela”.

TEB-A1: “6-7 urtegar denak hasten dira gaztelaniaz. Eta esaten dugu etorkinengatik dela, baina ez... adin hori artean euskaraz egiten dute-eta etorkinek ere”.

TEB-H9: “Umeez ari garenean 0-14 urte arteko pertsonak hartzen dira kontuan. Hor nik uste dut 6 urte arte polito egiten dutela euskaraz, baina gero, nerabeen artean ez duela egiten inork euskaraz”.

Gurasoen erdararako joera aipatzen dute eztabaidako kideek, eta helduek beraiek aitortzen dute horrela dela:

TEB-H1: “Nire alabaren gelako gehienen gurasoak bermeotarren seme-alabak dira. Denok gara euskaldunak eta gure ama hizkuntza euskara da. Gure artean erdaraz egiten dugu nagusiok, umerik gabe gaudenean.

(...)

Nik etxean erdua izan dut, gurasoek euskaraz egiten zutela beraien artean, baina nire alabari galdetzen badiote... ez du esango hori”.

TEB-H8: “Guk ere bai, denok dakigu euskaraz, baina ez dakit zergatik gertatzen zait batzuekin erdaraz egiten dudala, nahiz eta euskaraz hasi elkarrizketa. Hori bai, beti pertsona berdinekin izaten da”.

TAB-H4: “Nik uste dut gurasoek, euskaldunak eta bermeotarrak izan arren, beraien artean asko erdaraz egiten dutela, eta hortik datorrela. Horrek eragin handia du”.

TAB-H7: “Nire aiton-amonek 80 eta piko urterekin, erdaraz ez dute egiten berba bat ere. Eta haien seme-alabak, hau da, nire gurasoek 53 urterekin, beti erdaraz egiten dute. Zer gertatu da hor? Gaur egun 40-50 urte duen jendek galdu du”.

Gainontzeko adin-taldeetako pertsonak ere ildo horretatik jotzen dute:

TEB-G1: “Nik ezagutzen dut familia bat ume batez, aita bermeotarra da, ama Bilbokoa, euskaraz ikasi du, eta umeari euskaraz egiten diote, baina beraien artean

ez dute egiten euskaraz. (...) Beraiek pentsatzen dute euskaraz egiten dutela, baina umeak entzuten du gurasoek nola egiten duten [erdaraz]”.

TEB-A3: “Gertatzen dena da aspaldiko 30 urtetik hona, agian, umeari: Aber, Unai, etorri hona!; Eta gero beraien artean: Si porque luego vamos a ir... Hori, behintzat, hemen eta leku askotan gertatzen da”.

Eta hizkuntzarekin batera, euskaldun sentitze hori edo “militantzia” galdu dela esan dute:

TEB-A8: “Gauza da nahitaez gure gazte denboran militante izan ginen bezala, gure gurasoei esker, euskararen militanteak behar direla. Daukagun gazte koadrila pasatzen denean, ematen du gaudela Santoñako Lameran. Militantzia, beraz, argi dago nondik jaso behar den, ezta? Gurasoengandik”.

TEB-A6: “Nik pentsatzen dut identitatea galtzen ari garela, eta horrek duela benetan pisua”.

TEB-G1: “Nik uste dut ez dagoela kontzientziarik, beharra dagoena, euskaraz egiten ez bada galdu egingo dena, jendeari ez zaio inporta”.

TEB-G4: “Eske badago globalizazio bat esaten duzuna, baina zer zarete euskaldunak edo amerikarrak?”.

Haurrengan, gazteengan eta helduengan sumatu dute gehien herritarrek jaitziera hori. Halere, adinekoek beraiek azaldu dute beraien adineko pertsonen artean ere egon dela halako aldaketa bat:

TEB-A1: Esan dugu umeak, gazteak, helduak... beherantz egin dutela... baina jarri al duzue belarria nagusiengan? Adinekoek, arrantzaleak eta saregileak izandakoak, zelan ibiltzen dira kalean? Euskaldun peto-petoak, eh! Agian, ez dago inor koadrilan erdalduna denik, eta danba! erdaraz.

DATUAK MAHAI GAINEAN

Datuak bere egiten dituzte parte-hartzaileek:

TAB-H7: “Dena normal, uste dut hauexek direla gure kaleko datuak. Gero ikusten ditut Zarautz, Zumaia, Igorre halako lekuetako datuak, eta ikusten dut korrontearen kontra gabiltzala. Han umeek eta gazteek euskaraz egiten dute, eta hemen ez”.

TEB-H9: “Zuek bizitza osoa daramazue Bermeon, baina nik justu tarte hau daramat, hau da, hizkuntzak behera egin duen tarte. Eta niretzat oso -oso erreala da hor agertzen dena”.

TEB-A6: “Nik aurreko datuak ikusita, eta kalean entzuten dudanarekin, ba bai... bai

egon daitekeela jaitsiera, espero genezakeen. Hori bai, harritu egiten zaitu... nahiko deprimentea delako. Baina, harritu-harritu, benetan, ez. Okerrerantz goazela sumatzen dugu”.

EUSKARAZ EZ EGITEKO FAKTOREAK

Euskaraz ez egiteko faktoreen artean aipatzen dituzte arestian nabarmendu ditugun transmisioaren etena, helduen artean gaztelaniaz egitea edo kontzientzia eza. Baina beste batzuk ere aipatzen dituzte: kultur eredua, “gehiegizko” errespetua, etorkinei zuzenean gaztelaniaz egitea, bikote mistoen hazkundea edo geografikoki isolatuta egotea, besteak beste. Bestalde, ikerlan honetan kontuan izan ditugun bi faktore, turismoa eta hirigintza, ez dituzte berebiziko garrantzitsu ikusten gehienek.

Aipatutakoen adibide batzuk dituzue:

Geografikoki duen kokapena:

TEB-A3: “Gu muga baten gaude. Hemendik oso gertura jada ez da egiten euskaraz, muga-mugan gaude, eta hiriburua ere, Bilbo, oso gertu daukagu. (...) Ez da berdina Ondarroan bizitzea, inguruko herri denak euskaldunak diren leku batean; edo hemen”.

Kultur eredua:

TEB-A6: “Oso inguru erdaldunean bizi dira ume horiek. Ez soilik familian eta kalean, baita hedabideak ere, belarrietatik sartzen zaien dena. Mundu modernoa, esan dezagun, erdaraz da. Guk esfortzua egin behar dugu... eskoletara, paperetara heldu da euskaraz; falta zaigu belarrietara iristea”.

TEB-G4: “euskara batez be Gatibu, Ken zazpi eta horiek dira entzuten direnak famatuak direlako. (...) Eta kanta batzuk daude euskaraz ondo daudenak, baina ipintzen dituzu beste batzuk, eta esaten dizute [koadrilakoek]: Baina ze mierda da hori! Ipini reggetoia, edo rapa”.

TEB-G3: “Antzokira ere datoz Gatibu edo Ken Zazpi, baina euskal eszena hori baino gehiago da, baina ez da bultzatzen, eta begira ze azpiegitura daukagun euskal kultura bultzatzeko eta igual nor edo nor atrapatzen duzu”.

Imigrazioa eta “gehiegizko errespetua”

Imigrazioaz hitz egitean, nahikoa argi dute bermeotarrak direla, oro har, lehen unetik hizkuntza aldatzen dutenak. Gainera, adin-talde guztietan esaten dute etorkinek ikasten dutela euskara. Hain zuzen, talde dinamikatan parte hartu duten etorkinek azaldu dute beraiei erdaraz egin izan dietela herrian.

TEB-G1: “Topiko bat da kanpotar asko daudela, baina kanpotarrek euskara ikasi dute. Ez dut uste hori arazoa izan denik”.

TEB-H6: “Hemen errespetu handi bat izan duzue kanpotik etorri garenokin. Hori ez da gertatzen Katalunian eta beste lekuetan. Ez dakit zergatik, baina hemen bakar batek erdaraz egiten badu, denok hasten gara erdaraz. Denon hizkuntza erdara bihurtzen da”.

TEB-A1: “Kontua da etorkin umeei denek ikasi egiten dutela hizkuntza, eta euskaraz egiten dute. (...) Gainera, etorkinak beste umeei identifikatuta sentitzen dira euskara bereganatzen dutenean”.

TEB-A6: “Kanpotarrek ikasten dute, eta ume atzeritarrek hemengoek bezala egiten dute euskaraz”.

TEB-H9: “Nik [bilbotarra, sortzez] askotan esan behar izan dut euskalduna naizela. Hasieran, kanpotik etorria nintzelako, jende askok egiten zidan erdaraz”.

TAB-H4: “Nik uste dut azkenean geu garela gakoa. Ez da kanpotik datorrena edo erdalduna edo parean ez dakit nor dugulako, geu gara. Euskaldunok ez dugu egiten”.

Horrekin lotuta dago gaztelaniara errez pasatzeko duten joera. Hau da, pertsona batek ez badaki euskaraz edo adierazteko zailtasunak baditu, hizlarien arabera, segituan aldatzen dute hizkuntzaz, ez diote hizkuntzari eusten.

TEB-A9: “Gure etxepeko bileretan batek bakarrik ez daki euskaraz, beste denak euskaldunak gara. Euskaraz ez dakien horrek Bermeon daramatza 50 eta 60 urte, eta halere, denok erdaraz egiten dugu. Zergatik? Niri horrek ez dit balio. Pasatzen da azkenean ez dugula euskara kontuan hartzen”.

TEB-A5: “Ikusten da garbi... dakienak ez du erabiltzen”.

TEB-A9: “Baina zergatik? Ba hori, bat erdalduna badago, beste denok egiten dugulako erdaraz”.

Bermeon, behintzat, lehen hitza euskaraz egiten saiatzen direla azaldu dute parte-hartzaileek, baina hori ez da beti joera orokorra herrian.

TAB-H2: “Niri erdaraz egiten didate dendan askotan adinekoek. Nik beti lehen hitza euskaraz egiten dut, baina haiek erdaraz. Ez dakit pentsatzen duten guk erdaraz egiten dugula-edo... Eta zuk antzematen duzu beraiek euskaldunak direla, baina beraiek jarraitzen dute erdaraz.

TEB-A5: “Pentsatzen dugu ez dutela ulertuko, eta erdaraz egiten dugu [lehen hitza]. Eta, argi eta garbi, euskaldunak euskaldunari erdaraz egiten dio”.

Bikote mistoen hazkundera

Helduen taldean behin baino gehiagotan atera den gaia da bikote mistoen hazkundera. Bikote misto diogunean izan daitezke guraso bat erdalduna eta beste euskalduna, baina biak euskaldunak izanda ere, batek erdararako joera badu edo ingurune erdaldun bateko pertsona bada, eragina duela diote.

TEB-H9: “Nik esango nuke dela bikoteak sortzeko modu hori. Gero eta bikote misto gehiago daude. Bermeotik kanpo jaiotako pertsonekin juntatzen dira hemengoak, eta horrek etxeko hizkuntzan eragiten du”.

Euskalkia eta batuaren arteko talka

Batua eta euskalkiaren arteko talka ere mintzagai izan dute talde guztietan. Iritzi desberdinak daude euskaren artean, baina oro har, ikusten da bi hizkuntza bezala tratatzen dituztela: euskalkia, herriko hizkuntza bezala, etxetik jasotakoa eta lagunarterako balio duena; eta batua, zerbait artifiziala eta formala dena. Horrek dakar, ondoren, euskaldun berriekin, askotan, gaztelaniaz egiteko ohitura, euskalkia darabiltenak ez direlako sentitzen eroso euskara batuan. Euskaldun berriek ere aitortzen dute lotsa ematen dietela herrian batua erabiltzea.

TAB-H3: “Ni euskaldun berria naiz, eta batuan egiten dut. Orduan, Bermeoko jendearekin, askotan, kostatu egiten zait. Nire umeei ere bermeotarrez egiten dute. Batzuetan, hor sortzen da talka bat-edo. Ulertzen gara, baina... ez dakit, deseroso sentitzen zara”.

TEB-G4: “Euskaldun berriek batuaz ikasten dute. Eta niri batuak ez dit ematen, ez nau betetzen”.

TEB-G3: “Niri geratu zait jende nagusiarekin egon, eta esatea: Baina zergatik ez duzue egiten euskaraz? Eske horrela egiteak [batuaz] ematen dit lotsa. Askok ez dute egiten ez daukatelako euskalki bat, edo berandu ikasi dutelako, eskolakoa bakarrik ikasi dutelako. Baina nagusietan badago lotsa, sentitzen dutelako euskara artifizial bat dela.

TEB-A6: “Egia esan, euskaldun berriekin ez gara saiatzen, baina ez dakit intentzioa jartzen al dugun ere. Egin batekin eta bestearekin, eta pixkanaka ikasiko duzu, edo?”.

Euskaldun berriak izan gabe ere, beste euskalki batzuetan hitz egiten dutenen kasuak aipatu dituzte:

TEB-A4: Geu ere bagara apur bat gaiztoak. Adibidez, nire andrea da azpeitiarra, 10

urtegaz heldu zen hona etxe batera beharrera. Berak azpeitiarrez egiten zuen, eta esaten zioten, hemen gure baserritarra! Eta hasi zen erdaraz egiten... gauza horiek ere kontuan hartu behar dira.

Bizimodu aldaketa eta kaleko giroa

Aurreko atalean aipatu bezala, talde eztabaidetan ere irten da itsasoak herrian izan duen eraginaren inguruko elkarrizketa. 51 urtetik gorakoen artean hitz egin dugu, batik bat, horretaz. Haiek oso garbi ikusten dute lehengo eta gaur egungo baloreen arteko haustura hori; eta, jakina, hizkuntzaren garapena zuzenki lotzen dute bizi-ereduarekin. Honako adibidea horren erakusle da:

TEB-A4: “Gu 16 urterekin-eta joaten ginen txikiteora, txikito bat hartzea gauza handia zen. Zer mugimendu egoten zen? 1.200 arrantzale, denak euskaldunak, beharra herrian. Orain hori ez dago. Txikiteoa amaitu da. Txikiteoak badu bere gauza soziala. Berba egiten duzu, zuri nor gustatzen zaizu?, amuarrain halakoa!... Begira arrantzale hori, zer morroskoa, Ducados erretzen du, eta euskaraz dago berbatan. Zuk, orduan, 16 urterekin imitatu nahi duzu hori. Baina, orain, ez daukate eredu bat halakoa. Ez dago lehengo giroa”.

Bizi eredia ez ezik, poteoko giro hori ere asko aldatu dela uste dute:

TEB-A3: “Zu bazoaz parrandara Bermeon, jartzen duzu belarria, eta euskaraz entzutea arraroa da. Entzuten duzu, eta badakizu, gutxi gorabahera, nor den”.

TEB-G1: “Poteoa Bermeon ere topatu egin behar duzu. Bariku baten zoaz Gernikara poteoa egitera, eta kale nagusi osoa daukazu beteta. Zatoz Bermeora barikuetan, eta zure amama daukazu alboan”.

Lana eta mugikortasuna

Halako garrantzirik ematen ez badiote ere, ikusten dute herritar asko joaten direla Bermeotik kanpora lan egitera. Han hizkuntza ohitura desberdinak izan ditzaketela uste dute, baina arazoa Bermeon bertan dagoela diTEO, oro har.

TEB-H9: “Harreman zuzena du lanera kanpora joateak, Bilbora kasu, eta handik erdara ekartzeak”.

TAB-H7: “Bermeon bertan ere oso erdalduna da lan mundua, eta jendeak erdaraz egiten du lana. Hala ere, esango nuke bermeotar gehienek kanpoan egiten dutela lana”.

HERRIGINTZA ETA EUSKALGINTZA

Aurrez aipatu dugu baloreen galeraren gaia; eta, batik bat, gazteen artean, behin eta berriro errepikatutako ondorio bat da ez dagoela lanerako gogorik, eta herritik ez dela sortzen mugimendurik bizia emateko ez euskarari, ez gainontzeko borroka-moldeei.

TEB-G4: “Bermeon ez dago gogorik ezertarako ere ez. Dago lege bat esaten duena egin dezatela besteek beharra eta nik egingo duk kontsumitu. Inoiz ez dugu nahi antolatu ezer ez.

TEB-G2: “Denek esaten dute Bermeon jaietan ez dagoela ezer, baina gero inor ez da mugitzen”.

TEB-G3: “Gernikan Astra bat lortu zen duela hamar urte, eta hemen egon da amago bat Gaztetxe bat lortzeko, baina inor ez zen joango ez dakitelako Gaztetxe bat aurrera ateratzeko egin behar den lana. (...) Jendeak ez du hartu nahi ardurarik. Nik uste dut Bermeon arazo bat dagoela kulturala, eta da erosotasuna, dena eginda ematea, tabernara... Adibidez, nik bermeotar oso gutxi ikusten ditut Astra baten”.

Eta horrekin lotuta, euskara elkartea ahul dagoela esaten dute, edo ez dutela ezagutu ere egiten:

Euskara elkartea ezagutzen duzue?

TEB-G2: Badago edo ez?

TEB-G3: Nik ez.

TEB-G1: Nik pentsatzen dut baietz.

Euskaraz berbetan.

TEB-G2: Ah, bai.

TEB-G3: Entzunda.

Zer irudi daukazue?

TEB-G4: kafea hartu eta berba.

Hori berbalagun da.

TEB-G2: Olentzero eta gero ipuin kontalaria ere egon zen adinekoentzako.

TEB-G1: Bertsoak eta Andra Mari egunean pegatina jartzen dute.

TEB-G2: Herri kirolak ere egin zituzten Andramaixetan.

Erreferente izan daitezkeen bestelako eragileez hitz egitean, kirola atera da. Futbola, arrauna, eskubaloia eta igeriketa izan dituzte hizpide, eta adierazi dute erdaldunak direla zeharo ekintza horiek Bermeon. Gainera, parte-hartzaileen arabera, kirol horietako begiraleek badute eragina gaztetxoengan:

TAB-H7: “Ni igerilekuan ibiltzen naiz, eta ondoan igeriketa ikastaroak ematen

egoten dira. Askotan, umeei erdaraz hitz egiten entzuten diet. Ez da inor seinalatzeagatik, orokorrean da igoa, hitz egin beharko litzateke kiroldegiko zuzendariarekin-edo”.

TAB-H5: “Hori pasatzen da futbol zelaian ere... eta arraunean, eskubaloian... asko egiten da erdaraz. Gero, pertsona horiek badira nor haurrentzat”.

TEB-G1: “Futbol partidak erdaraz dira, entrenatzaileak erdaraz egiten die 8 urtekoei. euskaraz egiten dute kontrakoek ez dakitenean euskaraz”.

TEB-A3: “Nik ikusten ditut gazteak arraunean-eta ibiltzen direnak, erdaraz egiten dutela. Bat dago lekeitiarra, eta hari egiten diote euskaraz”.

AURRERA BEGIRA

Aurrera begira zer diskurtso landu beharko liratekeen eta zer proposamen dituzten galdetu zaie parte-hartzaileei. Egoera zail ikusten dute, eta “modu magikorik” ez dagoela esan dute. Halere, euskaraz egiteko aukerak badirela uste dute, finean, euskara dakiten pertsona asko bizi direlako Bermeon, nahiz eta ondoren, erabilera baxua izan. Zenbait pista eman dituzte: aztergai ditugun datuak lau haizetara zabaltzea eta behar duen garrantzia ematea, euskaldunen bihotzetan eragiteko diskurtsoak sortzea, gune erdaldunetik datozeinei ongi azaltzea hizkuntzaren eta arnasguneen garrantzia, herritarrak aktibatu eta ahalduntzea, eskolekin elkarlana sendotzea, euskaraz egiteko egitasmoak abian jartzea, arnasgune sozio-funtzionalak sortzea eta abar.

TAB-H2: “Pertsona euskaldun horren bihotzean zerbait sortu behar da. Nik alabarekin ikusi dudak bezala. Orain artean ez ninduen gehiegi kezkatzen hizkuntza batean edo bestean egiteak... Eta orain, ikusi dudanean alabak egiten duela erdaraz, ba... desberdina da”.

TEB-H9: “Harrera planak egiten dira etorkinentzat, euskaraz ez dakitenentzat. Eta halako zerbait ezin da egin euskaldunentzat? Bermeo kanpotik datozenentzat. Ikusteko hemengo egoera nolakoa den, eta zer garrantzia duen hizkuntzak”.

TEB-H9: “Nik falta bat dut. Ez dakit nola jokatu beti erdaraz egiten duen jendearen aurrean. Uste dut badela TELP tailerra-edo, horrelakoren bat antolatzea ondo legoke. Ikastetxeetan ere halako zerbait egin beharko litzateke”.

TEB-H7: “Nik bi proposamen ditut. Batetik, indartu eskolak eta udalak duen harremana, eta hor saiatu eragiten. Azken finean, badakit horretan ari zaretela. Bigarren proposamen moduan, Egiak eginiko eredu hori edo halako zerbait egin dezakegu”.

TEB-H9: “Niri gertatzen zait umeak hartu, eta ez dudala jakiten nora joan... eta balego euskarari lotutako espazio bat, joango nintzateke hara. Bilbon, adibidez, hori da kafe antzokia”.

TEB-A8: “Euskararen guna bat sortu behar da, ondo legoke. Euskaraz soilik funtzionatzen duen leku bat, hango jendea eta eskaintza euskara hutsean izango dena. Arnasgune bat bezala, baina txikian. Bilboko kafe antzokia bezala”.

TEB-H1: “Nire alaba, adibidez, Agenda 21ean dago eskolan, baina halako talde bat badago euskarari lotuta? Umeak inplikatzeko badira, eta konpromisoa hartzen badute, horrek lagunduko du. Gurasoena garrantzitsua da, baina alderantziz ere egin daiteke hori”.

Ondarroa

Ondarroako 19 lagunek parte hartu dute eztabaidetan: 16 eta 24 urte arteko bost lagunek, lau emakumek eta gizon batek; 25 eta 50 urte arteko bost pertsonak, lau emakumek eta gizon batek; eta 51 urtetik gorako beste bederatzi pertsonak, lau emakumek eta bost gizonak. Tartean egon dira, ikasleak, langileak, langabetuak, gurasoak eta aiton-amonak. Euskaldun zaharrak izan dira gehienak, baina tartean euskaldun berriak ere egon dira. Jaiolekuari dagokionez, gehientsuenak Ondarroan jaioak izan dira. Guztiak Ondarroan bizi dira egun, bat izan ezik.

Honakoak izan dira talde eztabaidetatik ateratako ideia nagusiak:

PERTZEPZIOA

Datuen inguruko pertzepzioei dagokionez, hiru eztabaida taldeetan euskararen egoera mantendu egin dela edo gorantz egin duela uste dute, ez behintzat okerrerantz egin duenik. Adin-taldeei dagokionez, euskara gehien hitz egiten dutenak haurrak eta adinekoak direla errepikatu da gehien. Gazteak ere aipatu dituzte helduen adin-tartean, baina nagusien eztabaida taldean euskara eta gaztelania tartekatzen duten sentsazioa izatea ere adierazi du batek. Eztabaida-talde guztietan helduak ikusten dituzte euskara gutxien erabiltzen dutenen artean.

DATUAK MAHAI GAINEAN

Datuak erakutsitakoan talde guztiek harridura adierazi dute, 2011tik 2016ra kale

erabilera emaitzek izandako jaitzierarekin. Batez ere, nagusien adin-tartean gertatutako jaitzierarekin harritu dira, 20 puntuko aldea asko iruditu baitzaie.

Lehenengo sentipen horren ondoren, horien inguruko interpretazioak egiten hasi dira eta hainbat iritzi agertu dira.

Gazteen taldean aipatu dute beraien adinekoak entzuten dituztela tarteka gaztelaniaz, internet, musika, etorkin eta moda kontuak izan daitezkeela arrazoiak aipatu dute, dena dela, garbi dute horiek gutxiengoa direla.

Helduen taldean 2011koa dela errealia esan du batek 2016an euskaldunak ez zirelako aterako eta beste batek kontrakoa adierazi du, 2011ko %93ko erabilera "kantoso" dela, beste urteetan ere erabilera %80aren bueltan zegoelako. Guraso erdaldunak zeukatenak, ikasketak gaztelaniaz egin zituztela aipatu du batek eta horrek eragina duela; horri jarraituz, beste batek adierazi du euskaldundu ez zirenak orain adinekoak direla.

Adinekoen eztabaida taldean adinekoen erabilera datuei ezin arrazoiak bilatuta ibili dira, izan ere, aipatu dute jubilatuta eta gero asko beraien herrietara joan direla eta, bestetik, biztanleria jaisteak herria euskaldundu egin duela. Helduen adin-tartean gaztelania gehiago entzuten dela-eta, ez dira horrenbeste harritu.

ARRAKASTARAKO FAKTOREAK

Arrakastarako egon daitezkeen arrazoez galdetuta, hainbat faktore aipatu dira talde bakoitzean.

Gazteen taldean arau soziala, eta transmisioari lotutako ideiak nagusitu dira:

TEO-G3: "kalean dena euskaraz entzuten duzula"

TEO-G5: "ez dago beste eredurik"

TEO-G2: "naturala egiten zaigu, normala egiten zaigu eta datozen belaunaldiei euskaraz egiten diegu".

Helduen taldean gaitasuna, arau soziala eta beharrari lotutako arrazoiak aipatu dira. Taldean parte hartu duen ia-euskaldunaen iritzia interesgarria izan da, euskaraz aritzeko gaitasun osoa ez izan arren, euskaraz ikasteko beharra sentitzen duela adierazi duelako.

TEO-H5: "Ez dakigulako erdaraz".

TEO-H2: "Niretzako kristoren ahalegina da gaztelaniaz hitz egitea, kosta egiten zaigu".

TEO-H5: "Hemen goizean jaikitzen zaretenik dena da euskaraz, ez daukazu gaztelaniaz norekin egin".

TEO-H1: "zure inguru guztiak euskaraz egiten duenean ogia erosterakoan, kartel guztiak euskaraz daudenean, ez daukazu aukerarik A eredura joateko, euskara ardatz hartuta daukazu dena.

TEO-H3: "ez dugu pentsatzen, gure inguru guztia horrela da, gure bizitza horrela da".

TEO-H4: " Nire ustez Ondarroan gaizki ikusten da gaztelaniaz hitz egitea, gaztelaniaz ari bazara jendeak esango dizu euskaraz hitz egiteko. Eta ez badakizu ba ikasi egin behar duzu edo gutxienez intentzioa izan. Nik sentitzen dut beharra euskara ikasteko".

Adinekoen adin tartean ondarrutarra euslea dela aipatu da nagusiki:

TEO-A7: "Ni gogoratzen naiz portura joaten ginela, eta han gure amari esaten ziotela a mi h  blame en cristiano, eta gure amak egiten zuena zen azken berba soilik esan kastellanoz" .

TEO-A8: "Orokorrean, euskaraz egiten dugu beti, eta aurrean erdaldunak baditugu ere, geu euskaldunak bagara, euskaraz egiten dugu".

TEO-A7: "Hemen hizkuntza horren ondo irautearen arrazoietakoa bat horixe dela, gure jarrera".

TEO-A4: "Guk galegoa dugu osaba bat, eta bera aurrean denean ere beti euskaraz egiten dugu".

Garai batean, "estatus handiagoko" (itsasoko lana ez zena) lanbidea zutenak gaztelaniaz aritzen zirela aipatu dute adinekoen taldean, euskara maila baxuagokoena zelakoan. Arrantzaleak ziren euskaraz mintzatzen zirenak. Baina, gaur egun, familia horiek ere euskaraz mintzatzen direla aipatu dute eta hori lorpen bat izan dela. Euskararekiko zuten pertzepzio hori aldatu egin dela pentsatzen dute eta, egun, horiek ere euskararen aldeko hautua egiten dutela.

Hizkuntza ohiturak euskaraz

Beraien hizkuntza ohiturei dagokionez, lagun-taldean euskaraz aritzen dira talde eztabaidetara etorritako ia denak, bat izan ezik, berau ia-euskaldunen perfilean koka daiteke. Erdaldunen bat taldean dagoenean, erdaraz egiten salatu arren, euskararako joera dutela eta elkarriketak erdaraz mantentzea kosta egiten zaiela aitortu dute gehientsuenek bai gazteen bai helduen taldean. Erdaldunak luzera Ondarroan geratu nahi izanez gero, euskara ikasi beharko duela uste dute.

TEO-G2: “Guri orain erdaldun bat etorri zaigu ingurura...Etortzen da hilean behin eta berba egiten diogu eta berak esaten du, “bai”, “oso ondo”... Bera kontzientzia dadila guk hemen euskaraz egiten dugula eta gurekin nahi badu geratu euskaraz ikasi beharko duela”.

TEO-G1: “Guk euskaraz egiten dugu gure artean, baina bera dagoenean hor saiatzen gara erdaraz egiten, baina kosta egiten zaigu erdaraz berba egitea, joera daukagu euskaraz egiteko”.

TEO-H4: “Nik abantaila bat daukat. Nik bi hizkuntza egiten ditut, koinatuak euskaraz egiten du, beraien etxean guztiek euskaraz egiten dute, nire ahizpak izan ezik.Guk badugu zailtasun hori, nahiz eta dena ulertu, euskaraz hitz egiteko fretoa dugu. Lagun taldea elebia da, euskaldunak eta erdaldunak daude. Nire kasuan, alderantziz gertatzen zait, ondo espresatu nahi dudanean, gaztelaniara jotzen dut”.

Identitatea/herri hizkera indartsu

Hiru adin taldeetan harrotasunez bizi dute euskalduntasuna eta herri hizkera.

TEO-G5: “Batzuk inbidia inbidia ere bai, batzuk ez daukate”.

TEO-G2: “Hemen kontrakorriente da erdaraz datozenak”.

Adinekoek kalitate hobea dutela hitz egitean aipatu du batek, lehengo berbak galdu egin direla beste batek. Horri jarraituz, gazteek gaztelaniazko koletillak sartzeko joera dutela aipatu dute.

TEO-N7: “Ondarroa oso berezia da, eta bertako hizkuntza ere bai. Bertan bakarrik esaten diren hitzak ditugu, eta guk harrotasunez heltzen diogu horri.”

BESTELAKO FAKTOREAK

Aisialdia

Aisialdi zein kultur eskaintza Ondarroan euskaraz dela esan dute eta herrikoa horrela kontsumitzen dutela. Gaztelaniazko zein ingelesezko kontsumoa egiten badute ere, : filmak direla, musika dela...

Tabernetako giroari dagokionez, gauetan musika erdalduna jartzen dutela aipatu dute, baina horrek ez du beraien ohiturak aldatzen, harremanak euskaraz direla esan dute.

Kirol arloan kiroldegiko eskaintza guztia euskaraz dela esan dute, entrenatzailea kanpoko bada izan daitekeela norbait erdalduna izatea aipatu dute.

Herrigintza

Eragile, elkarteei dagokionez, mugimendua badagoela aipatu dute eta guztia euskaraz dela normaltasunez. Dendarien elkartean, adibidez, euskara hutsez funtzionatzen dutela esan dute, Jaurilaritzak elebitan eskatu arren. Helduen taldeko ia-euskaldunak adierazi du berarentzat "frenoa" izan daitekeela hizkuntzataldeetan parte hartzeko, eta hori gaizki bizi izan duela.

TEO-H5: "Jaurilaritzatik jasotzen diren kartelak ele biz egoten dira, baina guk euskara hutsez egiten dugu. Ekintzak antolatzeagatik ematen diren diru-laguntzak ele biz egon behar dute beste herri erdaldunagoetan euskaraz egongo dela bermatzeko, baina guk ez dugu arazorik, guk euskaraz bakarrik egiten dugu. Guk ez dugu horrelako neurrien beharrik, hemen euskaraz egiten dugu eta listo".

TEO-H4: "Niretzat freoa izan da hizkuntza taldeetan parte hartzeko, eta hori gaizki bizi izan dut".

Komunitateko batzarrak ere izan dituzte hizpide helduen taldean:

TEO-H2: "Komunitateko batzarretan gertatzen dira eztabaidak batzuetan hizkuntza kontuengatik. Hemen egoten dira horrelako gora beherak, norbaitek gaztelaniaz hitz egiteagatik haserreak sortzen dira...mendia erori zenean, batzar batean sortu zen iskanbila. Hainbat herritarrek euskaraz bakarrik izango zela esan zuten."

Mugikortasuna

Mugikortasunari dagokionez, ez dute leku bakarra aipatu joera nagusi moduan. Mugitzeko arrazoiaren arabera ezberdina da lekua. Lanerako Berriatura eta Itziarrera mugitzen dira asko. Erosketak egiteko Bilbo, Donostia eta Durango esan dituzte, besteak beste. Kanpoan ere euskaraz egiteko joera dutela aipatu dute, nahiz eta lekuaren arabera helburua ezin bete. Kanpoan euskara zabaltzearen sentsazioa dutela aipatu da bi taldetan.

TEO-G1: “Nik ikasi nuen Ibaizabalen Durangon eta han elkartzen gara Durangotik gutxi, Galdakaotik, Zornotzatik... eta haiek esaten dute asko pozten direla gu joateagatik bertara, azkenean derrigortzen ditugula beste batzuk euskaraz egitera”.

Adinekoek gutxi mugitzen direla esan dute, baina ateratzerakoa lehen hitza euskaraz egiten dutela.

Turismoa

Turismoari lotuta, Ondarroak turista gutxi jasotzen duela esan dute gazteek eta helduek. Gazteen taldean kanpoan bizi diren ondarrutarrak udan herrira etortzen direla aipatu dute. Ermutik etortzen diren autobusak hondartzen nabaritzen direla esan dute. Helduek etortzekotan egun pasa etortzen direla gehiago esan dute.

Hirigintza/demografia

Ondarroatik jendeak kanpora joan behar izan duela bizitzera aipatu dute helduen taldean. Etxebizitza falta eta daudenak garestiak izatea aipatu dute arrazoiaren artean. Herrian lanik ez dagoenez, jende askok lana kanpora bilatu duela aipatu dute. Lanlekua urruti badago, gero herrira ez zarela itzultzen adierazi dute eta bertan geratzen direla bizitzen.

Biztanleria jaitsiera arazo moduan ikusten dute, baita biztanleriaren adina zahartzea ere, zahar gehiago eta haur gutxiago baitaude.

Hizkuntza politika

Udaleko politika oso euskalduna dela aipatu dute helduen taldean. Ia euskalduna den parte-hartzaileak adierazi du txarto ez duela ikusten, “ze ulertzen dut. Hori niretzat ez da muga bat, ulermena badut. Euskara nirea ere bada.” (TEO-H4)

AURRERA BEGIRA

Ez dute aldaketa handirik aurreikusten etorkizunean. Zerbaiti heltzekotan etorkinekin lan egin beharko litzatekeela aipatu dute. Ez dute uste okerrera egingo duenik egoerak, izatekotan okerrago hitz egingo dela esan du batek.

Kantitatearekin baino kalitatearekin dagoela zeregina diote.

Etorkinekin lanketa berezia egin beharko litzatekeela ere aipatu du batek.

TEO-H1: “Matematika erakutsi aurretik euskara erakutsi behar zaie. Horrek integratzen lagundu egingo dio, eta gero ikasiko du matematika”.

Zerbitzu guztiak euskaraz bermatu behar direla eta kalitatean eragin beharra behin baino gehiagotan aipatu den ideia izan da.


6. DATUEN KONPARAZIOA ETA INTERPRETAZIOA

Behin Ondarroako eta Bermeoko datu esanguratsuenak jasota, eta ikerketa kualitatibo zein kuantitatiboa eginda, datu horien gaineko interpretazioa eta konparazioa egitea izango da atal honen helburua.


Datu soziolinguistikoei heltzen badiegu, ezagutzari dagokionez, euskaldun tasa altua dute bi herriek, %70eko tasatik gorakoa, hain zuzen ere. Euskaldunen dentsitate handiko herriak dira biak eta, alde horretatik, ezaugarri bat partekatzen dute, udalerri euskaldunaren izaera, hain zuzen ere.

1991etik 2011ra izandako bilakaera aztertuta, ordea, joera ezberdinak izan dituztela ikus dezakegu, Bermeok ia 4 puntuko jaitsiera izan du ezagutzari dagokionean, eta Ondarroan zertxobait (+0,7) gora egin du EUSTATEko datuen arabera. Lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntzari erreparatuz, Ondarroan zertxobait behera egin dute datuek, puntu bat eta bi punturen inguruan, hurrenez hurren. Bermeon, aldiz, beherakada 11 eta 12 punturen bueltakoa izan da, ezagutza datua baino dezente beheragotik kokatzen dira lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntzaren indizeak. Azkenik, kale erabilerari begiratuz gero, oso bestelako joerak ikus ditzakegu batean eta bestean, izan ere, Ondarroan azken hamabost urteetan kale erabilera da indartsuen dagoena eta Bermeon, aldiz, kale erabilera beste datu guztien azpitik kokatzen da, 2001az geroztik ezin gora eginik baitabil.

Ondarroako bilakaera soziolinguistikoa 1991-2016



Bermeoko bilakaera soziolinguistikoa 1991-2016




- Pertzepzioak eta datuak

Pertzepzioari dagokionez, bai Bermeon bai Ondarroan ezagutza mantendu egin dela edo D ereduaren eraginez gora egin duela pentsatzen dute bertako herritarrek. Erabilerari dagokionez, ostera, oso bestelako pertzepzioa dute batean eta bestean. Ondarroan euskararen erabilera indartsu dagoen sentipena dute elkarrizketatutako eta talde eztabaidatan parte hartutako guztiek. Euskaraz hitz egitea joera orokorra dela adierazi dute, normalena hori dela. Ildo horretatik, ondarrutarrak gaztelaniarako saltoa horren erraz ez duela egiten aipatu dute eta jarrera hori belaunaldietan zehar transmititu dela iritzi diote. Bermeora etorrira, erdararako joera aspaldikoa dutela aipatu dute elkarrizketatuek, nahiz eta azken urteetan beheranzko joera nabarmen areagotu den. Herritarrak, gainera, ez dituzte gaiak kontzientziazatuta ikusten.

Adin-taldeei dagokionez, Ondarroan haurrak eta nagusiak izan dira aipatuena gehien hitz egiten dutenen artean, batzuek gazteak ere aipatzen dituzte talde euskaldunen artean, eta guztiek oso garbi dute helduak direla gutxien hitz egiten dutenak, hor, askotariko egoerak ikusten baitituzte. Bermeon, umeen artean, euskaraz egiten dutenen kopurua nabarmen jaitsi dela nabarmentzen dute, batik bat, nerabeen artean; baina beste adin-taldeetan ere bai. Dena den, datu orokorrekin bat egiten dute.

Datueta etorrira, pertzepzioetatik nahiko gertu daude datu errealak. Dena dela, Ondarroan nagusien erabilerari buruz duten pertzepzioa datu erreal baino hobea da, eta horrekin harrituta geratu dira. Garai batean estatutik lanera etorritakoak jada multzo honetan daudela eta horren eragina izan daitekeela aipatu da. Bermeoren kasuan normaltzat ikusten dute erabileran izandako jaitsiera, batez ere haurren erabileran izandakoa, gainontzeko adin-taldeen izandako joerari begiratuta, transmisioan hutsune bat izan dela ikusten dute. Askok nabarmentzen dute gurasoek erdararako joera handia dutela eta horrek zuzenean haurren erabileran eragiten duela.

Ondarroako eta Bermeoko kale erabilera datuak, adin-taldeka, 2016 (%):




Horiek horrela, erabileran eragina izan dezaketen hainbat aldagairen inguruko datu bilketa egin dugu arrazoiak bilatu nahian eta, jarraian, aldagaiz aldagai joango gara bakoitzean aztertutako duguna azalduz eta horien gaineko interpretazioak eta konparaketak eginaz.

- Hizkuntza-gaitasun erlatiboa/jarrera

Hizkuntza-gaitasunari erreparatzen badiogu, emaitza oso adierazgarria da, izan ere, Ondarroako galdetegia bete dutenen %75,7k euskaraz hobeto moldatzen dela esan du eta %22,3k bietan berdin, aitzitik, %1,2k baino ez du erantzun gaztelaniaz hobeto moldatzen dela. Bermeoren kasuan, egoera bestelakoa da, erdiak -%50,3k- bi hizkuntzan berdin moldatzen dela esan du eta %38,5ek euskaraz hobeto; bestetik, %10,8k gaztelaniaz hobeto moldatzen dela erantzun du.

Bermeoko eta Ondarroako hizkuntza-gaitasuna, 2016 (%)



Gaitasunari lotuta, elkarrizketa sakonetan ere aipatu dute ondarrutarrak euskaraz hobeto egitearen ustea dutela eta, gainera, gaztelaniaz ondo ez egitearen konplexua duela. Horrek erabilera handitzea dakarrela aipatu dute eta euskara azken muturreraino erabiltzera eramaten dituztela, gaztelaniaz ezeroso sentitzen baitira asko eta asko.

Bermeoren kasuan bi hizkuntzak berdin menderatzen dituzte eta horrek hizkuntza batetik bestera salto egiteko erraztasuna ematen die, euskaraz egitea hautu pertsonalaren esku geratuz.


Adin-taldeari dagokionez, aldeak nabariak dira herri batetik bestera, zenbat eta adinez gazteagoa orduan eta gaitasun handiagoa dute euskaraz aritzekoa bi herrietan, baina euskaraz hobeto moldatzen direnen ehunekoa askoz altuagoa da Ondarroan adin-tarte guztietan. Gazteen ehuneko oso altuak dio euskaraz hobeto moldatzen dela, baita helduen adin-tarteak ere. Adinekoen adin-tartean baxuagoa izan da emaitza, baina kontuan hartu behar da 50etik gorako populazio zabalaz ari garela. Bermeon gazteen erdia inguruk esan du euskaraz hobeto moldatzen dela, baina helduen eta nagusien taldeetan euskaraz hobeto moldatzen direnen kopurua %40tik beherakoa da.

Jarrerari dagokion galdetegiko datua aztertzen badugu, Ondarroako laginaren %81,7k esan du euskaraz egiten duela beti eta Bermeoko laginaren kasuan %51,7k erantzun du

euskaraz egiten duela beti. Aldea nabarmena da, hortaz.

Adin-taldeei arreta jartzen badiegu, helduek eta adinekoek euskarari hobeto eusten dietela ondoriozta dezakegu, gaztelaniaz aritzeko erraztasun bera edo handiagoa izan arren, euskarazko hautua egiten baitute askok, bai Ondarroan bai Bermeon. Gazteak, baina, euskaraz hobeto moldatu arren, egoera erosoagoa bada errazago amore ematen dute.

1. Bermeon eta Ondarroan euskaraz hobeto moldatzen direnen %, 2016
2. Bermeon eta Ondarroan euskaraz ahal duten guztietan egiten dutenen %, 2016



Gaitasuna erabileran eragiten duen faktore bat bada ere, ez dela bakarra ondoriozta dezakegu, motibazioak ere eragina baduela froga baitezakegu datuetan.

- Hizkuntza ohiturak

- Etxean

Etxeko kideen gaitasun eta erabilerari helduz, Ondarroako laginaren %93,3 etxetan denak euskaldunak dira eta %94,4k euskara du hizkuntza nagusia etxean. Bermeori dagokionez, erantzun dutenen artetik %86,7 etxetan denak dira euskaldunak eta %69,3k euskara du hizkuntza nagusia etxean. Datu horiekin ondoriozta dezakegu Ondarroako etxeetan hobeto eusten diotela euskarari. Bermeon etxeko kide guztiak euskaraz jakinagatik, gaztelaniaz aritzeko joera handiagoa dela ikus dezagu eta Ondarroan, aldiz, alderantzizkoa, kideren bat erdalduna izanagatik, etxeko hizkuntza nagusia euskara dutela.

- Eskolan/lanean


Ondarroako galdetegiko laginaren %84,1ek esan du euskaraz aritzen dela lanean edo eskolan eta %6,4k esan du gaztelaniaz aritzen dela nagusiki. Bermeon, aldiz, %43,7k esan du euskaraz aritzen dela nagusiki eta %28,7k gaztelaniaz. Arlo honetan ere aldea nabaria da, beraz. Kontuan hartzen badugu lanean eta eskolan egunero pasatzen dugun ordu kopurua, gainontzeko eguneroko hizkuntza-ohituretan eragina izango duela pentsatzekoa da.

- Lagunartean

Ondarroako galdetegia erantzun dutenen %97,6k esan du lagunartean euskaraz aritzen dela, Bermeon, ordea, %56,8k. Kasu honetan ere, galdetegiko erantzunek klusterreko kale erabilera emaitzen joera berresten dute, nahiz eta datuak dezente positiboagoak izan.

Adin taldeei dagokionez, Ondarroaren kasuan hiru adin-tarteetan euskararen erabilera %95etik gorakoa dela adierazi dute, euskararekiko fideltasun handia erakutsiz, eta Bermeon gazteen adin-taldeak dio euskara gehien erabiltzen duela, klusterreko datuaren (%14,8) dezente gainetik.

Bermeon eta Ondarroan euskaraz nagusiki aritzen direnak, adin-taldeka, 2016 (%)



Talde-eztabaidetan aipatutako ideiek ere bat egiten dute datu horiekin. Ondarrutarrek, adibidez, lagun-taldean euskaraz aritzen dira talde eztabaidetara etorritako ia denak, bat izan ezik, azken hori ia-euskaldunen profilekoa baita. Erdaldunen bat taldean

dagoenean, erdaraz egiten saiatu arren, euskararako joera dutela eta elkarriketak erdaraz mantentzea kosta egiten zaiela aitortu dute gehientsuenek bai gazteen bai helduen taldean. Erdaldunak luzera Ondarroan geratu nahi izanez gero, euskara ikasi beharko duela uste dute.

Bermeoren kasuan, talde-eztabaidatan parte hartutako asko euskaltzaleak izan arren, beraien ingurune hurbilenean ere gaztelaniarako joera badagoela esan dute eta kosta egiten dela horrelakoetan etengabe euskarari eusten aritzea.

- Kultur kontsumoa

Musikari dagokionez, euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan maila berean entzuten dutenen ehunekoa antzekoa da bi herrietan, izan ere, Ondarroako laginaren %59k eta Bermeoko laginaren %60,2k erantzun du aukera hori. Nagusiki euskarazkoa kontsumitzen dutenak, ordea, gehiago dira ondarrutarrak (%24,7) bermeotarrak (%8,9) baino. Azkenik, atzerriko musika gehiago jarraitzen dute bermeotarrek (%27,7) ondarrutarrek (%15) baino. Horrek erakusten du ondarrutarrek euskarazko musikarekiko identifikatuago sentitzen direla bermeotarrak baino.

Liburuei dagokienez ere antzeko zerbait gertatzen da, bereziki gaztelaniaz irakurtzen dutenak gehiago dira Bermeon (laginaren %63,5) Ondarroan (%43,8) baino. Alderantziz, Ondarroan gehiago dira bereziki euskaraz -%15- irakurtzen dutenak Bermeon -%6,6- baino.


Nahiz eta liburuen kasuan gaztelaniazko liburuen kontsumoa dezente igotzen den bi herrietan, datu horiek erakusten dute ondarrutarrak euskarazko produkzioa gehiago kontsumitzen dutela bermeotarrek baino.

- Sare sozialak eta komunikabideak

Arlo honetan ere, herri batetik bestera dauden aldeak nabarmenak dira. Whatsapp-eko euskararen erabilera bereziki altua da Ondarroan, gehienak euskaraz aritzen baitira, lagunarteko ahozko erabilera datuekin bat eginez. Gainontzeko arloetan dezente jaisten da erabilera, aipatzeko da, bereziki, euskarazko telebistaren kontsumo apala. Bermeoren kasuan arlo guztietan erabilera dezente baxuagoa da eta kasu honetan ere aipatzeko euskarazko telebistaren kontsumoa, apenas inork ikusten baitu telebista euskaraz. Gai horrek zer pentsatua ematen duela iruditzen zaigu, batez ere Ondarroako

potentzialitatea ikusita euskal telebistak zer hausnartua izan beharko lukeela uste dugu euskarazko audientzia igotzea lortu nahi badu.

Bermeon eta Ondarroan sare sozialak eta komunikabidea k euskaraz kontsumitzen dutenak, 2016 (%)



- Mugikortasuna, herritik kanporakoa

- Lana/ikasketak

Galdetegiko datuei helduta, lana edo ikasketak direla-eta, ondarrutarren %60k eta bermeotarren %58k erantzun du kanpora ateratzen dela. Bai Ondarroan bai Bermeon kopuru handiena Bilbora joaten da, %19,8 eta %32,5, hurrenez hurren.

Ondarroan aipatu diren beste herri batzuk Gasteiz, Markina, Donostia, Elgoibar eta Eibar dira. Bermeon Gernika, Leioa, Mundaka, Zamudio eta Zornotza aipatu dituzten gehien.

Ondarroako elkarriketetan datu adierazgarri bat ere eman dute, Ondarroan, oro har, ikasketa maila baxuagoak egotea aipatu da eta joera gehiago egon dela inguruko herrietan baino herrian bertan gelditzekoa.

Bermeon, aldiz, elkarriketan Bilbo Handira jende asko joaten dela lanera aipatu da eta hor hizkuntza gaztelania izaten dela eta handik erdara ekartzen dela. Dena dela, Bermeon bertan ere lan mundua erdalduna dela esan dute.

Hizkuntza jarrerei dagokionez, datuak esanguratsuak dira, izan ere, ondarrutarren %51,2k esan du euskaraz egiten duela beti eta %49k ahal duen guztietan, Bermeon,

haatik, %10,5ek soilik esan du euskaraz egiten duela beti eta %61,8k ahal duen guztietan, %11,6k gaztelaniaz egiten du.

Datu horiek adierazten dute ondarrutarren erdiak lanera edo ikastera ateratzen denean ez duela arazorik euskaraz egiteko, bermeotarrek, aldiz, euskaraz aritzeko oztopo gehiago aurkitzen dituzte kanpora ateratzen direnean.

- Erosketak/aisia

Erosketak egitera edo aisialdiaz gozatzera kanpora ateratzeko joera dute bai Ondarroan bai Bermeon, galdetegiko laginaren arabera. Bermeoren kasuan, hala ere, asko ateratzen direnen kopurua altuagoa da. Ondarroan erosketak egitera %34,7 askotan ateratzen da eta Bermeon %40,3; aisiaz gozatzera Ondarroan asko ateratzen direnak %22,3 dira eta Bermeon %30,6.

Datu horiekin bat eginez, elkarrizketa sakon eta talde eztabaidetan, erosketak direla, hainbat zerbitzu direla, aisialdia dela...jendea horrenbeste ateratzen ez den sentrazioa aipatu da Ondarroan. Bermeon, aldiz, herritik kanpo irteteko joera aipatu dute bermeotarrek. Zinera, kontzertuak ikustera edo antzerkira asko Bilbora joaten direla aipatu da, ballabideak herrian izan arren.

Horrenbestez, datu kuantitatibo eta kualitatiboen arabera, Bermeon maiztasun handiagoarekin ateratzen direla kanpora esan dezakegu.

Jarrerari dagokionez, ondarrutarrek euskarari gehiago eusten diote bermeotarrek baino, datuen arabera, lehen hitza euskaraz egiten baitute batez beste Ondarroako laginaren %62,7k eta Bermeokoaren %39,5ek. Talde eztabaida zein elkarrizketetan, ondarrutarrak doan lekura doala euskara berarekin daramala aipatu da, eta galdetegiko datuak irudipen horrekin bat egiten du.

- Mugikortasuna, kanpotik barrurakoa

- Bisitariak

Turismoak herriko euskararen egoeran duen eraginari buruz, bermeotarren %24,9k eragin handia duela uste du, ondarrutarren kasuan %19k uste du eragin handia duela. Aitzitik, ondarrutarren ia erdiak -%49,2k- uste du ez duela ia eraginik, Bermeon %41,8k uste du ez duela ia eraginik.

Datu kualitatiboetara erreparatuz, Ondarroan turista gutxi etortzen den sentsazioa aipatu da elkarrizketa eta talde-eztabaidetan. Aipatu dituzten arrazoiak turistentzako baliabide falta izan dira, aparkaleku falta, lotarako toki falta... Ermutik hondartzara etortzen den autobusa bai aipatu dute baten baino gehiagotan eta horrek erdaldundu egiten duela hondartza. Udan asko direla esan dute herrira etortzen diren ondarrutarrek.

Bermeon nabari dute turismoak gora egin duela, azken urteetan telesailak-eta tarteko. Baina, kopuruz altua izan arren, egun bateko turismoa dela diote. Iritzi ezberdinak dituzte gaiak duen pisuaren gainean.

Datu objektiboetara etorruta, herrira datozen bisitarien bilakaerari erreparatzen badiogu, Bermeoko kopuruak askoz ere altuagoak direla ikus dezakegu. Ondarroan, 2016an, eskuratutako datuen arabera, 7.398 bisitari pasa ziren turismo bulegotik, Bermeon, aldiz, 38.067. Aipatzekoa da, gainera, azken bost urteetan hamar mila pertsonetan igo dela kopurua. Egoera oso ezberdinak bizi dituzte bi herriek turismoari dagokionez, Bermeoko bisitarien etorrera etengabekoa da Ondarroakoaren aldean.

Ondarroan kanpotarrekin ere joera orokorra euskarari eustea dela esan dezakegu, lehenengo hitza euskaraz egiten dutela baitio %77,7k, kasu honetan ere Bermeoko datua-%58- baxuagoa da, erditik gora badago ere.

Bermeok kezkatzeko arrazoi gehiago izatea normalizat jo daiteke, hortaz.

- Etorri berriak

Etorri berriek herriko euskararen egoeran duen eraginari dagokionez ere, aurrekoaren iritzi bertsua dutela frogatu dezakegu. Ondarrutarren %21,7k eta bermeotarren %41,6k erantzun du neurri handian eragiten duela. Aitzitik, ondarrutarren %33,9k eta bermeotarren %18k uste du ez dutela ia eraginik.

Datu kualitatiboetara joaten bagara, Bermeon, migrazioari dagokionez, neurri batean, eragina izan duela diote elkarrizketatuek. Dena den, uste dute etorkinek ez ezik, bermeotarrek ere badutela horren ardura, ez dutelako jakin haien aurrean euskarari balioa ematen. Ondarroaren kasuan, etorritakoen adinean jarri dute arreta; helduaroan etorri direnei zailagoa izan zaiela euskalduntzea diote, baina txikiek ez dutela inongo arazorik izan. Atzeritik etorri direnei dagokionez, kulturalki ezberdintasun handiagoa dute eta integrazioa zailagoa izaten da. Dena dela, seme-alabak euskaraz inongo arazorik ez dute eta erraz integratzen dira.

Datu objektiboetara joaten bagara, Euskal Herritik kanpokoan proportzio bera dute bi herrietan %17a, hain zuzen ere.

Etorri berriekin izaten dituzten hizkuntza ohiturei dagokionez, euskara egiten dute haien maila kontuan hartuta ondarrutarren %63,4k eta bermeotarren %29,7k;

Etorri berriak herrikideekin Ondarroan euskaraz aritzen dira ahal duten guztietan, %85,7 eta bermeotarren %71.

Kasu honetan, beraz, egoera bertsua izan arren, Bermeok ezkorrago ikusten du etorri berriek herriko errealitate soziolinguistikokoan duen eragina. Aldi berean, bermeotarrek beraiek erdararako joera handiago dute etorri berriekin ondarrutarrek baino eta beraiek ere horrela aitortu dute.

- Hirigintza / Demografia

Biztanleriaren bilakaerari erreparatuz, bi kasuetan biztanle kopuruak behera egin duela ikus dezakegu, neurri ezberdinean bada ere; Ondarroak hogelita bost urtean 1944 biztanle galdu ditu eta Bermeok 778. Ondarroa 1981. urtean goia jo eta gero, etengabe biztanleak galtzen joan da; Bermeon neurri txikiagoan gertatu da beherakada, 1991n biztanle kopuruak goia jo zuen eta hurrengo hamarkadan beherakada handia izan zuen, eta azken bi hamarkadan joera mantentzekoa izan da.

Horiek horrela, herritik kanpora bizitzera joan direnen eta hil direnen kopurua altuagoa izan da bi kasuetan bizitzera etorri direnen eta jaio direnen kopurua baino. Bermeoren kasuan, baina, joan etorri horiek euskararen kalterako izan dira, Ondarroan, aldiz, ez du apenas eraginik izan.

Datu esanguratsuen bila, jaiolekuei erreparatu diegu. Bada, kasu honetan ere, oso joera antzekoak ikusi ditugu, izan ere, gehiengo handiena herrian edota Hego Euskal Herrian jaiotakoak dira, Ondarroan %81,54 eta Bermeon %82,63 (Nafarroa salbu). Horietatik Bizkaian jaiotakoak %75,6 dira Ondarroan eta %81,54 Bermeon. Hego Euskal Herritik kanpokoak (Bermeoren kasuan EAetik kanpokoak) %17 inguru bi kasuetan. Horrekin ondoriozta dezakegu, bi herrietara ez oso urrutiko jendea joan dela bizitzera, batez ere. Galdetegiko laginera jotzen badugu, bermeotarren % 76,3k erantzun du herrian bertan jaiotakoak direla eta %12k Bilbon; gero, neurri txikiagoan Gernika aipatu %-4- dute eta

beste batzuk, Barakaldo, Irun, Mundaka, Ondarroa edo Mutriku. Ondarrutarren kasuan, %82,7k erantzun du herrian bertan jaiotakoa dela eta % Durango, Bermeo, Mutriku, Donostia, Azkoitia edo Usurbil. Horren arabera, Bermeora eremu erdaldunagoko pertsonak joan direla bizitzera esan dezakegu eta Ondarroara eremu euskaldunagokoak.

- Geografikoki duen kokapena

Kokapen geografikoari heltzen badiogu, egoera soziolinguistiko ezberdineko ingurunea dute biek. Ondarroa udalerri euskaldunetz inguratuta dagoen herria da, Mutriku, Lekoitio eta Markina %80ko ezagutzaren bueltan dabilta eta erabilera %70 ingurukoa da. Arnasgune indartsuez inguratutako herria izateak babes handia ematen dio Ondarroari, inguruko herriei dituzten harremanak euskaraz izatea bermatzen baitu, hein handienera. Bermeoren kasuan, inguruko herriek ezagutza indize baxuagoa dute, guztiek %70etik beherakoa, Gernikakoa %67,6koa da, Busturiakoa %64,8koa eta Mundakakoa %62,2koa. Erabilerari dagokionez, Gernikakoa da eskuratu ahal izan dugun bakarra, %49,4koa. Erabilera datuak kontuan hartuta, harreman hizkuntza hein handian gaztelaniaz izateak bere logika dauka, eta horrek herriko hizkuntza ohituretan ere eragina izatea pentsatzekoa da.

Bermeon, adibidez, euskal lurgunearen mugan egoteak euskararen erabileran eragina baduela aipatu dute. Eremu erdaldunagoa, Bilbo bera, gertuago egoteak eragiten duela esan dute, Ondarroan, aldiz, inguruko herri denak euskaldunak direla eta horrek euskara bera babestu egiten duela diote.

- Ekonomia/lan mundua

Ekonomiari dagokionez, antzekotasun handia duten herriak direla esan dezakegu. Biak arrantzale herriak izan dira, ekonomia lehen sektorean oinarritu izan da, gaur egun, aldiz, bi herrietan zerbitzuen sektorea da indartsuen dagoena. Ondarroaren kasuan %56,95ek lan egiten du zerbitzu sektorean eta Bermeon herritarren %69,96k. Industriari dagokionez, Ondarroak berak ez du apenas industriarik, bertakoak inguruko herrietako lantokietara joaten dira lanera, Berriatura eta Markinara, batez ere. Aipatu dutenez, lan-harreman informalak euskaraz izaten dira. Bestetik, askok eta asko lana dela-eta, kanpora joan dela bizitzera aipatu dute, eta lanlekua urruti gelditzen bazaie herri horretara joaten direla bizitzera.

Ondarroan lan-mundua jotzen dute gunee erdaldunentzat. Portuak gaztelaniaz funtzionatzen duela diote, hala ere, ondarrutarrek lanean harreman informalean euskaraz aritzen direla aipatu dute.

Bermeoren kasuan, asko eta asko Bilbo Handira joaten direla lanera aipatu dute, eta eremu erdaldunagoetan lan egiteak ondoren Bermeon erabiltzen duten hizkuntzan eragina duela aipatu dute. Dena dela, lan mundua Bermeon bertan ere eremu erdalduna dela diote.

Datu kuantitatiboek ere hori berresten dute, izan ere, askoz ere gutxiago dira bermeotarrak lanera ateratzerakoan euskaraz aritzen direnak.

- Egiteko / ez egiteko arrazoiak

Ondarroan arreta euskaraz egiteko arrazoiak jarri da eta, aitzitik, Bermeon, euskaraz ez egiteko zergatietan. Bere horretan egin zaienean galdera, hainbat arrazoi esan dituzte batean eta bestean. Ondarroaren kasuan gehien aipatu diren ideiak izan dira: euskarazko gaitasun hobea izatea, euskarari eusteko jarrera, arau soziala, beharra, transmisioa eta harrotasuna. Ez egiteko arrazoiak egon dira: gaitasunik ez izatea, integratuta ez egotea eta arlo formalean euskaraz aritzeko zailtasunak (informatika arloa, lan-mundua...)

Bermeon ez egiteko aipatu dituzten arrazoiak izan dira: kultur eta telebista eredua, gazteen artean estatus handiagoa izatea gaztelaniaz egiteak, belaunaldiz belaunaldiko transmisioaren etena, erreferenteak galdu izana, lehen eta oraingo bizitzaren arteko haustura, bikote mistoen eragina eta euskaraz egiteko beharrik ez sentitzea, geografikoki duen kokapena, besteak beste. Egiteko arrazoiak aipatu dira: Militantzia, euskaltzaleasuna etxetik jasotzea, umeak izatean eta txipa aldatzea, besteak beste.

- Identitatea/herri izaera

Ondarroan euskara ondarrutarren identitatearen ezaugarri nagusitzat jotzen dute, euskara uztartuta dagoela diote beraien nortasunarekin, ezaugarri nagusi moduan sentitzen dute. Euskalduntasuna harrotasunez bizi dutela aipatu dute behin baino gehiagotan. Bermeoren kasuan, aldiz, euskalduntasuna edo identitatearekiko atxikimendua galdu egin dela sentitzen dute.

Transmisioari dagokionez ere, oso bestelako egoerak gertatu dira batean eta bestean, Ondarroan garbi ikusten da euskararekiko atxikimendua belaunaldiz belaunaldi transmititu dela eta Bermeon, aldiz, eten bat eman dela ikusten da.

- Herri hizkera/estatusa

Kasu honetan ere oso bestelako pertzepzioak dituzte herri batean eta bestean. Ondarroan herri hizkera harrotasunez bizi dute, oso berea sentitzen dute eta hizkera hori erabiltzen dute ahal duten guztietan, eroso sentitzen dira beraien hizkerarekin. Erregistro informala oso garatua dute eta horrela aritzen dira eguneroko animo egoera anitzetan: barre egiteko, burla egiteko, negar egiteko... Beraien izaerak herri hizkera garatzen balio izan diela aipatu dute, lotsagabeak, burlatiak direla diote eta horrek lagundu diela.

Bermeon, aldiz, hizkuntzaren statusa eta herri hizkera ere nahikoa ahul sentitzen dute. Ikusten dute euskaraz hitz egitea gaztelaniaz jardutea baino xumeagoa dela; eta, bestetik, bi kontu nabarmendu daitezke euskalkiari dagokionez. Batetik, euskara batua eta euskalkiaren arteko gatazka hori; eta, bestetik, herriko hizkeraren belaunaldiz belaunaldiko galera.

- Erreferenteak

Erreferenteei dagokionez, Ondarroan herriko eragile aktiboak, lanean ari diren taldeak, jarduerak dira ondarrutarrentzako erreferente nagusi moduan. Elkartegintza bizia behin baino gehiagotan errepikatutako gaia izan da eta horrek guztiak euskaraz funtzionatzen du.. Herrian bertan euskara da arau soziala eta, alde horretatik, ez dute arazorik ikusten euskaraz aritzeko erreferente horiek.

Bermeora etorrira, erreferente indartsuen falta sumatzen da. Kirola aipatzen dute gune estrategiko bezala, baina une honetan oso erdalduna den eremu bat dela ikusten dute. Futbola jarri dute erdigunean guztiek. Hori dela-eta, aurrera begira, landu beharreko gai bezala ikusten dute erreferenteena, batik bat, "erreferente domestiko" deritzena: irakasleak, begiraleak, gurasoak... halako pertsonak. Erreferente famatuei dagokionez, ikusten dute herrian ez dela "erabateko izarrik".

- Herri bizitza

Herri bizitzari lotuta, Ondarroa herri bizi eta dinamikotzat dute, kalean bizitza asko egiten dela diote eta horren eraginez hizkera bizi-bizi mantendu dela. Bertako etxeak txikiak

izateak eragin zezakeela kalean bizimodua egitea aipatu dute.

Herri bizitza gero eta makalagoa dela adierazi dute. Alde Zaharra hustu, poteoa desagertu... egin dela aipatu dute eta horrek herri bizitza euskaldunaren gainbehera ekarri duela. Jendea mugitzea kostatzen da, eta euskararen mundua jende jakin batekin identifikatzen da. Zerbait antolatzen denean, jendeak ez du parte hartzen, ez dago ohitura hori. Itsasoarekin lotutako ekitaldiek soilik izan ohi dute arrakasta.

- Euskalgintza

Ondarroan euskalgintzako talde antolaturik ez dago egun, Udaleko Euskara Batzordeaz aparte. Dena dela, ez dute arazo moduan bizi hori, izan ere, herrian euskaltzaleak ugari daudela diote eta taldeetan euskararekiko kontzientzia duten pertsonak badaudela. Ondarrutarra, oro har, euskaltzalea dela sentitzen dute. Esfortzu minimo bat eskatutakoan jendeak erantzuten duela diote. Euskalgintzako taldea izatea ez dute beharrezkotzat jotzen Ondarroan, sarea eratzeari eta eragiteko estrategia garatzeari eman diote lehentasuna. Bermeoren kasuan, euskalgintza eta herrigintza, oro har, nahikoa eskas dagoela ikusten dute elkarriketatuek, eta, batik bat, sumatzen da euskalgintzari buelta emateko behar bat. Izan ere, guztiek uste dute beharrezkoa dela euskararen bueltan herritik eragitea.

- Hizkuntza politika

Bi herriek hizkuntza politika indartsua dute. Udalean erabilera plana zein euskara sustatzeko ekintza plana garatzen dituzte. Biak UEMAko kide dira, euskaraz aritzea erabateko lehentasuna dute udaletako hizkuntza irizpideetan. Aipatzekoa da Bikain ziurtagiriaren urrezko izendapena lortu zuela Bermeoko Udalak.

Kontu honetan ere oso ezberdin begiratzen diote etorkizunari. Ondarroan baikor dira etorkizunean euskararekin gertatuko denarekin, Bermeon, aldiz, egoera zail ikusten dute.

Ondarroan arreta euskararen kalitatean, etorkinengan eta eremu formaletan jarri dute. Bermeon, aldiz, kontzientzian eta aktibazioan eragin beharra nabarmentzen dute, batik bat. Horrez gain, aurrera begira zeregin handia dagoela ikusten dute: euskarak herrian

espazioak irabazi beharra, euskal erreferenteak indartu beharra, herrigintzari, herribizitzari bultzada eman beharra, erabaki politiko ausartak hartu beharra...

Lan hori guztia nola egin pentsatuta, Ondarroan talde bat sortzeari ez diote lehentasuna ematen, sare bidez funtzionatuta lortuko dela hori pentsatzen dute. Bermeon euskalgintza aktibatu beharra ikusten dute, euskaldunak trinkotu eta ahaldundu beharra.

7. ONDORIO OROKORRAK

lkerketa kualitatibo eta kuantitatiboaren emaitzak jaso eta konparatu ondoren, hainbat ondorio ateratzeko unea iritsi da. Lehenengo eta behin, esan behar duguna da euskararen erabileran eragiten duten faktoreak askotarikoak direla frogatu ahal izan dugula, guztiek dutela bere pisua eta beraien artean elkarlotuta daudela.

lkerlanaren hasieran planteatu genituen hipotesiak gogora ekarrita, aipatu genituen faktore batzuk erabileraren garapenean eragiten dutela frogatu ahal izan dugu: kokapen geografikoaren eragina, bizilagunek inguruko udalerriekin duten harremanak hizkuntza hautuetan duen eragina, biztanleriaren aldaketa demografikoa eta turismoaren hazkundearen eragina, hain zuzen ere. Dena dela, faktore horiez haragoko beste hainbatek ere erabileran eragiten dutela frogatu ahal izan dugu: herriko erreferenteen eragina, herrian gailentzen diren balioen indarra, hizkuntzaren estatusa, herri bizitzaren indarra eta idatzi gabeko arauen indarra, besteak beste.

Hipotesi haiei tiraka, ikusi dugu kokapen geografikoak berak baduela eragina herri bateko eta besteko euskararen erabileraren garapenean. Ondarroa herri euskaldunez inguratuta egoteak nolabaiteko babesa ematen dio euskarari, inguruko herriekin dituzten harremanak euskaraz izatea bermatuta baitago. Bermeok, aldiz, eremu erdalduna gertuago du, eta hara joateko joera handiagoa dute, Bilbo Handira, batez ere. Datu kuantitatiboek hori berretsi digute, mugikortasunaz eta harreman ohiturez galdetu zaienean. Bermeon inguruko herrietara ateratzen direnean lanera, aisiaz gozatzera, eta abar, harremanak gaztelaniaz izaten dira gehienetan. Ondarroan, oster, adierazi dute harreman horiek gehien bat euskaraz izaten direla.

Azken hamarkadetan, Ondarroan zein Bermeon izandako migrazio mugimenduei erreparatzen badiogu, euskararen ezagutzak lau puntu behera egin du. Ondarroan, oster, zertxobait gora egin du datu horrek. Eta eragina ez da izan Euskal Herri kanpoko pertsonena, inguruko herrietatik joandako pertsonena baino.

Mugikortasunari lotuta, turismoaren gaia ere aipatzekoa iruditzen zaigu, bisitarien kopuruan dagoen alde nabarmena kontuan hartuta. Bermeon turismoak izan duen

gorakada izugarria izan da, azken bost urteetan hamar mila pertsona igo da kopurua. Ondarroan, oster, turismoari apenas dagoela balezta dezakegu. Uste dugu gailaren inguruan bi herriek hausnartu beharra dutela, eta euskara eta herriko identitatea balioan jartzeari lehentasuna emanaz, turismoa sustatzeko neurri jasangarriak zehaztu.

Bestetik, arlo kualitatiboagoetara jota, transmisioaren gaia dugu, batetik. Ondarroaren kasuan ikusi dugu indartsu eutsi zaiola euskalduntasunari; bai erabilerari, bai euskal identitateari. Oso harro eta identifikatuta sentitzen dira beraien hizkerarekin, eta ez dute inongo zalantzarik agertzen, gainera, sentipen hori adierazten dutenean. Belaunez belaun transmititu diren balioak izan dira, beraien aitona-amonengandik eta haien aurrekoengandik datozenak. Bermeon, ordea, haustura bat gertatu da euskal identitatearen transmisioan.

Biek historikoki arrantzale herri izaera izan dute, eta bietan euskarak indarra izan du eremu horretan, errepertorio handia garatu dute bi herrietan arrantza munduaren bueltan. Itsasoko munduaren gainbehera bizi izan dute bi herriek, baina euskararengan izan duten ondorioak oso bestelakoak izan dira. Ondarroak eutsi egin dio euskal izaerari indartsu; Bermeon, aldiz, haustura gertatu dela esan dezakegu. Ondarroan euskaraz aritzen ez zirenak, status handiagoko lanbidetan aritzen zirenak ere euskaraz aritzen dira egun, Bermeon, aldiz, ez da lortu euskal identitatearekiko atxikimendua zabaltzea.

Gaitasunari dagokionez, ikusi dugu ondarrutarrek gaitasun hobea duela euskaraz aritzeko; alderantziz, ikus daiteke bermeotarrek bi hizkuntzak berdina menderatzen dituztela, edo gaztelaniaz hobeto moldatzen direla. Logikoa ere bada, erabilerak berak gaitasuna hobetzea baitakar, eta erabilerarik ezean nekez lortu baita ahozko gaitasuna hobetzea eta garatzea.

Ondarroan euskaraz egiteko motibazioa handia da; bai afektiboa, bai pragmatikoa. Euskal identitatearekin duten lotura afektiboa handia da, eta alde pragmatikotik begiratuta ere, lotura afektiborik ez duenak ere, adibidez, kanpotik etorritakoak, euskaraz egiteko beharra sentitzen du. Bermeon alderantzizkoa gertatzen da, motibazio afektiboa ahula dela ikusi ahal izan dugu eta, bestetik, beharra ere ez dute sentitzen euskaraz aritzeko, ez bada eremu formal zehatz batzuetan, dela eskolan, dela herri administrazioarekin harremanetan...

Euskaraz egiteko hautuari indartsu eusten diote Ondarroan eta ahul Bermeon. Logikoa da, izan ere, transmisioak, gaitasunak eta motibazioak eragin zuzena dute hizkuntza bat edo bestea aukeratzean.

Horrenbestez, ondorioztatzen dugu gai sakon horietan zeregina badagoela eta gaiari serio heldu behar zaiola. Arlo ezberdinetatik (hasi etxetik, pasa eskolatik eta herriko eragileetaraino) lana egin beharra nabarmenduko genuke. Herri hizkera balioan jarriz, ereduak eskainiz, herritarrak ahaldunduz, eta abarren bidez.

Aurrera eginez, herri bizitzaren gaia lerrootara ekartzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, izan ere, aurrera begirako gakoak ildo honetatik ere joan behar dutela ikusten dugu. Oso esanguratsua iruditu zaigu gai hauen bueltako iritziak eskatutakoan jaso dugun informazioa. Ondarroaren kasuan, herri bizitza aktiboa eta dinamikoa dela jaso dugu, kalean bizitza handia egiteko joera izan dute ondarrutarrek, harreman sarea trinkoa da, eta hori guztia euskaraz egiten da. Bermeon, oster, ahulduta sumatzen dute herri giro zein mugimendua. Batetik, Alde Zaharra husteak eta poteoa desagertzeak herri bizitza euskaldunaren gainbehera ekarri duela diote Bermeon, eta, bestetik, jendea mugitzea kosta egiten dela, eta euskararen mundua jende jakin batekin identifikatzen dela.

Erreferenteei dagokionez, Ondarroan pertsona jakinak baino herri eragileak, elkarteak dituzte erreferentetzat eta horrek guztiak euskaraz funtzionatzen du. Inori ez zaio bururatzen gaztelaniaz aritzea, arau soziala oso barneratuta dago, eredu hori da eta listo. Bermeon, aldiz, dauden erreferenteak ez dute euskaraz funtzionatzen. Kirol mundua izan da aipatuena, futbola, batik bat, eta hor eredu gaztelaniazkoa da. Euskaraz lan egiten duten taldeek ez dute erreferentzialtasunik herrian.

Arlo honetan ere zeregina badagoela uste dugu, elkarteekin, eragileekin, norbanakoekin euskarazko erreferente bihurtzen, batez ere. Herri mugimendua, herri bizitza indartu beharra premiazkoa iruditzen zaigu, eta indartze hori ezinbestez euskaratik egin behar da. Gazte talde erreferenteak sortzeari, indartzeari lehentasuna ematea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Hizkuntza bat erabilia izan dadin bete beharreko bermeak azaltzen duen eredu teorikoa

(Martínez de Luna, Suberbiola eta Basurto, 2009: 163-195) oinarri hartuta, hainbat ideia aipatu nahi genituzke. Ondarroari dagokionez, norbanako maila, hau da, gaitasun erlatiboa eta motibazioa erabat euskararen aldekoa dela esango genuke. Maila mikrosozialean ere euskararen egoera osasuntsua da, euskaldunen harreman sarea trinkoa da, euskarari eusteko jarrera nagusia da eta agerikoa da euskaraz egiteko gaitasuna badutela herritarrek. Arazoak maila makrosozialean aurkituko ditugu, hizkuntza politika orokorraren edo bestelako politiken ondorioz etor daitezkeenak. Horri lotuta aipatuko genuke, adibidez, telebista horren pertsona gutxik ikustea euskaraz edota euskarazko kultur kontsumoa datu orokorrak baino baxuagoak izatea... Maila honetan kontuan hartzekoak diren hainbat neurri aurreikusi beharrekoak direla iruditzen zaigu Ondarroak arnasmune izaera indartsu manten dezan.

Bermeori dagokionez, gaitasun erlatiboa badute herritarrek, euskaraz dakitenak gehienak baitira herrian. Motibazioa, ordea, ahul dagoela esango genuke, nahiz eta ezin den aipatu gabe utzi kontzientzia duen jende kopuru majoa, ikusi besterik ez dago galdetegia erantzun duen bermeotar kopurua. Maila mikrosozialera jotzen badugu, egoera ez da baikorra. Euskarazko harreman sareak ez dira trinkoak, nahiz eta egon badauden, baina ez dira orokorrak. Eta arazoa ez da gaitasun falta, euskarazko hautua egiteko motibazio falta baizik. Maila makrosozialean, herri mailako hizkuntza politika euskararen aldekoa da erabat, baina orokorrera jotzen badugu, Ondarroan gertatzen den bezala, zer hobetua badagoela esan behar dugu arnasmuneetan gertatzen ari dena aztertzen jarraituz eta galera ematen ari den lekuetan esku hartze bereziak eginaz.

Horiek guztiak kontuan hartuta, hurrengo atalean Bermeorako zein Ondarroarako aurrera begirako hainbat proposamen egingo ditugu.

8. HIZKUNTZA PLANGINTZAN KONTUAN IZATEKO LEHENTASUNAK

Ondorioetan jasotako ideia nagusiak oinarri hartuta, aurrera begira kontuan izateko lehentasunak jaso ditugu lerrootan, begirada, batik bat, Bermeon jarritz.

8.1. Bermeora begirako proposamenak

Azterketan zehar behin eta berriro aipatu den gaia izan da bermeotarren euskaraz aritzeko motibazio falta. Horregatik, euskaltzaleak bildu eta trinkotzeak erabateko lehentasuna duela uste dugu. Kontuan izan behar dugu motibazioa duen jendea egon badagoela herrian, aurrez ere esan bezala, ikerketa hau egin ahal izateko zabaldu dugun galdetegiak jaso duen erantzun kopuru altuak interesa badela erakusten baitu. Bada, herrian izatez badagoen herri-gogo horri heldu behar zaio, hori izango baita etorkizuneko aldaketa ematen lagunduko duen motorra. Euskaltzaleen bilgune horren zereginak izan behar du Bermeon euskararen erabileraren inguruan hausnarketa partekatua egitea, eta euskarak herrian espazioak irabazteko pausoak zehaztea. Talde autonomo zabala izan behar lukeela uste dugu, gainera; herritarrez zein eragileetako ordezkariez osatua egongo dena, udaletik eta talde politikoetatik bereizia. Euskaltzaleen herritarren bilgunea egotea ezinbestekoa iruditzen bazaigu ere, udalaren egitekoaren garrantzia ez dugu alde batera utzi nahi, biek elkarren osagarri izan behar baitute inongo dudarik gabe.

Balioan jartzekoa da Udaleko Euskara Zerbitzutik egiten den lana euskararen normalizazioan. Alde horretatik pentsatzen dugu bide hori jorratzen jarraitu beharra dagoela. Baina euskara zerbitzuetatik egiten den lanaz harago zeregin handia dago. Euskararen gaia zeharkakoa dela ondorioztatu ahal izan dugu lan honetan zehar, izan ere, erabileran eragiten duten faktoreak askotarikoak dira eta horien ardura ez dago Euskara Sailaren esku soilik. Horregatik, pentsatzen dugu, gaiari ikuspegi zabalarekin begiratu behar zaiola eta adar ezberdinetatik heldu behar zaiola. Horrenbestez, uste dugu, politika publiko guztietan euskararen gaia erdigunean jarri beharra dagoela. Udaleko hainbat sailetan plangintzak diseinatzen direnean, euskararen gaia erdigunean jarri beharra ezinbestekoa izango da benetako urratsak lortu nahi baditugu: gazteei begirako plangintzak egiten direnean, hirigintza plangintzak egiten direnean, kultur politika egiten denean, turismoa sustatzeko plangintzak diseinatzekoan, etab.

Askotan aipatu den gaia izan da herri bizitzarena, eta, oro har, ahul samar sumatu da.

Herri bizitza indartsu batek erabilera ere areagotu egiten du, komunitate sarea trinkotzea ekartzen baitu. Horrenbestez, pentsatzen dugu herri bizitza indartzeko baliabideak jarri behar direla Bermeon.

Herriko talde eragileak, direla kulturakoak, direla kirolekoak, direla aisialdikoak, direla gazte taldeak, herri mugimenduko taldeak... indartu eta sustatu beharra dago; adibidez, egiten duten lana balioan jarritz, beraien plangintza aurrera ateratzeko baliabide ekonomikoak eta bestelakoak emanez, dagokien momentuan protagonismoa emanez, elkarteen arteko sarea indartuz, eta abar. Noski, hori guztia euskaratik egingo dela ziurtatzea ezinbestekoa izango da, emaitza euskararen erabileraren aldekoa izango dela bermatu nahi baldin badugu.

Bide honetan gazte talde erreferenteak indartzeak berebiziko garrantzia du, oro har, gazte mugimendua, bere zentzu zabalenean ulertuta, ahul dagoela sumatu baita. Kontuan hartu behar da gazte horiek izango direla gaztetxoagoen eredu, horregatik euskararentzat positiboak izango diren gazte taldeak sortzea sustatzea garrantzitsua da.

Gazteengandik gertu dauden helduak ere aipatu behar dira, kultura arloan dabiltzan helduak, kirol arloan dabiltzanak... Gazteentzat eredu izan daitezkeen pertsona edota talde erreferenteekin lan egin beharra dago. Kirola aipatu da gune estrategiko moduan, futbola, batez ere. Bada, kirolaren bueltan dabiltzanak ahalduntzea eta euskararen aldeko eragile bihurtzea estrategikoa dela uste dugu.

Jakitun gara herritar taldeak aktibatzeke lana ez dela egun batetik bestera lortzen, emaitzak lortzeko bidea konplexua izatean dela. Uste dugu prozesuan zehar egingo diren harremanak ondo zainduak izan behar dutela, dela norbanakoekin, dela taldeekin egingo ditugun hartu-emanak... Lana eta denbora eskatuko duela ez dago dudarik, baina ondo egindako bideak emaitza positiboak ematen ditu.

Herri bizitza indartzeko bidean, kale giroa ere aipatu nahi dugu; izan ere, alde zaharreko giroaren gainbehera aipatu da, horregatik, alde zaharra biziberritzea ere kontuan izatekoa da. Herritarrak bilduko diren espazioak sortzea ezinbestekoa izango da eta, plangintza horretan, hizkuntza irizpideak ere kontuan hartzekoak izango dira.

Bestetik, turismoaren gaia ere kontuan izatekoa da, izan ere, bisitarien kopuruak nabarmen egin du gora azken urteetan. Gai honek hausnarketa bat merezi duela pentsatzen dugu. Sustatuko den turismoak herriko balioak eta hizkuntza kontuan hartu

behar ditu.

Horiek esanda, hizkuntzari lotuago dauden beste puntu hauek ere aipatu nahiko genituzke:

Euskal identitatearen transmisioan egon den etena askotan aipatu den gaia izan da eta, horregatik, uste dugu transmisioari, bere zentzu zabalenean ulertuta, heldu behar zaiola. Haurren sozializazioan eragiten duten agente guztiak inplikatu behar direla uste dugu egiteko honetan, lan guztia etxearen esku utzi gabe. Hasi etxetik, pasa eskolatik eta aisialdiaz arduratzen diren eragileetaraino iritsi beharra dago. Guztien arteko elkarlana ezinbestekoa izango da gaiari adarretatik heldu nahi bazaio. Ildo honetan, haurrekin lanean ari diren eragile guztiekin lanketa egin beharra ezinbestekoa izango da, horiek ahaldunduz, egoeraren jabe eginez eta euskararentzako eredu positibo bihurtuz.

Aurreko gaiari tiraka, aisialdiko eskaintza guztia euskaraz izan dadin neurriak hartu behar direla pentsatzen dugu, hor garatzen baitituzte haurrek hein handi batean beraien arteko harremanak eta, horrez gain, bizipen positibo asko eremu honen bueltan izaten baitituzte. Horregatik, haurren aisialdia ardatz, herriko eskaintza guztia euskaraz izateko neurriak hartu beharko liratekeela iruditzen zaigu.

Euskal erreferenteen gabezia izan da jaso dugun beste datu esanguratsu bat, bada erreferenteak sortu eta indartzen egitekoa badagoela uste dugu. Nazio mailako erreferenteak izan daitezke, baina erreferente domestikoak deltu zaien horiek dute lehentasuna. Euskarazko ereduak indartu behar dira, izan norbanako esanguratsu, talde eragileak -Kirol arlokoak, kultur arlokoak, herri mugimenduetakoak...-, musika taldeak eta abar. Horretarako, herritarren behar dute kontzientzia bat izan, baina erakunde publikoetatik langundu daiteke, eragileen edo taldeen eguneroko jardunean hizkuntza irizpideei garrantzia emateko eskatuta.

Herriko erreferenteekin batera, herri hizkera balioan jartzea ere lehentasunezko neurrietako bat da. Bermeok herri hizkera bereizia duen arren, ez da nabarmena herritarrak horren jabe izan eta hori balioan jartzen dutenik. Herri hizkera barneratzeak eta haren aldaketa prozesuan eragile izateak motibatzen ditu herritarrak eremu informalean erdararen ondoan euskara hautatzera. Garbiñe Bereziartua Pedagogian doktoreak honakoa ondorioztatu zuen bere tesian:

“Euskalkia ez duten gazte askok gaztelaniara jotzen dute, ez dutelako nahi 'eskolako hizkuntzarekin' saretu beralen harremanak. Lagun artean, 'guaia' izateko, ez dute euskara batura jo nahi. Euskalkiaren jabe ez diren gazteek ez dute baliabiderik modu jatorrean euskaraz hitz egiteko, eta, sarri, erdara hautatzen dute”. (Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo, BEREZIARTUA, 2014).

Beraz, herri hizkerari garrantzia ematea izan daiteke bide bat gazteek zein gainontzekoek gaztelaniaren ondoan euskara aukeratzeko. Dena den, euskara batuarekiko ere ikusten da errezelo bat, eta beharrezkoa da bi aldaerak, batua zein euskalkia, balioan jartzea eta bakoitzaren eginkizunak ulertzea. Hor, beraz, badago tartea lanketarako.

Bukatzeko, esan nahiko genuke euskararen erabilera areagotzeko azken gakoa norbanakoak euskararen aldeko hautua egitea lortzea dela. Helburu hori lortzeko motibazio afektiboa izatea aldagai garrantzitsua bada ere, ez zaigu iruditzen ezinbestekoa denik. Noski, motibatuta egongo den herritar talde bat egotea beharrezkoa izango da, baina horiek inguruan eragitea izango da gakoa. Motibatuta dagoen herritar talde hori indartu eta prestigiatzea garrantzitsua izango da. Bide honetan 2018rako planteatuta dagoen EUSKARAK 365 EGUN ekimena Bermeon egiteak bere garrantzia duela iruditzen zaigu. Herriko harreman sareak euskaraz izan daitezen bidea egiten lagundu dezakeela uste baitugu.

Jakin badakigu, euskararen garapenean beste dozenaka esparru identifikatu direla lan honetan. Hala ere, gehien errepikatu direnak eta gure aburuz estrategikoak direnak jaso ditugu proposamen labur honetan. Izan ere, une honetan, ikusten dugu lehentasunezkoa dela hizkuntzari balioa ematea, motibazioa indartzea, herritar taldeak saretzea, egoeraren jabe izatea eta aldaketarako testuinguru bat sortzea. Ondoren, ziur aski, beste lan batzuk etorriko dira.

8.2. Ondarroara begirako proposamenak

Ondarroari dagokionez, lehenengo eta behin esan nahiko genukeena da euskararen alde bertako herritarrek egiten duten lana eredugarria dela. Izan ere, Ondarroa bezalako arnasguneen ekarpena handia da, eta herrian bertan eta herritik kanpora egiten duen euste lana ikaragarria dela frogatu ahal izan dugu ikerlanean zehar. Horregatik, bada, bertatik euskararen zabalpenean egiten den lana balioan jartzearen premia azpimarratu

nahiko genuke.

Hori esanda, askotan errepikatu diren bi gai aipatuko genituzke, etorkinena, bata, eta, hizkuntzaren kalitatearena, bestea. Etorkin eta euskaldunen komunitateen artean etena dagoela jaso da eta, beraz, etorkinak euskarara erakartzeko plangintza egin beharra aipatuko genuke. Bestetik, kalitatearen gaiari lotuta, kontuan izan behar da, hizkuntza batek, bizia denean, berezkoa duela garapena eta aldaketa. Dena dela, bertako hizkera zaintzen eta balioan jartzeko lanean jarraitzearen garrantzia aipatuko genituzke, eredu egokiak eskainiz. Honekin lotuta, ahuekemonala¹ bezalako ekimenaren balioa azpimarratu nahiko genuke.

Bukatzeko, kanpotik etor daitezkeen faktoreetan jarriko genuke arreta, batez ere; maila makrosozialean, hain zuzen ere. Ondarrutarrak euskaraz egiten du, oro har, bere esku dagoen egoeratan, eta horrela egin ezin duenean bere esku ez dagoen egoeratan izaten da. Hutsune moduan aipatu dira: kultur kontsumoa, lan mundua, hainbat eremu formal, besteak beste. Espazio horiek irabaztea izango da, gakoa, baina, horretarako, Ondarroa bezalako arnagune indartsuak zaintzeko politiken beharra aldarrikatu nahiko genuke azken lerrootan. Egiten diren politika guztietan euskararen gaia kontuan izan beharra premiazkoa da arnaguneetan atzerakadarik eman ez dadin eta euskarak eremuak irabazten jarri dezan.

¹

Aplikazioa jaitsi nahi izanez gero, helbide honetara jo beharko duzu: <http://intdmf.com/ahuakemonala.eus>

9. BIBLIOGRAFIA

- ABOITIZ, J. (2014). Bermeoko gazteak eta euskara. HIZNET Hikuntza Plangintza Graduondokoa.
- BENGOTXEA, X.(2012). Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa. BAT soziolinguistika aldizkaria.
<http://www.soziolinguistika.eus/files/Xabier%20Bengoetxea.pdf> (2017ko uztailaren 12an kontsultatua).
- BEREZIARTUA, G. (2014). Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo. EHU.
- EUSKO JAURLARITZA(2009). Euskara 21, itun berri baterantz. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- FISHMAN, J. (1973). The Ecology of Languages: Essays by Einar Haugen. American Anthropologist, 75 (4), 1078-1080.
— (1991). Reversing Language Shift. Clevedon: Multilingual Matters.
- GABABIDE ELKARTEA (2009). Euskararen berreskuratzea. Hizkuntza biziberritzeko gako batzuk. Agirrezabal, L. (koor.). Eskoriatza.
- HAUGEN, E. (1972). The Ecology of Languages. Stanford: Stanford University Press.
- IURREBASO, I. (2014). Udalerrri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera, 1981-2011. UEMA. <http://www.uema.eus/azterketak/> (2017ko uztailaren 12an kontsultatua).
- MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2001). euskal herriko gaztetxoen hizkuntz egoera aztertzeko eredu orokorraren proposamena. Bat Soziolinguistika Aldizkaria 40 (47-66).
- MARTÍNEZ DE LUNA, I., SUBERBIOLA, P. eta BASURTO, A. (2009). Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.
- SEGUROLA, M. (2015). Udalerrri euskaldunen garrantzia euskararen normalizazio prozesuan. (Lurraldea eta Hizkuntza II. Jardunaldietako hitzaldia; antolatzaileak GFA, UEU, Kontseilua eta UEMA).
<https://www.youtube.com/watch?v=FJvvMNI4B-E> (2017ko uztailaren 12an kontsultatua).

- URANGA, B. (2011). Hizkuntza-ekologia. Ekologia-biologia eta hizkuntza-ekologiaren arteko joan-etorriak. Bat soziolinguistika aldizkaria, 81, 25-50.
 - (2011). Zergatik hizkuntza ekologiarekin bat? Azpeitia. (Hizkuntza ekologia eta lurralde euskalduna jardunaldietako hitzaldia; antolatzailea UEMA). <http://www.soziolinguistika.eus/ganbara/bideo/player5.php?id=3> (2017ko uztailaren 12an kontsultatua).
- VORK, S. eta ALWIN, F. (2014). Ecolinguistics: the state of the art and future horizons. Language Sciences, 41, 6-25.
- ZALBIDE, M. (2012). Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. Hiznet: Hizkuntza Plangintza Graduondokoa (1.3 ikasgaia). EHU eta Asmoz fundazioa.

Prentsako baliabideak:

- Gipuzkoako Hitza: "Arnasguneak, kutsatzen". Interneten eskuragarri: <http://www.uema.eus/wp-content/uploads/2016/12/GipuzkoakoHitza-arnasguneak.pdf> (2017ko uztailaren 11n konstultatua).

10. ERANSKINAK

10.1. Eranskina: Galdetegia

EUSKERAREN ERABILERARI BURUZKO GALDETEGIA

Jarraian euskeraren erabileraren inguruko alderdi batzuei buruz galdetuko jazu. Galdetegi honen asmoa herriko hizkuntz errealitatearen argazki ahalik eta objektiboena lortzea da. Horregatik, galderak zintzotasunez betetea benetan eskertuko deusugu. Jakin egizu hemen erantzundakoak zuri ez deusula ezertan eragingo. Eskerrik asko zure ekarpenagatik.

Garrantzitsua: galdera bakoitzean erantzun bakarra aukeratu beharko dozue.

NI

1. ADINA/EDADEA:

2. GENEROA:

3. BIZILEKUA:

4. JAIOLEKUA (jaio zinaneko zure familiaren bizilekua):

5. HERRIAN BIZITZEN DAROAZUZEN URTEAK:

6. Adieraz ezazu honetako zein egoeratan zagozen:

☐ Ikasten

☐ Beharrean/Lanean

☐ Behar barik/Langabezian

7. Zein hizkuntzatan moldatzen zara hobeto?

☐ Euskeraz

☐ Gaztelaniaz

☐ Bi hizkuntzatan bordin

☐ Besterik:

8. Ostean dagoan zein esaldirekin identifikatzen zara gehien?

☐ Aukera daukadan guztietan euskeraz egiten dot berba

☐ Euskeraz nahiago badot be, egoera erosoagoa bada gaztelaniaz egiteko ez daukat arazorik

☐ Bardin jate hizkuntza batean edo bestean berba egitea

☐ Euskera egoerak holan eskatzen dabenean bakarrik erabilten dot

ETXEA

9. Danok dakizue euskeraz etxean?

☐ BAI

☐ EZ

10. Zein da zure etxeko hizkuntza nagusia?

☐ Euskera

☐ Gaztelania

☐ Euskera eta gaztelania

☐ Besterik:

ESKOLA/BEHARRA

11. Gelakideekin/beharreko kideekin zelan egiten dozu berba?

☐ Euskeraz batez be

☐ Gaztelaniaz batez be

☐ Euskeraz eta gaztelaniaz maila berean

☐ Besterik:

LAGUNARTEA

12. Betiko lagunartean zein hizkuntza erabilten dozu?

- ☐ Euskera batez be
- ☐ Gaztelania batez be
- ☐ Euskera eta gaztelania maila berean
- ☐ Besterik:

KULTUR KONTSUMOA

13. MUSIKA zein hizkuntzatan entzuten dozu?

- ☐ Euskeraz batez be
- ☐ Beste hizkuntza batzuetan batez be
- ☐ Euskeraz eta beste hizkuntza batzuetan maila berean
- ☐ Besterik:

14. LIBURUAK zein hizkuntzatan irakurten dozuz?

- ☐ Euskeraz batez be
- ☐ Gaztelaniaz batez be
- ☐ Euskeraz eta gaztelaniaz maila berean
- ☐ Besterik

15. Badaukazu herriko kultur ekitaldietara joateko ohiturarik?

- ☐ Bai, askotan
- ☐ Bai, batzuetan
- ☐ Oso gitxitan
- ☐ Ez

SARE SOZIALAK, KOMUNIKABIDEAK

16. Telebisinoa zein hizkuntzan ikusten dozu?

- ☐Euskeraz batez be
- ☐Gaztelaniaz batez be
- ☐Euskeraz eta gaztelaniaz maila berean
- ☐Besterik

17. Prentsa zein hizkuntzatan irakurten dozu?

- ☐Euskeraz batez be
- ☐Gaztelaniaz batez be
- ☐Euskeraz eta gaztelaniaz maila berean
- ☐Besterik

18. Sare sozialetan (facebook, twentti, twitter, instagram...) zein hizkuntza erabilten dozu?

- ☐Euskera batez be
- ☐Gaztelania batez be
- ☐Euskera eta gaztelania maila berean
- ☐Besterik

19. Lagunartean whatsapppean zein hizkuntza erabilten dozu?

- ☐Euskera batez be
- ☐Gaztelania batez be
- ☐Euskara eta gaztelania maila berean
- ☐Besterik

20. Interneten zein hizkuntzatan ibiltzen zara?

- ☐Euskeraz batez be
- ☐Gaztelaniaz batez be
- ☐Euskeraz eta gaztelaniaz maila berean
- ☐Besterik

MUGIKORTASUNA (kanporakoa)

BEHARRA/IKASKETAK

21. Beharra edo ikasketak dirala eta, herritik kanpora atera beharrik izaten dozu?

☐ Bai

☐ Ez

22. Zein da inguru horretako hizkuntz egoera?

☐ Nire betiko ingurua baino euskaldunagoa da

☐ Nahiko antzekoa da

☐ Nire betiko ingurua baino erdaldunagoa da

23. Hizkuntzari dagokionean zelan jokutzen dozu?

☐ Euskera erabilten dot beti

☐ Ahal dodanean euskera erabilten dot

☐ Gaztelaniaz egiten dot, ohitura holakoxea dalako

☐ Gaztelaniaz egitea beste aukerarik ez daukat

SARRITAN/EGUNERO EGITEN EZ DIRAN EROSKETAK

24. Arropa, multimedia, etxetresnak eta antzekoak herritik kanpo erosten dozuz?

☐ Askotan

☐ Batzuetan

☐ Gitxitan

☐ Ia inoiz ez

25. Hizkuntzari dagokionean nola jokutzen dozu?

☐ Noan lekura noala nire lehenengo berbea euskeraz da beti

☐ Batzuetan lehenengo berbea euskeraz egiten dot

☐ Zuzenean gaztelaniaz egiten dot

☐ Pertsona ezaguna dodanean bakarrik egiten dot euskeraz

AISIALDIA edo DENBORA LIBREA

26. Aisialdiaz gozatzeraz (dala zinema, direla kontzertuak, direla jaiak) herritik ateratzen zara?

- ☐ Askotan
- ☐ Batzuetan
- ☐ Gitxitan
- ☐ Ia inoiz ez

27. Hizkuntzari dagokionean nola jokatzeko dozu leku horietan?

- ☐ Noan lekura noala nire lehenengo berbea euskeraz da beti
- ☐ Batzuetan lehenengo berbea euskeraz egiten dot
- ☐ Zuzenean gaztelaniaz egiten dot
- ☐ Pertsona ezaguna dodanean bakarrik egiten dot euskeraz

MUGIKORTASUNA (barrurakoa)

BISITARIAK

28. Turismoak herriko euskeraren erabileran eragina daukala uste dozu?

- ☐ Bai, neurri handian
- ☐ Bai, neurri apalean
- ☐ Ez dauka ia eraginik

29. Nun sumatzen dozu, batez be, eragina?

- ☐ Herriko gune jakin batzuetan
- ☐ Kaleko erabilera orokorrean

30. Zelan egiten dozu berba ezezagunekin herrian?

- ☐ Lehenengo berbea euskeraz egiten dot beti, daukan itxura daukala be
- ☐ Euskeraz dakiela dakidanean bakarrik egiten dot berba euskeraz

☐ Lehenengo berbea gaztelaniaz egiten dot beti

ETORRI BARRIAK

Biztanle barritzat bost urte edo gitxiago herrian bizitzen darena hartuko dogu

31. Biztanle barrien etorrerak herriko euskeraren erabileran eragina daukala uste dozu?

☐ Bai, neurri handian

☐ Bai, neurri apalean

☐ Ez dauka ia eraginik

Bost urte baino gehiago herrian bizitzen badarozuz, erantzun egizu ostean dagoan galdera:

32. Zelan egiten dozu berba biztanle barriekaz ?

☐ Euskeraz egiten dot beti, daukan euskera maila kontutan hartuta

☐ Bardin deuste euskeraz edo gaztelaniaz egin

☐ Euskeraz maila apala daukanarekin gaztelaniaz erosoago sentitzen naz

☐ Gaztelaniaz egiteko ohitura daukat beti

Bost urte baino gitxiago herrian bizitzen badarozuz, erantzun egizu ostean dagoan galdera:

33. Zelan egiten dozu berba herrikideekaz?

☐ Euskeraz egiten dot ahal dodan guztietan

☐ Euskeraz egiten deustenagaz euskeraz egiten ahalegintzen naz

☐ Bardin deuste euskeraz edo gaztelaniaz egin

☐ Gaztelaniaz egiteko ohitura daukat beti

ESKERRIK ASKO GALDETEGIA ERANTZUTEARREN

10.2. Eranskina: elkarrizketetako gidoia

Bermeo

Aurkezpena

Zer ibilbide izan duzu euskararen alorrean (ikasketak, lana, militantzia...)?

Zer lotura duzu gaur egun euskararen munduarekin?

Bermeoko euskalgintzarekin zer harreman izan duzu? Datuen irakurketa

Datuak ezagutu aurretik, zer balorazio egingo zenuke azken urteetan Bermeoko euskararen kaleko eta etxeko erabilerak, ezagutza eta lehen hizkuntza datuek izan duten garapenaz? Zer sumatzen duzu kalean?

Orain datuei begira:

Zer irakurketa egiten duzu?

Zein puntu nabarmenduko zenituzke datu horietan?

2006ko datuak dira onenak, oro har begiratzuz gero. 24,07 puntu egin du behera erabilerak soilik bost urtean, 2006tik 2011ra. Zertan ikusi duzu desberdintasuna? Eguneroko zer eremutan nabaritzen duzu jaitsiera hori?

Adin taldeka ere badira desberdintasunak. Kezkagarria da erabileraren ehuneko baxuenak gazteen eta helduen taldekoak direla, eta haurren erabilera datuek ere nabarmen egin dutela behera. Zure ustez, zerk eragin du halako jaitsiera adin tarte horietan?

Adin taldez talde begiratura, zer irakurketa egin daiteke batzuez eta besteez?

Zein arrazoi zerrendatuko zenituzke datu horiek azaltzeko?

Udalerriko bertako faktoreak zein dira, eta zein orokorrak? Pertzepzioak

Hizkuntzaren status-a, irudia. Zenbaterainoko zerikusia du Bermeoren kasuan gai honek?

Herritarren artean bada euskararen normalizazioaren aldeko jarrera bat? Zenbateraino daude kontzientziatuta?

Herriko erreferenteak euskararekin lotu ditzakegu?

Euskararekin ustez zuzenki lotuta ez dauden esparruek zenbaterainoko eragina dutela uste duzu:

o Migrazioa.o Aisiaetakultura.o Hirigintzaeturismoa.o Mugikortasunaetakomunikazioa.o Lana, Bermeon bertan eta Bermeotik kanpo.

Udala eta euskalgintza

Euskalgintzaren egoera zein da herrian? Nola eragiten da euskara elkartetik eta nola eragin beharko litzateke?

Herritarrak ahalduntzeko zer saiakera egin daitekeela pentsatzen duzu?

Ezagutzen duzu zer lanketa egiten duten udaleko euskara zerbitzuek eta udalak, oro har?

Zeri heldu beharko liokete eta zer hobetu daiteke?

Esparru edo gai berri batzuk landu daitezkeela ikusten duzu?

Erakundeen eta herritarren arteko elkarlanak zer bide egin dezake? Aurrera begira

Etorkizunari begira, nola ikusten duzu egoera? Bestelakoak

Ondarroa

Aurkezpena

Zer ibilbide izan duzu euskararen alorrean (ikasketak, lana, militantzia...)?

Zer lotura duzu gaur egun euskararen munduarekin?

Ondarroako euskalgintzarekin zer harreman izan duzu?

Inpresio orokorra

Datuak ezagutu aurretik, zer balorazio egingo zenuke azken urteetan Ondarroako euskararen kaleko eta etxeko erabilerak, ezagutza eta lehen hizkuntza datuek izan duten garapenaz? Zer sumatzen duzu kalean?

Datuak mahai gainean

- Orain datuei begira: Zer irakurketa egiten duzu?
- Zein puntu nabarmenduko zenituzke datu horietan?
- 2011ko datuak dira onenak, oro har begiratzuz gero. Ezagutza baino dezente altuagoa zen erabilera. Nola interpretatu behar dira 2011ko datuak?
- Ia 14 puntu egin du behera erabilerak soilik bost urtean, 2011tik 2016ra. Zertan ikusi duzu desberdintasuna? Eguneroko zer eremutan nabaritzen duzu jaitsiera hori?

Arrakastarako faktoreak

- Adin taldeka ere badira desberdintasunak. Adinekoen eta helduen artean ia 20 puntu egin du behera erabilerak; eta haurren eta gazteen erabilerak zertxobait behera egin badu ere, oso goian mantentzen dira. Adin taldez talde begiratuta, zer irakurketa egin daiteke batzuez eta besteez?
- Ezagutzarekin alderatuta, oso pareko mantentzen da erabilera. Zein arrazoi zerrendatuko zenituzke datu horiek azaltzeko?
- Zeintzuk izan daitezke faktoreak erabilera datuak horren positiboak izateko?
- Ondorengo arloei buruz zer esan dezakezu? Euskararen erabileran zer nola eragiten dute ondorengoek zure ustez?
 - Gaitasuna
 - Estatusa
 - Erreferenteak
 - Herri bizitza
- Zer desberdintzen dute Ondarroa inguruko beste herrietatik? (Deba, Mutriku, Lekeitio...)
- Udalerriko bertako faktoreak zein dira, eta zein orokorrak?
- Herritarren artean bada euskararen normalizazioaren aldeko jarrera bat? Zenbateraino daude kontzientziatuta?
- Herriko erreferenteak euskararekin lotu ditzakegu?

Bestelako faktoreak

Euskararekin ustez zuzenki lotuta ez dauden esparruek zenbaterainoko eragina dutela uste duzu:

- Migrazioa.
- Aisia eta kultura.

- Hirigintza eta turismoa.
- Mugikortasuna eta komunikazioa.
- Lana, Ondarroan bertan eta Ondarroatik kanpo.

Udala eta euskalgintza

- Euskalgintzaren egoera zein da herrian?
- Ondarroan zein egiteko izan behar lukeela uste duzu?
- Ezagutzen duzu zer lanketa egiten duten udaleko euskara zerbitzuek eta udalak, oro har?
- Zeri heldu beharko liokete eta zer hobetu daiteke?
- Esparru edo gai berri batzuk landu daitezkeela ikusten duzu?
- Erakundeen eta herritarren arteko elkarlanak zer bide egin dezake?

Aurrera begira

- Etorkizunari begira, nola ikusten duzu egoera?

10.3. Eranskina: Bermeoko transkripzioak

Maite Alvarez (Bilbo, 1960)

Bermeoko Udaleko euskara teknikaria

PERFILA

Formazioz irakaslea naiz, eta euskararen normalizazio lanetan 1987an hasi nintzen administrazioan. Ondarroako Udalean eta beste hainbat lekutan egin dut lan, teknikari eta itzultzaile modura. Bermeon hasi nintzen ondoren lanean, 1979an, eta ni sartzearekin batera, euskara zerbitzuari norabide bat eman genion, osatu egin genuen: bi teknikari, administrari laguntzailea eta itzultzaileak egin genuen taldea.

Ni euskaltzalea naiz, eta oroimena dudanetik euskaltzalea izan naiz. Bilbotarra naiz izatez, eta gaztetxoa nintzela, gau-eskoletan-eta egon nintzen eskolak ematen. Oso gaztetatik eduki dut euskararekiko zera hori, berba egiteko gogoia, euskaraz bizitzeko

gogoa. 20-21 urtegaraz Ondarroara joan nintzen bizitzera. Bizitzaren zati handi bat Ondarroan egin dut, eta berez irteten zaidan euskara, batik bat, Ondarroakoa da.

GIZARTE ARAUA

Ondarroatik hona etorri nintzenean, susto handia hartu nuen. Sumatzen nuen jende euskalduna erdaraz berbetan, eta ezin nion heldu bihotzari. 1979an zen hori. Arratsaldetan kalera irteten nuen, belarria ipintzen nuen, eta ez nuen ulertzen zergatik hitz egiten zuten erdaraz. Ondarroan oso handia da erabilera soziala, adin guztietako herritarren artean. Euskaraz egiten dute, eta euskaraz bizi dira. Beraz, niretzako txoke handia izan zen. Gainera, ibili nintzen lehen kuadrillan gertatu zitzaigun, mutil lagunari eta niri, nahikoa gauza gogorra: pertsona batek galdetu zigun ea guk beti euskaraz egiten genuen berba. Guk baietz esan genion, noski, euskaraz dakienarekin, behintzat, euskaraz egiten genuela. Eta hark erantzun zigun: Ah, ba guk hemen ez, eh. Guk haurra ikastolara bidaltzen dugu, eta amonarekin ere euskaraz egiten du, baina kuadrillan gaztelaniaz aritzen gara. Oso argi utzi zigun kuadrillako araua zela erdaraz egitea, nahiz eta denak euskaldunak izan. Kuadrilla horregaz, jakina, ez genuen jarraitu. Gaur egun, zorionez, beste kuadrilla batek ibiltzen gara.

Esan nahi dut, Bermeon euskaldunak erdaraz egitearen kontua ez da kontu berria. Igarki dutena da olatu handi baten moduan ari dela erdara sartzen, eta olatu handi horren kontzientzia nekez duela jendeak. Jendea ez da ohartzen hizkuntza aldatzen ari dela. Autopistan ikusten dut euskara galtzen ari dela, eta gu bidezidorretik gabiltz. Hor ikusten dut, batik bat, umeen erabileraren datua herriko egoeraren ispilua dela. Izan ere, umeek beti esaten dute gurasoek entzun nahi ez dutena. Etxeko sekretuak beti kontatzen dituzte, ba orain erakutsi dute zer jokaera dituzten gurasoek ere hizkuntzari dagokionez. Irakaskuntzan tokatu zait ume eta nerabeekin lan egitea, eta pixka bat ezagutzen dut mundu hori. Lotsak ateratzen dituzte. Umeak ari dira ispilua ipintzen. Zer gertatzen ari da gaur egun? Hortxe ikusten dugu, umeak eta gaztetxoak ere erdaraz. Esango nuke hau gertatzen dela Bermeon, eskualde honetan eta Bizkaia zati handi batean, Bizkaia euskaldunean. Ez ditut datu zehatzak, baina badakit Busturialdean hori gertatzen ari dela. Badakit Gernikan oso arduratuta daudela 2016ko neurketan haurren erabileran jaitsiera handia egon delako. Herri txikietan ere, herriko plazan, umeek bereziki erdaraz egiten dute. Bermeo gauza

askotan aitzindari izan da, eta zoritxarrez, honetan ere bai. Zantzu larriak ikusten ari gara.

DATUAK ETA IRAKURKETA

Umeak soilik daudenean, %16-18 artean hitz egiten dute euskaraz. Hau da, 10etik ia 10 ume dira euskaldunak, 9 eta piku; eta berba euskaraz bat eta pikuk egiten dute, bira iritsi gabe.

Aldaketa bat ikusten ari gara azken urteetan. Lehen 13 urterekin hasten ziren hizkuntza aldatzen; gero, 11 urterekin; gero, 10ekin, 8rekin eta, gaur egun, 6 edo 7 urterekin jada hasten dira gaztelaniara jotzen. 2011n ere sumatu genuen beste datu kezagarri bat: gurasoek sasoi batetik aurrera, erdaraz ere hitz egiten diete umeei. Beraz, gurasoek ere erlaxatu dira pila bat.

Faktore asko eta era guztietakoak daude: sozialak, psikolinguistikoak, psikosoziolinguistikoak, politikoak... hiztunek hizkuntzaren inguruan duten pertzepzioak eragina du.

Gazteek eta helduek kezkatzen naute gehien. Hizkuntza galeraren zeinua da umeen eta adinekoen artean izatea erabilera altuena. Helduak dira talderik aktiboena hizkuntza kontuan transmisioan eta gizartean. Umeek egingo dutena imitazioa da, ikusten badute zaharren erdiek, helduen laurdenak eta gazteen laurdenak baino gutxiagok egiten dutela euskaraz, zer egingo dute? Beraiek ere erdaraz egiten. Ispilua da. Imitazioz ikasten dugu umetan, beraz, nork arduratzen nau? Helduek eta gazteek.

EUSKARAREN PRESTIGIOA

Gutxiespen sentimendu handi bat dago. Euskara txarra berba egiten denaren irudia dago, eta euskara batuarekiko mesfidantza handia dago. Gero, uste dut oso kaltetuta dagoela hizkuntzaren prestigioa. Ez dakit gaur egun kontzientea den edo ez, baina jendeak pentsatzen du euskaraz berba egitea gutxiago izatea dela, aldeano kontua dela. Sentimendu hori oso oso barneratuta dago. Hizkuntzaren bilakaeraren prozesuak oso luzeak izaten dira, eta orain ari gara ikusten aurreko urte askotan izandakoaren ondorioa. Horretaz ari naiz eragin soziopsikolinguistikoa diodanean, hau da, hiztunak zelan sentitzen diren euren hizkuntzaren aurrean.

Esate baterako, guk eragile askorekin egiten dugu lana, eta bilera bategaz gogoratzen naiz. Kirol taldeetako ordezkariekin egon ginen bilera hartan, eta batek

esaten zuen: “Beno, nik ez dakit euskaraz, nik bakarrik bermeotarrez egiten dut”. Horrek zer pentsatua ematen du. Sasoi horretan gurekin lanean ari zen teknikaria euskaldun ikasia zen, eta hark esaten zuen nahiko lukeela besteak berba egiten zuen moduan jardutea bera ere. Jende gaztea zen, eta jende askori entzun diot hori: “Nik ez dakit euskaraz, bermeotarrez soilik”. Horrek eramaten nau pentsatzera hor badagoela konplexu edo gutxiespen sentimendu handi bat. Jende nagusiari ere entzun diot esaten: “Neure gurasoek ez zekiten gaztelaniaz, eta nik egin behar izaten nituen itzultzaile lanak. Asko sufritu zuten horregatik, eta nahi zuten nik gaztelaniaz ondo egitea”. Hori ere bada beste faktore psikosoziolinguistikoa. Beti dago arrazoiren bat erabaki bat edo bestea hartzeko, nahiz eta askotan gu ez izan arrazoi horien jakitun. Askotan arrazoi horiek sistemak eragindakoak dira.

IDEOLOGIA ETA POLITIKA

Ideologia politikoak ere ez du asko laguntzen. Oso sabinianoak dira herri honetan. Kanpotik etortzen direnen inguruan hitz egiten da, baina euskaldun asko etortzen gara kanpotik ere. Kanpotik etorri diren askok ikasi egin dute... beraz, nire ustez faktore ideologiko eta politikoek ere pisua dute. Adinekoa den alderdi politikoak hizkuntza gaian duen epelkeria, hemen eta Bizkaian, oso handia da. Bizkaiko Foru Aldundiak hizkuntza kontuetan duen epelkeria oso kezagarria da. Nahiz eta une honetan Gipuzkoako eta Bizkaiko aldundietan alderdi bera egon, jarrerek ez dute zerikusirik. Alderdi horretako kupulak ez du inondik inora euskara jartzen erdigunean, eta Gipuzkoan ez bada jartzen, Bizkaian are gutxiago. Bizkaian instituzioetatik dugun hizkuntza politika negargarria da, eta baten batzuk izan behar dute erantzukizuna.

Adibide asko daude, esate baterako, kirol federazioetan aldundiak ez du bate ere indarrik egiten euskara ziurtatzeko; eskola kirolean, negargarria da panorama. Nik uste dut gizarte erantzukizunaz berba egin behar dutela. Esango nuke udal honek ere, nahiz eta aldeko jarrera eduki eta gauza asko egin euskararen alde, zati handia falta zaio duen erantzukizunari serio heltzeko. Beraz, huts egiten dugu alde askotatik. UEMAn ere ez zarete kontziente zer egoeratan gauden. Ez gara jabetzen benetan zelako galera prozesu azkarrean galduta gauden, eta galera prozesu azkar batean sartuta bagaude, erantzun egin behar dugula beste moduren batera. Leku askotatik erantzun behar dugu. Kale erabileraren neurketako emaitzen berri ematen ari garela hartu dugun diskurtsoa hau da: gizarteak hartu behar duela erantzukizuna; gizarteak

oro har ulertuta, instituzioak, euskalgintza, eragileak, kirol taldeak, eskolak, herritarrak...

DISKURTSOAK

Gu joan den urtean hasi ginen sentsibilizazio lanarekin. Oso kurioa izan da bide horretan zer diskurtso entzun diren herritarrengandik. Diskurtso nagusia izan da “guk egiten ez badugu beste inork ez du egingo”, “kanpotik datozenek ez dute ikasiko”, “euskara hiltzen ari da eta egin beharra duzu”... herriko gizartean zabalduta daude. Ez dago diskurtso osasuntsurik, maitasunaren bidetik, identitatearen bidetik, nahi izatetik sortzen dena. Orduan, uste dut biktima diskurtso horrek kalte egiten duela. Gazteei esan behar diogu hildakoa lepoan hartu eta berpizteko? Ba hori ez da bidea, ez da erakargarria.

Asmatu behar dugu beste modu batera hitz egiten. Egia da kulturaren kontsumoa eta teknologia berrien kontsumoa, neurri handi batean, erdaraz dela, baina beste udalerrri euskaldunetan ere bada, baina euskara gehiago erabiltzen dute haiek. Badira faktore makro batzuk, baina hor zirrikituia ere badago.

Euskarari eusten dionak da bere bermeotartasun izaera horri eusten diolako, duda barik. Bermeotarrak oso harro daude bermeotarrak izateaz.

EUSKARAZ EGITEKO AUKERAK

Jende askok egiten du erdaraz, baina jende askok ere euskaraz egiten du. Ni Bermeon, neurri handi batean, euskaraz bizi naiz, eta badago jende bat euskaraz bizi dena. Gainera, aukera hori eginez gero, Bermeon badira baliabideak euskara bizitzeko. Beraz, norbere hautua da. 10etik 7 pasatxok badakite euskaraz, eta beste bik ulertu egiten dute, beraz, jende gehien-gehienarekin hitz egin dezakezu euskaraz.

EUSKALGINTZA

Euskara elkarte bat bazen lehen, gaur egun ere izenez behintzat badago, baina aktiboagoa zen duela urte batzuk. Nik uste dut gaur egun hilda dagoela, baina ez dute nahi hil. Ez dute nahi ez testigua pasatu, ezta soltatu ere. Urtean pare bat gauza antolatzen dituzte, eta kito. Horregaz ere arduratuta nago, eta esan izan diet. Bazkideekin funtzionatzen zuen honek, eta talde motor txiki batek tiratzen zuen, baina bi-hiru lagun gelditzen dira, gaur egun. Gauza interesgarriak egin dituzte, eta HITZAren jaiotzan ere beraien papera izan zuten.

Aktiboak izan dira, baina horren ondoan udaleko Euskara sailetik 2001-2002tik beti eman izan diogu eta diot garrantzia saretze lanari. Planifikazioa garrantzistua da, baina baita jendearekin lan egitea. Sare zabal-zabal bat osatu behar dugula uste dut. Esate baterako, azterlan honetarako nori deituko diogun pentsatzen hasi naiz. Jende asko ezagutzen dugu, eta gauza politak ikus daitezke. Gure eguneroko lanean ikusi dugu kontzientzia hartzen joan dela jendea, eta hori baloratu behar da. Orduan, horren esperantza daukat nik.

Euskara elkarte baina gaur egun duguna kultur elkarte bat da. Bertsolari jaialdiak, olentzero, herri kirolak... halakoak antolatzen dituzte. Listo. Eragite lana ez da egiten herritik, udalak egiten duena bakarrik dago. Gainera, ez dugu harreman handirik elkarrekin, eta une batzuetan harreman gatazkatsuak izan ditugu. Hainbat aldiz hurbildu naiz aktibotasun handiagoa proposatuz, eta bidali naute haizea hartzera. Beraz, aktiboki pausoak eman behar dira euskara elkarte sendo bat osatzeko: gaur eguneko pentsamenduagaz, eragingo duena eta ahalik eta jende gehienarengana iritsiko dena. Udaletik lanean jarraituko dugu, noski; baina udaletik bakarrik ezin da egin, herritik egin behar da. Herritik iniziatibak sortzen direnean, parte-hartzea ere handiagoa izango da.

UDALAREN HIZKUNTZ POLITIKA

Ikusten dituzu datuak eta pentsatzen duzu: egiten dugun lan guztiarekin nola liteke? Beno, ba nire ustez badu zerikusia autopista eta bidezidorraren metaforarekin. Guk lan asko egiten dugu fokalizatuta, maila txikian, ez dugu lortzen modu masibo batean interbentzioak gauzatzea. Jende askorengan eragitea nahi dugu. Eragin dugu, egia esan: gurasoak, aisialdia, kirola, kultura, enpresak... baina, agian, falta zaigu zerbait... eta, beno, falta da, noski, euskalgintza zentzu zabal batean aktibatzea.

HERRIGINTZA

Orokorrean, oso pasiboa da gazteria herri honetan. Asko kostatzen da emakume taldera, esaterako, gazteak ekartzea. Nik garrantzia handia ematen diot herrigintzari, eta asko mugitzen naiz herrian. Oso gazte gutxi mugitzen da hemen da hemen. Dena den, Ondarroan ere ikusten dut hori, uste dut orokorra dela.

Hemen ez dago gaztetxerik, esaterako. Gazte asanblada bat egon da urte batzuetan, eta bertan behera utzi dute orain. Gutxi batzuk zeuden mila saltsatan, eta ezin iritsi. Egia da bazkari edo afariren bat antolatuz gero, gazte pilla bat batzen zela, baina

lanerako eta eragiteko, antolatzeke, ez zegoen inor. Gaztea txokoetan dago sartuta. Kultura horren falta orokorra da.

Bermeo ez da oso herri kulturala: antzerkia, euskal musika eta rolo guzti hori ez da iristen herritarrengana, eta gazteengana gutxiago. Kultur arloan ere asko kostatzen zaio mugitzea jendeari.

IDENTITATEA

Bete-beteen eragin nuen ETaren su-etenak ere. Arrazoi politikoak badira, argi eta garbi, eta egoera politikoak asko eragiten du. Gainera, Bermeon ez dut ikusten euskalduntasunaren sentimendu hori. Bermeotarra izatea bai, baina euskaldun izatearen harrotasun hori ez dute. Ez dute horrela sentitzen. Nazio identitatean galera handia dagoela pentsatzen dut. Lehengoan esaten nizun... 80ko hamarkadan 20-30 urte izan nituen, eta hamarkada horretan Ondarroan bizi nintzen. Musika eta kultura arloan, mugimendu handi bat sortu zen euskararen bueltan, eta euskaltzaletasuna horrexek loratu zuen, hein batean. Gu astero joaten ginen euskal taldeen musika entzutera, Ondarrun bizi nintzen orduan. Bermeon, ordea, uste dut ez dutela horrenbeste edan euskal kulturatik. Hemen, movida madrileña horrek zuen indarra, Loquillo eta halakoek. Euskal musika, euskal rocka, ez zen erdigunean egon. Eta ikusten da hori, zeren 80ko hamarkada gogoratzeko jaia antolatzen duten bakoitzean... ene, hortera batzuk... beti esaten dut: 80ko hamarkada ez da pasatu herri honetatik? Zeren horrek buelta handi bat eman zion Euskal Herriari, euskaldun izateari, identitateari. Hertzainak eta beste mila talde.

Garai hartako gazteen mundua ikusteko eran eta bizitzeko eran zuten eragina, eta hori ez zen iritsi Bermeora. Gaur egun, horiek dira ume eta gaztetxoek gurasoak. Movida madrileña jende gehiago ezagutzen dute euskaldunak baino.

Beraz, gaur egun ikusten ari garena, nire ustez, ondorio bat da. Gazteek ez dute bizi izan hizkuntzaren errepresio gordina, baina zerbait jaso dute. Psikologian bada adibide bat: tximino batzuei ipintzen diote eskailera batzuen gainean platano bat, baina hartzera doazenean deskarga bat ematen diote. Orduan, batzuk kalanbrea hartzen dute, eta gero, bueltan-bueltan tximinoak aldatuta ere, jada ez diote eusten platano horri, eta elkarri ez diote uzten gora altxatzen. Hau da, beraiek ez dakite zergatik ezin duten platanoa hartu, baina ez dute hartzen. Jokaeraren inbizioa esaten zaio psikologian. Uste dut horretaz asko dugula. Euskaraz egiteko debekua eta zigorra egon denean, inibitu den jendeak zer transmititu du? Ziur aski erdaraz

egiteko, hobeto biziko direla-eta. Gurasoek nahi izaten dute haurrek ez sufritzea, eta uste dut diskurtso hori Bizkaian oso zabalduta egon dela, herri euskaldun askotan. Eta ez zaio buelta eman, zeren horri ere eman daiteke buelta.

Jarrera kontzienteak landu behar dira, kontzientzia soziala piztu, aktibatu... bide horretatik uste dut behar dutela etorri soluzioak. Hori bai, egon badago. Aktibatuta ere bada jendea, baina gehiago behar da. Kontua da 17.000 lagun bizi garela, eta ez dela nahikoa duguna.

BIZIMODU ALDAKETA

Itsasoko bizitzak gainbehera izan du Bermeon, eta hori bazen hizkuntza balioan jartzeko eta hari heltzeko modu bat. Apurketa handi-handia egon da lehengo bizimodua eta oraingoaren artean; ez Bermeon soilik, baina Bermeon ere bai. Gainera, hori, arrantzaleen gainbehera handia izan da, baina beste gune batzuetan ere bai. Hemen baserri inguru handia dago, bederatzi auzo daude. Beraz, ez da bakarrik itsasoa. Hor ere apurketa handia egon da. Bizimodu tradizionalaren apurketa horrek ere ekarri du hizkuntzaren gainbehera. Nire lehen urteetan izan nuen esperientzia tristeenetakoa izan hau izan zen: etxea erosi genuen, eta oso butaka politak zituen. Telak kendu eta berriak jarri genizkion. Butakak konpontzen zituen mutil bati deitu genion, Mañu auzokoa. Aita euskaldun-euskalduna zen, ama ez, eta mutilak ez zekien egun on esaten ere. Etxera etorri zenean, esan zigun: zer politak, halakoak gure aitonak zituen eta sutara bota zituen. Benetan, mina eman zidan, eta pentsatu nuen: “Zure aitonak bota zuen sutara butakekin batera hizkuntza eta izatea ere bai”. Modernidadera begira, ez da transmititzen euskararen balioa. Uste dut gazteek ez dute ikusten euskarak balio dezakeela bizitzeko, kalerako... modu formalerako ikusten dute.

Pertzepzioa da euskara zaharren kontua dela, hiltzen ari den zerbait eta atzean gelditu dena. Atzo, esaterako, Bizkaibusen mutil gazte bi etorri ziren nirekin Bilbotik Bermeora. Sekulako jarria zuten gaztelaniaz, batek tarteka euskaraz egite zuen berba. Zertaz hitz egin zuten? Interneteko joko baten inguruan. Euskaraz bazekien oso ondo, tartean egiten zuten-eta, baina elkarriketa erdaraz zen. Dena erdaraz. Holakoak entzutean gogo bat ematen dizu joan eta esateko... beno, egin euskaraz, faborez! Gainera, askotan, erdaraz aritzen dira berbetan, eta berbaren falta zaienean, orduantxe pasatzen dira euskarara, pentsa! Jakina, euskaraz daude alfabetatuta. Mintzapraktika asko egiten dute gazteek erdaraz.

Dena dela, kaleko erabileraren neurketa egiten denean, egia da, gazteen argazki osoa egiteko aukera ez duela ematen. Gazteak ez daude kalean. Kopuruz gutxien neurtzen dena gazteena da. Beno, ba... pentsa dezagun hori baino gehiago egiten dela.

ERREFERENTEAK

Herrian ez dugu izar erabatekorik. Herriko erreferenteei arreta jarri genien duela urte batzuk egin genuen hausnarketa saio batean. Hasi ginen begiratzen, eta jende asko dago euskal munduan nor dena, baina herrira ez da iristen. Idazleak, antzerki mundukoak, telebistakoak eta abar ditugu, baina ez dute ikusten herrian lidergo bat eragiten dutenik. Kirolean ez dago halako izarrik... Carmona egon zen, baina hark ez zekien euskaraz. Athletic bueltan ere beste bat egon da, baina ez dut uste ospe handirik lortu duenik, eta gainera ez zuen egiten euskaraz. Jende ezaguna egon badago, baina ez dira erreferente edo lider. Liderrik hemen, nabarmenik, ez daukagu. Gure sortzaileak ez ditugu bultzatzen. Ezagutzen dira musika euskaraz egiten duten taldeak, antzerkilariak, idazleak? Ez. Baina egon, badira.

Azken plan estrategikoa egin genuenean, buruan genuen lidergo kontu hori, erreferenteena. Landu dugu neurri batean, baina... zaila.

Lider domestikoagoekin ere ahalegindu gara; esaterako, futbol taldeko gurasoekin. Ez dugu asmatu edo ez dugu lortu gehien mugitzen direnengana iristea. Norbere inguru hurbileko liderrak aurki daitezke: udalekuetako begiraleak, entrenatzaileak... hortik landu daiteke, baina horretarako beharrezkoa da askoren arteko inplikazioa. Hori herrigintzatik soilik egin daiteke: haiek identifikatu, hitz egin... modu bakarra da.

MIGRAZIOA

50-60ko hamarkadetako migrazioak eragina izan du. Espainiako estatuko migrazioa izan da, Extremaduratik asko etorri ziren, eta lehen belaunaldia behintzat ez zen euskaldundu. Euskaldunen partetik ere haiek beti izan dira “trenak ekarritakoak”, eta horrek ere ez du laguntzen. Haiek, gainera, Espainiara etorri dira, hori da errealitatea. Hor bi gauza horiek pisu handia dute: Espainiara etorri zirela eta bertakoen aldetik ere ez dela egon begikotasun edo enpatia handirik. Egia esanda, horien seme-alaba asko bertan jaio dira eta euskaldundu dira, baina identitatean ez da egon aldaketa handirik. Euskal identitatea ez da transmititu. Ezagutzen dut bat oso haserre ibili zena... lana nahi zuen lortu irakaskuntzan, eta horretarako euskara behar zuen, eta amorratuta ibiltzen zen.

HIRIGINTZA

Duela urte batzuk auzo berri bat egin zen, eta horrek ere ekarri du bizimodu tradizionalarekin haustura. Neurri batean, Alde Zaharra hustea. Beno, 70-80ko hamarkadetan hustu zen Alde Zaharra. Etxebizitza asko eraiki ziren urte horietan, eta eragina izan zuen. Alde Zaharra hustuta, ijitoak etorri ziren bizitzera, eta ijito komunitate handia dago Bermeon. Ez daude integratuta inondik inora, eta hizkuntzaren ikuspegitik gutxiago. Alde Zaharraren degradazio handia egon da, nahiz eta azken urteetan buelta ematen ari zaion.

Bizitza, poteoa, Lamera eta portu inguruan daude. Dena asko daude Alde Zaharrean, baina biziberritze behar handia du. Uste dut eragin positiboa izango lukeela euskararen erabileran.

TURISMOA

Ez dut uste eragin handirik duenik. Hau ez da Zarautz edo Lekeitio. Hona datozen turistak eguneko turistak dira. Gaztelugatxe daukagu, eta Bilbora etortzen direnean egun bat hartzen dute Bermeo bisitatzeko: Alde Zaharra, itsasoaren museoa, Gaztelugatxe... eta gero badoaz. Egundateko turismoa da. Horrek herriaren hizkuntzaren erabileran bereziki ez dut uste eragin handi-handia izango duenik. Uste dut eragin handiagoa izaten duela turistak bertan gelditzen direnean lo egiten.

MUGIKORTASUNA ETA KOMUNIKAZIOA

Bilbo hurbil dago, Ondarrutik baino askoz hurbilago. 50 minututan, autobusez, Bilbon zaude. Trena geldoxeagoa da, orduete behar du, baina ondo dago. Beste autobusak ere, Gernikatik zehar doanak, orduete inguru behar du. Bilboren eragina asko antzematen da. Bermeotarrak asko mugitzen dira Bilbora, eta behin hara joanda, hizkuntza aldatu egiten da. Arau bat da eta oso barneratuta dago: Bilbora joaten zarenean, hizkuntza aldatu behar da.

LAN MUNDUA

Gero, nire ustez, baita, beste lanbide batzuk egiten ditu gaur egun jendean, lehen arrantzaletia herria ginen bezala; eta horiek ez daude horrenbeste herrian, kanpora irteten duenak lan hori erdaraz egiten du, eta gero herrira ekartzen du erdara. Horrek uste dut baduela eragin handi bat. Zu egund osoa egund zara beharrean erdaraz, eta erdara ekartzen duzu etxera. Ez dut daturik esateko zenbat jende irteten duen kanpora beharrera, baina jende asko da. Hemen ez dago lan askorik. Kontserberak eta enpresa batzuk badira, baina azken urteetan prestakuntza handia du gazte jendeak, eta horientzat ez dago lana hemen. Esango nuke, gainera, Lea-Artibain eta

Busturialdean ez dagoela gazte horientzako lanposturik, eta Bilbora jo behar izaten dute.

Jendea esportatzen ari gara. Inbertsio handia egiten da hezkuntzan, gazteak oso prestatuta daude, baina gero hori ez da bueltatzen herrira, joan egiten da. Hori, oro har, Euskal Herrian oso kontuan hartzeko gaia da. Zerikusi handia du herri euskaldunetan: ari gara esportatzen euskaldunak, irilatxoetan egongo direnak, eta ez dutenak edukiko euskaraz norekin berba egin. Erdaldundu egingo dira horiek, eta herrira bueltatzean erdara ekarriko dute beraiekin. Herri euskaldunetan dugun gaitz gogorrenetakoa da hori, eta ez gara gai horri erantzun bat emateko edo soluzioa bilatzen hasteko. Ondarroan ere ikusten dut hori, argi eta garbi. 80ko hamarkadan zegoen bizitasunak eta gaur egunekoak ez du zerikusirik. Gazteek alde egin dute herritik, jubilatuen herria bihurtuko gara.

Pentsatu beharko genuke heziketan egiten den inbertsio handi hori zelan ekarri berriro herrira, lanpostuen bitartez. Bizkaian oso desorekatua da herrien eta hiriaren arteko bizitza, denak Bilbora begira bezala daude. Bilbo eta Bilbo handian milioi bat lagun bizi dira, Euskal Herriaren heren bat, eta efektu hori egiten du.

AISIA

Zinera ere Bilbora joaten dira bermeotarrak, eta hemen ere badute zinema. Hori ere bada zantzu bat. Musika edo antzerkia hemen programatzen bada, ez da horrenbeste jende etortzen, eta Bilbon programatuz gero, joaten dira. Kuriosoa da, gauza bera egiteko, herri handiek duten erakartze indar hori.

LEHENTASUNAK

Zelan edo halan asmatu behar dugu euskara erdigunean jartzen, arlo guztietan. Horretarako esparru guztietako eragileekin egin behar da lana, eta orain martxan diren egitasmoetan gehiago sakondu behar dugu. Politikariei belarrietatik tiratzea tokatzen da, eta euskalgintza piztu eta indartzea. Handik edo hemendik horrekin ahalegindu egin behar gara, eragin egin behar da.

ZER DISKURTSO ERABILI

Positiboa. Egoera objektiboa berez ona da. Eskoletan D eredua baino gehiago ez egotea lortu genuen. Umeak jaiotzean, guraso euskaldunek transmititu egiten dute hizkuntza. Horraino, behintzat, egiten dugu. Zelan eutsi diezaiokegu indar horri? Umeak koxkortu ahala ikusi behar dute euskaraz balio duela egunerokotasunerako eta mundu modernorako.

Lider eta erreferenteak lortu behar ditugu, baita ere, eta jendeak haiek euskararekin lotzea. Kirol taldeetako jardunak euskalduna behar du izan. Begira, futbolean dabilta 8 eta 12 urte bitarteko mutilen erdiak; eta nesken artean, %27k jokatzen du eskubaloian. Beraz, futbol eta eskubalo taldeak hartzen badute gizarte erantzukizun hori, oso indartsua da. Horretarako, ordea, ez da nahikoa udala joatea urtez urte. Horretarako, taldeak berak hartu behar du, bere gai modura. Pauso batzuk eman dira, baina orain jartzen dutena baino indar gehiago jarri beharko lukete horretan. Horretan ari gara.

Gai bagara eragileekin elkarlanerako, euskalgintzari buelta bat emateko eta instituzioetatik indar gehiago bideratzeko, seguruena gai izango gara honi buelta emateko edo mugitzen hasteko. Horretarako, askoren borondateak mugitu behar dira. Ez dut galtzen esperantzarik. Egoera txarrean ere, beti daude gauza positiboak, eta aukera eta erronkak planteatu behar dira. Aukerak aurkitu behar dira, baita datu txarrenetan ere, horrek ematen duelako argia.

Asier Abaroa (Bermeo, 1967)

Sagrado corazón ikastetxeko euskara arduraduna

PERFILA

Euskararekin jaio nintzen, euskal giro batean, eta ikastolan matrikulatu ninduten. Gertatzen dena da lehen urte haietan ikasgaiak ez zirela ematen euskara hutsean. Euskal filologoa naiz, eta irakaskuntza munduan aritu izan naiz azken 27 urteetan. Euskaraz gain, gaztelania ere ematen dut. Beraz, gelan gaztelaniaz ere aritzen naiz, baina eskola horietan soilik; gainontzean beti euskaraz. Agian, eskolan dudak jarduna-eta, oso iritzi sektarioa izango dut, egunero ikusten dudalako zer jarrera duten gazteek eskolan, eta horretan oinarritzen naizelako, batik bat, iritzia ematerakoan.

Euskalgintzari dagokionez, ikastetxean ni izan naiz beti euskalgintzarekin eta udalarekin kontaktua izan duena. Azken urteetan, milaka batzar izan ditut udalarekin, aholku batzordeko kidea naiz sortu zenetik eta beti hor nabil. Bestela, norbanako gisa, ez naiz inongo taldeko partaidea.

PERTZEPZIOA

Eskolan eta kalean, oro har, antzekoa izan da galera. Zoritxarrez, gizartean galtzen diren gainontzeko balore guztiekin lotuta dago. Prestigioa galdu du, eta beharrezana ere bai. Irakasle moduan, euskararen erabileraren falta ikusten dut ikasleen artean, baina beste balore batzuen falta ere bai. Gizarteak ez dauka besteenganako beharrik, indibidualismoa gailentzen da. Nik neuk zer behar dut? Horrekin nahikoa dudanez, gainontzekoa bigarren mailan gelditzen da.

Transmisioa beste gako bat da. Gure gurasoek gauza bat oso argi zuten: beraiek ez zekiten hori besteei bermatzeko saiakera egingo zuten. Ardura hori sentitzen zuten. Gaur egun, zoritxarrez, ez intentzio txarrarekin, baina transmisio hori bigarren mailara pasatzen dugu, eta beste gauza batzuei ematen diogu garrantzia. Gabezia hori ikusten dut.

Belaunaldien arteko haustura egon da, eta beste arlo batzuei bezala, euskarari ere eragin dio. Euskararen kasua oso nabarmena da; izan ere, hizkuntza bakarra ez daukagunez, eta gaur egunean jada ez gara elebidunak, hiru eta lau hizkuntza ere hitz egiten dira. Komunikazioa bermatuta dugunez, erdarara pasatu gara. Dena dela, euskara ezagutzeari garrantzia ematen zaio, jakin bai egin behar dela. Horretarako, hezkuntza dago, eta ez zaie gazteei hori baino gehiago exijitzen. Eskolatik maila egoki batekin datoz, eta hori bermatuta dago. Hau da, euskara administratiboa ikastean, beharrak asetuta ikusten dira. Gero, ordea, komunikaziorako beste hizkuntza bat dugu. Nire sasoian, nire gurasoek euskaraz egiten zuten, eta erdaraz erdi-ipurdi zekiten. Haiek sentitzen zutena zen, eta hor dago gakoa, beraiek hizkuntza bat soilik zutela, beraiena euskara zela. Bestea beste bat zen, ez gara hasiko orain inposatutakoa zen edo ez esaten, baina ez zen beraien hizkuntza. Gaur egun, uste dut alderantziz sentitzen dela. Euskara inposatzen dugu, eta bestea dugu barneratuta.

Egunerokorako eta praktikotasunerako erdara ikusten du jendeak, zorionez edo zoritxarrez, esango nuke beste kutsu bat duela. Nik ikasleei begiratzen diet, 15-16 urte ingurukoei, eta denak dira euskaldunak, baina ez dute euskaraz piperrik ere egiten, orokorrean. Baina fibra hori ikutzen diezunean, euskaldun sentitzen dira. Izan ere, gainera, askotan ez dituzte ondo ikusten espainolak, eta haiengatik jarduten dute. Eta nik esaten diet ez garela euskaldunak ikurrina daukagulako. Hizkuntzak ere ez al gaitu egiten euskaldun? Hor ez dakite arrazonatzen, indarra galtzen dute. Nik askotan esaten diet: noraino gara euskaldunak? Kultura? Bale, horrenbeste jai eta ohitura ditugu, izan daiteke. Baina egunero-egunero duguna hizkuntza da. Beraiek

aitortzen dute hori, badakite euskaldunak direla eta euskaraz egin behar luketela. Baina, gero, non gelditzen da promesa hori? Handik bost minutura erdaraz ari dira. Ez dute sentitzen euskara, ez dute bizi. Euskaldunok nortasun bat al dugu euskararen bueltan? Esango nuke, gazteen artean, fiktizioa dela hori.

Kale-neurketek erakusten duten beherakada hori nabarmentzen da eskolan, eta gero eta indartsuagoa da. Gela barruan ere, duela hamar urte, gaztelaniaz entzuten zena ehuneko txiki bat zen, eta gaur egunean bai entzuten da, oro har, erdara hutsean. Sarritan, irakasleekin ere ikasleek, inkontzienteki, komentarioak eta galderak erdaraz egiten dituzte. Konturatzean, gero, aldatzen dute, eta barkamena eskatzen dute. Baina, hasiera batean, irteten zaiena, erdaraz da.

DATUAK

Haurrak hasieratik euskara entzuten dute gehien bat, gurasoek euskaraz egiten dielako. Eskolara etortzen direnean ere, hemen dena euskaraz da. Beraz, ez dira kontziente gizartean aurkituko dutenaz, haientzat euskara da naturala. Inertziaz egiten dute. Baina, apurka-apurka, gero, besteek egiten dutena egiten hasiko dira.

Adinekoen kasuan, asko jaitsi da, baina ez gainontzeko adin-taldeetan bezala. Hori izan daiteke ardura bat oraindik sumatzen duelako talde horrek. “Guk ez badugu aurrera egiten hemen, nork egingo du?”.

Batez ere non dugu akatsa? Gazteetan eta helduetan. Gainera, uste dut bi talde horiek kontaktuan gaudela. Helduok ohitura galdu dugu. Helduez hitz egitean, nire ikuspuntutik, irakasleek eta gurasoez ari naiz. Guraso asko, zoritarrez erdararen munduan bizi dira. Erdaraz dira beraien komunikazio moldeak: poteoa, parkeko egonaldiak, erosketak, kafetegian... erdaraz dira. Euskaraz dakite? Ia den-denak bai. Irakasleak, berriz, gela barruan ahalegintzen gara dena euskaraz egiten, baina gero, era formaletik informalera pasatzen garenean, gure artean ere badakigu erdaraz egiten, kalea bezalaxe. Beraz, guk pistoia bajatu dugu, eta ikasleak horren kontziente dira. Ikusi dute momentuz nahikoa dutela gaztelaniarekin komunikazio egoera normalei erantzuteko. Dana lotuta eta eginda dago.

Etorkizunera begira, agian, haurren zifra izan daiteke gehien kezkatzekoa. Gazteek, demagun, bihar edo etzi beste egoera batzuetan, egin dezakete euskaraz. Sinisten dut, agian, piztuko zaiela bonbilla. Baina haurrek hain umetatik halako zifrak emanda, izango dute aukera hori berreskuratzeko? Hain umetatik halako mundu erdaldunean

bizita, arazoa izan daiteke, baita ere, gaitasunarena. Hemendik urte batzuetara euskalduna izan nahi, baina ezin izatea, eta erdara izatea erosoena.

Mailari dagokionez, euskaraz zein gaztelaniaz, bietan, ahuleziak izugarriak dira. Adierazpena, euskararekin batera, kaxkarra da. Ez dakite adierazten, euskaraz zein erdaraz. Minutu batera heltzeko zerbait azaltzen, arazoak dituzte. Gaurko irakasleok hor badugu zeregin handi bat, ikasleak trebatu behar direla gaitasunetan.

BERMEO ALDATU DA

Itsasoak eta haren eragina galtzeak arrazoiren bat izango du. Baina ni beste mundu batetik nator, eta gehiago ukitu nuke gizartearen baloreen galera. Dena den, argi duguna da itsasoko giro horrek asko laguntzen zuela lehen. Arrantzaletasuna euskalduna zen, eta horrek balio handia zuen.

EUSKARAREN STATUSA

Gazteentzat euskarak duen prestigioa oso-oso makala da. Ez dut esan nahi bate ere ez, baina makala. Kontzienteki, hauxe da diskurtsoa: euskara behar dut bihar edo etzi eskatuko didatelako eta lanerako beharko dudalako. Baina, bestela, bizitzeko behar-beharrezkoa ez dute ikusten. Suertatzen denean erabiliko dut, baina inkontzienteki erdal munduan erosoago sentitzen dira.

Popularragoa da, oro har, erdaraz hitz egitea. Ez ikasle guztiengan, eh. Baina askorengan bai. Euskaraz eginez gero, frikia da... beno, frikia ere ez dut esango, baina etxeko gauzatatzat bezala ikusten da. Dena den, ikusten dugu, gero, etxean ere ez dutela egiten. Askotan ematen dituzten arrazoiak dira erdaraz egiten dutela gauzak sinplifikatzeko. Beraz, guay-a izatearen kontu hori egon daiteke inkontzienteki, baina nik uste dut gehiago dela ohitura hartu izanaren kontua.

JARRERA

Herrira begira, uste dut euskararen normalizazioaren aldeko jarrera badagoela, baina nahiko isolatua dela. Perfil jakin bat da. Daudenak oso arduratuta, inbolukratuta eta langile daude, baina 17.000 herritarren artean irlatxo bat da. Ikastetxe mailan, jada ez da irla bat ere. Itsasoan, kontenedore txiki bat-edo izango litzateke. Egia esan, 15-1 urtegaraz, ez dakit geuk ere halako konpromisorik edo gaitasunik ba ote genuen, baina gaur egunekoek bai ezetz. Beste mila gauza dituzte buruan, eta hizkuntzaren ardura eta irrika ez dute. Orokorrean, euskararen inguruan ez dute ez jarrera positiborik ez negatiborik. Hor dago, zuk irakatsi niri, nik ikasiko dut eta bale. Gauza pasiboa da

beraientzat, eskolan euskara matematika edo beste ikasgai bat bezala da. Badakigu, baina ez dugu sentitzen. Beraien berba hauxe da: “Ahaztu egiten zait euskaraz egin behar dudala”. Ez dut uste borondate txarrez egiten denik, baina ahaztu, konturatu gabe, barkatu... halakoak ikusten dira.

Gero, betiko diskurtsoak daude, espainolarekin eta ingelesarekin aukera gehiago daude kanpoan lana egiteko eta abar. Horretaz ere egongo da. Dena den, uste dut hori ez dela gakoa, motibazio falta baizik. “Momentuz ondo sentitzen naiz erdararekin... irakasleek bronka botatzen didate, baina beste guztiarekin bezala, belarri batetik sartu eta bestetik atera”. Halako zerbait ikusten dut. Uste dut gizarte bezala ohituta gaudela beti bronka berak entzuten, baina jarrera berarekin segitzen, eta ez naiz ari soilik gazteez. Gainera, bronka eta “inposaketa” klase horrek, agian, ez digu asko laguntzen.

ERREFERENTEAK

Herri mailan egin ditugu saiakera batzuk erreferenteak aktibatzeke. Agian, ezkor nago, baina nik ez dut nabaritu horren ondorioz euskararekiko beste posizionamendu edo jarrera bat azaldu denik. Ez dut uste lotura hori lortzen dugunik. Herrian ditugun erreferente asko ospetsuak dira, baina ez dute eragiten. Agian, bideo batean agertuz gero, ikusiko dute, baina anekdota bezala gelditzen dela uste dut.

BESTELAKO FAKTOREAK

Migrazioak, hirigintzak, turismoak, komunikazioak, kultur ereduak... denak dute eragina euskararen erabileran. Baina ez dut uste horietan dagoenik gakoa, uste dut zerbait orokorragoa dela, eta, gero, jakina, horiei ere eragiten die. Konparaketa bat datorkit burura: Bizkaian Athletic zaleak gara, berdin du etorkina izatea edo bertan jaiotakoa; berdin da ideologikoki ezkertiar edo eskubiko izan... denok athletic zaleak gara. Athletic sentitu egiten dugu, geurea da. Kamiseta jartzen dugu pentsatu gabe, eta zoratuta bizi gara. Euskararekin ez da horrela. Imigranteak zergatik sentitzen du athletic bere eta ez euskara? Hemen bazaude eta ikusten baduzu zein den herri honen bizitzeko modua, integratzeko modu bezala ikusten du, eta hurbiltzen da Athletic-en mundura. Beraz, denak izan dezake eragina, baina beharrezko sentitu behar du pertsonak euskara, eta hori dago oinarrian.

Ez du balio esatea euskara ez dugula egiten imigranteengatik. Ez, geuk ez dugu egiten gure artean. Ez dut esaten nik dena euskaraz egin behar dugunik, baina euskaraz egin behar dugu gaztelaniaz bezala, behintzat. Hizkuntza bakoitza zenbat

eta hobeto eta gehiago erabili aberatsagoa izango zara, aukera gehiago izango dituzu bizitzan.

Turismoak eragina izango du urteko momentu batzuetan, baina uste dut gero, urte osoan, ez dela horren nabarmena eragin hori. Nik Lekeition ez dut gaztelaniaz hemen bezala entzuten neguan. Nik ulertzen dut aurkitu nahi ditugula faktore batzuk honi azalpenen bat emateko, baina faktore horiek ezin dute izan aitzakia euskaraz ez egiteko. Etorkinen kontuarekin bezala. Bale, eragina du etorkinak gure artean izateak, baina guk erabakitzen dugu erdaraz egitea.

LAN MUNDUA

Jakin behar dugu non gauden eta zer egiten ari garen momentu bakoitzean. Posible da herritarrak Bilbora eta inguruetara joatea lanera, eta han erdaraz egitea. Baina aitzakia bat da hori. Euskaraz badaki, jakin behar du egiten egin behar dena. Dena den, bai, errealitatean bai, ziurrenik, hori hori gertatzen da. Ohitu egiten gara, edo erosotasunera jotzen dugu. Bilbon nago egun osoan, lankideekin erdaraz egiten dut, batzarrak erdaraz egiten ditut... banator Bermeora, eta erdaraz egiten dut? Bai, gertatuko dela uste dut. Baina niretzako, berez, hori onartezina da.

EUSKALGINTZA

Askotan ez dugu ezagutzen egien den lana. Beti aitzakia edo erruren bat botatzeagatik, erraza da lanean ari denari jardutea. Niri ez zait gustatzen hori. Badakit egiten dena ondo aztertuta eta neurtuta egiten dela. Zoritxarrez, egiten den guztia ez da heltzen herritarrengana, eta egiten denak ere erantzuna ondo eragin pobrea du. Askotan konpromisoz egiten ditugu gauzak, ez nahi edo sentitzen dugulako.

UDALAREN LANA

Udalaren arduretariko bat da euskara, eta ikastetxeei asko eskatzen digute. Gu saiatzen gara ahalik eta ondoen erantzuten. Nik ulertzen dut ikastetxeetan lan handia egin behar dela, bertako jendea delako egunero bakunatu behar duguna. Kalera begira ere, uste dut udaletik lan asko egiten dela. Batzuk oso probetxugarriak izan dira, baina beste batzuk hortxe gelditu dira, apur bat, nahi eta ezinean-edo.

LEHENTASUNAK

Hasieran esan dizut nahikoa ezkor nagoela aspaldian. Batzar asko egin ditugu, eta beti heltzen gara momentu batera... barita magiko hori nahi dugu lortu, eta ez dakigu nola. Ez dakit erantzuten, benetan. Gizakiok gauza erakargarri bat dugunean, ez dugu bi aldiz pentsatzen eta hra goaz buru-belarri. Euskarak behar duena da

erakargarritasun hori lortu eta atentzioa deitu. Euskarak egin behar du imanaren lana, jendea bere bueltara murgiltzeko. Ekimenek ez dute funtzionatzen, hor jartzen dituzu panelean, baina alferrik. Eta kontua da euskararen bueltako ekimenak izan edo gurasoentzat ez dakit zeren inguruko ikastaroak izan, berdin duela. Interesak, beharrak eta premiak desagertu egin dira. Interesa galdu da. Zoritxarrez, ikastetxearen bezero bihurtzen dira gurasoak, guk beraien exigentziak betetzen ditugu, eta ondoren, bueltan jasotzen dituzte haurrak. Beraz, batez ere, beraien exigentziak dira, kanpo-exigentziekin ez dute pentsatzen.

DISKURTSOA AURRERA BEGIRA

Ez da bate ere erakargarria gazteei esatea euskara hiltzeko zorian dagoen hizkuntza bat dela, beraz, egin egin behar dutela. Galdetu behar dugu euskarak zer ematen digun. Sentimenduekin jokatu behar dugu. Faktoreak, zergatiak... aztertu behar ditugu; eta, ondoren, horiek zabaldu eta balioan jarri. Lehen esan dut euskalgintza isolatua dela, ba... isolatua izateaz gain, betikoak dira, aurpegi berinak beti. Zuk imajinatu nik ematen diedala euskara eskolan, eta gero ekimen bat prestatzen denean kaleko girorako, ni agertzen naizela han. “Asier, nahikoa da, dena zuek, beti euskararekin lotutako gauza guztiekin zeu zatoz”. Ba, bai, arrazoia dute. Beste era bateko jendea, aurkezpenak edo moduak behar ditu. UEMAK ere prestatu du hizkuntza proiektua, baina geu ari gara ematen. Bideoak eta materiala ona da, baina ez dugu lortzen.

Kontua da gu hemen gaudela, eta beraiek han, eta esaten diegula: “Ei, etorri nik hemen hau daukat!”. Beraiek esaten dute: “Eta? Ni hemen nago”. Ba horixe, lortu behar dugu hurbiltzea. Zertarako mugituko naiz lekuz, eroso banago? Distantzia dugu, eta zubiak egin behar ditugu. Ez dakit nola egin praktikan, hori teoria da. Ni neu iritsi naiz momentu batera non blokeatuta sentitzen naiz.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Gauza ziklikoak dira hauek, hori uste dut edo uste nahi dut. Orain 50 urte, ni jaio nintzenean, ez zegoen egoera perfektua, lehenago, duela 70 urte, txarragoa zen. Orain hau etorri zaigu. Aldaketa etorriko da. Ez dut uste txarrera izango denik egoera... norbaitek jakingo du zerbait egiten eta honi buelta ematen. Horren sentsazioa edo ilusioa badut. Krisi ekonomikoekin ere gertatzen da, ziklikoak direla eta buelta ematen dutela. Orain, nola eta noiz, hori... ez dakit zer esan. Ez da erraza, zeren ez dira pertsonak aldatu behar ditugunak. Ideiak aldatu behar ditugu, eta hori ez da erraza. Estereotipoek jarrera ezkorrak sortzen dituzte, eta hori aldatzea ere ez

da egun batetik besteko kontua. Euskaldunen estereotipoa geuk ere uste dut larregi indartu dugula. Baina arazoa eguneroko ohituretan dago.

Aizbea Renteria (Bermeo, 1972)

UEMAko koordinatzaile ohia eta itzultzailea Bermeoko Udalean

PERFILA

Ni naiz familia euskaldun ez kontziente bateko alaba. nire familia guzti-guztia euskalduna da, denak dira hemen jaiotakoak eta denak dira euskaldunak. Ez dira kontzienteak, orain momentuan igoal nire gurasoak apur bat gehiago, baina eurak izan dira euskaldunak ba inertziak, Bermeon jende asko egon dan moduan.

Ez dakit ze momentutan sortu zitzaidan hizkuntzaren kezka, ez dakit, zeren zientzietatik joan nintzen institutuan ere. Euskal filologian nengoela, taldetxo bat eduki genuen euskararen bueltan. Karrerako laugarren mailan, dirua behar nuelako, ez beste ezerengatik, AEK-n hasi nintzen, orduan 20-22 urte neuzkan. Hor ezagutu nuen nire gizona, ni irakasle, bera ikasle: hasieran gure harremana erderaz hasi zen, gaur egun berak bermeotarrez daki, hau da, euskaldun osoa da. Gero karrera amaituta, AEK-n jarraitu nuen, Uribe Kostako AEK-n, gero hortik jada beste leku batzuetan ere hasi nintzen klaseak ematen, Labairu-n eta horrela, hortik hasi nintzen Mungiako udalean beharrean, itzultzaile eta euskara teknikari. Bermeoko udalean baita ere egon nintzen Maiteri ordezkapen bat egiten, eta gero deitu zidaten UEMArako. UEMAn egin ditut 15 urte. Sasoi latzetan, orain baino gatzagoetan, eta 15 urteren ostean, nire ibilbidea amaitu da UEMAn, eta hasi naiz hemen beharrean. Herrian ez dut militatu inoiz. Seme zaharrak 15 dauzka, eta txikiak 14. Beraz, beste lehentasun batzuk eduki ditut. Ez militatzeak talde baten ez du esan nahi euskararen alde ez dudarik ezer egin.

Bizitza pertsonalean, erdaldun bat euskaldundu dut, edo berak euskaldundu du bere burua. Bikote misto batetik dauzkagu bi seme euskaldun oso kontziente, batez ere, adinekoa, eta txikiak ere euskaraz egiten du. Eta ez dakit hemen inguruan ibili zaren, baina bermeon euskara oso-oso gutxi egiten da... oso gutxi, pasada bat, oso mingarria da.

PERTZEPZIOA

Beherakada handia izan du euskararen erabilera herrian, eta gainera ni gehien kezkatzen nauena da jendea ez diola ardura. Nik 20 urte inguru edo nituenean, Maite Bermeoko udalean beharrean hasi aurretik, beste euskara teknikari bat zegoen, eta gu ibili ginen, kale erabilera neurketa egiten, baina udalak antolatuta. Eta orduan joaten ginen horrelako mikrofono batzuekin ezkutuan, eta grabadora batzuekin jendea entzuten ea zelan egiten zuten berba. Joan izan ginen, meza zegoenean kanpoko aldera, tabernatarak, azokatarak, eta orduan ikusi zen jaitsiera handia zegoela, batik bat, gazteen artean. 90a baino lehenago zen hori.

Nik pentsatzen dut jendea esan egin behar zaiola ez dela egiten. Ez da egiten, eta Bermeo jada ez da herri euskaldun bat. Argi ta garbi esan behar da. Eta hor igoera bat egon zen, gaur egun ez nago ziur jendea esanda ere, “hau ez da herri euskalduna”, jendea ardura dion ala ez.. pentsatzen dut ez diotela ardura. Bere garaian, nagusi batek esaten zizun, “Tzo! Alabatxi! Erderaz zaitzate?” Eta aldatu egiten zuten. Nik orain dela 5 edo 6 urte nire semea-eta frontoian zeudelarik esan izan diet “Txo.. erdaldunak zarete, espagnolak zarete edo zer ala?” “Y a ti que te importa?”. Gura dut esan, ikusten dut, balore asko galdu direla, bai abertzaletasuna, errespetua nagusienganako... hizkuntzarena da horietako bat, eta jendea ez dio ardura. Hori da ni kezkatzen nauena. Jendeak badaki euskaraz, eta apur bat ardura balitzaio, egingo luke euskaraz; baina eske ez zaio ardura. Horrek kezkatzen nau. Hemen 2006tik 2011ra zerbait abismala gertatu da.

DATUAK

Niri adinekoek asko kezkatzen naute. Eurak dira hizkuntza haurrei erakusten dienak. Beno, adinekoek helduei, eta helduek haurrei. Eta hau jada... ez sinistekoa da, nagusiek erdiek bakarrik egitea... eta seguru nago, adinekoen artean soilik kontutan edukiko bagenitu 60-70 urtekoak, askoz baxuagoa litzatekeela erabilera; hau altxatuko du, 70-etik gorakoak. Baina adinekoak dira hizkuntza pasatzen diena umeei, ez gurasoak, gurasoak apur bat baita ere, baina amama eta aititak dira. Eta oraindik, kalitatezko euskara apur bat pasa behar bada, hauek dira pasatu behar dutenak. Kalitatezko euskara egiten dute. Hemen helduek, batzuk oraindik bai badaukagu, baina beste batzuk ez. Eta gazteen artean... lehen gauza da egiten ote duten, eta gero, zelan egiten duten. Ni horrek kezkatzen nau.

10etik 2k ere ez dute euskaraz egiten, hori errealitatea da. Eta gazteek egiten dute erdaraz, helduek egiten dutelako. Lehen erdarara pasatzen ziren 14 urterekin edo...

14 urtera arte eduki duzu kalitatezko euskara bat, eta gaur egun 6-7 urterekin jada... gurasoak pasatzen dira erderara, eta seme-alabak haiekin.

BIZI EREDUA

44 urte ditut nik, eta 18rekin joan nintzen unibertsitatera. Orain 50 urte dituzten belaunaldi horretako zati handi bat hilda dago. Drogagatik, HIESagatik... sasoi hori arte, jendea itsasotik bizi zen. Gurasoetatik semeetara pasatzen ziren itsasontziak; eta alabak joaten ziren arrain kontserba fabriketara, sareetara edo neskatile edo dena delakoa.

Nire aita armadorea izan da, nire aitak itsasontzi bat zeukan. Nik planteatu nuen, nik nautikara joan nahi nuela, eta amari esan nion udaran nik portura joan nahi nuela, giro hori asko gustatzen zitzaidala. Esan zidaten ez tajante bat. Eta, beno... nire aitak ez zidan utzi itsasora joaten, neska naiz eta horrek ere eragiten du, baina ez tajante bat. nire kuadrillako inork ez dauka zerikusirik itsasoarekin. Eta orain daude bi, itsasoko birekin ezkondu, baina alturakoak dira. Hemen egon zen horrelako apurketa bat itsasoarekin. Nik uste dut, itsasoarekin eta atzeko ohiturak esaten duen denarekin, apurketa bat. Seme alaba guztiak, bueno guztiak, asko, joan ginen kanpora ikastera, unibertsitatera, itsasoko beharra oso gogorra zelako. Orduan nire amak esaten zidan: "Nik ez dut nai zuretzako nik eduki dudana". Ez didate erakutsi sarerik josten, nik ez dakit arrainik garbitzen... apurketa bat egon zen, eta nik uste dut apurketa hori egon dela baita ere hizkuntzarekin. Nagusiei begiratzen badiezu, hortik dator... eta hortik aurrera dago trenak ekarritako jendea, horiek, maketos-edo deitzen zitzaizkien, 60ko hamarkadan etorri zirenak Espainia aldetik. Horiek ere, batzuk eusten die eurenari, baina garai hartan xurgatu egin zituen hizkuntzak eta hemengo bizimoduak. Gaur egun ez daukagu kapazidaderik. Nire gizona da euskalduna orain dela 20 urtetik, baina oraindik jendeak egiten dio berba erdaraz. Oraindik da kanpotarra, hau da, ez dakigu horiek asumitzen lehen gure gurasoek asumitu zuten moduan. Eta nik hor ere pentsatzen dut, itsasoarekin eta atzeko guztiarekin, "guk sufritu dugu eta zuek ez" hori dena dagoela lotuta. Zerikusia du horrek, eta horrekin globalizazioak.

Ez dago itsasoko bizitzarik, lehen egoten ziren igual 100 itsasontzi handi; gaur egun, ez dago bat bera ere. Portuan kanpoko jendea dago, gainera, lanean. Eta bai badaude bermeotar batzuk ere, baina portura zoaz, eta erdaraz hitz egiten entzuten duzu.

HERRI BIZITZA ETA MUGIMENDUA

Bermeo ez da izan inoiz herri militantea. Klaro, gazte gehienak beti egon izan dira kanpoan, itsasoan-eta... orduan, ez dago hori... Zu itsasotik zatoz ostiral batean, eta asteburua bakarrik daukazu, ez zara asko militatzen inon. Edo, agian, uda osoa zaude itsasoan. Hala ere, gaur egun, nik neure seme zaharrena ikusten dut. Denak doaz berdin jantzita, holako tupe bat, praka super ixtuek... eta nirea ez da horrela ezta ere “del monton”, hau da, ez du egiten futbolik, jabalina botatzen du, esan nahi dut, ez dela korronteak daroana. Ez dakit, nik uste dut hizkuntzarekin ere identitatea galdu dugula. Eta identitatearekin batera hizkuntza.

Eta gero baita ere, nire amona nik beti ezagutu dut andra nagusi baten moduan, nahiz eta ni handia izan naizenean berak eduki 50 urte, eta niretzako beti izan da atso bat, gaur eguneko amonak ez dira atsoak; gaur eguneko amona batzuk ba igual neure edadekuek ematen dute eta beste mundu bat daukate eta Whatsapp daukate, Interneten ibiltzen dira, eta Bilbora joaten dira. Ez dira antzinako andreak, euskaldunak, hemen daudenak, herritik ez dutenak irteten asko. Orduan ba amona ete aitona horiek, gaur egunekoak ere, beste gauza batuzk dakarzkite, tartean, hizkuntza aldaketa bat ere bai. Nire amonak ez dakit inoiz erderaz egin izan duen, egingo zuen baina.. eta.. eta ez dakit, hor.. horiek hasi dira jada zahartzen, umeeekin harremanetan daude, eta aldaketa bat egon da.

DISKURTSOAK

Zuk jendeari galdetuko bazenioke, inork ez lizuke esango euskararen kontra dagoenik, nahiz eta gauza hori bera erdaraz esan. Inork ez dizu esango euskararen kontra dagoenik, “euskara geurea da”, eta bla, bla, bla... gauza horiek denak badakizkitez, eta oso ondo. Eta gero immigrazioak zerikusia eduki duela, bai. Baina ez dut uste etorkinak direnik errudunak. Osea ez dut uste euskara gutxiago egiten denik etorkinengatik. Begira neure gizonarekin pasatzen dena, eta nire gizona ez da etorkina, Getxokoa da. Baina jada ikusten duzu begi desberdinak dituela, azal kolorea desberdina duela, eta erdaraz. Eta ez da euren errua... geure errua da. Horrek eragina duela, bai, baina guregatik.

Kontrako diskurtsoa hemen ez dugu, nik hori ez dut ikusten. Baina, agian, esango dizute, udalaren kontra egiteagatik, “eske udala karkamen”... oso erraza da udalaren kontra egitea. “Udalak eskatze du euskara ez dakit zer” erruduna da udala baina ez euskara. Nik ez dut uste behintzat hemen kontrako diskurtsorik dagoenik. Baina aldekorik ere ez. Galdetzen badiezu zuzenean, esango dizute egin behar dela euskaraz, “por que si no vamos a perder”, baina erdaraz.

Euskaraz egiten duen jende multzoa eta erderaz egiten duena, euren artean desberdinak diren adibide batzuk baziren, baserritar bezala euskaraz egiten dutenak, eta erdaraz egitea guay-agoa edo kosmopolitagoa da. Gaur egun, erdaraz egiten du edonork. Edonork. Ez duzu izan behar itsasokoa, baserrikoa. Eske guk ez daukagu baserritar hori. Nik uste dut hori jada pasatu zela hori, egiten dute erderaz eta listo. Orduan erdaraz egitea gehiago da ohitura kontu bat, status kontu bat baino.

Kontua zera da, ez dago hizkuntza politika neutro bat. Hau da, euskararen alde zaude edo euskararen kontra zaude. Ezin zara erdian ego. Ezin zara neutroa izan. Edo euskaraz zaude berbatan edo erderaz zaude. Hori esan jendeari, eta “ez ni euskararen alde nago”, eta esaten diozu ezetz, erdaraz ari bada espainola dela. Zu ari zara berbetan espainolez. Eta nik bati esan nion: “Ni euskalduna naiz euskaraz ari naizelako hitz egiten, zu ari zara espainolez berbetan, zeuk jakingo duzu zer zaren”. Eta klaro hor hasten dira gero arazoak, eta bordeia zara, eta... mila gauza entzun ditut. Baina ni euskalduna naiz euskaraz hitz egiten dudalako, zuk ba... zeure buruaren barruan pentsatu zer zaren. Eta hori, kontrakorik ez dago, baina ez dira kontzienteak ezta ere. “Euskararen alde nago baina erderaz egiten dut”. Orduan espainola zara, sentitzen dut, ez dago besterik.

DISKURTSO EGOKIA

Diskurtso negatiboa behar dugu. Beno, errealista behintzat. Berandu gabiltza jada. Zerbait egin dezakegu bi hauekin [haurrak eta adinekoak], eta oraindik zerbait alda daiteke, baina ez da hizkuntza bakarrik, pakete osoa da, eta nik ez dakit hori, hizkuntzatik bakarrik konpondu daitekeen. Ingurumenean fijatu behar gara apur bat gehiago, ingurumenean gauza asko lortu dira. Orain 10 urte-edo, etxeko edukiontziak banatzen hasi, eta nire amari esatea birziklatu egin behar zuela, izango zen pentsaezina. Eta gaur egun, nire amak gauza bakoitza kontenedore batera botatzen du, eta gero organikoak, niri gordetzen dizkit eta nik konposta egiten dut etxean.

Orduan pentsatu nahi dut, oraindik ere, ingurumenean egin ditugun gauzak kontutan edukita, zerbait aldatu dezakegula. Bina klaro, ingurumenak gure osasunean kalte egiten du. Baina euskaraz ez egiteak gure osasunean ez du egiten kalterik. Ez da bisualizatzen, ez dugu ikusten zabortege bat, ez dugu ikusten kea, orduan, ez dakit nola eragin daitekeen horretan. Behintzat, mezu errealista bat eman behar dugu, nik egingo nuke, kartel bat hori jartzen duena: Bermeo herri euskaldunera sartzen zara. Bermeo, entras en un pueblo español parlante. Edo horrelako mezu bat, eta igual bi hauetan zerbait lortuko dugu [haurrak eta adinekoak]. Hauetan [gazteak] se la soplá,

baina benetan ez die ardura, baina arazoa hauena [helduak] da, arazoa geurea da; ez dugula ondo transmititu, gauzak ondo egin. Nik neure etxean neure etxeko lanak oso ondo egin ditut. Dena den, umeez zer bait lortu daiteke, gazteak.. gazteekin oso zaila ikusten dut. Horrek ez du esan nahi ez dagoenik euskaraz egiten ez duenik. Eta gero, Gernikako eredua ere oso ona uste dut dela. Ez dakit bermeon egin ahal daitekeen. Gernikan Astra mugimendua dago. Astra da arma fabrika bat, erdi gaztetxe modura edo sortu zena, eta gero udalaren laguntzarekin aurrera egin du. 10 urte bete ditu. Eta da mugimendu bat, euskaraz sortu dena naturaltasunez. Eta orduan hor egiten dira batukada ikastaroak, baratza ekologikoak, horrelako gauza asko eta horiek denak egiten dira euskaraz. Beraz, horra sartzen den jendeak naturaltasunez euskaraz egiten du.

Hori da Gernikan dagoena, eta Bermeon ez dena egon inoiz. Daude taldetxoak, euskaraz funtzionatzen dutenak, erdaraz funtzionatzen dutenak. Baina ez dago mugimendu bat indarra egingo duena. Hemen dago gaztelekua. Monitoreak euskaldunak dira, ekintzak euskaraz egiten dira, baina eurek erdaraz egiten dute.

ERREFERENTEAK

Nire semearen koadrila ere da apur bat berezia. Dira 50 edo. Baina zein da euren juntagailua, futbola. Eta futbola erdaraz ematen da. Azkenengo bi urteetan egon dira euskaraz, eta nabaritu egin da entrenadoreak euskaldunak izan direla. Gaur egun daukate 75 urteko gizon bat, euskalduna, baina erdaraz hitz egiten diena, eta esaten dute, eske nik.. esaten diot "Ibai! Bernardok zergatik egiten du erdaraz?". "Ama eske esaten diogu euskaraz egiteko". Umeek esaten die, eta berak dio Bermeoko euskara bakarrik dakiela, eta horrek zer uste du... guk nongo euskara dakigula? Hor ere badago... bera ibili zen entrenatzen, Espainia aldetik eta Athletic-en eta horrela. Futbolak asko erdalduntzen du eta pilotak ere bai.

Hor dago borroka bat... eta tipoa euskalduna da... eta ikastolako umeei euskaraz egiten die, eta beste ikastetxeetakoei erderaz. Bermeon ume guzti-guztiek dakite euskaraz. "Ez baina kanpotarrak eta horiek ez". Baina nola ezetz euskarazkoak baino ez daude... Tipoa da erderaz egiten duena, eta erdalduntzen du dena... eta da nagusia, bertakoa, eta nahiz eta monitoreek euskaraz egin, berak erdaldundu egiten du.. Eta hor dago, kantzer bat daukaguna hizkuntza aldetik.

Eta bai pilota eta atletismoa ere bai, dena erdaraz ematen da. Eta hor badaukat beste borroka bat. Zuek bizi zarete hemen oasi batean [azpeitiarrak], eta zuentzako ez da zaila euskaldun izatea, neuretzako ere izan ez den bezala, orain dela 25 urte

Bermeon euskaldun izatea... baina eske orain, nekagarria da eh... orain da nekagarria...

Kirolean egon daitezke erreferenteak... begiraleak, eta abar. Eta gazteekin zerbait egin nahi baduzu, umeekin, kirola da gakoa. Futbola eta arrauna hemen.

Azkenean ordu asko pasatzen dute kirola egiten. Ordu asko, eta entrenadoreak dira klabeak. Bai. Kirolari famatuak ez, entrenadoreak. Ordu asko pasatzen dute hor. Eta, harremanak egiten hasten dira, kirolaren inguruan. Koadrilak-eta hazten dira kirolaren inguruan. Ikastetxearen inguruan ere bai, baina kirolean baita. Eta hor egia da giro euskaldun bat sortuz gero, mantendu egingo litzatekeela euren artean.

Ezin dena egin da, ordea, hartu 10 urterekin umea eta begirale euskalduna jarri, aurretik 10 urtera arte erdaraz egon badira. Ez. Futbol eskolan hasi behar da. Futbol eskolan, arraunean edo dena delakoan. Eta ez esan “euskaraz egin behar duzu”... ez, zuk entrenamendua euskaraz egin.

HERRITIK KANPO ERDARAZ

Guk erabili izan dugun euskara herritik kanpora, hain justu desberdintzeko. “Horiek ez digute ulertzen, guk esan dezakegu nahi duguna, geure artean hitz egingo dugu, eta bilbotar horiek ez gaituzte ulertuko”. Pasa den astean esan zidan nire semeak: “Gelakoek esan didate Bilbora noanean eurekin, ez egiteko euskaraz, ze igual arazoak izan ditzakedala”. Zornotzan ikasten du nire semeak.

BALOREEN GALERA

Zuk ikusten duzu umeak bizirik irauten ari direla, dira superviviente batzuk, batzuk, asko. Gero eta gehiago. Eta supervivientes dira denean. Jateko ohituretan, hizkuntzan, errespetuan... denean. Ez dakit... zuri okurritzen zaizu, 60 urteko pertsona batek edo 70ekoak esaten badizu zerbait, errespeturik gabe erantzutea? Nik 15 urte nituenean, patata pakete bat lurrera bota, eta norbaitek zerbait esan izan balit, ba... harrapatu naute, eta isildu egin behar. Gaur egun... eta gero gurasoak entzuten dituzu “horretarako daude garbitzaileak” nik hor ikusten dut arazoa, ez da hizkuntzaren galera bakarrik, pakete bat da

Eta hori, euskal herritar izatea eta guzti hori, bueno... ez zaie inporta... baina.. nire semea dago orain Espainiako txapelketara joatekotan jabalanan, eta daukate lagunak artean edo futbol zelaikoen artean horrelako bromak bat... eta esan nien, nire semea ez da joango olinpiadetara, inoiz ez, nahiz eta 100 metro bota, ze ez da joango Espainiaren izenean. Eta beno, bromak bat bezala da, baina ikusten duzu jendeari ez diola ardura. Orduan ez da hizkuntza bakarrik, gauza orokor bat da. Esaten diot, Oier

ez ahalegindu, ez zara joango. Ez zara joango. Eta nik serio esaten diodana, jendeak ez du serio ikusten.

TURISMOA ETA HIRIGINTZA

Azken 5-6 urtean etxe asko eraiki dira. Bermeo berria deitu diete gainera, horrelako area handi-handi bat egin da... Etxebizitza asko... baina ez dut uste horrek jenderik erakarri duenik. Horrek sortu duena da etxe hutsak egotea. Eta gero hemen ohitura handia dago, ez dakit beste lekuetan horrela den, semearentzako etxe bat, alabarentzako beste etxe bat. Klaro hemen egon da jendea diru asko eduki duena. Itsasontzi handietakoak, eta armadoreak eta horrelakoak, eta orduan, nahiz eta ama aita eta bi seme-alaba bizi, etxea haientzat.

Eragin du honetan: Alde Zaharra hustea edo Alde Zaharrean jende nagusia gelditzea eta etorkinak etortzea, ijitoz beteta egotea, gauza horiek denek bai izango dute eragina.

Turismoak bai. Eta hau da momentua ELE bat egiteko hemen, hau da momentua... oraindik iada ihaz, turismoa nabaritu egiten zen, eta aurten Juego de Tronos horrekin gehiago.

Oraindik tabernak ez daude prestatuta turismoari begira, oraindik herritarrak ez daude prestatuta turismoari begira, dendak ere ez, oraindik inor ez dago prestatuta. Behin prestatuta dagoenean jendea, eta jada euren karteldegia, euren gauza guztiak dauzkatenean, berandu izango da. Oraintxe da momentua, oraintxe ari gara hasten. Oraindik ez dakigu turismoa zer den ere. Bai, ikusten da jendea beste hizkuntza batzuetan hitz egiten baina ez gaude prestatuta. Oraintxe da momentua. Eta San Juan Gaztelugatzekoan ere oraintxe da momentua.

KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Ni neu Soilubeko tunelaren kontra, erabat kontra, nago. Eta da nire identitatea nahi dudalako mantendu. Txikituko dituzue mendiak, egingo duzue ez dakit zer... zertarako? ordu laurdenean etortzeko bilbotarrak hona, edo Getxokoak hona. "Hay vamos al pueblo de los pescadores?" Ez... ez... nik nahi dut aislatuta egon. Badakit ezin dela, ezin dela... badakit hori ere ez dela ona, badakit mundua aldatzen doala eta gauzak aldatzen doazela. Baina bueno.. ez etortzea. Ez dadila etorri horrenbeste kanpotar. Turistak etor daitezela nahi dutenak. Baina ez daitezela etorri los bilbainitos hona, gero erakutsiak ematen eta.

EUSKALGINTZA

Bada euskara elkarte herrian, baina nik esango nuke kultur elkarte bat dela. Antolatzen da olentzeroa, andramarietan pegata batzuk ipintzen dituzte...

Nik uste dut, euskalgintzak ez duela behar. Uste dut sortu behar dela beste talde bat berezkoa dena, gaztetxe batetik sortu ahal dena edo gazteen mugimendu batetik, gero integratuko duena bere barruan euskalgintza, ekologia, feminismoa eta dena.. Astra.. Astran daukaten eredia. Uste dut ezin duela izan euskalgintza bere aldetik, ekologismoa bere aldetik, ez dakit nor bere aldetik.. ez... sortu behar da gauza bat balore guztiak batuko dituen. Eta ez dena izango inposatutako gauza bat. Erakargarria izan behar du gazteentzako, eta gazteengatik irten behar du horrek.

UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

Uste dut ondo dabilela udala. Iada esango leukide iada una vuelta de tuerca. Orain hitzarmena sinatu du futbol taldearekin, ba euskara bultzatuko duela eta abar, eta hor sartzeko gara gai korapilatsu batean... Zure entrenamentuaren %90 ez bada euskaraz, udalaren futbol zelaian... sartzeko zara gerra politikoan.

Baina gauza da egiten baduzu hitzarmena, egiten badituzu gauzak ez badira betetzen, eta ez da pasatzen ezer. Ba orduan ez goaz inora. Eta uste dut lan ona egiten ari direla, baina herrira heltzea ez da horren erraza. Udalak azkenean ez dauka eskumena txoko denetako dena aldatzeko, baldin eta ez badago kontzientzia bat, aldatzeko nahi bat.

Eta gero hemen pasatu dena da politikoki bi alderdi egon direla. EA-ek ezker abertzalea eta EAJ. Orduan, orain sartu dira, beste bi taldetxo, baina orain arte ez da egon. Beti izan da bipartidismo hori. Orduan nahikoa da udalak gauza bat egitea euskararen alde eta normalean agintean beti egon dira, EA-ek ezker abertzalea batuta. Orduan nahikoa da talde honek zerbaitek egitea euskararen alde, boto emaleen erdia horren kontra egoteko. Berdin da ondo dagoen, gaizki dagoen edo zer...

AURRERA BEGIRA

Nik ez dut ikusten jada oso garbi ezer. Orain asumitu egin behar duguna da herri ez euskaldun baten bizi garela. Hori da asumitu behar duguna. Lehenengoko gauza, esan behar dioguna jendeari, egia da. Jendeak uste du oraindik herri euskaldun batean bizi garela, eta lehenengo hori erakutsi behar diozu jendeari. Eta orain galdera da: herriak nahi du berriro euskaldun izan? Hala bada, goazen lan bat egitera. Baina orain momentuan, ezin dugu ibili esanez euskaldunak garela. Horrela, ez dugu aurrerantz inoiz egingo.

Hau garrantzitsua da zer aulestiarrek, azpeitiarrak, euskaldun mantentzeko, gu gara hemen harresi honetan gaudenak aguantatzen. Eta klaro, guk eutsiko diogu, baina ze puntutara arte.

MARIBEL MENTXAKA

Euskara irakaslea da Bermeoko Ikastolan. 37 urte inguru daramatza bertan lanean. Euskaldun zaharra den arren, galdu egin zuen eta bere kontura ibili izan da berreskuratzen, autodidakta izan dela adierazten du. Hortik etorri zitzaion euskara irakasle izateko nahia. Bermeoko euskara taldean ibilitakoa da. Egun Euskararen Aholku Batzordeko kide da. HIZNET egindakoa da.

Zein balorazio egingo zenuke Bermeoko ezagutza, erabilera, etxeko erabileraren inguruan?

Klasean ematen ditut DBH3 eta DBH4an. Duela 15 urte apenas entzuten zen gaztelania, salbuespenak ziren gaztelaniaz egiten zutenak, apenas entzuten zen gazteleraz. Gaur egunean erdara hutsean ari dira gazteak. 36 urte daramat eskolak ematen eta 32 urte goi mailetan. 32 urtetan ez zait inoiz gertatu euskara orduan ikasleak gaztelaniaz egotea eta euskarako ariketak egiten be gaztelaniaz egotea. Iaz zerbait hasi zen eta aurten nabarmen.

Gure programan Soziolinguistika kontuak jasotzen dira, zein diren hizkuntza gutxituak, zein den egoera, bizitasun linguistikoa, zein faktorek eragiten duten... teoria badakite, eurek diote, bai, bai... baina gero gaztelaniaz egiten dute. Baina zergatik egiten duzue gaztelaniaz? Guk erdaraz egiten dugu, etxean egiten dute erdaraz, kalean erdaraz... Euren harreman guztiak gaztelaniaz dira, eta normalena hori da. Eta txikiekin hori da gertatzen dena, klasetan 5 urteko umeak ez genituen entzuten izan gaztelaniaz olgetan inoiz, bost bat urtez gero erdaraz entzuten dira.

Baina nabarmentzen duzue azken 5 urteetan gertatu dela aldaketa? Zertan nabaritzen duzue?

Aurreko kale neurketan gazte taldea zen nahiko erdalduna eta gazte talde hori da guraso direnak. Eta hauek nik uste dut orain, hemendik aurrera, gurasoak dira, ikusten dut gurasoen profila asko aldatu dela, familia tipologia asko aldatu da. Oso arrunta da bietako bat erdalduna izatea, eta horien kasuetan oso portaera ezberdinak

daude. Batzuk nahiz eta gazteleraz erraztasuna izan, euskararekiko atxikimendua, inplikazioa dute, baina badira beste batzuk etxeko konpromiso bakarra ikastolara bidaltzea dela, hara zoaz eta euskara ikasi.

Nik uste dut hemengo asko direla gaur egunean guraso direnak. Eta guraso honetako asko esango nuke asko euskaldunak direla, baina beren ohituretan... ze guk hori nabarmendu dugu ikastolan, gurasoak haurrak hartzera datozenean gurasoak erdaraz ari dira. Baina neurketan ikusten zen gurasoak eta haurrak batera zeudenean euskara gehiago erabiltzen zutela. Baina bakoitza bere aldera dagoenean esango diote gurasoek, e, euskaraz egin.

Kuriosoa da haurrak bakarrik daudenean zer nola jaisten den haurren erabilera...

Bost urteko haurrak nik ikusten ditut erdaraz. Baina zer ikusten duten, zer entzuten duten, zer solasten duten... Eta nik hori ditut nire zalantzak. Ze argi dago denek ikusten dutela telebista, denek ikusten dute Pirritx eta Porrotx... baina gero ez dakit jolasak, ez dakit nogaz jolasten duten, nondik ateratzen dituzten patroiak, ze bost urtegaraz ja gaztelaniaz jolasten dute, edo gurasoekin solasten dute, gaztetxoekin, ez dakit nogaz, ez dakit telebista, baina gero badira mila gauza telebistan, gero eta gauza gehiago telebistan eta euskarazko kontsumoa oso txikia da orokorrean Bermeon.

Tarte batzuetan ikusiko da, baina gainerakoan, gero eskaintza da dan modukoa, baina bururatu be ez zaie egiten. Gazteen artean, esaterako, Goazenek lortu du baten batzuk entxufatzea, bestela musikaren oso ezagupen eskasa dago eta nik hori ikusi dut nabarmen, gazteei begiratzuz 15-16 urtekoak, duela 3-4-5-6-7-8 urte, beharbada ez zuten ezagutzen norberak nahi beste, baina asko zekiten. Gaur egunean baditut ikasle batzuk eta ez dira bi eta hiru Gatiburen kanta bat ez dakitenak eta hori harrigarria da, ze esan nahi du Gatibu gutxienez, beste batzuk ba bueno, baina Gatibu bat behintzat Gaztean, baina ez dakite. Nik uste interneten eragina nabarmena dela, sarrera dute edozein lekutara, edozein lekutara iristen dira eta dagoen aniztasuna, barre egiteko kontuak, erreferentzia guzti horiek gaztelaniazkoak dira.

Horiek izango lirateke kanpo faktoreak baina, herri mailan aldaketarik, nonbaiten, bizimoduarengatik... ze faktore horiek Ondarroan ere gertatzen dira, internetaren kontua...Baina zein ezberdintasun egon daiteke, zein izan daiteke

Hor badago faktore bat, begiratzen baduzu ezagutza, gaitasunak beherantz egin du, baina hori ez digute azaltzen. Nola da posible hau gertatzea ezagutza mailan? Nik hau ez dut ulertzen zergatik gertatzen den. Badago beste gauza bat eta hori komentu nuen UEMAKoa etorri zenean. Datu hauek igual ez dira errealak, ze konparaketa ari gara egiten 2011z, baina bost urtetan hemen aldaketak egon dira. Guk eduki dugu hemen momentu baten etorkin kopuru handiak, sahararrak, sahararrak orain desagertu egin dira, errumaniarrak daude, horrek denak eragina izan dezake, gero euskaldunak joan egin direla? Hori ere izan liteke, gazteak esate baterako joatea, euskaldunak. Egiten zait arraroa, ze umeek, gaitasuna berez, ez badator etorkinik eta umeak D ereduan eskolatzen badira, gaitasuna gero eta handiagoa izan behar da. Baina askotan esaten da, ze etorkin daude eta haiek erdara egiten dute... baina etorkinak eurak uste dut ahalegin handiagoa egin dutela euskarara etortzeko. Gaitasuna bera ez dakit izan daitekeen baijan erabileran ez du eraginik. Eta hori nik uste dut dagoela belaunaldi bat oso garrantzitsua dena. 40 urte inguru halako ebaketa batzuk eman dira.

Kuriosoa da Bermeon adinekoek hitz egiten dute gehien, ze beste herri askotan justu alderantziz izaten da, gazteek eta haurrak izaten dira gehien hitz egiten dutenak eta gero etortzen da beheraka

Klaro, mantentzen duelako, jende hau euskalduna izan delako. Hor badago tarte bat erdalduna izan dena edo transmisioa ez da izan behar bestekoa edo euskararekiko izan duten harremana, igual lehen ikasten hasi zen jende asko, euskara oso zurruna dute, orduan ez zegoen telebistarik eta irakasten zitzaien euskara eta hemengoa bi mutur ziren eta jende askori kostatu zaio horrekin identifikatzea, arraroa zen. Era gero egin izan duten gauzak guztiak gaztelaniaz egin izan dute eta nik uste dut hori eragile garrantzitsua dela euskararekiko atxikimenduan. Eta horiek dira 40-45 urte inguru dituztenak. Eta gaztelaniaz ari direnak. Nahiz eta gero oso euskaldun sentitu eta haurrak euskaldundu. Baina hor badago lotura arraro bat euskararekin, eurena ez delako, ez dute bizi izan baliozko moduan. Ze gero beti da, nik gaztelaniaz ikasi nuen. Eta nik uste hori dela oso garrantzitsua.

Itsasoko bizimoduaren beherakadak eragina izan duela aipatu dute batzuek. Zer uste duzu horretaz? Esaten ari zaren generazioen arteko talka horretan nola ikusten duzu?

Gaur egun itsasoa erdaldundu ere egin da. Itsasoa euskalduna zen garai batean. Nire adinekoak, nire lagunak ez dira batzuk euskaldundu itsasoan. Hortik ja izan da beherakada. Beste gauza bat da herrian izan duen pisu estrategikoa, Horrek dira hemengoak.

Itsasoko bizimoduan...

Nik beti esan dut, hemen euskara asko izan ditugu Bermeon. Batzuk izan dira arrantza munduaz lotuta eta horiek erabili dute euskara jakin bat eta baserrikoek oso euskara antzekotasun handiagoa izan dutenak, Gernika, Busturia aldekoekin eta horiek izan dira "aldeanoak". Eta gero kaletarrak gaude, ez garenak izan ez bateko ez besteko eta orduan beste euskara mota bat erabili izan dugu, nik uste dut ez duena izan besteak besteko aberastasunik. Ze itsasokoak. Kaletarra joan da nagusitzen.. izan daiteke. Ze arrantzaleen euskara galtzen joan da neurri handi batean eta baserrikoa hor mantentzen da, baserrian geratu da. Kaletarrena beti izan da erdaldunagoa danetan. Horrek ez dakit, eraginik izan duen? Ez dakit.

Beste batzuk esan dute euskararen galera ez ezik beste borroka batzuekiko konpromisoa ere ahuldu egin dela zuk uste duzu horrek eraginik izan duela?

Nik uste dut hor egon dela momentu baten euskara konpromisoaren menpe. Datu agerikoa da euskaldun berriak diren gurasoak horiek oso transmisio ona egin izan dute eta deigarria egiten da. Balio aldaketa bat dagoela garbia da, guraso moderno ez aberatsa, estatus bat dutenentzat ingelesak pisu handia du, eta orduan atxikimendu hori, umeak 3 eta 4 urteaz ingelesa ikasten hasten dira jolasaren bidez eta nire ustez hori euskarari espazioa kentzea da. Jauzia gaztelaniatik ingelesera errazagoa da euskarara baino, eta nik hori ikusten dut txikiengan. Balio kontuak... izan daiteke. Gure sasoiak guk pentsatzen genuen konpromisoa nahi eta nahitaezkoa zela eta eskolak euskaraz eskaintzearekin nahikoa zela herria euskalduntzeko. Baina urte asko pasatu behar izan dira konturatzeko hori ez dela nahikoa. Belaunaldi berriak ez daudela gure gerran, nik hori ikusten dut. Nire ikasleei, 14 edo 15 urteko

ikasleek ez dute elementurik militantziaz euskaraz egiteko. Igual 18 urtegaz... baina 14 urtegaz ezin dute egin ez bada salbuespena. Gero institutura unibertsitatera doazenean aldatzen dute. Ikasketetan ere ikasketek pisu handia du, ingelesa pisu handia hartzen ari da. Eta euskarak pisua galtzen du. Unibertsitatean ez dakit hirurak orekatzen diren. Baldintza berdinetan guk galdu egiten dugu. Eta batzuetan pentsatzen dut baldintza berdinetan egin nahi digula aurrera. Eta orduan horrek populazio jakin baten horrek baduela eragina uste dut.

Euskara batuak eraginik izan al du erabileran?

Nik uste baduela eragina eta ez duela. Ni oso estandar zalea naiz, gero gure ahozkoan erabili behar dugula gure herrikoa. Nik ez dakit euskaraz berbetan ez zekitelako estandarra. Nik uste dut horrek ere izan duela eragina. Horri buelta eman nahian orain urte batzuetatik hona dagoen joera berba egiten den moduan idaztea izan da, baina irudikatuz edo... baina nik uste dut horrek ez duela balio, poupurri bat da baliorik ez duena. Gure ikastolan orain hasi gara sartzen, guk bizkaieraz irakatsi izan dugu, bizkaiera estandarrean. Nik uste dut sortu izan dugula herritarrengan “guk ez dakigu euskaraz” ideia., baina aldi berean zenbat eta gutxiago erabili...

Begiratu teknologia berriekin lexikoa nola aldatu den, zuk ez baduzu nonbaitetik jaten ezin duzu joan aurrerantz. Hor egon da jende bat bertako euskararekin geratu dena, batez ere gazteen artean, ze nik uste dut nagusiek beste era batean. Gazteek ez dute irakurri, ez dute entzun, ez dute elikatu eta orduan oso urrun geratu dira. Erreferentzia guztiak gaztelaniazkoa dira... gauza batzuk esateko euskaraz ez dago aberastasunik. Gaztelaniaz, nahiz eta asko ez irakurri, denek entzuten dute irratia, denek irakurtzen dute egunkaria, denek ikusten dute telebista gaztelaniaz eta horrek nahita nahiez hizkuntza asko aberasten du. Aberastasun horrek ematen die bide gauza batzuk gaztelaniaz egiteko eta euskaraz ez dute hori. Gurasoak niregana datozenean esaten dute “zuk egin euskaraz” baina nik gaztelaniaz egingo dut ze hobeto esplikatuko naiz. Dena ulertzen dute, baina beti dira beldur esango duten hori ez duela behar bezala azalduko eta horrek dakar gaitasuna murriztea. Errazagoa da gauza batzuk umeei esateko. Gero badira batzuk ume txikiak dituztenak hizkuntza mota bat ere bai umeei erabiltzen dutenak, ipuinak irakurtzen dizkietelako, baina gero ez dakite hori zelan aldatu herriko hizkerara. Nik uste dut gure erronka nagusi bat hori dela. Gu gai gara esateko “lehixue” baina guretzako zen “bentanie”, leihoa

eta “bentanie”. Zuk egin behar duzu ariketa bat lehixue zure hizkerara inkorporatzeko, ze bestela... Leioa esaten duzu, baina hori oso arrotz geratzen da. Baina jarraitzen duzu pentsatuz nire euskara oso kaskarra dela, orduan erabileran dut justua edo adin batetik aurrera gaztelania.

Zein pertzepzio dauka jendeak hemengo euskararen inguruan?

Nik uste dut zeozelan indartzen doala, baina nik esango nuke txarrerako. Ez da indartu gure berbeta nahi dugulako izatea gero eta hobe, baizik eta zabarkeria guztiak onargarri direlako, ahozkoa delako. Ez du ardura zelan esaten duzun, erreferentzia asko galdu dira. Zuk esaten duzu hau eta jendeak esaten dizu “nork diño hori?” “Aizu gauzatxo bat, hori Bermeoko hizkera da eh?” Baina honentzat ja arrotza da ze euren gurasoek ja ez dute hori erabiltzen. Agian aitite eta amamak, baina haiekin dagoen lotura beste modu batekoa da. Gaur egunean ume txikientzat bai, ze eurak dira zaintzen dituztenak. Tarte handi horretan nik uste dut ez dela horrela izan. Ez da egon amamekin lotura, ez dute euren hizkuntza hartu eta hori besteek eduki dute. Nik hori igarri dut etxean, eurak jaso dute aitite eta amamaren hizkera, eta horrek beti ematen du pisua eta egituretan sendotasun bat. Nire gurasoentzat arruntak ziren hitzak nire belaunaldian ja ez dira erabiltzen, baina nire belaunaldikoentzat arruntak ziren hitzak, “burruntzali” esate baterako, ba, ez dute ezagutzen, etxean ez dute esaten. Hori galduz doaz, baina onargarri da dena? Bermeon beti esan da koilara eta “tenedora”, sardexka ez da esaten. Ematen du koilarak ekarri beharrean sardexka, “tenedora” dakarrela “mesia” esatea... Ekartzen du edozer esatea, ahoz edozer erabili daiteke. Orduan da autoelikatzea “eurek erabiltzen dutenez...”, hori badago. Aldiz ez dut ikusten “herrikoa egingo dugu”. Aurten lortu dugu berba bat gustatzea, “monddorra”. Nire belaunaldikoen artean arrunta izan beharko litzateke, baina ez dute erabiltzen, ezezaguna egiten zaie. Hauentzat ez zen ezaguna baina onartu egin dute. Zuk esaten dituzu berba batzuk eta eurak lotsatu egiten dira, “nora noa ni hori esatera?”. Hori gazteen artean. Txarto geratzeko beldur dira, “larjakinak” izateko beldurra edo beste herri batekoen moduan edo ez gure izatea hobeto egin...ez dakit zer den...

Bermeoko erreferenteei buruz zer esan dezakegu?

Ez dakit zeintzuk diren.

Ba al daude euskara jatorrean mintzatu ahal direnak? Ilaski Serrano izan daiteke...

Baina hori ja ez da, lehen batzuentzat bazen. Gazteentzat Amaia Artetxe hor egon da, baina nik ez dut ikusten. Guk ekartzen dugu Oihan Vega Ikastolara horretarako, bera musika kontuekin enroilatzen da, bere euskara halakoa da.. Nik ez dut uste daudenik, ez dago, zu saiatzen zara.. badago futbolaria... Baina eurentzat ez dagoela uste dut. Bermeon momentu honetan badago niretzat minbizi larria eta da futbol mundua. Nire semeak ditu 31 urte eta nik beti gogoratzen dut bere lagun bat eta beraiek salbuespen momentu bat izan zuten, baina euskaraz egin izan dute beti. Sasoi batean hasi ziren gaztelania erabiltzen pilo bat eta euretariko batekin komentatzen eskolan eta haserretu egiten zen, “kanpofutbol putie”. Egiten dira gauza asko baina futbolak dauka pisu handia, mutilak dira gehienak eta gaztelaniaz hitz egiten dutenak, baina futbol zaleak direnak dira umetarik erdalduntzen direnak. Hori hemen Bermeon nabarmen. Badira beste gauza batzuk garrantzitsuak direnak prestigio kontuetan, frontoian, pilotan dabilta batzuk eta pilota euskalduna da, baina besteentzat pilotan dabiltzanak “pringauak” dira. Futbolariantzat pilotan dabiltzanak “pringauak” dira ate euskara da “pringauen” hizkuntza. Hori mutilen artean. Azkeneko urteetan, futbolariena aspaldi, baina beste hori ez dago..

Gazte taldeak, kultur mundukoak, mugimenduak...

Ez dago. Ez dakit zenbat talde dauzkagun musika taldeak, ez ditugu ezagutzen. Ez dakit zenbat talde dauden euskara hutsean dabiltzanak, ez dakit dauden. Momentu batean egon ziren bi talde potenteak zirenak, baina gaur egunean gure ikasleek ez dakite nor dagoen, eta daudenak abesten dute ingelesez eta gaztelaniaz. Gero kantaren bat ere bai euskaraz.

Gero erreferenteak Nafarroatik eta Arabatik sortu diren taldeak dira. En Tol Sarmientok edo Vendettak esate baterako abesten dute euskaraz eta erdaraz. Klaro, hori bada erreferentea eurentzat. Gatibuko erreferentea euskara da, besteak ja ez. Niretzat En Tol Sarmineto eta Vendetta ezezagunak ziren orain 3 urtera arte, “baina honek gaztelaniaz abesten dute?” Eta eurek, “baina euskeraz ere bai”. Identifikatzen diren taldeak bietara egiten dutenez, pentsatzen dute zilegi dela bietara egitea. Nik

uste dut ez dagoela Bermeotarrentzat. Gernikan Ken Zazpi eta Gatibu bertan sortuak dira eta nahita nahiez loturak dituzu, baina hori hemen...

Eta idazleak badaude, Alaine Agirre. Baina Alaine Agirrereengana iristeko behar dut ez dakit zenbat denbora eta hori iristen baldin badira. Elortegi zuzendaria... Nik gauza bakarra ikusi dudana batzuentzat erreferente izan da da Goazen. Bestela ez dago. Eta herri mailan saiatzen gara topatzen, baina eurentzat ez da esanguratsua, nahiz eta inportantea den.

Egon zen momentu baten gazte asanblada eta hori niretzat izan zen oso erreferente ona, ze hor egon ziren elementu batzuk oso onak, euskararekin konpromisoa zutenak, herriko kontuetan konpromisoa zutenak. Baina ikusten dut hori ere... ze gero unibertsitatera doaz, kanpora doaz, eta hona datoz datozenean eta hor ez bada uztartzen hori, justu elementu batzuk bai, baina batzuk ez dute denborarik edo ez dute gogorik...

Musika taldeak dira batez be. Igual neu harrituko naiz ze neuk be ez ditut ezagutzen, orduan, nik ezagutzen ditut batzuk nire ikasleak izan direlako, izena da Zona 0, esanguratsua da , gero abesti batzuk euskaraz egiten dute, baina listo, ez dakit...

Migrazioari dagokionez...

Ez dakit ze kopurutaz ari garen berba egiten, nik ikusten dut nire inguruan dagoena. Ikasleak datozenak beste egoera batzuetan, batetik, sahararrak joan ziren, baten bat badago baina ez da kopuru esanguratsua. Badagoz hegoamerikarrak eta errumaniarrak. Jarrerak oso ezberdinak dituzte. Hegoamerikarrak paso egiten dute guztiz, gaztelania dakite eta ez dute nahi. Badago jendea euren artean, baina gutxi. Errumaniarren artean. Aldiz, nik ikusten dut askoz be, nahiz eta gero gaztelania ikasten duten eta gaztelaniaz egiten duten. Baina euskararekiko dute jarrera oso ezberdina da eta umeak oso euskaldunak dira. Gure eskolan eskolatu diren errumaniar guztiak, 12 urteaz etorri direnak gaitzago, baina umetatik etorri direnak nik esango nuke euskaldunagoak dira Hego Ameriketatik etorri direnak baino. Nik uste dut hegoamerikarrak asko dagozela, horren pisua zen den? Pisua igual da etxeetan, hegoamerikar askok egiten dute lan etxeetan eta jendea zaintzen eta etxeko hizkuntza gaztelania bilakatzen da. Baina horren pisua zenbatekoa den? Jende nagusi asko ikusten dituzu zaintzaileak dituztela eta horiek dira errumaniarrak edo hegoamerikarrak. Errumaniar askok gaztelania bera ere ez dute hain ondo menperatzen baina besteak dira “salerosak” eta... Baina ze pisu duten, ez dakit.

Errumaniarrek jarri dituzten tabernetan euskaraz eskatzen duzu eta euskaraz ateratzen dizute, eta zenbat den esango dizute euskaraz. Gero azalpenik ez dizute emango. Badira zenbait Bermeon jaio direnak eta ez dutenak ikasi. Orduan...

Eskolan gurasoen batzarrean, azalpenak eman zituen euskaraz eta guraso batzuk altxa ziren esanez errespetu falta zela jendea zegoelako euskaraz ez zekielako. Bere alboan zeuden bat errumaniarra eta bestea afrikarra, eta errumaniarrak euskaraz esan zion, nik ez dakit asko baina ikasten ari naiz. Besteak gaztelaniaz esan zion ni nire alabarekin ikasten ari naiz eta gurago dut entzun neure alabagaz berba egiteko. Eta ez da izan ikastolan.

Ikastolara daroana normalean, apustu bat egiten du. Baina eskolara edonork daroa, Daukazu errumaniar bat afrikar bat hori esaten bermeotarrei. Gero jendeak esaten du erdaraz egiten dela etorkinengatik, baina benetan? Pisu apur bat edukiko eban? Baina hortxe

Hirigintzari buruz...

Bermeotik jendeak alde egin du. Bermeon etxeak garestiak izan dira, lana galdu egin da... errazagoa izan da joatea etortzea baino.

Eta turismoa?

Ez dut ikusten eraginik izan duenik. Orain arte Ez da turismo masibo bat izan. Ostatuak eta ez dauzkagu. Ez dut ikusten horren eraginik izan denik.

Zerbitzuetan, turismo munduan...

Ostalaritzan nabarmena izan dena izan da, joan dira taberna batzuk ixten eta etorkinak zabaltzen. Errumaniarren kasuan eurak doaz ikasten eta zuri euskaraz erantzuten eta eurak dira kartelak euskaraz jartzen dituztenak. Alde horretatik ez dut uste.

Mugikortasuna...

Badago mugitzeko joera... Bilbora asko, Gernika aldera... Batzuk dira orokorrak eta beste batzuk dira espezializatuak, Mayer, andrazkoen kasuan izan dira erresidentziak, Mungia, Busturia, Mundaka.. eta gero espezializatuagoak kanpoan, gazte asko badira Bilbon, asko dira ere osasun esparruan, Basurtora... andrazkoena.

Eta esango zenuke herrira datozenean aldaketarik nabari zaiela?

Ez dakit, nik esango nuke batzuen kasuan, batzuk bai ezagutzen ditudalako ... Nik esango nuke egondako lekuak euskaldundu dituztela batzuk, edo euren errebeindikazioak egin dituztelako, edo ikusi dutelako leku jakin batzuetan ere egiten dela. Gernikatik etorri direnak ere euskaldunago, gazteentzat Gernika izan da erreferentzi bat. Joe, Gernikan dago kristoren mugimendua, Gernikan euskara entzuten da... eta orduan beharbada, identifikatzeko edo, ez dakit han errazagoa izan duten... da adin jakin bateko jendea (30-35 urteko jendea). Orain beste batzuk betidanik ibili izan direnak ez dakit. Nik uste dut lanak erdaldundu duela jende asko eta jendea asko ez dago prest bere lana euskalduntzeko ahalegina egiteko. Eurak oso eroso sentitzen dira eta planteatu ere ez dira egin. Mundu guzti hori gehienak gaztelaniaz bizi dute. Kanpoan daudenak egun osoa gaztelaniaz gero horrek eragin dakarrela hona datozenean? Ba batzuengan bai.

Mugakide izateak badu eragina?

Kontua da nor etorri den eta nora joan garen. Ze herri txikiak asko dira. Gero gune potente moduan hartze baduzu Mungia, Mungia erdaldunagoa da Bermeo baino? Ez dut uste, Gernika ez dut uste. Orain urte gutxira arte denek egiten zuten gaztelaniaz Gernikan? Zer egin duten? Hori nahiko nuke jakin. Batetik nik uste dut, baina ez dakit nola sortzen den ze hori berez sortzen da. Nik uste gazte talde potenteak sortu behar direla. Ez nire adineko jendea, ez 50ekoak, 14 urte batentzat 16 urtekoak. Hor lanean dauden jendearengana nola ailegatzeko zara euren jarduna euskalduna izan dadin eta erakargarria izan dadin. Zu izan zaitezke argazkilari ona, baina besteentzat argazkilaria.

Udala lan handia egiten du ... haustura bat dago..

Ez dugu asmatzen. Kontua da, zer da asmatzea? Zere gin behar duzu?

Badago talde bat euskaraz bernetan, baina gauza testimoniala da. Antolatzen diren ekintza pare bat... Atera zen joko bat Bermeoko gauzei buruz, Bermeoko historia... ez dakit zer egin behar dugun, sukaldaritza igual, ez dakit... Kirol taldeekin argi dago egin behar dela. Behin guraso batek zioen gurasoak daudenean elkarrekin, semeari atentzioa eman behar diola gaztelaniaz egiten duelako. Ni ez naiz nire semearen eredua. Zergatik egiten du ire 7 urteko semeak euskaraz ni bi metrotara nagoela? Ez

dut ikusten fokoa non. Jolasean argi dago... Ez dakit ahaztu behar ditugun 14 urtekoak eta fokoa jarri 5 urtekoengan eta horiek matxakatu. Eskaintza osoa euskarazkoa izan dadila, behartu horrela izatera. Lehen gazteak ziren eta orain haurrak dira.

Aisialdia...

Teoria hori da. Non dago apurketa? Ze aisialdia aukeraz bada? Ze gero ezkutuko aisialdi bat dago? Ni konbentzituta nago fokoa hor jarri behar dela, 5 urtekoengan. Indarren %70a hor jarri behar dela. Ze 7 urtekoak ohitu dira gaztelaniaz egitera, gero nork ipintzen ditu euskaraz? Euren artean euskaraz egon da gero errazago egingo dute buelta gaztelaniaraz.

Egun guztia gaztelaniaz egon da da sekulako konpromisoa euskaraz egitea.

Gazteena...

Nahi izan da euskara balio positiboekin lotu eta erakutsi digu euskara ez dela ez dakit zenbatgarren hizkuntza, zortzigarrena baino. Prestigioa eman nahi izan zaio euskarari... Nik ere landu dut, twitterrean zenbatgarren hizkuntza den.. Baian horrek ez dakar al! Nik ere euskaraz egingo dut. Batetik, mezu katastrofista ez dugu behar baina besteak, a baina bueno... Nik lan handia egin behar dut ikasleek nabigatzailean euskaraz ipintzeko, herri mailan abizenak euskalduntzeko. Ez da ikusten kezkarik.

Adinekoekin ez dakit alarma jarri behar dan... eta hurrei eskaintza guztia euskaraz eman. Baina kontua nola iritsi gurasoengana. Baina nola lortu? Hitzaldi batera hiru guraso apuntatu ziren. Behintzat lortzea jendeak entzutea.

Adinekoekin ikusten dut era bateko lana eta besteekin ez dago kontzientziarik, ez dago bestetik.

Koikili ekarri genuen... baina gero entrenatzaileak daude, gurasoan gaztelaniaz berbetan. Gero esaten dizute egiten dutela ahalegin, baina nork? Arraun taldea eskastxo da, pilota eskastxo. Bertso eskola bat sortzea ez dugu lortu. Egon dira bertsolari batzuk baina ez dago...

Ez dakit zein kultura gustatzez zaien, edo kulturarik badagoen, ez dakigu loa asmatu.

Futbolarekiko kezka aspaldikoa da, eurekin egon gara, planak egin... baina ezin.

Kiroldegian, spinning, zumba egiteko zenbat euskal musika jartzen da? Ez dagoelako? Ez nuke esango.

Nahita nahi ez kirol mundu guzti horretan lan handia dagoela egiteko, futboleak zein besteetan, arraunean ere bai.

Urdaibaikoak, eskubaloikoak antzerako, gimnasia erritmikakoak...

Musika eskolan euskaraz egiten dute, hortaz arte, kirolen baten daude edo ingelesean.

Beste dana kirol da.

Gero ipintzen da ingelesa ikasteko eskolak eta ume piloa dago eta eskolan eskatzen zaigu behin berriro 3 urtekoentzat ingelesa ipintzea. Zuk jartzen baduzu eskulanetako tailerrak ez da inor apuntatzen. Pintura tailerra euskaraz egon da.

Esperantza...

Nik ikusten dut oso tarte laburrean buelta emango duela. Nire alabak orain dela 10 urte ikastolan gutxik egiten zuten gaztelaniaz, orain pasa gara gela barruan eta euskara orduan gaztelaniaz egitera.

Zer dela eta Bermeon?

Balio kontua oso garrantzitsua da. Ez dakit esaten Bermeon zein balio dugun. Ikusten baduzu Gernika eta Bermeo, Gernikan badago mendi kultura bat eta jendea doa mendiko jantzita, txandalarekin eta.. nik uste dut hori esanguratsua dela, eta gero dago errugbia... Gernikan ez dago lamerarik, Bermeon bai. Lamera erakusleiko bat da, jendea ateratzen zen jendeak ikus dezan. Balioa ematea itxurari. Andra gizon adinekoengan ohikoa da gaztelaniaz egitea. Baina orain ez dago beharrian hori, ez gara arrantzale soilak, pertsona garrantzitsuak agara. Eta Ondarroan agian gehiago dira herrian ibiltzeko lameran paseatzekoak baino.

Lekeitiok turismoa dauka, baina gazteak euskaraz ari dira, turismoak ez die zirkinik egiten. Nik uste dut Ondarroa zarratua dela trinkoagoa. Baina Lekeitio betetzen da eta euskalduna da.

Igual egin beharko luketena da balioen inguruko azterketa bat, igual azterketa hori egiten badugu konturatzen gara gure herriarentzat gauza batzuk ez dutela pisurik eta gu ari gara erre ke erre. Eta igual badago baten bat guk ez dioguna erreparatu eta sekulako garrantzia duena. Hemen badago negozio bat funtzionatzen duena ikaragarri eta horiek dira tabernak, hemen muntatzen dira sekulako festak. Guk lortuko bagenu

musika euskaraz egotea, menuak euskaraz egotea, horrek uste dut aldatuko lukeela zatitxo, ze hori da gure balio bat, tabernaz taberna.

Batzuekin egin da ahalegina, baina horri nola indarra eman?

10.4. Eranskina: Ondarroako transkripzioak

URRATE ETXABURU

Aurkezpena

49 urte ditu. Herri euskaldun baten, etxe euskaldun eta euskaltzale baten jaioa, horrek bere izateko modua markatu du. Txikitatik ikastolan sartu zituzten, debeku garaian. Umetatik kultur ekitaldi, kultur munduan ibili izan da. Ikasketa guztiak euskaraz egin zituen, karrera ere bai. Bi urtetan editorial baten egin zuen lan, gainontzean euskaltegian AEKn eta EMUNen ibili izan da, beti euskararen bueltan.

Ondarroan dena zen euskararen aldeko lana, ikastolan, dantzan... dena euskal kultura eta euskaratik egiten zen. Arazoa zen erbestera joaten zirenean. Azterketa gaztelaniaz egin beharra solfean...

Ez da inoiz EHE bezalako talde batean egon, tokatu izan zaio AEKtik, EMUNetik lan egin behar izatea. Udaleko euskara batzordetik egin izan dena beti jarraitu izan du. Aholkulari moduan egin izan du jarraipena, euskararen plan estrategikoa, ESEPen inguruko aholkularitza ematen, besteak beste. Ez du bere izen pertsonaletik egin izan lan, beti talde baten ordezkari moduan, edo AEKren izenean, edo EMUNen izenean.

Euskararen bilakaeraren inguruko inpresio orokorra

Neure bizitza guztia hartzen badut kontuan, ni herri euskaldun baten jaio nintzen erdaldunak oso markatuta zeudena. Gaztelaniaren presioa bazegoen eskolan, baina ni hortik babestu egin ninduten, ni horrela sentitu nintzen. Gero nagusitu ahala erronkak sortzen zaizkizu, bederatzi urterekin, adibidez, solfeoko azterketa gaztelaniaz egin behar izan nuen. Edo kotxeko karneta gaztelaniaz egin beharra... Institutuan ere gero eta gehiago entzuten zen erdara eta karreran orduan eta gehiago. Alde horretatik ikusten dut lehen baino herri euskaldunagoa dela esparru askotara joan delako zabaltzen euskara. Ondarroako ezagutza beti egon da %80aren bueltan, biztanleriak gorabeherak izan baditu ere, hor ibili izan da eta erabilera ere hor ibil izan da. Egia da azken aurreko erabilera neurketan emaitza atipikoak atera

zirela. Azken emaitza normalagoa da. Bost urtean behin egiten diren neurketak dira horiek, baina nik antena egunero daukat ipinita eta sentsazioa daukat erabilera betiko bestekoa dela. Badaukat identifikatuta sasoi tarte batzuetan joerak ezegonkortzen direna, baina orokorrean esango nuke berdina dela datu orokorretan. Baina lehen esandakoa, esparru gehiagotara zabalduta dago euskara, gauza gehiago egin ahal dira euskaraz.

Lehenik hona aldea ikusten dut, gure sasoiak euskara ez zekitenak trinkotu egiten ziren gu trinkotzen ginen bezala, baina bazegoen nahasketa bat euskaldun eta erdaldunen artean. Orain denek euskaraz ikasten dutenez, irratxoak txikiagoak dira erdaldunenak eta euskaldun eta erdaldun nahasketan, euskaldunok badugu ohitura euskarari eusteko. Eta ez da oraingo joera, adinekoek gehiago dute jarrera hori. Ni harrituta geratzen nintzen, nahiz eta besteak euskara ondo ez menderatu eutsi egiten zioten euskarari. Beharbada beraien ezjakintasunagatik izan zitekeen, ez dut ukatuko hori, beraien erosotasunagatik egiten zutela. Baina ikusten bazuten besteak ulertzen zuela eutsi egiten zioten. Ez bestea molestatzeko eta gainetik sentitzeko. Elkarrizketa elebidunak oso ohikoak izan dira hemen. Gazteen artean jendea ezerosoago sentitzen da egoera horretan.

Nire inpresioa da erabilera mantendu egiten dela, hainbat esparrutara zabaltzeko egin dela gainera eta gero badaudela pertsona batzuen arteko harremanetan atzerakadatxo batzuk baina ez orokorrean, adin tarte batzuetan baino, saltoka ibiltzearena. Bertakoak ez hainbeste, bertakoak inguruko herrietakoekin ezkondu direnek dute joera handiagoa erdararako.

Datuetara etorrira

2011ko erabilera datua, matematikoki ere ez da posible. Hamarretik zortzik dakigu euskaraz, eta egia da zortzi egon gaitezkeela egun osoa euskaraz hitz egiten, eta bederatzigarrenari ere euskaraz egin ahal diogula berak gaztelaniaz erantzun arren, baina bederatzigarrena eta hamargarrena ere batu egiten dira eta hori ez da ahaztu behar. Horien pisua ez da %7a, badauka bere pisua. Bai gertatu daiteke kalean zoazela batzuk entzutea eta beste batzuk ez, nahiz eta hamaika egunetan egin neurketak.

Hor izan daiteke neurtzaileak gauza batzuekin gehiago fijatu izana, tonu baikorrean

interpretatzea... Soziolinguistika klusterrekoek esaten zuten ondo eginda zeudela eta nik hori ezin du ezbaian jarri. Baina nik ez nuke esango benetan igoera bat eman zelako atara zela %93ko datua, neurketan zerbait egon zela esango nuke, nahiz eta neurketa bera ondo eginda egon. Ostera, haur eta gazteen erabilera hamarretik bederatzi euskaraz dela oso garbi daukat, ahozkoan batez ere. Beste gauza batzuk neurtuko bagenitu beharbada desberdina izango litzateke.

2016ko helduen datua logikoa ikusten dut. 25etik 65erako esparrua zabala da, baina egia da. Hor dago, parkean gaztelaniaz aritzen entzuten direla, hori ez da hemen gertatu izan. Egongo dira batzuk kanpokoak eta beste batzuk ez, milaka faktore egon ahal dira hor, baina herritar moduan esaten duzu zertan ari diren gaztelaniaz. Nik epaitu egiten ditut jarrera horiek, beharbada da nire zaletasun horrek horretara eramaten nauela.

Egungo datuak normalagoak iruditzen zaizkit, aurrekoak ziren arraroak. Adineko jendea oso euskalduna izan dela esango nuke, hemen badago gaztelaniaz ez dakien adineko jendea. Adin tarte honetan badago sasoi batean lanera etorritakoak, batzuk ingurutik eta beste batzuk urrutiaotik. Haiek ezin dute euskaraz egin. Haien seme-alabak ulertuko dute eta horien umeek hitz egiten dute. Horregatik, umeen adin-tartearen erabilera datua normala iruditzen zait.

Etorri berrien adinak asko markatzen du, ez da berdina bi hiru urterekin etortzea eta erabat integratzea edo hamabi hamahiru urterekin etortzea. Adin horrekin lekua ezin aurkituta ibiltzen dira, bai pertsona moduan bai hizkuntzarekin ere. Batzuk erdarara erakartzen ditu, baina ez dut uste asko irauten dienik, lehenago edo beranduago edo euskalduntzen dira edo irla txiki bat sortzen dute.

Etorri berriekin hasieran gaztelaniaz hasten badira ere, bertakoentzat hori naturala ez denez, heltzen da momentu bat utzi egiten diotena gaztelaniaz egiteari eta etorri berria hasten da gehiago euskaraz egiten. Hamalau urtetik aurrera zailagoa izaten da integratzea, eta horrek bai ekartzen du beste lagun koadrila bat egitea, eskolakoa ez dena.

Gazteetan ikusten dudana da ezintasuna dutela beste hizkuntzetan aritzeko, gazte guztiek oinarri bera jasotzen dute euskaraz, eskola eta aisialdi guztia euskaraz egin dute. Batzuei gertatzen zaie ezgai direla hortik kanpoko hizkuntzetan aritzeko, esaldi

solteak esateko eta ulertzeko arazorik ez, baina hizkuntza horretan aritzeko ez dira erabat gai. Aldatzen hasten dira Ondarroatik ateratzen direnean, eta batzuk zaplamokoa ere hartzen dute. Hor hasten dira aldatzen, baina etxera etortzen direnean bereari eusten diote, oso finkatuta dute lagun taldea.

Zein da arrazoa horren ondo eusteko euskarari?

Kontzientziarik ez dutenek ere egin izan du euste lana hemen. Badago kontziente den lana, zuzenean edo zeharka, baina beste askok ez, baina hala eta guztiz ere denon joera da. Pisuan etxe ezberdinetakoak egoten ginenean konturatzen nintzen, batzuk anai zaharragoen artean gaztelaniaz egiteko ohitura zutela, haietako batek kolegioan ikasi zuelako. Anai harekin gaztelaniaz egin arren beste guztien artean euskaraz egiten dute. Arrazonamendu gabeko ohiturak sortzen dira.

Nire ustez arau soziala ere izan da Ondarroan euskaraz egitea, etxean eta etxetik kanpora. Gainera izan da modu naturalean. Asko jolastu izan dugu gure hizkuntzarekin, barre eta burla egin izan dugu gure hizkuntzan. Askotan erdara ere erabili izan dugu barre eta burla egiteko, erdarakadak eta euskarakadak erabiltzen. Horrek eragiten dizu zurearekin ondo sentitzea, zeurearekin eroso sentitzea eta horrek ondo sentiarazten zaituenez eramaten zaitu gehiago erabiltzera. Zenbat eta gehiago erabili orduan eta erosoago sentitzen zara. Baina arrazoi logiko bat ez dakit zein izan daitekeen.

Transmisioa egon da bai, euskararen balioa transmititu da. Nire birramonaren sasoian ere oso euskaltzaleak ziren, ez da hiru belaunaldiko kontua, aurretik datorren kontua da.

Gure aitaren txalupako armadoreak Bermeokoak ziren, txalupan zeuden galiziarrek, ondarrutarrak, baten bat mutrikuarrak eta ingurukoak eta beraien artean gaztelaniaz egiten zuten, baina gure aitarekin denek euskaraz egiten zuten. Nire aitak ez zion logikarik bilatzen bermeotarrek gaztelaniaz egiteari, orduan hori transmititzen dizute. Nik ulertzen nuen noiz bereizten zuen, gaztelania erabiltzen zuen beste premiarik ez zuenean, ez dizu esaten baina transmititu egiten dizu. Jokaerak beraiek ere transmititu egiten dira.

Gaitasunari buruz zer esan dezakezu?

Erabiliaz gaitasuna handitu egiten da. Gure belaunaldian batzuek badituzte

zailtasunak euskara irakurri eta idazteko. Baina konturatu naiz, Whatsappa, ahozko jardunaren luzapena denez, nola ekarri duen alfabetatu gabeko jendea euskaraz idaztera ausartzera. Praktikak ekartzen du ezagutza handitzea.

Gaitasuna hartzen duzu erabilerarekin, zenbat eta gehiago egin hobetu egiten dugu adierazkortasunean.

Estatusari buruz?

“Gu ondarrutarrak ga txo” esaten dugu, gu oso identitarioak gara. Ondarroa oso herri itsusia da baina oso herri bizia da eta horrela sentitu izan gara beti. Edonora joaten garenean beti esaten dugu ondarrutarrak garela eta esaten ez badugu ere azkar antzematen digute. Kostako herrietan esaten dute badagoela zaletasun bat kalean bizitzekoa eta horrek ere asko markatzen du. Kalean egoteak esan nahi du sozialki harremanetan egotea eta horrek hizkuntza bizi-bizi mantentzea dakar. Nik ez dut ukatzen beste herrietan gertatzen ez denik, nik hemengoa bizi dut. Oñatirekin konparatzen baduzu, Ondarroako etxeak txikiak dira, marinelen etxeak. Hainbeste bizi ziren ez zirela etxean sartzen, beraz, derrigorrez egin behar zen bizitza soziala. Ez zegoen lekurik etxeetan, derrigor joan behar zinen kalera, taberna zulo batera edo edonora. Horrek ekarri du espazio horietara eramatea hizkuntza, etxera ez mugatzea. Agian baserri edo etxe banakatan bizi baginen ateratzen zinen bakoitzean aldatu egingo zenuen, baina hemen zen derrigor kalean bizi beharra. Horrek ekarri du belaunaldietan zehar hori bizitzea. Gainera horri tonu ludiko bat eman izan diogu, guk negar ere egin izan dugu euskaraz eta barre ere bai. Horrek ekartzen du zirikatzea, elkarri adarra jotzea, erregistroa aberasten du, gaitasuna handitzen du, erraztasuna handitzen du. Herri bizi bat izatea ekartzen du.

Arrasateko batek esaten zidan behin hemen “trapitxeoa” ere euskaraz egiten dela. Hemengo kontu guztiak egiten ziren euskaraz, paper ofizialak izan ezik. Ahozko harreman guztiak egiten ziren euskaraz, eta horrek esan nahi du lehengo ofizio guztiak egiten zirela horrela.

Hona siziliarrak etorri zirenean kontserba fabrikak jartzera ez dakit nola egingo zuten baina lehenago edo beranduago poliki-poliki integratzen joango ziren. Haiek onartuko egingo zuten hemengo araua horrela zela. Ez da oraingo kontu bat, aurreko belaunaldietatik datorren kontu bat da.

Identitatearekin lotzen dugu euskara eta ez dugu planteatzen hau horrela ezin denik izan.

Herri bizitza, elkartegintza

Talde guztiek euskaraz funtzionatzen dute. Talde asko dago, mugimendu asko dago, talde berriak ere sortzen dira. Ez dago estatutu edo paper ofizialik, baina era naturalean sortzen diren talde guztiek euskaraz egiten dute. Erdaldunak ezagutzen ditut talde bat sortu dutenak afizio baten bueltan, baina azkenean talde hori mistoa izaten da. Baina normalean euskaraz dira.

Ikastola nola sortu zenean, joaten ziren etxez etxe laguntza eskatzera, diruz lagunduko zutela bazekitenengana joaten ziren, jende konkretuaren bila joaten ziren, estrategia izan da jendea eta ilusioa transmititu egiten zuten eta jendea animatu egiten zuten lanera. Endredoa ere azkar etortzen da. Izaeran badugu zerbait markatua eta uste dut horrek batu egiten gaituena.

Ez da izan banaketa politikorik egon euskara kontuetan, euskaraz egitea naturala izan da.

Arrantzaleek beti esaten zuten “tximinia gabeko etxeetan” lan egitea zela ona, itsasontzitik kanpoko lana. Suposatzen zen tximiniarik gabeko etxeetan gaztelaniaz hitz egin behar zela, bizimodua ona zen, baina ikasketak izan behar zenituen eta jendeak hori ez zuen. Baina tximiniarik gabeko etxeetan ere normalizatzen joan da euskara, berdintzen joan da.

Arrastea asko altxatu zen 70eko hamarkadan, 80-90ean jaisten joan zen. Bermeon atunero handietara aldatu dira eta horrek urrutira eraman dituzte lanera. Ondarroan ez da hori gertatu, hemen lehorreko lana sortzen joan da, lurrera lotuago.

Inguruko herriekin alderaketa

Markinan asko esaten zen “señoritoak” zirela. Markinan badago gaztelaniarako joera. Bestalde, Mutriku eta Ondarroaren artean badaude bikote asko, nahiz eta probintzia ezberdinak izan. Mutrikun asko erabiltzen dute euskara, nahiz eta ez izan Ondarroan beste. Lekeition mugimendu ezberdinak egoten dira udan, jende asko jasotzen dute kanpotik. Askototen dute gaztelaniara adin baten artekoan.

Berriatua oso euskalduna da. Ez dakit zein izan daitekeen arrazoia baina egia da ez dugula berdin jokatzeko.

Markinan, adibidez, arlo formalean euskarak badu lekua baina galtzen hasi da kalean.

Erreferenteak

Nik esango nuke badaudela eragile aktibo batzuk erakarpen handia sortzen dutenak gainontzeko ondarrutarrengan, ez dut esaten denak direnik eragile, baina batzuk badute erakarpen indar bat. Ez da oraingo gauza beti egon da, eta horiek joan direla gauza berritara gauzak zabaltzen, eta besteak joan dira era naturalean sartzen. Ez estrategikoki modu antolatu baten egin dugulako, erakargarritasun hori izan du. Pertsonak baino gehiago jarduerak, portaerak esango nuke direla erreferenteak.

Jendeak oso garbi zuen umeak euskaraz ikasi behar zutela eta sortu zituen ikastolak. Gerora joan da zabaltzen, baina oso modu naturalean igeriketan euskaraz egin behar zela eta entrenatzailea erdalduna bazen euskalduna lortu behar zela. Esan egiten zitzairen oso modu naturalean umeak ezinean dabiltzala eta euskalduna izan behar duela entrenatzaileak. Eta hori ez du esaten euskalgintzan dabilen batek, herritar arrunt batek baino.

Erreferente batzuk badaude, baina bakoitzak bereak izango ditu.

Migrazioa

60-70eko hamarkadan asko etortzen ziren galiziarrok arrantzara, beste batzuk gerratik ihesi etortzen ziren. Extremaduratik... Administrazioak bidalitako langileak ere etorri izan dira, errepideak zaintzera etorri direnak, adibidez. Tantaka etortzen zirenak asimilatu egiten ziren. Taldean etortzen baziren, beraien artean babesten ziren eta beraien taldea egiten zuten, beraien elkarteak, beraien taldea sortu zuten. Banaka etorri edo taldean etorri hizkuntza portaerak oso ezberdinak ziren.

Gaur egun ere berdina da.

Adin batekin datorrena belarriz zerbait ikasten joaten da, beraien seme-alabak arin sartzen dira hemen. Etorri eta aurrera salto egitea da, ez dago besterik.

Beltzek jokaera badute hitzak eta esaldiak ikasteko. Baina badaude muga kulturalak ere, adibidez, emakume batzuk euskaltegia etortzen ziren beraien gizonak itsasoan

zeudenean.

Ameriketatik etortzen direnak normalean ez dira horrenbeste euskalduntzen, beraienarekin moldatzen dira. Asko egiten du hizkuntza komun bat izan edo ez, nahiz eta egoera batzuetan eroso ez izan.

Euskaraz ikasi ez duen ondarrutarrak arazoak izaten ditu benetan gauza larriak pasatzen direnean, baina lasaiago dagoenean ez du gaizki pasatzen. Sentitu dezake gauza batzuetan ez dela besteen pareko, baina beti izango du modua gauzak ulertzeko. Nahiz eta sentsazioa izan dezakeen gauza batzuk galdu egiten dituztela.

Portaleko bileretan gertatzen da batzuetan eztabaidak izatea norbaitek gaztelaniaz egitea eskatu duelako, baina ondarrutarrak oro har, badu joera euskararako eta hori erdaldunek ere normaltasunez bizi dute. Oso barneratuta daukagu batengatik besteok ez dugula hizkuntza aldatuko eta ezeroso sentitu. Beti egongo da euskaldun bat esango duena euskaraz egiteko, baina ez da horren azkar onartzen hizkuntzaz aldatzea. Ez da horren erraz onartzen neuretik ateratzea. Erdalduna bada kontziente herri euskaldun batean bizi dena eta besteek ez dutela euskaraz egiten bere kontra daudelako, naturala delako baino. Kontua ez da ezetza esan nahi zaiola,

Ikastolan batzarrak beti egiten dira euskaraz, hori oso garbi dago, ez dakienari gero talde txikian azalduko zaio, baina talde handian beti egingo da euskaraz. Beste eskoletan ere batzarrak euskaraz egiten dira.

Eskola publikoan batzarrak ez badakit ere, jarduna euskaraz da.

Aisialdia, kultura

Euskaraz da guztia. Arte martzialak egiten zituen talde bat bazen, edo beste talde erdaraz egiten

zena, baina oro har ez. Futboleko direktibakoak tximinirik gabeko etxeetan lan egiten zutenak ziren lehen, eta horiek ilustratuak ziren, gaztelaniaz egiten zituzten paperak. Orain azken urteetan 40 urtetik beherakoak daude, eta euskaraz egiten da oro har, nahiz eta erdaldunen bat egon daitekeen. Baina jarduna euskaraz egiten da. Aldaketa bat egon da.

Kirol taldeetan gehien bat ahozko jarduna, paperak beharrezko tramiteetarako baino ez dute betetzen eta jarduna euskaraz izaten da.

Hirigintza

Ondarroan urte askoan ez da etxerik egin izan eta ondarrutarrak kanpora joan behar izan du bizitzera. Kamiñazpiko etxeak egin ziren eta tarteka tarteka etxeren bat. 60-70eko hamarkadan etxe asko egin ziren eta gero geldialdi bat egon zen. 2005ean etxebizitza sozialetan izena emateko epea ireki zen, ordura arte ondarrutarrak etxea lortzeko zain egon behar izan zuen. Bigarren eskuko etxeak erosteko aukera baino ez zuen izan. Inguruko herrietara asko joan ziren, Berriatura asko joan ziren. Jendea joan egin zen, etorri gutxi etorri dira, turismorako ere ez da etorri. Alokatzeko aukerarik ez da egon izan, ezta udarako ere.

Ez eraikitzeak ekarri du kanpora joan beharra eta kanpotik ere ez da etorri izan. Ondarroako etxeak ere ez dira merkeak izan. Senegaldarrek ere inguruko herrietan bilatu dituzte etxeak. Jendea hartzeko ez du lekurik Ondarroak. Aukera ere gutxi du eraikitzeko, metro karratu gutxi ditu Ondarroak, eraikigarria den eremurik ere ez du.

Industrigunerik ere ez du Ondarroak. Lanera datorren jendea egunez dator eta gero badoa.

Mugikortasuna

Boladaka izaten da. Garaiaren, adinaren araberakoa izaten da, gazteek adibidez, Elgoibarrerako joera izaten zuten gazteek. Gero beti egon da ohitura Bilbora joatekoa arropak erostera. Baina badago joera ere bat herriko merkataritza sustatzeko. Internetez ere asko erosten da, gaztelaniaz erosiko du, baina ahozko harremanik izan gabe. Ondarroakoak joatekotan joan dira Bilbora edo Donostiara. Merkatalguneetara joateko ohitura ere hedatu zen, baina kontuan izan behar da bai Donostia bai Bilbo ia urtebetera daudela biak, hortaz, jendea ez da astero mugitzen, nekatu egiten du horrek. Jendea joaten da baina hiru hilabetetik behin. Gazteek asko egiten dute lokaletan bizimodua. Nik esango nuke jendeak ez dela horrenbeste ateratzen kanpora.

Ikastera ateratzen dira, baina herrira itzultzeko gogoia izaten du ondarrutarrak, nik

nire alabarekin ikusten dut. Herrimina izaten dute betiko lagun-taldearekin egoteko gogoia, nahiz eta kanpoan gustura egon.

Ahalegindu egingo da euskaraz egiten, gainera esango nuke aktibo ere bihurtzen dela, jarrera trinkotu egiten dutela askotan, hasten direla euskara batzordeetan parte hartzen.

Euskalgintzaren egoera

Gizartean badago aldaketa bat. Lehen bazegoen taldean lan egiteko ohitura, orain ez dago taldean jarraikortasun batekin funtzionatzeko joera, orain gehiago whatsappetik mugitzen da jendea. Lehen egon zen EHE, baina uste dut norbanakoak lehen baino euskaltzaleagoak direla. Talde antolatuetan funtzionatzeko ohitura jaitsi bada ere, norbanakoen jarrerak aktiboagoak direla esango nuke. Jendeak kontzientziatuago dago, irekiago dago gauza berrietara. Korrikan parte hartzea oso erraza da ez delako lan bat urte guztikoa, eta horren moduan gauza askotan. Esfortzu puntuala eskatzen duten kontuotarako jendea animatzen da, baina hausnarketak egitea, ordu konkretu baten geratzeko ohitura izatea galdu egin da. Euskalgintza betiko terminotan ulertuta makal dago, lehengo patroietan ez du funtzionatzen, baina esfortzu minimoa eskatzen baduzu jendeak erantzuten du.

Euskalgintzaren egitekoa

Arlo ofizialean, lan munduan, auto eskolako karneta ateratzeko, notaritzako kontuak, osasungintzako kontuetan badago zer hobetua. Lan gehiago egin beharko litzateke gai horietan. Zerbitzu hizkuntzan badago zer hobetua, ahozko jarduna euskaraz bada ere, idatzizko tramite askok gaztelaniaz egiten dira oraindik (arkitektoen txostenak direla, notaritzako paperak direla...) Baina ez dut uste horrek euskalgintza eratu batek erantzungo dionik, beste modu batzuk bilatu behar dira. Erakargarritasun beste modu batetik bilatu behar da.

Sare sozialetan behar ditugu pertsona erreferenteak, modu naturalean euskara aktibatuko dutenak et ahoi izango da euskalgintza, pertsonena ez hainbeste taldeena.

Ondo egongo litzateke erabilera parametro haietan mantentzea. Herritarrak hezi egin behar ditugu, jabe izan egoera zein den, datuen parte egin, harro sentitu dugunaz.

Udalaren egitekoa

Urte asko darama euskara zerbitzuak lan isila egiten. Orain ere badagokio horretan jarraitzea. Egiten denari indarra ematea, adibidez egin ari zareten azterlanaren berri ematea.

Aurrera begira

Beste esparru batzuk irabazten joango garela uste dut, urrats txikiak ematen eta urrats horietako bakoitzari balioa ematen. Lorpenak ondarrutarroi gustatu egiten zaizkigu eta ospatu egiten ditugu. Etorkizunean ere horrek emango digu indarra. Ez dugu ulertzen zergatik ez duten besteek egiten.

Ondarroatik gauza asko esporta daitezke, arraina esportatzen dugu, euskaldunak esportatzen ditugu eta gure gauzak eramaten dituzte. Euskarako praktikak esportatu behar ditugu.

Errenta aitorpena euskaraz kanpainaren barruan, adibidez, aholkularitzekin eta bankuekin hitzarmen bat egin genuen beraiek bihurtzeko eragile, herritarrak beraiek animatzeko euskaraz egitera. Datuak bueltan eman genien beraiei eta horrek ekarri zuen %72ra igotzea ekarri zuen. Paperak banketxeak betetzen dituzte. Eta hemendik aurrera horiei euskaraz etorriko zaie. Aurten jendearen aktibazioa bilatuko da, autolikidazioa gaztelaniaz etortzen zaienei eskatu zaie esateko euskaraz eskatzeko. Pikea asko gustatzen zaigu, lorpenak lortzea. Estrategia da garatu behar dena, jendea zirikatu eta saltsa sortu. Eta hori ez da lortzen talde antolatu baten funtzionatuta, estrategia pentsatu eta sare bidez funtzionatuta.

Hurrengo erronka merkataritzan dugu.

ESKERRIK ASKO

MAITE REY

Aurkezpena

Bilbotarra. Ondarroan bizi izan da eta azkenengo hamar urteetan Berriatuan bizi da.

Erdalduna zen, 13 urterekin hasi zen euskara ikasten. Euskarak bizitza aldatu zion. Euskalduna banaiz euskara ikasi behar dute.

Jalgi hadi metodoarekin ikasi zuen, lehen irakaslea ondarrutarra. Bilbo zaharra euskaltegian bukatu zuen euskara ikasten.

Gero euskaltegian hasi zen irakasle. Euskal filologia ikasi zuen. Behin euskaldunduta, lagun talde euskaldunak egin zituen, gerora, gainera, Ondarroara etorri zen bizitzera.

Euskara dinamizatzaile, itzultzaile postura aurkeztu zen eta lanpostua lortu zuen. 28 urte darama postu honetan lanean.

Euskararen bilakaeraren inguruko inpresio orokorra

Ni euskara teknikari naiz, eta belarria, begiak, zentzu guztiak jartzen ditut zergatik ez den egiten. Hemen deigarriena da euskaraz bizi garela, euskaraz bizi ez dena azkenaldian etorri diren etorkinak dira. Ez dago integraziorik, ez dira harremanetan jartzen gurekin eta horrek ez du eraginik izan ohiko harremanetan.

Hortik ateratzen garenean, lan eremura, hasten da erdara nagusitzen. Hemen portua dago, hemen badago esaera bat esaten duena “portutik haratago Chicago”. Han beste mundu bat hasten da, beste lan dinamika batzuk eta han erdara asko erabiltzen da. Ez kale mailan, lonjetan eta ez, bertokoak dira langileak, ahozkoak. Lan munduko zereginak erdaraz egiten dira eta hori badakigu. Udalak nahiz eta hori jakin eta saiakerak egin eskua sartzen, Ondarroako Udalari handi geratzen zaion eremu bat da. LanHitz programarekin egin izan ditugu ahaleginak. Baxurako salmentan badago euskararen presentzia.

Beste alde batetik, lan munduaren beste kontrapuntua da mundu kooperatiboa. Ondarroako lur eremuan ez daude, Berriatuko lur eremuan eta harago daude. Bertan euskararen presentzia justu bestelakoa da. Hor euskara batzordeak daude, euskara plangintzak daude eta bi polo bien artean daude merkataritza, gremioak.. hor guk

esku hartzeak egin izan ditugu. Merkataritzari lotuta, UEMAko teknikari Iratxek esaten didan moduan, “baina hemen dena euskaraz dago, joan beharko zinateke kanpora konturatzeko”, segun nondik begiratzen den euskararen presentzia handia da merkataritzan baina guk beti ikusten dugu zeregina. Badira aurrekontuak egiten dituztenak euskaraz, tiketak euskaraz dituztenak, hizkuntza paisaia euskaraz dutenak, baina ahozko harremanak nagusiki euskaraz dira. Hemen arazoa da ahozkotik idatzizkora pasatzen zarenean hor dago koska bat edo bi behera.

Salbuespenak daude baina orokorrean... Hor nik uste dut Ondarroako Udalak ahal duela egin eta badaukala egitea eta egingo du.

Datueta etorrita

Kale erabilera neurketak joera erreparatzeko balio du. Ez gaitezen engaina 2011ko datuak hain onak izateagatik. Esan zirenean ere ez nien aparteko meriturik eman. Ez dakigu, oso trinkotuta daudelako euskaldunak eta hori gertatu zen edo akats tartekak hemen izan duen pisu handiagoa... Zaila da esplikatzea nola izan ziren hain zenbaki potoloak. Begirada baten pentsatu ahal duzu puztuta daudela. Baina hori gertatu zitzaigun beste baten ere bai, 2006an gazteen euskara erabilera neurketa berezia agindu zen. Kezka zegoen gazteek erdarako joera ote zuten eta emaitza izan zen %90ekoa. Hura ere ezagutzatik eta espero zitekeen leialtasun guztietatik gora. Orduan pentsatu genuen, euskara batzordeko kideok gaixotasun bat daukagu” eta hori horrela geratu zen. Hori behin baino gehiagotan gertatu da eta zuk ondo diozun moduan hemengo joera da ezagutzatik gora edo espero zitekeenetik askoz ere gorago erabiltzea. Harrotasuna, leialtasuna, trinkotasuna... seguru denetik pixka bat egongo dela. Ni joerarekin geratuko nintzateke eta joera da ezagutzatik gora ari garela. Azkenengo neurketan ikusten da zaharretan eta helduetan beherantz doala eta horri arreta jarri beharko zaiola.

Ez dakit hau esatea politikoki zuzena den, eta kale erabilera neurketak egitea izugarri tresna erabilgarria da, baina ez dakit zergatik gurea bezalako herrietan ez duela mailarik ematen, ez digula horrenbeste balio, susmo hori daukat. Horregatik esaten dut joerari erreparatu behar diogula. Nik ere sentsazio hori daukat, gure zaharrek euskaraz baino ez dutela egiten eta ez datoz bat gero errealitatearekin.

13 puntu egin du behera, beherakada handiena heldu eta nagusietan eman da eta haur eta gazteetan mantentzen da. Aldaketarik sumatu da?

Euskara batzordean jarrita dauzkagun termometroek diote batzuengan, adinekoetan erdararako joera, halako kezka bat bai iritsi zaigu euskara batzordera. Horregatik jarri genuen iaz parketarrak programa, haurrak nagusiekin euskaraz jolasteko. Egia esanda ez dakit asmatu genuen, ez dut pentsatzen hori denik bidea, haurrekin eta gazteekin euskaraz egiten baitute. Arazoa igual lagun talde zehatz batzuetan izango da, euskara gaztelaniarekin nahasten dutela lagun talde batzuetan. Ez da gauza bat asko aztertu duguna.

Fideltasuna zerk ekar dezakeen aipatzerik izango zenuke? Trinkotasunarena aipatu duzu lehen, euskaraz ez dakiten horiek integratuta ez egotea...

Hori argi dago, batez ere, etorri berriak, azken urteetan etorri direnak, horiek beraien artean izaten dituzte harremanak eta ez gurekin. Kultur aniztasun plan bat dago martxan jarrita udalean, AISA ikastaroak eskaintzen ditugu urtero... baina hortik eta benetako harreman sare bat egitera ez dut ikusten. Bilbon ikusten dituzun bezala auzoak kanpotarrez beteta hemen ere beraien txokoak egiten ari dira baina ez dira gurekin harremanetan jartzen. Gainera gurekin harremanak egitea ez da horren erraza, azkenak etorri direnak kulturalki ez dira sartzen tabernetara, hemen gure harremantzeko bidea hori izaten da, tabernak, elkarteak... Behin egin zen programa bat elkarteetan toki ezberdinetako jatekoekin eta hori berriro hartu liteke, horri sona gehiago emanda izan daiteke aukera bat.

Zein da arrazoia horren ondo eusteko euskarari?

Niretzat Ondarroa eta euskara bat datoz, horrela da. Lehen komentatu duzu gazteen taldean atera zela beraien pasaporteia ondarrutarra eta puntu, erdararik ez daki.

Inguruko herriak euskaldunak dira, baina ez dira horren fidelak

Lekeition udatiarren ezaugarri hori daukate, baina ez nuke esango lekeitiarrak ez direnik horren euskaldunak. Hemen guztizko leialtasun bat dago, uztartuta dago nortasunarekin, euskara da gure nortasuna, gure bidea. Hemen sagarrak sagarrak dira, manzanaz no hay. Hemen munduko ikuskera euskaratik doa, eta hori da hemen nabarmentzen dena.

Gaitasunak zer nola eragiten du?

Semeak aurkezpenak ondarrutarrez egiten ditu, are gehiago esango nuke, batuera menperatzen dute, baina euskara batuaz artifizial egiten dute, doinua aldatzen dute hasiberriak izango balira moduko doinu bat egiten dute batueraz eta beraiek horren kontziente dira, beraien burua arrotz ikusten dute horrela hitz egiten, orduan nahiago dute ahal duten punturaino ondarrutarrez egin. Gaitasunak kasu honetan alde jokatzen du.

Estatusari buruz zer esan dezakezu?

Euskarak ezberdintzen gaitu eta harrotasuna badago.

Erreferenteei buruz zer esan dezakegu?

Badago elkartegintza bizia, talde asko daude eta jende asko lanean talde horietan. Eta talde gehienetan, igerilari taldea etortzen zait burura, 30 urte izango dira sortu zela, estatutuak euskaraz egin zituzten, inork ezer esan beharrik gabe. Arrasaten hasi zirenean konpromisoen sistemarekin, hemen berdina egitea pentsatu zuten eta egin egin genuen, baina hemen nahiko testimoniala da hemen euskaraz funtzionatzen dugu. Ez zigun aparteko lanik exijitu, taldeek euskaraz funtzionatzen dute. Badira elkarte batzuk, galizia etxeak, ez du euskaraz funtzionatzen, senegaldarrak ere ez dira euskaraz ari, baina beste guztiak euskaraz ari dira, arlo guztietakoak. Kiroletakoak ere bai, baina horrek ez du nahi esan federazioekin arazorik ez dutenik euskaraz egiteko. Baina herrira begira, egiten dituzten komunikazioak, kartelak, ohiko asanbladak euskaraz dira eta ez bietara. Orduan horiek dira gure erreferentziak. Gure erreferentziak dira gure etxeko hizkuntza, gure kaleko hizkuntza eta gure inguruan

euskaraz bizi garela puntu horretaraino.

Herri mugimenduari lotutako mugimendua badago? Gazte asanblada badago?

Orain uste dut momentu onenetan ez daudela, baina hori izaten da txanda pasa hurrengoak etorri arte, baina bai, badago. Kulturarekin lotutakoak, kirolarekin lotutakoak, dantzarekin lotutakoak... 40 talde inguru daude.

Musika taldeak?

Musika taldeak ere bai.

Euskaraz abesten dute?

Izan daiteke ingelesez ere bai. Lehen aritutako talde bat: Joni gerribuelt. Horretan ere oso abilak dira ondarrutarrak, oso bertokotu egiten ditugu gauzak. Ingelesetik hartzen baditugu ere, hori ere naturaltasun handiagoaz bizitzen da. Horiek lehen ingelesez ere abesten dute. Orain berriro ere abesten hasi dira eta irakurri nuen “orain euskaraz”.

Elkarte horiek guztiak euskaraz ari dira

Bai eta udalera batzen direnean edo beraien elkartean batzen direnean ere bai, baina hori ez da planteatzen. Nire uste hori da, hori ez da planteatzen, berez dator euskaraz dela.

Baina ez dut nahi mundu idiliko bat marraztea. Esan dizut, batez ere, kirol taldeetan, seguru nago federazioekin eta beste batzuekin harremanak hasten direnean, beti dago nonbait koska bat behera egiten duen, Baina Ondarroan bertan ezetz esango nuke nik.

....

Nik esango nuke hemen dagoela arau soziala. Arau soziala da gurea dela euskaraz hemen euskaraz bizi garela, hori dela gure identitatea.

Kanpotik datozen faktoreek, globalizazioak hemen ba al du eraginik?

Nik ikusten dut, adibidez lehengo batean, bodyboard txapelketa egin zuten hondartzan eta esatari batek erabiltzen zuen euskara eta ingelesa eta ez zegoen erdibiderik, gaztelania ez zuen erabiltzen. Ingelesa, berbak, normalean kirol motari lotutakoak, hiztegi teknikoa eta zerbait esaten zuen. Ni nengoen han eta esaten nuen “naturalidadeak honaino eraman gaitu” gaztelania erabili gabe zuzenean ingelesera salto egin eta igual tiroak hortik datoz neurr handi baten. Azalpena garbia da, globazlazioaren ondorioez, eta atzerriko hizkuntzan duten mailarengatik gutxiago kostatzen zaie hizkuntzen arteko alternantzia horiek. Horrek zer ekarriko du, euskañola moduan, euskalenglisha? Ba ez dakit, beharbada exajeratzen ari naiz, baina hortik zerbait bai.

Euskararekiko jarrera

Bihar pasako da Korrika eta jende andana ibiliko da, kontzientziazioa badago, baina hori esatea... Korrikan sartuta edonor joaten da, gero eguneroko praxian eraman behar da hori aurrera, baina orokorrean baietz uste dut, batzuk kontziente izan gabe egingo dute euskararen alde, beste batzuk pauso kontziente hori eman dutelako eta gero pasibitatea ere badago, euskaraz egingo dute baina bost.

Migrazioak zer nola eragiten dute euskararen erabileran?

Presentzia badago, baina harreman biderik ez dago. Harreman biderik ez badago hizkuntzen arteko gatazka gutxiago, baina etorri etorriko da, denbora kontua izango da, beti ez dira egongo beraien txokoan sartuta, Harreman bideak gehiago dira portuan, normalean etortzen diren senegaldarrak portuan edo itsasoan lan egitera etortzen dira. Hor bai ikusten dut segurutik, orain dela 20 urte itsasontzi batean sartzen zinen eta bertakoak ziren nagusi, gaur egun bertokoak nagusi seguru ez direla, hor bai nabarmen aldatuko ziren gauzak.

Aisia eta kulturari buruz zer esan dezakegu?

Euskaraz. Ez zait okurritzen jarduera bat gazte batek erdaraz egin ahal duenik. Badago bat, karate irakasten duena da erdalduna. Pentsatzen dut laster ipiniko duela beste bat eta euskalduna izango dela. Baina hark ere hainbat kontu euskaraz egiten ditu, arau soziala.

Hirigintzak eraginik izan du?

Bai egin dira etxeak, babes ofizialeko etxeak dezente egin ziren baina ondarrutarrak joan dira, horrela jarri zen, Lea artibai aldekoak izan behar ziren bizitzera etortzeko.

Turismoak eraginik izan du?

Azpiegiturak ez du laguntzen, hotelik apenas dago, ostatu bat dago, pentsio bat, lehen sasoi batean hotela egon zen, baina orai ez dago. Jatetxeak badaude, erretegi bat, badaude ibilbideak Turismo bulegoak bultzatzen dituenak, baina nik esango nuke hona datorren turismoa, galdetu dudanagatik, hemendik datorren turismoa dela eta Madril eta Kataluniatik. Gero heltzen dira Lekeition sobran daudenak, frantsesak, alemaniarren batzuk, baina aparkaleku arazoa dago... egun pasa etorriko dira aparkatzea lortzen badute, baina erreserba honetara etortzea zaila daukate. Gehien bat da eguneko edo pare bat eguneko turismoa.

...

Hondartzen igarri daiteke, kutsadura akustikoa daukagu foru aldundiari esker, uraren temperatura bi hizkuntzatan esaten dute, “egun on” eta “buenos días”, eta gisa horretako zentzugabekeriak. Esanda daukagu euskaraz esateko eta hondartzainek ahal dutenean horrela egiten dute, baina joan izan garenean beraiengan esan izan digute kontratatatu dutenak esan dietela ele biz esateko, gazteak dira eta konpromiso ataka batean jartzean da. Jo genuen foru aldundira eta zereginik ez dago, erantzuna izan zen bi hizkuntzak direla ofizialak. Guk esaten genien larrialdi abisu bat eman behar bazuten emateko bi hizkuntzatan baina gainontzekoak esateko izan behar zen gure arau sozialarengatik eta hemen euskaraz bizi garelako, euskaraz.

Bizkaibusa orduro etortzen da Ermutik, baina zenbat hondartzan, gerta daiteke, baina...

Mugikortasuna

Durangora Eroskira bai, Makrora... badago joera nagusi hori toki guztietan gertatzen dena, ez da salbuespena hemen ere bai. Urbilera ere bai, Bilbo ingurukoetara... Beste mugikortasuna da lana dela-eta. Lehen sektorea eta zerbitzu sektore apurra kenduta lan bila dabilenak, asko kooperatibetan, Cicaucho eta Kide, Berriatuko lurretan daude. Cicauchon %80a ondarrutarra da.

Eraginik badu?

Berriatuarekiko ez, euskalduna da. Irakaskuntzako jendea ere badago. Nik uste dut ondarrutarra doan lekura euskara eramaten duela. Nik esaten dut ondarrutarrak direla euskararen enbaxadoreak.

Euskalgintzarik badago?

Egon izan da, nik esango nuke orain ez dagoela. AEK badago, baina AEKz gain. EHE ego izan da, baina irakasleak ziren, beti egoten ez zirenak, gero ahulduz joan da, zaila da hemen horrelako talde bat mantentzea. Espora moduan talde guztietan dauzkazu EHE herri guztian zehar zabalduta.

Egin izan zituzten kanpainak beraiek bultzatuta, azkena osasungintzakoa, bai egin dute beraien ekarpena.

Zein egiteko luke?

Detektatzen ditugun gabezietan laguntzea aurrera eginez.

Ahuakemonalarekin oraindik ari gara. Bertako hizkera indartzeko eta azpimarratzeko gure berezko joerarekin ondo pasatzeko aukera daukagula. Inziditzen harrotasun

puntu horretan, mantentzea hori. Jendeak gustura hartu zuen. Egun bakoitzean berba bat botatzen dugu irudi batekin sare sozialen bitartez eta jendeak partekatzen du, zabaltzen du. Nik uste dut funtzionatu duela.

Helburua bazen berreskuratzea galtzen bidean daudenak, baina hizkuntza batek berezkoa du galera, baina gehiago zen hizkuntzaren jolasean aritzeak zein mesede egiten digun azpimarratzea.

Badago zeregina, korpusari, hizkuntzari begira, ahozotasuna, adierazkortasuna indartu egin behar dela. Ahoz goran irakurtzeko ohiturarik ez dago eta gaizki irakurtzen da eta hori ikastetxeen bitartez badakit egiten dela, baina gehiago egin beharko genuke, hobeto irakurri, doinukerak eta adierazpideak hobetu. Ahoz gauzak adierazteko orduan maila falta da, horretan bertsolaritzak asko lagundu dezake, baina kurioski hemen bertsolaritzak ez du indarririk. Hori faltako litzateke.

Eta gero bestea da, idatzizkora salto egiten denean dauden gabeziak gainditzen lan egin beharko litzateke.

Ondarrutarrez idazteko joera dago, hemen esaten dute “hala ondarrutarrez” egingo dutela, edozerrek balio du. Ahaztu egiten zaigu ondarrutarra mendebaldeko hizkera dela, bizkaiera dela, eta nondik datozen gure berba, aditz batzuk eta “emango dotzut”, “emangotzut” hori bizkaiera da, eta gure ikasleek ez dute ikasi hori, ikasle batzuk bai bizkaiera lantzen dutelako, gehiengoak ez du hori landu, idazten dute motz, idazten dute idatzi behar den moduan whatsappen, baina ts-ak, tz-ak dago dantza bat izugarria ezjakintasunagatik. “Dizut, baina hori dotsut-etik dator ete hori bizkaiera da”, ba nire koadrilan ez dute horrela idazten. Nondik gatozen zentzu horretan, galdu dogu, garai baten batuera indartu behar zelako, eta batuera indartu beharraren beharraz iritsi gara gurea ez jakitera. Guk erabiltzen dugunean gure inguru hurbilean guretik tiratzen dugu, baina batuerako arauak aplikatzen dituzte eta talkak sortzen dira. Talka horrek mina sortzen digu batzuei, eta ni kezkatuta banago horrekin. Euskara batzordean batek aipatu zidan kirolean bera oso kezkatuta zegoela, entzuten zuela “roja ataratza eta kalera bialdu dau”, ari direla gauzak erlaxatzen eta indarrak ipini behar ditugula.

Euskara batzordean azkenaldian galbidean daukagu, ikastetxeek parte hartzen dute, AEK, Hitzak eta punto, zazpi laguneko talde bat da. Sasoi batean norbanakoak

zeuden, hori galdu da, baina zaila da eustea. Agian etorriko dira garai hobe, Baina ahuakemonala bezalako egitasmoak jartzen dituzu eta jendeak erantzuten du. Jendea ez dago horrenbeste konprometitzeko, jendea nahiko erlaxatuta dago, baina joera orokorra da.

Etorkizuna nola irudikatzen duzu?

Nik toki euskalduna ikusten dut. Badakizu ELE egiteko asmoa genuela, orain geldi dago. Hortik zer antzeman zitekeen jakitea interesgarria iruditzen zitzaidan.

Biztanleak galtzen ari da Ondarroa, mehatxua beste nonbaitetik etorri beharko litzateke, baina ez biztanlez hazten ari delako, dibertsifikazioaren ondorioz enplegua sortuko delako. Ez dut ikusten plangintza bat dagoenik horretarako.

Ondarrutarra da erabiltzen dena, ondarrutarrarekin joaten dira azken muturreraino, unibertsitateraino eta ahoz nik pentsatzen dut horrela izan behar dela, bestela doinukerak galtzen dira eta ederra da entzutea gure aberastasunak. Jakin behar dugu noiz erabili bata eta noiz bestea, eta ondarrutarra ere ondo erabili behar dugu.

IGOR URRESTI

Aurkezpena

Venezuelan jaioa, ama hizkuntza euskara du. Aita euskaltzale amorratua zen. Etxean beti euskararekiko atxikimendua izan dute, euskararen gaia beti bizi izan du intentsitate handiarekin. Karrera amaierako lana euskaraz egin zuen, nahiz eta gero gaztelaniaz aurkeztu behar izan. Herrian beti EHetik gertu, Bolo-bolo aldizkarian kolaborazioak egiten zituen, “zegatik ez euskaraz” orrialdea egiten zuten, gaztelaniaz zeuden gauzak salatzeke. Udaletxean euskara batzordeko zinegotzi egon bi urtez. Matematika irakaslea da egun. Berrialagun bezalako gauza txikiak egiten ditu orain. Bilbon 18 urte arte bizi izan zen

Euskararen bilakaeraren inguruko inpresio orokorra

Erabilera nahiko altua izan da beti Ondarroan, ez dut uste gora behera handirik izan duenik. Azken urteetan jendea gero eta prestatuago dagoenez, euskara lehen

erabiltzen ez zen gunen batzuetan erabiltzen hasi da, baina gutxi, errenta aitorpena egiteko, udaletxean eskaerak egiteko... Jendeak normaltasunez bizi du euskara, indartsu eusten du beste bat euskalduna ez denean. Elkarriketa baten arazo handiena da parekoak euskarak egiten duenean tentsioa sortzen dela, horrek eramaten zaitu gaztelaniaz egitera, pentsatzen dugulako parekoak euskaraz ez dakiela, tentsio horretan ez dugu bestea behartu nahi. Edukatuak garenez, erdarara pasatzen gara. Ondarroan esango nuke gehiago kostatzen zaigula pauso hori ematea, hemen erdaldunak konplexu bat badauka ez bada euskaraz egiteko gai, askotan ikusi dezakezu bat gaztelaniaz eta bestea euskaraz hitz egiten. Beste leku batean atzera egingo luke eta alde horretatik ikusten dut ondo. Gaizki ikusten dudana da eguneroko erabilera, faktura bat dendan eskatzen duzunean, errenta aitorpena egin behar duzunean, laneko tresna bezala zero erabiltzen da, hor badago zer landua.

Datueta etorrita

Nik galdetuko nukeena da erabilera nola neurtzen den, izan ere, nik ez dut sinisten erabilerarena. 2011ko datua atera zenean, Ondarroa herri euskaldunena zela esaten zen, baina nire ustez hori gezurra da. Datuak apuntatu zituena oso optimista zen edo gorra zen. %93,6ko erabilera datua datu okerra da ziur, ez da inon existitzen, gehiegizkoa da. Nahikoa da kalera ateratzea, oinez ibiltzen bazara pixka bat, hori horrela ez dela konturatzeko. %93,6ko erabilera datua emateko euskara baino ez du entzun behar ia, oso arraroa izan behar da euskara ez den hizkuntza bat entzutea. Eta nahiko arrunt entzuten da, beti entzun izan da. Datu hau agertu zenean, lehen ondorioa izan zen ez dela egia, datu hori bere pintza guztiekin hartu behar da.

2016ko datuak nahiko logikoak dira, sinistu dezaket, gainera urteetan errepikatzen den datu bat da. Gazteen artean bai betetzen da erabilera datu hori, baina joaten bazara kale kantoietan, marjinalagoak direnak, lokaletan ibiltzen diren, kalean ibiltzen ez direnak, plazan izkina batean daudenak, kaletik entzuten ez direnak, horiek gehiago mintzatzen dira gaztelaniaz.

Umeen erabilerarena sinisten dut, %92 gazteen erabilera datuan dudak ditut orain esandakoengatik eta 2016ko datu orokorra logikoa iruditzen zait. Baina 2011ko %93,6 ez da egia.

Ni kale neurketak egindakoa naiz duela urte asko eta ez dut esaten gaizki egin zenik, baina beharbada borondate onarekin, optimistoz, edo entzuten dituzun hitzak pentsatzen duzulako euskaraz zirela, predisposizio batekin euskaraz jartzen duzu.

Ondarroan erabilera mailan osasuntsu dago egoera, ez kantitateagatik, hitz egiten dutenak naturaltasun handiaz hitz egiten dutelako baino, konplexu barik. %72-76 iruditzen zait datu altua, %93 iruditzen zait edozein gauzatako, herentzia bat kobratzeko ere ez ginateke ados jarriko biok.

Kontuan hartzekoak diren datuak direla iruditzen zait. Etxeko erabilerari dagozkion datuak kezkatu egiten nau, erreala ikusten dudalako, hemen ikusten dut alderantziz, badagoela jende asko badakiena, denak dakitena baina batek ez duelako erraztasunik, ez duelako joerarik besteak ere gaztelaniaz jartzen dituela. Eta hor ikusten dut euskararen arazorik handiena, bai hemen bai Bermeon bai EH osoan.

Aldaketarik egon dela esango zenuke azken bost urteetan?

Ez. Egotekotan izan daiteke jaitsiera txiki bat egotea, hiru lau puntuko jaitsiera bat izan daiteke, baina ez. Egon baldin bada kanpoko jendearen artean izan da, baina normaltasunean, multzo handiengatik antzerako jarrera ikusten dut.

Adin tarteari dagokionez nabari duzu alderik?

Helduen adin tarte bat badago erdarara joateko erraztasuna duena eta ondarrutarra dena baina bigarren belaunaldikoa, euskaraz jakin arren erdararako joera duena. Helduen artean ikusten dut joera bat eta ez ondarrutarren artean bakarrik, erdararako joera duena, tentsioa mantentzeko zoritxarrez ikusten dut jaitsi egin dela.

Adinekoen artean ez dut hori ikusten, bertako jendea da, ez dago inmigrazio handiegirik, oso jende ondarrutarra, ez dena alfabetatu euskaraz baina kaleko erabileran oso jende euskalduna da. Heldutan badago jende bat euskaraz dakiena, alfabetatuta daudenak horietako asko, gainera, tentsio hori gutxiago mantentzen dutenak. Ondarroan beste herri batzuekin alderatuta asko mantentzen da tentsio hori.

Haurretan naturaltasunez, ez dute bizi hizkuntza tentsio hori, haurrak ikastoletan

denak dira euskaldunak eta euskara bizi dute jolasteko, ondo pasatzeko, naturaltasun guztiz.

Gazteetan ikusten dut datu hauetatik aparte kaleetatik aparte bizi direnak, bunker txikietan egoteko joera dutenak ez dute euskararekiko horrenbesteko joerarik.

Zein da arrazoia horren ondo eusteko euskarari?

Karakterra eta politika esango nuke. Transmisio bat egon da bizitza guztian, Asterixen herri txikia izan da, defentsiban egon izan dena. Gurasoengandik transmititu digute ez diogula uko egin euskarari eta euskara dela gure identitateko ezaugarri nagusia. Ondarrutarra kanpora doanean beti da ondarrutarra, ondarrutarkeri handia egon da. Nortasunaren ezaugarri nagusi moduan sentitzen dugu hizkuntza. Hizkuntza bizi dugu gure modura eta balio handia ematen diogu, eta hori jaso dugun heziketaren parte da.

Euskara batua nola bizi da?

Ondo. Badaude testu asko erdi ondarrutar idatzita baina gehiago dira euskarazaleak horrela idazten dutenak, tonu hurbilagokoago bat emateko. Ondarrutarkeri horretan, kartel bat atera behar badut ondarrutarrez idatziko dut. Baina gero pertsona berdinak ez du arazorik euskara batuan idazteko eta momentuan jarriko da. Ez du bestelako arazorik sortzen.

Gaitasuna

Gaztelaniaz ez jakitearen konplexua badu ondarrutarrak, euskaraz hobeto egiten duen ustea. Baina ondarrutar batek berdin berdin menperatzen du gaztelania, lekeitiar batek markinar batek edo bermeotar batek moduan. Besteek ez dute horrelako beldurrik, arazorik. Gure identifikazio bat da eta horrek indartu egiten du gaztelaniaz ez jakitearen ustea. Berrelikatzen den ideia da.

Harrotasuna

Harrotasunez bizi da euskaltasuna eta naturaltasunez. Harrotasun eta naturaltasun hori da heldutan beste herrietan asko galtzen dena, eta hemen gutxi xeago galtzen dena, galtzen da eta horrek amorrua ematen dit, baina ez beste herrien neurri berean. Adibidez, Elgoibarren irakasle egon nintzen, eta han kanpaina pila bat egiten ziren euskara bultzatzeko, eta aldi berean den-denak gaztelaniaz egiten zuten. Ni konturatu nintzen, heltzen dira DBH1eko ikasleak Mendarokoak, ordura arte euskaraz bizi izandakoak, eskolan, familian euskaraz bizi dira, lagunekin euskaraz bizi dira. Institutura iristean hasten ziren euskaraz, agoantatzen zuten hiru aste euskaraz eta giroak jan egiten zituzten. Zoritxarrez euskaldunok giro arrotz baten bizi gara eta inguruak presionatu egiten gaitu, harrigarria da. Ingurune horretan nahikoa da taldean egotea beste hiru lau erdaldun gaztelaniara erortzeko. Nik institutuan esaten nien ze kanpaina egin behar duzue euskalduntzeko, zuk egin behar duzun kanpaina da euskaraz biz nahi duen gazteak bermatzeko euskaraz bizi ahal izatea, ez izateko presio bat euskaraz egitea. Astigarragan kontrakoa gertatzen da...

Erreferenteak

Bereziko nituzke herrikoak eta herriko kanpokoak. Herrian hain naturaltasunez bizi da hizkuntza, adibidez Kirmen Uribe, berez ez dira bereziak. Hain da naturala euskaraz egitea, talde batek normal normal egingo dizu euskaraz. Talde batek esan dezake ingelesez egitera doala, baina beste edozein herrialdetan egon daitekeen joera berdina da, adibidez Holandan talde batek ingelesez egiteko. Baina inork ez du erdaraz egingo, ez zaiolako bururatu ere egiten, normaltasunetik atera egiten da. Alderantziz, Kirmenek liburua gaztelaniaz egin zuenean haserrea sortu zuen, traizio moduan hartzen da.

Arazoa betikoa da, entrenatzailea kanpotik etorri eta euskalduna ez izatea, horrek denok jartzen gaitu erdaraz. Bueno, berak egingo du erdaraz, baina futboleak dabilzanak beraien artean euskaraz egingo dute. Edo arraun elkartera doa eta gehienak euskaraz egingo die, eta esango die laster ikasiko duela euskaraz. Erreferente horiek zorionez herrikoak diren bitartean oso euskaldunak dira, biz da

naturaltasunez.

Arazo bakarra lan mahaian, bankuan lanean dagoena edo ez badauka harrotasun hori paperak gaztelaniaz inprimatuko dizkizu zuk ez badiozu euskaraz eskatzen. Fakturak gaztelaniaz jarriko dizkizu. Lokal batek esaten badizu kartel bat jarri nahi duela ez zaio bururatuko euskaraz jartzea, baina kanpoko bat etortzen bazaio esanez programa bat gaztelaniaz daukala, zorionez %50a gogor jarriko da, baina beste %50 batek fakturak gaztelaniaz jarriko ditu.

Kanpoko erreferenteak, ETB adibidez, arazoa da. ETB esan zuten ikusgarritasuna eman nahi zitzaiola euskarari eta bi kateetarako euskaldunari euskaraz soilik egingo zitzaiola elkarrizketa eta ETB2n azpitoluekin azalduko zela. Bada gezurra da, Ondarroan bertan, Kamiñazpiko obrak direla-eta, ETBko kazetariak adierazpenak gaztelaniaz ere egiteko eskatu zien, baina Ondarroan ukatu egin ziren. Futbolari , “Conquis”eko euskaldun asko gaztelaniaz ari dira, ETB2 delako. Gainera sartu digute buruan, adibidez, “Conquis”en batek euskaraz egin eta azpitoluekin jartzea gauza ez onargarria dela. Euskaldun giroan ere onartutzat ematen da horrela izatea. Horrek bai ikusten dut direla nik oso arriskutsuak, eta gazteentzako horiek dira erreferenteak, futbolariak...

Herri bizitza

Herri bizitza badago bai, ez orain dela urte batzuk bestekoa, baina pentsatzen dut nik hori joera orokorra dela. Euskararen erabilera badu eragina, etxean zenbat eta gehiago sartu kale erabilera datuak ere jaitsi egiten dira.

Inguruko herriekin alderaketa

Berriatua oso euskalduna da eta Mutriku ere oso euskalduna da. Lekeition badago jende bat oso harro bizi duena, baina beste jende bat euskalduna izan arren erdararako joera handiagoa duena. Markinan transmisioa ez da hain sendoa izan, ezagutza handiagoa izan daiteke baina erabilera baxuagoa da, erdararako joera handiagoa da.

Ondarrutarrak haserretu egiten dira Markinarrekin, joera erdaldunekin

Euskararen normalizazioaren aldeko jarrera badago, kontzientea gainera. Lehen ere esaten da, entziklopediak saltzen zituenak Ondarroara oso pozik etortzen zirela, atea jotzen zutenean ondo erantzuten zutela, eta salmentak onak zirela.

Migrazioa

Handia izan da. 60-70eko hamarkadan etorri den belaunaldiak ez du euskara ikasi, baina beraien seme-alabak euskaldundu egin dira presioaren ondorioez. Gutxi batzuk badaude ez dutenak inoiz ikasi euskara, uko egin diotenak ikasteari, baina orokorrean oso ondo hartu dute.

Azkenengo urteetan etorri direnak, beraien burua latino identifikatzen dutenek baino azkarrago ikasiko dute euskaraz Pakistandik, Senegaldik datozenek. Bolivia, Uruguaiakoek gaztelania mantentzen dute, ez dute beharrik sentitzen. Baina orokorrean migrazioa ondo hartu izan dugu.

Orain jende asko dago Senegaldik etorri dena, belaunaldi hau euskalduntzea zailagoa da, baina beraien seme-alabek ikasten dute euskara. Txarrena da 13 urterekin etortzen den uruguaiarra, hark ez baitu ikasiko. Denok erdaraz dagokigunez praktikatu egiten dugu berarekin, gainera exotiko moduan ikusten da.

Orain migrazioa ez da kantitatez hain handia, lehen belaunaldiak arazoak ditu integratzeko baina beraien seme-alabak integratzen dira.

Aisialdia-kultura

Euskaraz bizi da, baina betikoa, zineman haur bat Walt Disneyko film bat ikusi nahi badu gaztelaniaz ikusten du, telebistan bere erreferente nagusiak gaztelaniaz dira. Interneten sartzen denean gaztelaniaz ibiltzen da denbora guztian.

Bertan eskaintza guztia euskaraz egiten da.

Arrotza da gaztelaniaz denean. Salbuespenak egon izan dira, dena dela. Yoga irakasle bat bazegoen eskolak gaztelaniaz ematen zituena, bera ondarrutarra izan arren. Gaztelaniaz ikasi zuenez, erraztasuna zuen gaztelaniaz emateko, dena dela, herritarren aldetik jaso izan ditu kexak. Ondarroako jendeak aurpegiratu egiten dio,

mantentzen da tentsio hori.

Hirigintza

Bailara bat da Ondarroa eta ez du ematen etxeak eraikitzeko. Ez da jenderik etorri bizitzera, etorri dena kanpokoa izan da, itsasora lanera etorri dena.

Turismoa

Inguruan baditugu herri politak, Mutriku eta Lekeitio, guri etortzen zaizkigu Ermukoak autobusez hondartzara. Denak erdaldunak dira eta hondartza erdaldundu egiten dute. Baina ez dute bizi hemengoa.

Jendea festetara etortzen da beste euskal herrietatik Ondarroa herri euskalduna delako. Ondarroak herri euskaldunaren irudia saltzen du. Herri handiagoetan bizi den jendea eta inguru erdaldunagoan bizi dena Ondarroara etortzen da oxigenatzera.

Mugikortasuna

Durangorako eta Bilborako joera dago batez ere. Kanpora ateratzerakoan ondarrutarrek beraien artean ez dute hizkuntza aldatzen. Badago jendea asko oso aktiboa dena eta euskarari tinko eusten diotenak. Hainbat lekutan, Forumen, ospitalean, kafetegian... ez dakite euskaraz eta beti da sufritzea, baina ondarrutarrak tentsio puntu hori beti mantentzen du.

Lana

Arriskurik handiena duen eremua da, urteak aurrera joan eta ez zaio bueltarik ematen, drama bat da. Oso zaila da, kanpoko faktoreengatik batez ere. Portuan, adibidez, jende guztia beraien artean euskaraz ibiliko da, baina maila formalera salto egiten duzunean beti daude zailtasunak. Cikautxo, adibidez, Berriatuan egon arren ondarrutarrez beteta dago, euskaraz egiten da, badaude euskara plangintzak. Baina nahikoa izan daiteke pertsonaleko nagusia aldatzea egindako lan guztia bertan

behera uzteko, hori da gure hizkuntzaren arazoa. Edo joaten zara tailer batera, eta nahiz eta berarekin euskaraz egin eta faktura euskaraz egin, aplikazio informatikoa gaztelaniaz du. Edo konplexuarengatik ere bai, errenta aitortpena egiteko, notariako paperak.. gaztelaniaz egiten dira.

Bolo-bolo aldizkarian bagenuen orri bat, “zergatik ez euskaraz” orrialdea, eta bertan argazkiak jartzen genituen gaztelaniaz zeuden kontuenak, eta harrigarria zen zein eragin izaten zuen. Beraien burua aldizkari baten ikustea salatuta lotsa sortzen du, momentuan zuen eragina.

Euskalgintza

Ez dago, norbanakoak daude. EH guztian gertatu den kontu bat izan da, EHE indartsu egon zen bere garaian, borroka gogorrak egin zituen, baina gero desmobilizazio handi bat egon da orokorrean eta hemen ere izan du eragina.

Egoera normalizatuta balego bezala sartu digute eta hemen ere ez da horrela, lana badago egiteko, Ondarroan ere bai. Tentsioa galdu egin da.

Dena dela, behar bat sortuko balitz, atxikimendua beharko balitz, jendea badago aktibatzeke prest dagoena, kontua ez da euskaltzaletasuna ez dela bizi, antolakuntzarik ez dagoela baino eta tentsioa galdu dela. Norbanako asko oso kontzientziazatuta dago.

Euskalgintzaren egitekoa

Egiteko handia du. Kanpoko faktoreei lotutako gauza guzti horietan ez uztea atzera egoten. Etxe barruko bilerak, adibidez... Eskubideen diskurtsoa ugaritu egin da erdaldunen artean, diskriminazioarena... Eta Ondarroan ere bai. Badago arrisku handi bat lortutakoa atzera egiteko, tentsioa mantendu behar da.

Esamolde, hiztegia lantzea ondo dago, hizkuntza bizia den bitartean indarra duen bitartean hizkera ez da galduko. Txistek egiten dira Ondarroako hizkeraren inguruan, baina harrotasunez bizi dugu.

Euskara erabiltzen den neurrian ez da galduko, gurasoen euskararekiko transmititu

diguten jarrera proaktiboa, zuzentasun eta egokitasunarekiko ere transmititu digute.

Ondarroan taldean norbaitek erdararako joera badu, alboan ez badiote jarraitzen ez da joera gehiagora joaten. Lekeition nahiz eta oso euskaldunak izan, norbait badago erdararako joera duena erraz uzten dira joaten. Hemen ez.

Etorkizuna

Euskal Herriko bilakaerarekin batera ikusten dut, ez gara irla bat. Euskal Herrian Euskaraz osasuntsu mantentzen den neurrian, hemen mantenduko da. Dena dela, Euskal Herria orokorrean ikusita, hemen zorionez baldintza onak daudela ikusten dut aurrera egiteko, baina betikoa, hemen tentsio hori mantenduta.

Udala

Asko egiten du. Gehiago egin daiteke baina ez da udalaren kontua. Erakargarria egin behar dugu, jendea konbentzitu behar dugu... ni konbentzituta nago diskurtso horrekin ez goazela inora. Aurrean dugun pertsonak ez dira neutroak. Niri australiar bat etortzen bazait, erakutsi ahal diot euskara erakargarria dela. Baina zoritxarrez aurrean daukagun masa handi hor, %60a, oso baldintzatuta da, batzuk da barik kontrako jarrera dute eta beste batzuk ez proaktiboa. Horiek ez dituzu inoiz konbentzituko polita, zoragarria delako euskara, egin behar da derrigortasunez. Derrigortasuna da lanpostuetarako, zereginetarako euskara behar izatea. Ondarroan, adibidez, Ondarroako jaiak, Ondarroak dauka jarrita kartelak euskaraz egin behar direla. Ondarroan bertan pasata dago Galiziako kartela erdara hutsez atera izana, bada nik ez nioke diru-laguntzarik emango.

GFAk lege aldaketa batzuk egin zituen, informatikako aplikazio guztiak euskaraz egingo zirela jarri zen eta gero itzuliko zirela. Detailea ematen dute, baina ez dira. Adibidez Laboral Kutxako aplikazio batean sartu eta izorratzen denean gaztelaniara salto egiten du. Dena dago gaztelaniaz sortuta eta gero itzulita eta hori nabaritzen da.

Udalaren barruan euskaraz egoten da dena eta hori da kanpora agertzen dena. Kontratazioetan gogor egin behar du euskaldunak jartzen. Ez egotea yoga gaztelaniaz udal lokaletan, karteletan erdia euskaraz ez badago ez ematea diru-laguntzarik.

Ondarroako erronka enpresa mundua da. Udalak badauka zeregina, egiten du, baina betikoa, kontrolatzeko zailtasuna du. Derrigortasuna sortzea da erronka.

Baina orokorrean ikusten dut, plenoak, dokumentazioak... euskaraz egiten dira. Kalean mantentzen den tentsioa udalean ere mantentzea da gakoa.

MIREN URRESTI

Aurkezpena

Miren Urresti Azpidi naiz, eta 47 urte ditut. Ondarrutarra naiz, eta betidanik egon naiz euskarari lotuta. Ondarrutarra izanda, naturala da. Nire lagun batek esaten du ondarrutarrok darelako BEZ-ik gabeko euskaldunak, ondarrutarra izan eta euskalduna izateak ez duelako balio erantsirik. Gure herrian baldintzak ditugu euskaldun izateko eta euskaraz bizitzeko.

Euskaraz jaio nintzen, eta 14-16 urterekin hasi nuen euskararen aldeko militantzia. Esentzialismoarekin apurtu behar dela ikusi nuen, ez dela nahikoa ondarrutarra izatea. Erdaraz ikasi nuen nik, eta kontzientzia piztu zitzaidanean, alfabetatzen hasi nintzen. Politikoki, berriz, EAJkoa naiz, eta alderdiaren barruan euskararen gaiarekin ibili izan naiz beti. Elkarrekin kultural bateko partaidea ere banaiz, eta hor beti euskararen alde egin dut. Izan ere, ikusten dut euskaldunak garela, ezagutza eta erabilera datu onak ditugula, baina horretan gelditzen dela gure euskaldun izate hori. Esate baterako, hemen herri aldizkariak euskaraz soilik egiten du, baina herritar askok joera dute El Correo eta halakoak irakurtzeko.

“Umetatik dudana da euskara, eta horrela naiz ni”. Horrelaxe ikusten dugu guk euskalduna izatea. Beraz, esan daiteke, oro har, guk ez dugula ezer berezirik egin euskararen alde, Ondarroan jaiotzea soilik. Beraz, nire inguruan beti saiatu izan naiz kontzientzia erantsi bat zabaltzen.

2003-2007 artean, udalean agintzen egon ginen, eta Euskara zinegotzia izan nintzen. Tarte batean, UEMAko lehendakaria ere izan nintzen. Orain ere zinegotzia naiz, eta Euskara batzordean neu naiz alderdiko ordezkaria. Arranondo elkartean ere jarraitzen dut euskararen aldeko egitasmoetan parte hartzen.

Euskararen baitan gehien landu dudana arloa herri-hizkera izan da. Ni horretan oso Zuazista naiz, Koldo Zuazun eskolakoa naiz. Herri hizkerak ematen du, herri

euskaldunetan jakina, lotura afektiboa hizkuntzagaz.

Zer ematen dio euskaldunari euskalki bereizi baten jabe izateak?

Liberazioa. Labairuko hiztegia liberazio bat da niretzat. Gure hitz eta estruktura guztiak hortxe datoz. Uste dut herri hizkera laguntza handia dela euskararen erabilera eta kalitatea hobetzeko. Lotura afektibo handia da norbere euskalkia, eta horrek kontzientzian eta sentimenduetan eragiten du. Uste dut hemen altxor handia dugula, eta probetxu gehiago atera beharko geniokela. Turistikoki ere erabili daitekeen baliabidea da euskara, gure euskara. Erakutsi beharko genuke hemendik kanpora, halako herri koskorra izanda, euskaraz bizi daitekeela, eta hori modu onean saldu.

Herriko euskalgintza

Arranondo euskara elkarte eta herri-aldizkaria da. Euskaltegia ere badugu herrian, eta lehen EHE ere bazen. Orain ez dakit ziur nola funtzionatzen duten, baina aspaldian ez dut ezer entzun. Herrian euskaltegia izateari, adibidez, garrantzia handia ematen diot. Aliatu bat da edozertarako, eta elkarlanerako aukera asko irekitzen ditu. Bestela, elkarte gehienak euskaraz funtzionatzen dute hemen, eta kartel eta abarrak euskaraz dira. Gure jardunean guztiz barneratuta dugu hori. Hemen inoiz ez da planteatzen ekintzak zer hizkuntzatan egin behar diren, euskaraz dira eta kito. Galdetzea ere arraroa izango litzateke. Euskara batzordea ere badugu, eta bertan AEK, HITZA eta halakoek ere parte hartzen dute.

Pertzepzioa

Inguruko herriekin konparatuta, ikusten dut oso herri euskalduna dela Ondarroa. Ez dago kanpora joan beharrik, Berriatuan, adibidez, 40 eta 60 urte inguruko jendeak erdaraz egiten du berba, eta halakorik ez da gertatzen gurean. Beraz, beste herri batzuekin konparatuta, gu askoz hobeto gaude. Irla bat da Ondarroa.

Dena den, uste dut lana egiten dela herria euskalduna izan dadin, eta udaleko euskararen aldeko politikak bere funtzioa izan dutela, baita elkarteek hartutako hautuek ere. Euskara teknikaria jartzen lehen herrietakoa izan zen Ondarroa, eta talde politiko bat edo bestea egon, beti eman zaio garrantzia gai honi. Konpromiso hori ikusten da dirutan. Kasualitatea ez da herriko egoera, ondo egindako behar baten emaitza da.

Gaztelania oso hizkuntza indartsua da, eta ingelesa ere ari da bere lekua egiten. Hala ere, hemen heldu zaio euskarari. Arduratuta jarraitzen dut, ordea, ezin garelako erori erosotasunean.

Pertzepzioari dagokionez, beti antzeko lekuetan mugitzen gara, eta ez dakit oso fidagarriak ote diren norberaren sentipenak. Dena dela, nire inguruan ez dut ikusten halako alderik edo euskaraz gutxiago hitz egiten denik.

Euskararen izaera transbertsala

Ondarroako udalean, euskara ez da zerbitzu bat: lana egiteko hizkuntza eta modua da. 90ko hamarkadatik halaxe izan da, eta horrek sortu duen giroak on egin dio euskarari. Zenbait batzordetan, egia esan, erdaraz hitz egiteko joera dute, baina idatziriko guztia euskaraz sortzen da. Hori oso barneratuta dugu. Herritarren aldetik ere jarrera ona sumatu dugu. Batzuk eskatu dute gauzak erdaratzea, baina jarrera beti izan da ona.

Datuak

2011ko neurketa hiru aldiz egin behar izan genuen, erabilera ezagutza baino altuagoa zelako, eta ezin zutelako ondo egon datu horiek. Ez dakit nola interpretatu, baina ez da oso logikoa. Munduan euskara gehien egiten den herria Ondarroa da, datu horien arabera. Orain jaitsi egin da. Ni harritzen nauena da adinekoen artean jaistea erabilera, 20 puntu, gainera. Harritzen nau uste dudalako adineko askok zailtasunak izan ditzaketela erdaraz egiteko. Ez dakit inmigrazioak eragina izango duen horretan, baina azalpen tekniko bat izan behar duela uste dut. Datuak jasotzerakoan-edo, agian, zerbait nahas zitekeen. Justu uste dut adinekoak direla adin-tarterik euskaldunena, umeein batera. 65 urtetik gorakoek esango nuke benetako arazoak dituztela euskaraz egiteko, hamarretik zortzik bai, behintzat. Kezkagarria da, eta behatu behar da. Nik neuk, ordea, ez dut uste arrazoia denik euskaldunak erdaraz hitz egiten hasi izana. Egia esanda, beherakada adin tarte horretan gertatu izanak, apur bat lasaitu egiten nau.

- Adibidez, Ondarroako Berdintasun sailak Beldur barik programan lehiaketa bat jarri du abian, eta gazteak aurkeztu dira. Tartean, gure alaba, 13 urtekoa, eta erdaraz aurkeztu dute bideoa. Entzun nuenean esan nion alabari: Zer, Itsaso? Erdaraz? Zergatik? Eta erantzun zidan: Ama, Instagramen hala egiten da. Nik esan nion ezin

dutela Ondarroan lan bat erdaraz aurkeztu. Lehen aipatu dut herri honetan ez dela zalantzan jarri ere egiten gauzak zer hizkuntzatan egin, baina gazteen artean bada joera bat. Lehiaketa hori irabazi zutenak ere erdaraz aurkeztutako bideo batekin irabazi zuten. Eztabaida handia egon zen horren inguruan, egon behar duen bezala. Azkenean, udaletik eskatu zitzaien euskaratzeko, eta datorren urteko oinarrietan eskatuko dute bideo guztiak euskaraz izatea. Orain arte ez dugu horren premiarik ikusi, baina orain egin beharko da. Hor, beraz, bai ikusten dela kontzientzia lantzeko premia bat. Bloggerrak, youtuberrak, instagramerrak... denak erdaraz dira, eta gazteentzat erreferentziazko pertsonak dira.

Arau soziala

Harremanak euskaraz dira Ondarroan. Gure kaleetan euskaraz hitz egitea arau soziala da. Horren erakusle da etorkinek euskararen premia sentitzen dutela, eta entzunez eta erabiliz ikasten dutela. Garbi ikusten dute harremanak izan nahi badituzte hizkuntzaren beharra dutela. Senegaletik etorritako familiak ditugu, eta erabat euskaraz egiten dute. Anai-arreben komunikazio hizkuntza ere euskara da kasu askotan. Egia da erdaraz egiteko ere zailtasunak ditugula, eta beti euskarara jotzen dugu.

Bestalde, iruditzen zait Ondarroako erdaldunek ere errespetatzen dutela euskara, eta beraiek ez jakin arren, normaltzat ikusten dutela gainontzeko guztiak euskaraz egitea. Hori ez da ikusten beste herri batzuetan. Ez da edukazio falta hemen.

Umeen kasuan, euskaraz soilik hitz egiten dute askok, eta besteek hori jasotzen dute eskolan bertan zein jolastokian. Ondoren hartzen dute gaztelania, ingelesarekin batera.

Herri hizkera

Lana egin behar da herri-hizkeraren alde; bestela, gaztelaniara jotzen dugulako. Txisteak eta isekak erdaraz ditugu, han eta hemendik jasotzen ditugu. Horri erantzuteko, herri hizkera dugu. Guk badugu berba informala, eta ez dugu gaztelaniara jo behar gurea garatuz gero. Hemen, adibidez, asko esaten da claro que si, guapi. Barre egiteko eta ondo pasatzeko, erdarazko esaerak erabiltzen ditugu, eta horren irtenbidea euskalkia da. Ondarroan oso lotsagabeak gara, burlatiak ere bai, eta hizkuntzarekin barre asko egiten dugu. Lehiaketak-eta egin ditugu hori

sustatzeko, eta hortik jarraitu behar da.

Ardatz estrategikoa da normalizaziorako bidean herri hizkera zaindu eta bueltatzea da. Literatura, antzerkia eta halakoak ere oso dira garrantzitsuak, baina uste dut gehiago egin behar genukeela herri hizkeraren alde. Ahuekemonala ekimen erreferentea da bai Ondarroan, bai Ondarroatik kanpo ere. Jardunaldiak ere antolatu genituen. Hara joateko deitzen genien denek gustura hartzen uzten Ondarroatik jasotako deia, herriaren markak bidea irekitzen du. Bide horretan, euskalkia prestigiatu behar dugu.

Herri izaera eta itsasoa

Ondarroan bada herri izaera sendo bat. Batzuetan onerako, eta besteetan txarrerako. Gainera, herri aislatua izan da. Ez dugu izan harreman handirik beste udalerriekin, eta hori nabaria da izaeran. Beste aldetik, itsasoa dugu, hara gizonezkoek irteten zuten. Haiek gaztelaniaz egin behar bazuten ere, patroiak egiten zuen hizketan. Andrazkoak, berriz, etxean gelditzen ziren, eta hemen euskaraz soilik egiten zuten. Portua oso euskalduna zen lehen, nahiz eta orain aldatu den. Orain gehiago entzuten da gaztelania itsasoko munduan. Lehen, herrian, jauntxoak, medikuak eta halako familiek soilik egiten zuten gaztelaniaz. Haiek, ordea, ez zuten harreman zuzenik herritar xeheekin.

Herritarren jarrera

Zabalduta dago herrian, “ni euskalduna naiz, eta listo, ez dut nire burua beste modu batera ikusten”. Dena den, bada kontzientzia maila bat ere esparru batzuetan. Erdi eta erdi esango nuke. Transmisioari dagokionez, seme-alabei ezbairik gabe, beti euskaraz hitz egiten zaie etxean. Egiten ez duguna da akatsak zuzendu. Niri txikitan, zerbait gaizki esatean, zuzendu egiten ninduten; orain, badirudi, utzi egiten zaiela nahi bezala hitz egiten. Bada pertzepzio bat gurasoen artean: “Eskolan horrela ikasi badute, ondo egongo da”. Hori ere geure burua gutxiesteagatik da.

Migrazioa

Jaso ditugu etorkinak, 60ko hamarkadan batik bat. Galiziatik, Andaluziatik eta Portugaletik etorri zen jendea hona, arrantzara. Gizonak ziren gehienak, eta hemen aurkitzen zuten bikotekidea. Dena den, nik ez dut uste migrazioak eragin handia izan duenik. Arrazistak izan gara Ondarroan, eta egia da horrek ez duela gehiegi laguntzen

hizkuntza batera gerturatzeko. Getoak egin zituzten, eta beraien artean biltzen ziren. Badira Ondarroan auzo jakin batzuk, non herrialde jakin batzuetako pertsonak bertan bizi diren. Baina, gero, premia ere baduzu, hemen bizitzeko beharrezkoa baita euskara, eta sartu beharra duzu euskararen mundura, korronteak ematen zaituelako horra. Arazo moduan ez dut ikusten migrazioa, errealitate moduan. Bestalde, migratzaileak gu izan garenean, uste dut geurekin eraman dugula euskara beste leku batzuetara. Neu, adibidez, Berriatuan bizi naiz, eta konturatzen naiz han garen ondarrutarrok besteek baino gehiago hitz egiten dugula euskaraz, beti heltzen diogulako hizkuntzari. Hori gure erakusgarritako bat da. Herrian eta herritik kanpora euskararen erreferenteak gara.

Hirigintza eta garraioa

Ez da etxe asko eraiki izan hemen, eta kanpoko jendea etorri denean, oro har, inguruko udalerrietakoa izan da: Mutriku, Ondarroa... Garraioei dagokionez, trenik ez dugu, baina autobus zerbitzuak asko hobetu dira. Mutrikura, Donostiara... ondo daude. Herri aislatua izaten jarraitzen dugu, baina aldatu da. Jakina, erabileran lotura zuzena du aparte dagoen herri bat izateak. Lanera kanpora joaten dira gazte asko, batik bat, ikasketak dituztenak. Eskualdean, Markinan zerbait aurki daiteke; baina, oro har, eskualdetik kanpora joaten dira.

Dena den, ikasketa maila baxuagoak daude hemen, eta joera gehiago egon da inguruko herrietan baino herrian bertan gelditzeko. Horrek eragina izan du denean, hizkuntzaren erabileran ere bai.

10.5. TALDE DINAMIKETAKO GIDOIA

Bermeo

1. AURKEZPENAK ETA KOKAPENA EGIN 5'

Lehenengo eta behin gure burua aurkeztuko dugu eta egiten ari garen ikerketaren berri emango diegu modu arin batean. Saioa goxatzeko eta etorri izana eskertzeko jateko eta edateko zerbait eskainiko diegu.

Behin gure burua aurkeztuta, beraien izenak ezagutuko ditugu erronda azkar baten bidez.

2. HELBURUA AZALDU 5´

Behin aurkezpenak eginda, saioaren helburua zein den azalduko diegu. Honakoa izango da: herriko datuak aztertzea eta haien atzean egon daitezkeen arrazoi edo iritzien inguruan hitz egitea.

3. EZAUGARRI NAGUSIAK 5´

Honako ezaugarriei buruz galdetuko diegu guztiei eta datuak fitxa batean jasoko ditugu.

- Jaiolekua eta herrian bizitzen daramaten urte kopurua
- Lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza
- Euskararen ezagutza maila:

Euskaraz gaztelaniaz baino hobeto

Euskaraz eta gaztelaniaz berdin

Gaztelaniaz euskaraz baino hobeto

4. DATUAK MAHAI GAINEAN 20´

4.1. Datuak eman aurretik, parte-hartzaileei galdetuko diegu beraien udalerriko erabileraz: zer den herrian sumatzen dutena, zer datu jarriko lituzketen eta azken urteetan zer joera bereizi duten. (Taula eramango dugu hutsuneekin, eta guztien artean gutxi gorabeherako datuak jar ditzatela).

4.2. Bermeoko datuak jarriko ditugu ikusgai, eta bi ariketa egingo ditugu haiekin. Batetik, bilakaeraren inguruko iritzia eskatuko diegu; bestetik, galdetuko diegu ea datuek diotena sumatu duten inguruan.

Zer ondorio atera ditzakezue datu horietatik?

Beharrezkoa bada, laguntza eman dezakegu ondorio batzuk mahai gainean jarrita:

Ezagutza datuak mantendu egin dira. Gero eta gehiago dira hizkuntza etxetik jaso ez duten arren, euskaldunak direnak.

Erabilerak behera egin du etxean nahiz kalean.

Adineko pertsonak dira hizkuntzari hobekien eusten diotenak, eta gazteak, berriz, jaitsiera handiena pairatu dutenak.

Umeen artean ere asko ari dira aldatzen hizkuntza ohiturak.

Galdera posibleak:

Zerk eragin dezake bilakaera hori.

Zer irakurketa positibo egin daiteke eta zein negatibo?

Zein dira udalerrian bertako faktoreak eta zein haietatik kanpokoak? Hau da, Bermeoko testuinguruak zertan du eragina, eta zertan euskararen egoera orokorrak.

Zein dira norbanakoen faktoreak edo kolektibo gisakoak aldaketa horiek jazotzeko? Erabaki pertsonalak hizkuntza bat edo bestea hautatzeko, edo gizarte edo talde bezala ditugun inertiak.

Zuen inguruan zer jarrera sumatzen dituzue euskararen erabileraren inguruan?

Zer egin dezakete herritarrek, zer erakundeek.

Adin multzo bakoitzari eskatuko diogu, bereziki, beraien adin-tartearen inguruko hausnarketa egiteko.

Datu orokorrak

Ezagutza

1981	1991	2001	2011
%72,8	%76,8	%75,7	%72,7

Lehen hizkuntzari dagozkionak

1986	1991	2001	2011
%71	%71,2	%67	%58,9

Etxeko erabilerari dagozkionak

1991	2001	2011
%56,2	%53,8	%44,5

Kale erabilera

1989	1993	1997	2001	2006	2011	2016
%42,90	%47,12	%48,09	%54,5	%60,67	%36,6	%33,6

Datuak adin-multzoka

	1989	1993	1997	2001	2006	2011	2016
Haurrak	%44	%40,17	%56,06	%62,6	%69,86	%42,3	%36,3
Gazteak	%7,10	%11,69	%23,55	%39,5	%36,34	%19,1	%14,8
Helduak	%43,10	%53,16	%41,18	%51,5	%49,30	%29,5	%27,8
Adinekoak	%77,10	%86,83	%71,56	%68,4	%80,14	%59,8	%52

6. HIZKUNTZA OHITURAK ETA ZERGATIAK 30´

Ataletan banatuta, hizkuntza ohituren eta arrazoen inguruko iritzi trukaketari eskainiko diogu tarte: Hizkuntzaren faktoreez gain, beste zerk eragin dezake hizkuntzaren bilakaeran?

6.1. Lagunartea:

Zein hizkuntz ohitura duzue zuen ohiko lagunartean?

Zergatik? ohitura, gaitasun falta, erdaldunak tartean egotea, pertsonen arabera...

Lau egoera emango dizkiegu eta egoera horietako bakoitzean nola jokatuko luketen eta zergatik galdetuko diegu.

Egoera 1: taldean bat erdalduna denean.

Egoera 2: erdararako joera dutenak tartean daudenean.

Egoera 3: ezezagunen aurrean.

Aldaketarako bidea egin behar dela uste duzue?

Zer urrats egin behar direla ikusten duzue egoera hori iraultzeko? Zer bide daude jarrerak lantzeko? Noren esku dago lan hori?

6.2. Aisia/kultura/zerbitzuak

Zein hizkuntzatan kontsumitzen duzue kultura?

Nola baloratuko zenukete herriko kultur eskaintza?

Ezagutzen al duzue dagoen kultur eskaintza? Kontsumitzen al duzue?

Zein erreferente dituzue herrian? Nola mintzatzen dira horiek?

Erreferentzialtasun hori indartzeko zer bide proposatzen dituzue?

6.3. Mugikortasuna:

Aisialdiaz gozatzera, erosketak egitera, lanera edota ikastera norako joera duzue?

Zuen ohiko hizkuntza ohiturak aldatu egiten al dira leku horietara zoaztenean?

Zeren falta sumatzen duzue herrian bizitza bertan egiteko?

Gune erdaldunetatik etorritakoak ba al dituzue inguruan?

Beraien eragina nabari al da?

Eta guk nola jokutzen dugu beraiekin?

7. AURRERA BEGIRA: EUSKALGINTZA ETA UDALA 20'

Aurrez aipatu ditugun hutsuneei erantzuteko zer mekanismo proposatuko zenituzkete herrian?

Ezagutzen duzue udalak egiten duen lana euskara sustatzeko? Zer egitasmo? Ipuin lapiko, Kalinpan, Geuk eus kanpaina, abizenak euskalduntzeko kanpaina, jaioberrien bertsoak eta liburua...

Euskalgintzarik ba al da? Zer lanketa egin beharko litzateke?

Euskara elkartea ezagutzen duzue? Egiten duenaz gain, zer gehiago egin beharko luke?

Udalak zeren ardura hartu beharko lukeela ikusten duzue?

Orain artean ikusi dugunari tiraka, zer da, une honetan, lehentasunezko gaia.

Ondarra

1. AURKEZPENAK ETA KOKAPENA EGIN 5'

Lehenengo eta behin gure burua aurkeztuko dugu eta egiten ari garen ikerketaren berri emango diegu modu arin batean. Saioa goxatzeko eta etorri izana eskertzeko jateko eta edateko zerbait eskainiko diegu.

Behin gure burua aurkeztuta, beraien izenak ezagutuko ditugu erronda azkar baten bidez.

2. HELBURUA AZALDU 5'

Behin aurkezpenak eginda, saioaren helburua zein den azalduko diegu. Honakoa izango da: herriko datuak aztertzea eta haien atzean egon daitezkeen arrazoi edo iritzien inguruan hitz egitea.

3. EZAUGARRI NAGUSIAK 5'

Honako ezaugarriei buruz galdetuko diegu guztiei eta datuak fitxa batean jasoko ditugu.

- Jaiolekua eta herrian bizitzen daramaten urte kopurua
- Lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza
- Euskararen ezagutza maila:

Euskaraz gaztelaniaz baino hobeto

Euskaraz eta gaztelaniaz berdin

Gaztelaniaz euskaraz baino hobeto

4. DATUAK MAHAI GAINEAN 20'

4.1. Datuak eman aurretik, parte-hartzaileei galdetuko diegu beraien udalerriko erabilera: zer den herrian sumatzen dutena, zer datu jarriko lituzketen eta azken urteetan zer joera bereizi duten. (Taula eramango dugu hutsuneekin, eta guztien artean gutxi gorabeherako datuak jar ditzatela).

4.2. Ondarroako datuak jarriko ditugu ikusgai, eta bi ariketa egingo ditugu haiekin. Batetik, bilakaeraren inguruko iritzia eskatuko diegu; bestetik, galdetuko diegu ea datuek diotena sumatu duten inguruan.

- Zer ondorio atera ditzakezue datu horietatik?

Beharrezkoa bada, laguntza eman dezakegu ondorio batzuk mahai gainean jarrita:

- Euskararen kale erabilera datuak ezagutzaren paretsu ibili izan dira.
- 2001eko eta 2011ko erabilera datuak dezente altuagoak dira, gainera.
- 2016an behera egin du erabilerak, baina 2011ko ezagutzaren pare mantentzen da, hala ere.
- Etxeko erabileraren aldean ere altua da kale erabilera. Euskararekiko fideltasuna erakusten dute ondarrutarrek.
- 2016ko datuen arabera, haur eta gazteek eusten diote hobekien euskarari.
- Helduen eta adinekoen adin tartean beherakada eman da.

Galdera posibleak:

Erabilera datuak bereziki altuak dira, zeintzuk izan daitezke arrakastarako gakoak?

Zein dira faktoreak zuen ustez kale erabilera datuak esperotako datuen dezente gainetik egoteko?

2011ko erabilera bereziki altua zen. Zer esan dezakegu hortaz?

2016an dezente jaitsi da, nahiz eta ezagutzaren pareko egon. Zein ondorio atera ditzakegu?

Azken bost urteetan aldaketarik eman dela sumatu al duzue?

Heldu eta nagusien erabilerak izan du beherakada handiena, zer esan dezakegu hortaz?

Zuen inguruan zer jarrera sumatzen dituzue euskararen erabileraren inguruan?

Adin multzo bakoitzari eskatuko diogu, bereziki, beraien adin-tartearen inguruko hausnarketa egiteko.

Datu orokorrak

- Ezagutza

1981	1991	2001	2011
% 75,1	% 78,4	% 83,4	% 79,1

- Lehen hizkuntzari dagozkionak

1986	1991	2001	2011
% 71,7	% 71,3	% 74,1	% 69,9

- Etxeko erabilerari dagozkionak

1991	2001	2011
% 66,3	% 69,1	% 63,9

- Kale erabilera:

1989	1992	1994	1997	2001	2011	2016
%70,9	%69,01	%79	%77,16	%81,01	%93,6	%79,7

	1989	1992	1994	1997	2001	2011	2016
Haurrak(2-14)	%72,8	%76,3	%84	%79,61	%86,67	%96,4	%92,1
Gazteak(15-24)	%59,2	%71,25	%62	%71,54	%82,56	%93,3	%92,9
Helduak(25-64)	%70,2	%63,62	%70	%75,68	%77,42	%91	%72,9
Adinekoak(>65)	%89,7	%72,22	%87	%80,80	%90,11	%95,1	%76,5

6. HIZKUNTZA OHITURAK ETA ZERGATIAK 30´

Ataletan banatuta, hizkuntza ohituren eta arrazoiengatik inguruko iritzi trukaketari eskainiko diogu tartea: Hizkuntzaren faktoreez gain, beste zerk eragin dezake hizkuntzaren bilakaera?

6.1. Lagunartea:

Zein hizkuntza ohitura duzue zuen ohiko lagunartean?

Zergatik?

Lau egoera emango dizkiegu eta egoera horietako bakoitzean nola jokatuko luketen eta zergatik galdetuko diegu.

Egoera 1: taldean bat erdalduna denean.

Egoera 2: erdararako joera dutenak tartean daudenean.

Egoera 3: ezezagunen aurrean.

Aldaketarako bidea egin behar dela uste duzue?

6.2. Aisia/kultura/zerbitzuak

Zein hizkuntzatan kontsumitzen duzue kultura?

Nola baloratuko zenukete herriko kultur eskaintza?

Ezagutzen al duzue dagoen kultur eskaintza? Kontsumitzen al duzue?

Zein erreferente dituzue herrian? Nola mintzatzen dira horiek?

6.3. Mugikortasuna:

Aisialdiaz gozatzera, erosketak egitera, lanera edota ikastera norako joera duzue?

Zuen ohiko hizkuntza ohiturak aldatu egiten al dira leku horietara zoaztenean?

Gune erdaldunetatik etorritakoak ba al dituzue inguruan?

Beraiekin nola jokutzen duzue?

7. AURRERA BEGIRA: EUSKALGINTZA ETA UDALA 20'

Ezagutzen duzue udalak egiten duen lana euskara sustatzeko? Zer egitasmo?

Euskalgintzarik ba al da? Ez badago, egon beharko lukeela uste al duzue?

Ondarroan euskalgintzaren egitekoak zein izan beharko lukeela uste duzue?

Udalak zer en ardura hartu beharko lukeela ikusten duzue?

Orain artean ikusi dugunari tiraka, zer da, une honetan, lehentasunezko gaia.

Etorkizunera begira jarrita, nola irudikatzen duzue Ondarroako euskararen egoera?

9.6. Bermeoko talde dinamiketako transkripzioak

Aurkezpena

Orain zuen aurkezpenak entzun nahiko nituzke nik erabili dudana egitura baliatuz.

TEB-G1: 19 urte dauzkat eta zuzenbidea ikasten dut Leioan, euskaraz. Bizi guztian ikasi dut euskaraz eta nahiko nuke hemendik aurrera ere horrela egitea, baita zabaldu ahal izatea beste hizkuntzetara baina ez izatea obligazioz, neure aukeraz baizik.

Etxean euskaraz egiten dugu beti, ez dut jakin erdaraz eskolan hasi arte. Eta orain kalia igartzen dut diferentzia, lagunek ere orain arte euskaraz egin izan dugula eta

orain joera duela erdaraz berba egiteko, bat nahikoa dala erdaraz berbetan hastea danak erdaraz berbetan hasteko. eta ni nire aldetik ere saiatzen naiz horri kontra egiten.

TEB-G2: 18 urte dauzkat eta bigarren batxilergoa ikaste ari naiz institutuan, nire etxean beti egin da euskaraz eta lagunekin beti egin dut euskaraz baina ja gero eta gutxiago. Lagun gutxiago dauzkat euskaraz egiten dutenak eta nirekin euskaraz egin arren besteekin erdaraz egiten dute.

TEB-G3: 24 urte dauzkat. Nire etxean beti egiten da euskaraz. Talako kantina daukat lagun batzuekin eta oso pozik nago ze han egunero dauzkagu gauza kulturalak. Gure lan egiteko modua beti euskaraz izaten da, lehentasuna ematen diogu euskarari. Gero publikatzen ditugu gauzak facebooken eta dena izaten da euskaraz. Gero ere egiten dut erresidentzian. Nik ikasi nuen erdi mailako gradu bat, gizarteratzea, beti ikasi dut euskaraz, eta oraintxe aisialdiko animatzaile moduan lanean nago Bermeoko egoitzan. Nire koadrilan euskara asko egiten da, esan ahal dut beti egin dugula euskaraz. Gero herriko beste hainbat taldetan parte hartzen dut, Sareginetan, Txosna Batzordean, Kabixen, leku nahiko euskaldunak dira. Baina bai igartzen dut gazteagoen artean gero eta pisu handiagoa hartzen ari dela erdara. Nik gero eta gehiago entzuten dut erdara.

TEB-G4: 16 urte egingo ditut laster. Nik etxean beti egin dut euskaraz. Orain ere euskaraz ikasten nago, orain DBH4n nago eta beti egin dut euskaraz. Bai igartzen da azken urteetan nire lagunak hasi direla erdaraz berbetan, Ikastolan be erdara pila bat egiten da. Lauaxetan gehienak dira Bilbokoak, Basaurikoak eta haiek egiten dute erdara ekarri. Eta Amorebietakoak, Gernikakoak ere bai, eta denak hasten gara erdaraz berbetan. Hemen be ni ibiltzen naizen jendeak nahiko erdara egiten du eta igual daude batzuk egiten dizuena euskaraz berba eta ez dute ulertzen, ulertzen dute baina txino lez da eurentzat, gero ezin dute aldatu eurak erdaraz pentsatzen dute, ez dute egin nahi. Gehien bat da beraiek gurasoek egiten dutelako erdaraz edo euren gurasoek badakite baina ez dute nahi egin.

Datuak ikusi aurretik nola ikusten duzue euskararen erabileraren bilakaera?

TEB-G1: nik aspaldian ikusi ditut bideo batzuk datuenak, EH mailakoak. Diote guk pentsatzen dugula gero eta gutxiagok egiten duela euskaraz baina gero eta jende gehiagok dakiela euskaraz. Niri inoiz pasa zait Bilbora joan eta dendan batean erdaraz irteten zaizu pentsatzen duzulako ez dakit zer eta egun baten saiatzen zara hasten eta askok ulertu egingo dizute ez daukate arazorik, igual ez dauka erraztasunik. Eta ez da ez dakitelako baina askotan guk ere ez dugu ematen erraztasunik edo guk ere ez diegu ematen askotan aukerarik beraiei egiteko, gero askotan aukera ematen duzu eta ez dute amore ematen. Nik uste dut aukera aldetik uste duguna baino aukera gehiago ditugula euskaraz egiteko,

Eta Bermeon nola ikusten duzue?

TEB-G2: nik uste dut jende asko dagoela euskaraz egiten dakiena baina gero erabili...

TEB-G1: nik uste dut ez dagoela kontzientziarik, beharra dagoena, euskaraz egiten ez bada galdu egingo dena, jendeari ez zaio inporta. Ni orain ari naiz partikularrak ematen txikiagoei, eta nik konparatzen dut nire lagunekin eta nire lagunak hasi ziren erdaraz egiten, baina ez zuten mespretxatzen euskara, eta orain esaten diezu euskaraz egiteko, euskara lantzeko eta ez zaie inporta, ez die ematen baliorik, hor ikusten dut diferentzia, ez hainbeste erabileran, pentsaeran, ematen dioten balioan baizik.

TEB-G4: adibidez nire Ikastolan batzuen ama hizkuntza ez da euskara eta batzuen badena esaten dute “que es un idioma de cabras y no me va a servir para nada”. Gertatzen dena da gurasoek ez diotela esan zure hizkuntza da, eurek erdaraz egin diote, txikitan euskaraz baina gero erdaraz egin diote eta ez diote eman balio hori, ez diote esan “hau zurea da eta hau jagon egin behar dozu”. Ingelesa izatea lez.

Baina hori Bermeon?

TEB-G4: ez, hori Amorebietan. Eta hemen beste batzuk daude baina horiena ez da ama hizkuntza, euskara eskolan ikasi dute baina ingelesa moduan eta esaten dute gero ahaztu egingo zaiela.

TEB-G2: gero eta jende gehiago dago euskara ikasten duena lanerako, titulua aterako, baina gero ez dute erabiltzen.

TEB-G3: nik uste dut krisi bat egoten dela, adoleszentsziko beste krisi bat dela euskara erabiltzea. Adolezentszian guaya izan nahi duzu, gogorrago hazten zara hizketan eta ez da berdina esatea “gilipollas” edo tonto bat, euskarazko birao bat. “Makarrismoan” pubertaroan jendeak klik bat egiten du eta erdarara jotzen du gazte askok. Sare sozialetan, instagramen dena dago erdaraz, nik ez dut ikusten adolezente bat euskaraz egiten duena, Nahi baduzu izan “mas guay” ingelesez egiten duzu... Nik pentsatzen dut badagoela krisi bat, nik beti pentsatzen dut, harrotu egiten zara eta erdaraz fuertago ematen du euskaraz haserretzea... madarikatua baino “gilipollas” fuertagoa da. Nik uste dut hor jendea galdu egiten dela. Adibidez guk ez dakigu Bermeoko berba asko, erresidentziak ibiltzen dira, eta fuerteak dira. Ahal zara haserretu euskaraz baina ez dakigu, jendeak pentsatzen du ezetz.

Datuetara ekarrita...

Ezagutzari dagokionez, adibidez 2001ean ezagutza zen %75,7k zekien euskaraz, 2011n zer esango zenukete, gora egin duela...

TEB-G4: ezagutzak bai, bai ze umeek euskaraz ikasten dute, baina etxean...

LHri dagokionez zer esango zenukete? 2001ean %67 jasotzen zuen euskara eta 2011n?

TEB-G4: Gutxiagok hori jaitsi egin dela

Eta etxean erabili, 2001ean %53,8k erabiltzen zuen. 2011n?

TEB-G4: nik uste dut jaitsi egin dela.

TEB-G1: baina zer esan nahi dugu erabilerarekin? Ze nik ezagutzen dut familia bat umeategaz, aita bermeotarra da, ama Bilbokoa da, euskaraz ikasi du, umei euskaraz egiten diote baina beraien artean ez dute egiten euskaraz. Orduen hori zer da, hori euskararen erabilera bai da etxean?

Eta beraiek pentsatzen dute euskaraz egiten dutela, baina umeak entzuten du gurasoek nola egiten duten, eta gurasoek ez dute ikusten bekaturik horretan.

TEB-G4: Nahi dut ezan gurasoek lez

TEB-G2: bai eta hori Bermeon pila bat ikusten da. Lameran daude gurasoak erdaraz berbetan eta umeari euskaraz egiten diote aldarri eta txakurrari ere bai.

Orain ikusiko ditugu kale erabilera datuak. 2006An %60,67k erabiltzen zuen euskara kalean, 2011n, 2016n zer gertatu dela pentsatzen duzue? Mantendu dela?

TEB-G1: nik beherantza esango nuke

TEB-G3: belarrira ez dit ematen.

TEB-G2: ez, Bermeon ez

TEB-G1: umek egiten dute erdaraz. Lehen euskaraz egiten zuten, baina orain asko erdaraz.

TEB-G2: bai, Lameran pilo bat

TEB-G3: Maribik esaten du, gaztelekukoak, bronkak dauzkala umearekin, erdara pilo bat egiten dutelako

TEB-G4: gertatzen dena da Ikastolan ikasten genuela erdaraz eta 12 urterekin hasten ginela erdaraz. Orain, esan duzuna, umeak sare sozialekin eta hasten dira arinago, mugikorrekin eta.., hasten dira lehenago erdaraz.

TEB-G1: eta telebistarekin.

TEB-G3: harritu egin nau esan duzunak. Gernikako lagunak esan dit beraiek Gernikako institutuan ez dutela entzun erdararik Bermeokoak ailegatu arte eta beraiek aluzinatuta gelditu izan dira irakasleari erdaraz egiten ziotelako, "ke lokos",

orain arte ez dutela entzun izan.

TEB-G4: Bermeoko ikastolan ez da gertatzen hori, lehen euskaraz beti.

Eta gaur egun?

TEB-G4: ni ez nago orain

TEB-G1: gaur egun ez

Nabaritzen duzue aldaketaren bat orduan?

TEB-G2: bai. nik Gernikan lehengusuak ditut eta lagunekin euskaraz egiten dute eta sare sozialetan euskaraz egiten dute eta hori hemen ez da gertatzen.

TEB-G1: joaten zara Gernikara eta igarri egiten duzu, ni pasa den astean joan naiz eta sartzen zara eta igarri egiten da, ez zara gelditu behar entzuten.

Hauek dira Bermeoko datuak, 2011tik 2016ra jaitsi egin da 3 puntu.

Komentatu duzue haur eta gazteen erabilerarena...

TEB-G2: institutuan inork ez du egiten euskaraz, DBHkuak inork ez du egiten euskaraz.

TEB-G4: horiek dira gero Gernikara doazenak.

Hementxe dituzue datuak, zein ondorio atera ditzakegu?

TEB-G4: orain egiten ez badute gero gaztetan oraindik eta gutxiago egingo dutela

TEB-G2: eta gero semeari erdaraz egingo diote

TEB-G4: igual ez, ze gero gertatzen da umeak dituzunean euskaraz baldin badakizu

esaten duzu, ba umeak dira eta euskaraz egingo diot. Umeari erakutsiko diote euskaraz, beste gauza bat da umeak elkarren artean egitea berba. Ze horiek ume guztiak suposatzen da denek dakitela euskaraz, ze orain dena irakasten da euskaraz. Diot nik denek jakingo dutela.

TEB-G1: nik pentsatzen dut aldaketa bat dagoela adibidez 18 urterekin unibertsitatera zoazenean edo arinago baldin bazoaz beste zerbait ikastera nik pentsatzen dut hor aldaketa bat ematen dela. Nire klasean nik pentsatzen nuen, gainera Zuzenbidean, denok izango ginela lau baserritako ez dakit zer eta klase erdiak ez du erabiltzen eguneroko bizitzan, euskaraz ikasi dute, baina igartzen da ez dutela erabiltzen. Dira Barakaldo, Getxo... pentsatzen duzuna ez dela egiten euskaraz horrelako herrietan. Eta zu ailegatzan zara horra eta nik beti izan dut kontzientzia euskara zabaldu egin behar dela, egin behar dela, zuzentasuna mantendu egin behar dela... eta nik bai ikusten dut nire lagunen artean hemen ez dutela estimatzen baina kanpora doazenean pentsatzen dutela nik badaukat eta beste batzuk ez. Baina hori ikusten Ibilaldietan ere bai, hemen erdaraz egiten dute eta ikusten dituzu albokoak Bermeotarrak eta zer, bai horretarako atera egin behar duzu.

TEB-G4: ni ere konturatu naiz beste lekuetan ez dutela egiten ezer ez. Joan naiz zapaturen baten Basaurira eta ezer ez. Igual han elkarri adarra jotzeko, nola esaten zuten, bai laztana bai esatea lez, baina gehiago ezer ez. Entzun bez.

TEB-G3: ni ere joan den urtean unibertsitatera joan nintzen Gizarte Hezkuntza egitera eta inoiz ordura arte ez zidaten bota bronka bat ez egiteagatik euskaraz, ez niri, klasean. Pasa den urtean bi astetan egunero irakasleak bronka botatzen. Nik 24 urte dauzkat eta horra doan jendeak 18 urte zituen eta gehienak ziren Sestao, Portu...eta dena erdaraz eta ni lotsa pasatzen. Ezin nuen sinistu irakasleak genituela bronka botatzen ez dugulako erabiltzen eta Bronka bat bota eta minutu batera ikasleak erdaraz hitz egiten. Ezin da izan egia EHUn, suposatzen da heldutasun batekin zoazela eta kontzientzia minimo batekin.

Zure ikasketa prozesuan, Bermeon egin duzuna, dena euskaraz izan da?

TEB-G3: nik zortea eduki dut, justu nire koadrila oso euskalduna da, dago jendea

txarto egiten duena berba erdaraz gaur egun, 25 urte daukate eta arraro egiten dute erdaraz. Egia da berba asko nahasten ditugula. Nik ez diot ematen inportantziarik erdarazko bernak sartzeagatik edo ez dut uste, uste dut kontzientzia daukagula. Ez duzu entzuten elkarriketa bat erdaraz arratsalde oso baten. Koletila batzuk. Nire koadrilak txokoa dauka eta euskaraz egiten da berba eta whatsapppeko taldeetan euskaraz egiten da.

Maite: Aurreko taldean batek 27 urte dauzka, esaten zuen “una especie en extinción” direla

TEB-G3: bai, beraien koadrila ere edo ikastolako jendea nire adinekoa, nahiko koadrila euskalduna direla esan ahal dut. Baina, adibidez, ni baino pare bat urte gazteekin badago aldea.

Badago zuen artean adinean aldea, besteok nola ikusten duzue euskararen erabilera?

TEB-G4: nire adinekoek adibidez, igual zure nebak eta berarekin ibiltzen direnak eta gutxi gehiagok. Eske badago globalizazio bat esaten duzuna, baina zer zarete euskaldunak edo amerikarrak. Dena da esatea lez danak dira multzo bat eta denak erdaraz egin behar dugu. Heldu dira niri esatera Bermeorik aterata banoa beste herri batera ez egiteko euskaraz zerbait esan gabe edo esan barik “eres un pringau”. Esan zidaten literalki: “tu cuando vayas a una discoteca no hables euskara igual la gente no se te acerca”. Eta ni esaten, baina zergati ez dut egingo?

Euskararekiko zein pertzepzio dago zuen taldean?

TEB-G2: bronkak botatzen dizkiete ez egitearren euskaraz eta orduan gorrotoa hartzen diote euskarari.

TEB-G1: inposizio moduan hartzen dutela pentsatzen dut. Nire koadrilan, adibidez, eta erlatiboki ikustea nahiko koadrila euskalduna daukat. Baina nik pentsatzen dut beraiek badaukatela kontzientzia bat erdaraz dabiltzanean eta nik zerbait esaten diedanean, gaizki ari direla egiten, edo euskararen kalterako ari direla. Baina beste batzuetan ez dut ikusten kontzientzia hori. Baina beste batzuk ez dute egiten hori, egiten dute erdaraz normala balitz bezala. Nik uste dut balioak aldatu direla.

TEB-G4: bai, nire amak esaten dit baloreak pila bat aldatu direla.. Esaten dit ezingo dudala euskaraz bizi eta aparte dago ezagutza. Ezagutza esan nahi du ez direla izango bizkaieraz, batueraz.

Baina Bermeon ez?

TEB-G4: ez, hemen ez, kanpoan. Euskaldun berriak batuaz ikasten dute. Eta niri batuak ez dit ematen, ez nau betetzen. Egin dute nahastu batzuk eta hor atera dena. Eta egiten dute Ikastolan irakatsi hori, nik horrela ikasten dut, batueraz. Aditzengatik esaten dute, baina txinoa da hori, ala? Ni ez nau betetzen batuak.

Eta uste duzue horrek harreman bat izan ahal duela erabilerarekin?

TEB-G1: nik uste dut gazte mailan ezetz. Ez dot pentsatzen. Ikastolan bizkaieraz erakusten zuten, bueno, orain ez. Nik publikoan ikasi dut batuaz, baina aurkezpenak beti egiten nituen bermeotarrez eta igual geu gara arraroak, hemen gaudenak.

TEB-G3: Nik bai pentsatzen dut nagusiagoetan lotsa gehiago ematen diotela, ze batuan egiten dute. Niri geratu zait jende nagusiagoarekin egon eta esatea, baina zergatik ez duzue egiten euskaraz? Eske, egiten horrela hitz eta ematen dit lotsa. Askok ez daukatelako dialekto bat edo berandu ikasi dutelako, eskolakoa bakarrik ikasi dutelako. Baina nagusiagoetan badago lotsa, sentitzen dutelako euskara artifizial bat dela.

TEB-G1: igual ez dira sentitzen parte elkarriketan egiteko.

TEB-G4: nire aita euskaldun berria da eta Bermeon ikasi du bermeotarrez berba egiten, baina pentsatzen dut hasieran kostatzen zitzaiola. Berak egingo zuen nire amarekin euskaraz eta erakutsi zion bermeotarrez gero eta gehiago, baina agian pertsona horiek ez dute izango inor bermeotarrez egiteko. Igual euren herrian ez da egiten euskaraz. Ze lehen ere esan dut Basaurin ez da egiten euskaraz, euren umeei ere ez. Hemen bermeotarrez egiten baduzu ikasten duzu, ez dizute irakasten edo nahi dut esan hona etortzen bada norbait euskaldun berria baina hemen ez duena ikasi

euskaraz, hona etortzen da, lotsa ematen dio, hasten da erdaraz berbetan eta euskara ahaztu egiten zaio.

Baina hemen baldintzak badaude euskaraz egiteko, jende kopuru batek badaki euskaraz. Zer dela eta da Bermeon erabilera espero daitekeena baino baxuagoa? Zein arrazoi egon daitezke?

TEB-G4: udaletxearen ahalegin ezagatik behintzat ez da. Zerbitzu publikoek egiten dute ahalegina euskaraz egiteko. Baina ez dute hartzen kontutan.

TEB-G2: baina euskara jakitea zer da? Jende asko dago euskara ateratzen duena beharrerako, baina gero ez dute erabiltzen.

Baina etxetik jasotzen dutenak badago kopuru majo bat.

TEB-G3: nik uste dut adoleszentzian galdu egiten dela. Hasten zarenean ligetan, edaten, sare sozialekin. Hor galdu egiten da pila bat jende. Gero, adibidez, Bermeon zoaz taberna batera eta entzuten den musika guztia erdaraz da, hemen, EHan edukiko ez bagenu bezala eszena musikalik, eta martxosoa baina ez da entzuten. Antzokian egiten diren dantzak erdarazko kantekin dira. Antzokian gauza kultural oso gutxi egiten dira eta gazteei zuzenduriko jaiak “Bermeo no duerme” adibidez. Dj bat etortzen da eta gaur egun entzuten den musika komertzial erdalduna jartzen du eta hori eskaintza. Ni noa Txiribogara eta musika da erdaraz, regetoia ez dago euskaraz baina badago musika martxosoa euskaraz, gaur egun pila bat talde daude. Eta Antzokian ez bada Gatibu eta Ken Zazpi inoiz euskaraz ekartzen dutenak, inoiz ez da etorri Anari bat...

Kultur erreferenteak nolakoak dira? Musikan ibiltzen direnak, antzerkian ibiltzen direnak?

TEB-G3: erdaraz

TEB-G4: euskara batez be Gatibu, Ken zazpi eta horiek dira entzuten direnak famosoak direlako. Eta gero besteren bat Vendetta, Huntza, eta horiek. Eta kanta

batzuk daude euskaraz ondo daudenak, baina ipintzen duzu beste batzuk eta esan dizute: “baina ze mierda da hori! Ipini regeatoia, edo trapa.”

TEB-G2: ipintzen duzu “Bermeo no duerme” bat euskarazko abestiekin eta hamabost pertsona egon ahal gara bertan.

TEB-G3: eske ja izena, “Bermeo no duerme” esatea, erdaraz da izena. ETa dator tipo bat Paul edo, ingelesez dauka izen artistikoa eta da adin gabekoentzako, alkohol gabeko jaiak egiten ditu tipoak. Eta ni aluzinatuta geratzen naiz, alkoholik gabekoa izango da, baina ipintzen duen musika edo haratuzteetan aluzinatuta geratzen naiz. Kioskoan FMia, suposatzen da amamarekin eta amarekin-eta joateko dela, umeentzako dela FM bat eta nik ez daukat ezer regaetoiaren kontra, baina halako gauza bat lamera erdian arratsaldeko orduetan...

Maite: aurtan lortu da euskarazko abestiak jartzea gutxienez, hori izan da urteetako borroka.

TEB-G3: ni lagun batekin egon nintzen eta esan nion badakizu zure amama dagoela 4 urteko zure lehengusinarekin eta daudela jotzen “hoy es noche de sexo..”. Non dago Maite zaitut edo halako kantak, parrandarako kantak badaude euskaraz. Nik nire lagunekin kantinan jaiak egiten ditugu eta dantzak egiten dugu eta kantak euskaraz dira, edo ingelesez. Baina ja “de facto” dantza erdaraz bakarrik... Eta antzokira datoz Gatibu edo Ken Zazpi, baina euskal eszena hori baino gehiago da, baina ez da bultzatzen, eta begira ze azpiegitura daukagun euskal kultura bultzatzeko eta igual nor edo nor atrapatzen duzu.

Kultur eskaintzari dagokionez, euskarazko eskaintza eskasa dela esango zenukete?

TEB-G1: nik ez nuke esango bakarrik eskaintza danik. Adibidez ni dantza taldean nago eta mutilak behar ditugu eta esaten dugu, zer egin behar dugu mutilak erakartzeko? Ze Gernikan hainbeste mutil daude, Busturin, Forun... Eske Bermeo ez da Gernika. Ez dago ezer engantxatuko dutenik, ez da ez dela eskaintzen, nik uste dut momentu batetik aurrera ez zela eskainiko, baina orain ez dago interesik. Orain eskainita ere, zortzi mila kontzertu euskaraz emanda ere, ez dago interesik horra

joateko. Niri kontzertu bat jartzen badidazu joango naiz, baina beste batzuk ez.

TEB-G2: zapaturo edo ia astero betetzen dute Kafe Antzokia eta gero igual jartzen dute Akerbeltz Lameran eta egongo gara 30 pertsona eta jaiak direlako.

TEB-G3: astebururo daukazu kapilan kontzertu bat eta jartzen duzu “Bermeo no duerme” bat eta “petatu” egiten da. Adibidez, lehen esan duzuen, trap, trapa ere euskaraz ere egiten da, edo Gato Uriondok Chor rapa egiten du bermeotarrez edo rapa gaur egun euskaraz dago, baina ez baduzu jartzen tabernetan ez da heltzen eta Gaztean gero eta musika gehiago jartzen badute ingelesez eta erdaraz inoiz ez da entzungo.

Maite: Bermeoko talde bat dago maketa lehiaketan.

TEB-G4: bai, maketa lehiaketakoak bakarrik jartzen dituzte. Ipintzen dute betiko Gatibu, Vendetta eta horiek eta fuera.

Erreferenteei dagokionez zer esango zenukete? Ez bakarrik kultur arlokoak, bestela...

TEB-G3: nik orain baditut erreferente euskaldunak, baina orain bi urtek gauza da. Nire lagun bat Dantzertin hasi da eta euskal eszenako aktoreak ezagutzen ditu eta horren ondorioz joan gara antzerkira euskaraz edo beste lagun bat bideoak egiten dit eta beraien elkarteak euskaraz mugitzen da.... Baina adoleszentzian ez nuen ezagutzen erreferente euskaldunik.

Bermeon zerk mugitzen du gazte jendea?

TEB-G1: eske ez du mugitzen.

TEB-G4: Bermeotik kanpora doaz denak, zapaturo Zubiartera joaten dira, Bilboko merkatal gunera. Astero dago norbait, ni igual noa lagun batzuekin eta beti dago norbait Bermeokoa eta igual noa Max Centererra Bermeoko jendea dago nire adinekoka.

Maite: baina zer dago ba hor zapatuetan?

TEB-G4: ez dago ezer, pelikula ikustera.

TEB-G2: denak elkartzen dira, 12 urteko gazteak Zubi artera eta 16rekin Anacondara.

TEB-G1: eta Bermeoko zinea ukitu ere ez. Pelikula berdina Bermeon eta kanpoan eta Bermeoko zinera inor ez. Igual badira bost urte nire lagunak ez direna joan, ez dute ikusi berrituta dagoenik ere ez.

Aisialdiaz gozatzera kanporako joera dago, hortaz?

TEB-G4: bai eta gero esaten dute Bermeon ez dela ezer egiten,

TEB-G2: bai, jailetan ez dela ezer egiten.

TEB-G1: ez badaukazu koadrilan joera poteorako, ze poteoa Bermeon ere topatu egin behar duzu egiteko. Bariku baten zoaz Gernikara poteoa egitera eta kale nagusi osoa daukazu beteta. Zatoz Bermeora barikutan eta zure amama daukazu alboan. Niri ez dit ardura, baina nire lagunak diote nora goaz ba?

TEB-G3: zapatuan egon naiz ni lagunekin eta “zer, non daude hauek?” “Kaialden” “ba goazen kaialdera (portuko taberna bat)”. Nik ez daukat ezer Kaialderen kontra, baina zapatu gau baten 24-25 urteko jendea Kaialden egotea? “Baina zer egiten dute hemen!” Diñogu guk “goazen beste batera”, eta Irisera, gazte gehienak Irisen egoten dira, baina niri ez zait gustatzen, musikaren bolumena egoten da a tope eta ezin zara egon. Bueno ba, beste leku batera eta, Kasino txo, Kasinoan egoten dira nire osaban-eta adinekoak eta nik diot “baina zer gaude egiten hemen, goazen Kapilara edo goazen Belezara...” Eta ni naiz pro Bermeon gauzak daudela, ni gazte asanbladan egonda eta Kapilako jendea ezagututa... baina geuk ez ditugu ikusi nahi. Baina ez dago taberna bat, ematen dizute ordu bata eta animatuta zaude eta esaten duzu, “nora goaz?” Edo zoaz Belezara eta topatzen zara neure aitaren koadrilarekin edo Txiribogara eta... Niri ez dit ardura musikak, baina tristea da bi taberna egotea eta egia esan nahiko erdaldunak. Giro arraroak dauden Bermeon. Gernikara zoaz eta gazteekin beteta dauzkazu tabernak.

TEB-G4: nora goaz? Txiribogara, jai guztietan, Niri gertatzen zait nire gurasoak nire bila etorri behar direla ze ni mendian bizi naiz eta jaietan igual joaten naiz etxera ordu bietan eta nire lagunek ordu batean esaten dute, bueno ba ordu bietan Txiriboragara goaz. “Baina zertan zoazte Txiribogara?” “Ez, eske jendea hara doa eta jende pilo bat joango da ordu bietan.” Ez dute kriteriorik, doaz bakarrik jendea doalako eta horrek afektatzen du. Ze igual estatus bat daukan jendeak, hark esaten badu: euskararen kontra zaudete? Eta denak: bai, bai, bai eta handik aurrera ez da euskaraz egiten gehiago eta tristea da.

TEB-G1: nik uste dut Bermeon asko kontajiatzen dela, euskaraz egitea da joatea “a contra corriente”. Ez dakit zerk sortzen duen hori, baina momentu honetan euskaraz egitea da korrontearen kontra joatea eta momentu honetan euskaraz egiteko borondatea behar duzu.

TEB-G3: zerbait pentsatu behar da modan jartzeko. Ingelesa jarri den bezala modan, izatea guay. euskararekin ez dakit zer, nabaritzen dut estankatuta geratu dela.

Zu gazte asanbladan zabilta?

TEB-G3: orain ez dago gazterik. Neu eta neurekin lan egiten duten bi ibili izan gara eta tristea da. Jendea esaten duena Bermeon ez dagoela ezer, ba “paliza” bat emango nioke. Ze Andramaixak “mierda” bat badira, ez da gauza bat abstraktua dagoena ez dakit non, zeure herriko jaiak dira, ez dakit, pentsatzen dut zerbait kulturala dala, kritikatzeko kritikatzeko. Gernikakoek egingo dute beraien gauzak baina... edukiko ditu bere gauza txarrak, baina a priori ikusita egon da koadrila bat nahi izan duena kontzertuak eman astebururo eta Iparragirre bat montatu dute, daukazu beste koadrila bat nahi izan dutena txokoen kontra egin eta han duzu Trinketea. Han dituzu kontzertuak eta ahal zara joan zerbait hartzera eta gero daukazu Astra bat, begira zenbat jende mugitzen den, eta tabernak beteta. Ahal zara egon egun berean, Astra beteta, Iparragirren kontzertu bat eta jendea poteatzen.

TEB-G4; kanpotik dator jendea. Ze nire ingurukoak joaten dira Gernikara, baina inoiz ez diet entzum esaten goazen Bermeora.

TEB-G1: nor dator Bermeora jaietan? Inor ere ez. Beno, data ere ez dira egokienak, baina ez da gustatzen Bermeo.

Eta ez da kontajiatzen Gernikakoa?

TEB-G2: igual jarriko balute zapatu baten Hesian, igual egingo luke jendea etortzea, baina oraingo jaietan egon da kontzertu onen bat baina egun txarra izan da, orduan inor ez etortzen.

TEB-G1: nik askotan ez dut begiratzen Gernikan zer dagoen, Gernikara noa eta badakit zerbait egongo dela. Hona zatoz kontzertu batera, edo zinera, ez zatoz arratsaldea pasatzera.

Zuk aipatu duzu udalean lan asko egiten da eta hor ez dago arazoa. Ezagutzen da Udaletik egiten den lan hori?

TEB-G1: ez

TEB-G3: nik pentsatzen dut gazteen artean horrela dela, "bua ke mierda"

TEB-G4: eta ezagutzen bada paso egiten da.

TEB-G1: jakin ere ez udalak facebook daukanik

TEB-G4: eta baldin badauka jarraitu ere ez, "si es un rollazo, segirukotzat egiten dauenai skate que es mas guay"

Euskararen alde kontzientziazatuta dagoen gazte talde txorik ez al dago?

TEB-G1: nire ustez ez da hori bakarrik, kultura orokorrean da. Edo irteerak, zortzi mila irteera antolatzen dira baina ez dago interesik. Eta gero kexatu egiten dira ez dagoela ezer egiteko, ba begiratu egitarauan zer dagoen.

TEB-G3: nik uste dut kulturala dala Bermeon kexatzea. Ez dagoela ezer ere ez.

TEB-G4: ni joan naiz domekan snow egitera eta ez gara joan Bermeotik bost pertsona baino. Gernikatik etorri dira beste 10 edo 15 eta Amorebietatik beste 20 eta Bermeotik 5. Zer da, ez dagoela ezer?

TEB-G1: eta gero kexatu ez dagoela ezer. Ba ez kexatu.

TEB-G2: orain adibidez Barikuen Irisera goiez edo zer egingo dugu?4

TEB-G3; ba gazte asanblada bat. Ba Kapilera, 25 urtetik beherakoentzako sarrera doan, ea animatzen den jendea. Egia da Kapila bezala leku baten jendea nagusia dela, erreleboa behar dutela, ni gazteenetarikoa naiz.

TEB-G1: nik uste dut Bermeon gertatzen dela, taldeak oso itxiak direla, berez herriari irekita daude baina talde itxi moduan ikusten dira. Nuntzakuak kontatuta ditugu nortzuk diren, "horiek gazte asanbladakoak dira, ezta?" ez da orokortzen.

Maite: euskara elkartea ezagutzen duzue?

TEB-G2: badago edo ez?

TEB-G1: nik pentsatzen dudana bada bai.

TEB-G2: nik esan duzuna Kapilla ere ez dakit zer den.

TEB-G4: nik ere ez.

TEB-G1: nik bai, nik badakit zer den.

Maite:Euskara elkartea ezagutzen duzue?

TEB-G3: nik ez.

TEB-G1: nik pentsatzen dut baietz.

Maite: euskaraz berbetan

TEB-G2: a bai

TEB-G3: entzunda

Maite: Ze irudi daukazue?

TEB-G4: kafea hartu eta berba

Maite: ez, hori berbalagun da

TEB-G2: olentzero eta, gero ipuin kontalaria ere egon zen nagusientzako

TEB-G1: bertsoak, Andra Mari egunean pegatina jartzen dute

TEB-G2: herri kirolak ere egin zituzten Andramaixetan

TEB-G3: adibidez egiten duzu bertso afari bat eta bete egingo zen

TEB-G1: bai?

TEB-G3: bai, bete egingo zen.

TEB-G2: nire adinean bost pertsona joango ziren

TEB-G3: adinekoekin eh?

TEB-G1: ez gazteekin. Gernikan adibidez gazte bazkaria egin zuten eta hori egiten duzu Bermeon..

Maite: Zer egin daiteke?

TEB-G4: nik pentsatzen du nire adinetik zure adinera (24-25 urte) Bermeotik kanpora daudela. Baina ez dugulako zabalduko gurea, besteena hartuko dugulako. Egiten dute beste herri batera joan eta erdaraz egin berba eta hona etorri eta erdaraz jarraitu. Gero Bermeoko gauzetara ez dira etortzen. Ez dira etortzen Bermeokoak eta ez datoz kanpokoak, orduan ez da egiten ezer.

TEB-G2: egingo bagenu zerbait, adibidez, jaia eta erromeria, beteko litzateke?

TEB-G4: ez

TEB-G3: nik daukadan oroitzapena da gazte asanbladan Gazte Egun bat egin eta jendea etorri izanda. Baina jendeak ez du hartu nahi ardurarik. Nik uste dut Bermeon arazo bat dagoela kulturala eta da erosotasuna, dana eginda ematea, tabernara... Adibidez, nik bermeotar oso gutxi ikusten ditut Astra baten. Taberna baten ahal ditut ikusi, baina Astran edo Trinkete baten bermeotar gutxi.

TEB-G1: ez gara ekintzaileak.

Maite: Egongo zerbait jendea mugitzen duena, ezta?

TEB-G2: parranda

TEB-G1: beste jende batzuk. Baina zer da parranda? Erromeria? Erromeria ez da parranda jendearentzako.

TEB-G3: baina ez da zertan euskaraz izateko izan erromeri bat. Gaur egun rapa daukazu euskaraz, gauzak daude. Baina ez dakit zer egin daitekeen, ez bazaie bururatu zer egin lanean dagoen jendeari... Nik pentsatzen dut modan jarri beharko zela, atrapatzeko.

Eta modak nola sortzen dira?

TEB-G1: nik pentsatzen dut berez. Ni ja desesperatuta nago, ez dut pentsatzen ezer egin ahal denik, batez ere udalaren partetik. Zer egin dezakedan ? Bada, euskaraz egin, facebooken euskaraz egin...

Maite: Saiatzen zarete horrelako kontuak egiten ?

TEB-G1: ni bai

TEB-G3: nik pega bat daukat eta da nik erdaraz gehien egiten dudana pertsona nire mutil laguna da eta ez dakit zergatik baina batzuetan harreman batzuk eraikitzen dituzu erdaraz eta zaila da txipa aldatzea. Arraroa egiten zait euskaraz egitea. Nik esaten diot: “txo, baina nola da posible gure artean erdaraz egitea, lagun artean euskaraz egiten dugunean?”ez dakit. Adoleszientzian eraikitzen da bizi estilo bat, instagramen hasten zara erdaraz eta erdaraz berbetan eta nik pentsatzen dut galdu egiten zarela ingeleseko berba eta erdarazkoen artean. Eta gero zaila dela hortik ateratzea.

Udalak egiten du lan baina nik uste dut gazteengana ez dela iristen inondik inora. Galdetzen baduzu Bermeok euskara plan bat daukan edo zein helburu dauzkan ez dakitela, nahiz eta beraiek euskaldunak izan. Igual adinekoak gehiago.

Maite: udaletik baino herritik zer egin daiteke?

TEB-G3: txosnan saiatzen dira euskaraz egiten, lehentasun bat da. Txosnetako bilera guztiak dira euskaraz.

TEB-G1: baina zenbat joaten dira txosnetako batzarretara?

TEB-G3: bueno, joaten da jendea, gauza asko antolatu behar dituzu eta ardura bat da.

TEB-G1: baina nire san didatena da, beti betikoak

TEB-G3: giro euskalduna da.

TEB-G4: Bermeon ez dago gogorik ezertarako ere ez. Dago lege bat esaten duena “egin dezatela besteek beharra eta nik egingo duk kontsumitu”. Inoiz ez du nahi antolatu ezer ez.

Ez dago gazte mugimendua?

TEB-G1: ez, zero

TEB-G4: zaharragoetan ere ez.

TEB-G2: denek esaten dute Bermeon jaietan ez dagoela ezer, baina gero inor ez da mugitzen.

TEB-G3: niri amorrua ematen dit ze pasatzen dut uda batzar batetik bestera eta gero entzuteko ez dagoela ezer. Nik uste dut Bermeon horrela dagoela. Gernikan Astra bat lortu zen duela hamar urte eta hemen egon da amago bat Gaztetxe bat lortzeko, baina inor ez zen joango ez dakitelako Gaztetxe bat aurrera ateratzeko egin behar den lana. Baina nahi dute gaztetxe bat kamareroarekin joateko kontsumitzen. Baina antolatzeko kontzertuak...

TEB-G4: nire adinekoek txoko bat hartu dute eta erre egin da. Egiten zuten erre

TEB-G1: ez da bakarrik euskararekin, orokorrean da

TEB-G3: ni institutuan egon nintzenean Ikasle Abertzaleak egin genuen nik eta nire bi lagunak eta listo. Orduan hasiko nintzen militatzen, baina ibili izan gara ni eta nire lagunak. Baina ez da etorri izan beste inor. Baina tontuena egiten ibiltzeko pentsatu genuen utzi egingo genuela Gazte Asanblada.

TEB-G4: jendeak ez du nahi gauza berriak, betikoa nahi du, ez du ahaleginik egiten aldatzeko.

TEB-G2: egongo die lrisen, gero joango dira Txiribogara eta gero etxera...

TEB-G2: Talako kantinara joateko hiru joango gara, besteak geratuko dira eserita.

Maite: nik uste dut tribuak daudela

TEB-G4: faltsukeria asko dagoenik

Maite: mugitzen den apurrak ez du lortzen jendearengana zabaltzea

TEB-G1: koadrila moduan ikusten dira

TEB-G4: gu mugitu behar gara itxaroten egin gabekoentzako

TEB-G2: baina ez dago inor.

TEB-G1: ikusten duzu taldetan lanean daudenak ahalegin bat egin dutela gauza bat egiteko, taldetan gaudenak ikusten dugu ahalegin egin dutela, baina beste batzuk ez dute ikusten.

Maite: Aktibatzeko zer egin daiteke?

TEB-G1: nik amore eman dut

TEB-G2: jaia egiten. Afari bat, erromeri bat, edo jai bat jendeari gustatzen zaiona.

Futbolaren garrantzia aipatu didate... zer egin daiteke hor eragiteko?

TEB-G1: baina, futbol partiduak erdaraz, entrenatzaileak erdaraz egiten die 8 urtekoei. euskaraz egiten dute kontrakoek ez dakitenean euskaraz.

TEB-G2: hurrek gorrotoa diete euskarari

Turismoak, kanpotarrek eraginik izan duela pentsatzen duzue?

TEB-G2: ez nuke esango

TEB-G1: topiko bat da kanpotar asko daudela, baina kanpotarrek euskara ikasi dute. Ez dut uste hori arazoa izan denik.

TEB-G4: kanpotarrek gehiago egiten dute euskaraz.

Maite: ea bilatzen dugun barruan piztu behar den hori zer den. Orain datuak atera direla-eta, astindu bat behar diogu eta hasi behar dugu gauzak aktibatzen. Nik ere ikusten dut interes faltak, indiferentziak eramaten gaituela egoera honetara. Erreferente batzuk bultzatu behar ditugu...

TEB-G1: nik uste dut egingo dela. Ez dut uste halako gauzak soluzio magikorik dutenak.

HELDUEN TALDE EZTABAIDA: 25-50 URTE ARTEAN

TAB-H1: Bermeotarra, Gernikako udalean lan egiten dut. Nire ama hizkuntza euskara da, baina ez naiz bizi euskaraz.

TAB-H2: Bermeotarra, 34 urte ditut. Nire ama hizkuntza euskara da, eta euskaraz bizi naiz, gehien bat. Batzuekin, egia esan, egiten dut erdaraz berba. Bermeon denda bat dugu, eta diseinatzaileak gara.

TAB-H3: Extremaduran jaio nintzen, baina hemen bizi izan naiz beti eta bermeotarra kontsideratzen naiz. 44 urte ditut. Hezkuntzan egiten dut lana. Nire bizimodua erdalduna da, batik bat. Nire bikotekideak ez daki euskaraz. Lanean dena euskaraz egiten dut. Umearekin saiatzen naiz euskaraz hitz egiten, baina kostatzen zait.

TAB-H4: 41 urte ditut. Bermeotarra. Nire ama hizkuntza euskara da, eta euskararako joera dut egunerokoan. Nire gizonaren familiak ez daki euskaraz, eta haiekin erdaraz egiten dut. Bestela, umeari dena egiten diogu euskaraz gizonak eta biok.

TAB-H5: Irratiko esataria naiz, bermeotarra naiz eta 43 urte ditut. Ama hizkuntza euskara dut. Orain umeegaz egiten dut gehien euskaraz, zeren nire emazteak ere ez daki ondo euskaraz. Gero, segun norekin eta zer giroan euskaraz edo erdaraz egiten dut. Beharrean beti egiten dut euskaraz. Etxean ere euskaraz

TAB-H6: Valentziakoa naiz, eta Bermeon bizi naiz. 40 urte ditut. Nire aita Bilbokoa zen, eta duela hiru urte pasatxo iritsi ginen Bermeora, eta euskara ikasi dut, gutxi gorabehera. Valentzian hasi nintzen ikasten. Denda bat dugu eta bideoak egiten ditut. Bermeotarra sentitzen naiz eta hemen geldituko naiz.

TEB-H7: Bermetorra naiz, eta 27 urte ditut. Ama hizkuntza euskara dut. Euskaraz bizi naiz. Gaztelaniaz eta ingelesez egiten dut euskaraz egiteko aukerarik ez dagoenean.

Kontserba lantegian egiten dut lan, eta bulegoan, gure artean, euskaraz egiten dugu, baina bezeroekin, segun.

TEB-H8: 40 urte ditut eta euskara teknikaria naiz. Bermeotarra naiz eta euskara da nire ama hizkuntza. Ni ere euskaraz bizi naiz, baina ez beti. Ehuneko handi batean, Bermeon, bizi zaitezke euskaraz, baina batzuetan ez. Eta Bermeotik Bilbora irteten duzunean, nik han egiten dut lan, mugatuta gelditzen da euskaraz bizitzeko aukera hori.

TEB-H9: Duela hamar urte etorri nintzen Bilbotik Bermeora bizitzera. 40 urte ditut. Nire ama hizkuntza euskara da, baina aita erdalduna izan dut etxean. Bilbotik natorrenez, egia da erdararako joera badudala, baina nire bikoteak beti erantzuten dit euskaraz, eta horrek lagundu dit. Arkitektoa naiz, eta EHUn gabiltz aztertzen zelako eragina duen lurralde antolaketan.

PERTZEPZIOA

TAB-H5: Umeen artean gero eta gutxiago hitz egiten da euskaraz. Gainera, segun eta zer eskolatan, orduan eta gutxiago. Adibidez, ikastolakoek eta karmelitasetakoek gehiago egiten dute euskaraz.

TAB-H2: Barkatu, baina ez. Nire alaba ikastolan dabil, eta arazo handia dute, zeren ikastolan bertan ere jolastorduan erdaraz egiten dute, lau urteko umeetatik hasita.

TAB-H5: Nik kiroldegiko aldageletan ikusten dut ume batzuk euskaraz egiten dute beraien artean, ikastola ingurukoak. Gero, etortzen dira eskola publikokoak, eta dena erdaraz egiten dute.

TAB-H7: Uste dut hori izan dela tendentzia bat orain arte egon dena. Nik ikastolan ikasi dut, eta klasean beti egin izan dugu euskaraz, kanpoan ere bai. 16 urterekin euskaraz egiten genuen. Egia da eskola publikoko ikasleek beti izan dutela tendentzia gehiago erdaraz aritzeko, institutuan batu ginenean ere igertzen zen hori. Gero, egia da gernikarrak eta mundakarrak ere izaten genituela institutuan, eta haiek askoz tendentzia handiagoa dute erdararako. Nik azken aldian igerri dut ume denak egiten dutela erdaraz, hori da gauza bat sekula ez dudana ikusi. Nik ikastolan ikasi dut beti, eta nire adin bueltako guztiek egiten genuen euskaraz.

TAB-H1: Nik ez dut uste denik horrenbeste eskola kontua. Bermeoko gizartean, orokorrean, ume zein gazte, askoz euskara gutxiago egiten dute azken urteetan

baino. Gazteek, gainera, askoz gutxiago. Gure sasoiarekin konparatuta, askoz gutxiago.

TEB-H9: Nik esango nuke dela bikoteak sortzeko modu hori. Gero eta bikote misto gehiago daude. Bermeotik kanpo jaiotako pertsonekin juntatzen dira hemengoak, eta horrek etxeko hizkuntzan eragiten du.

TEB-H1: Nire alabaren gelako gehienek gurasoak bermeotarren seme-alabak dira. Denok gara euskaldunak eta gure ama hizkuntza euskara da. Gure artean erdaraz egiten dugu adinekook, umerik gabe gaudenean. Nik, adibidez, alabarekin euskaraz egiten dut. Baina gero eta gehiago hasi naiz berarekin erdara erabiltzen, zeren gaiak gero eta konplexuagoak dira euskaraz aritzeko. 4 urteko umegaz edo 10-12 urtekoATEGAZ gai desberdinak daude. Zuk ez baduzu gaitasun handirik, zaila da. Nik gaztelaniaz ikasi dut, eta erdara hobeto menderatzen dut. Halere, beti pentsatu izan dut nire ama hizkuntza euskara dela. Esperientzia bat izan dut aurren, euskara sailarekin lanean, eta hor konturatu naiz zer gabezia ditudan egunerokoan euskaraz aritzeko. Nire alabaren gelako umeen gurasoak euskaldunak gara, baina gure artean erdaraz egiten dugu, eta beraiekin ere gero eta gehiago egiten dugu erdaraz. Nire belaunaldikoek joera asko dugu erdarara jotzeko, baina denok ez gara nazionalistak, eh! Gure artean daude ikastolan ikasi dutenak, karmelitasak, hermanak eta herri eskola.

TEB-H8: Eta maila bera dute eskola batean edo bestean ikasi dutenen artean? Nik bai igertzen dudala, adibidez, hermanotako jendeak...

TAB-H1: Begira, gure kuadrillak ikastolak dira, eta gure artean erdaraz egiten dugu. Batzuk elebitan, igoal, hitz egiten dute.

TAB-H5: Segun zein jende duzun inguruan. Batzuk euskaraz egiten dute, besteak bietara edo erdaraz... eta bada jendea euskaraz ez dakiena ere, eta horiekin derrigor egin behar da erdaraz.

TAB-H2: Nire kasuan, lagun kuadrillan, denok dakigu euskaraz.

TEB-H8: Guk ere bai, denok dakigu euskaraz, baina ez dakit zergatik gertatzen zait batzuekin erdaraz egiten dudala, nahiz eta euskaraz hasi elkarrizketa. Hori bai, beti pertsona berdinekin izaten da.

TAB-H1: Pertsona horiek erosoago sentituko dira erdaraz, eta antzeman egingo duzu.

TEB-H8: Baliteke, bai. Egia da pertsona batzuei antzematen zaiela ez daudela eroso neuz, euskaraz egiten dudalako. Horregatik, neu apuratzeko edo lotsatzeko naiz, eta neuk aldatzen dut hizkuntza. Bientza izaten da egoera. Baina berez denok dakigu

euskaraz ondo egiten. Gure kuadrillan danetarikoa dago, eskolari dagokionez. Nik badut lagun bat euskalduna dena, eta neska karmelitaseko erderako gelan ibili zena. Gaur egun, neska horrek ez daki oraindik euskaraz. Gero, igoal, nire sasoiko gurasoek beraiek euskaraz jakin, baina erdaraz ez dutenez ondo jakin, igoal, seme-alabak sartu dituzte erdarazko eskoletan eta giroan.

TAB-H3: Teknologia berriek ere eragina dute gazteen artean. Teknologia berrietan dena da erdaraz. Gaur egun asko erabiltzen dute sare hori, eta eragina du.

TEB-H9: Nik hori zalantzan jartzen dut. Zergatik du halako eragina Bermeon eta ez beste udalerri batzuetan?

TAB-H2: Adibidez, Ondarroan, beltzek euskaraz egiten dute berba. Zergatik? Ohituta daudelako euskara entzuten 24 orduz, eta hori gizartean sartzeko era bat da. Hemen ez da gertatzen hori.

TAB-H5: Hori tendentziaz da... euskaraz gehiago entzuten baduzu, saiatuko zara euskaraz egiten; baina erdara entzuten baduzu, zuk ere gaztelaniaz egingo duzu.

TAB-H2: Bai, geuk ere umeeekin euskaraz egiten dugu, baina gero erdaraz ere aritzen gara gure artean. Orduan, umek hori ikusten dutenean ulertzen dute erdara nagusien hizkuntza dela, zerbait ona dela. Askotan egon ahal da kuadrillan erdaldun bat, eta beti esaten dugu: beno, erdalduna dagoenez, denok egin behar dugu erdaraz. Ba, ez, beste herri batzuetan ez da gertatzen hori! Baina hemen bai.

TAB-H6: Baina hemen errespetu handi bat izan duzue kanpotik etorri garenok. Hori ez da gertatzen Katalunian eta beste lekuetan. Ez dakit zergatik, baina hemen bakar batek erdaraz egiten badu, denok hasten gara erdaraz. Denon hizkuntza erdara bihurtzen da. Ea... ondo dago errespetua eta kontu hori, baina... azkenean...

TEB-H8: Bai, baina zer puntu arte da errespetua eta zer puto arte erdarara jotzeko erraztasuna? Norengatik egiten dugu?

TAB-H5: Ez dut uste erraztasun kontua denik, zeren erdaraz ez dakien jendeak ere erdaraz egiten du kalean.

TAB-H4: Nik uste dut azkenean geu garela gakoa. Ez da kanpotik datorrena edo erdalduna edo parean ez dakit nor dugulako, geu gara. Euskaldunok ez dugu egiten, eta umek ez dute ikusten.

TEB-H9: Nik ez dut pertzepzio bera. Nik uste dut gizartea gero eta nahasiagoa dela, eta horregatik zuek, bermeotarrek, euskaldunek, galdu duzuela indarra. Nik kuadrillan ikusten dut mutilak direla hemengoak eta neskak beste leku batzuetatik etorritakoak, eta hor aldatu da hizkuntza.

TAB-H2: Bai, baina nire kuadrillakoak denak gara euskaldunak, bikotekideak ere bai.

TAB-H6: Gauza bat da euskalduna izatea, eta bestea, euskara erabiltzea.

TAB-H4: Nik uste dut gurasoek, euskaldunak eta bermeotarrak izan arren, beraien artean asko erdaraz egiten dutela, eta hortik datorrela. Horrek eragin handia du.

Iratxe: Eskolako bilera izan genuenean, nik aipatu nuen nire txikiak lehen berbak edo lehen berbetatik gehienak erdaraz egiten zituela. Eta kanpotik etorritako familia bateko amak kontrakoa esan zuen, beraienak euskaraz egiten duela. “Gureak erdalduntzen ari dira?”, pentsatzen dut. Umeak beraien artean batzen direnean, erdaraz egiten dute, eta gu atzetik, egin euskaraz eta egin euskaraz esanez. Azkenean, ordea, etxean entzuten dutena egiten dute umeek.

TAB-H7: Ados nago hemen aipatu dituzuenekin, baina nik dut sentsazioa baldintza horiek duela 20 urte ere bazirela. Nik 27 urte ditut, eta txikia nintzenean, erdaraz egiten zuten kuadrillan gurasoek. Gazteek beti izan dute joera erdarara pasatzeko: adibidez, 12 urte arte euskaraz, eta ondoren, erdaraz. Baldintza horiek lehen ere ematen ziren. Diferentzia da, gaur egun, 4 eta 5 umeek erdaraz egiten dutela. Zuek guraso zaretenez, galdetu egingo dizuet zergatik... zeren nik 5 urterekin ez dut jakin erdaraz. 6-7-8 urterekin hasi nintzen ni erdaraz zerbait esaten. Beraz, ez dut ulertzen guraso euskaldunen umeek nola egiten duten erdaraz horrela. Egia da gurasoak askoz erlaxatuago ikusten direla, eta ez dagoela halako militantziarik. Nik egia da marrazki bizidunak beti ETB1ean ikusi ditudala: Dragoi Bola eta horrelakoak. Gaur egun, ETB3 ere badago. Zuk ahal dituzu bideratu haurrak hori ikustera.

TAB-H2: Bai, baina beti badago Doraemon bera...

TEB-H9: Gura duena esan da potrotaraino daudela Doraemon ikustez.

TEB-H8: Guk erdaraz eta euskaraz ikusi ditugu marrazki bizidunak. Baina ados nago horrekin.

TEB-H9: Lana ere hor dago. Lehen eskualdeka bezala bizi ginen. Lana, etxea eta bikotekidea eskualdekoak izaten ziren, eta orain horrenbeste mugikortasun dagoenez... dena da nahasiagoa. Ni gauetan ibiltzen naiz kotxea non sartu ez dakidala, eta goizez esantzen naizenean leku pila bat ikusten dut libre. Nonbaitera joaten da jendea. Gainera, eskualdean ez dago lanik, eta Bilbo aldera joaten.

DATUAK

TAB-H7: Dena normal, uste dut hauexek direla gure kaleko datuak. Gero ikusten ditut Zarautz, Zumaia, Igorre halako lekuetako datuak, eta ikusten dut korrontearen kontra gabiltzala. Han umeez eta gazteek euskaraz egiten dute, eta hemen ez.

TEB-H9: Umeez ari garenean 0-14 urte arteko pertsonak hartzen dira kontua. Hor nik uste dut 6 urte arte polito egiten dutela euskaraz, baina gero, nerabeen artean ez duela egiten inork euskaraz.

TAB-H7: Eta gurasoek zer ikusten duzue? Nola liteke haurrak bakarrik daudenean, %15ean soilik hitz egitea euskaraz?

TAB-H5: Hor errore margena ere egongo da.

TEB-H9: Zuek bizitza osoa daramazue Bermeon, baina nik justu tarte hau daramat, hau da, hizkuntzak behera egin duen tarte. Eta niretzat oso oso erreala da hor agertzen dena. Nik jarraitzen dut esaten kanpoko jendearena.

TEB-H1: Bai, nire kuadrillan ere bada kanpoko jendea, baina horrek ez du baldintzatzen hizkuntza.

TEB-H9: Ez da gauza bera izango Gernikako kanpotar bat edo Bilbokoa, baina ikusten dut joera handia dagoela hemen Bilbo Handiko jendea etortzeko.

TAB-H7: Eta bikote misto horiek erdaraz egiten diote umeari?

TEB-H9: Ez, euskaraz egiten diote, baina nola egiten dute beraien artean?

TEB-H1: Gure kuadrillan gehiago egiten dute erdaraz Bermeokoak direnak kanpotik etorritakoek baino.

TEB-H9: Beno, ni ari naiz esaten inguruan ikusten dudana.

TAB-H5: Denetik dago, kanpokoak eta hemen.

TEB-H1: Zaila da hau, eta harrituta nago. Euskaldunen artean ere euskara bultzatzea zaila da. Nire esperientziak diot, hilabete baten egin behar izan dut lanordutan euskaraz, Bermeoko udalean nengoenean lanean. Pentsatu nuen: "Beno, lanordutan egingo badut euskaraz, egun osoa egingo dut hilabete osoan". Pila bat kostatu zait, eh! Iristen nintzen etxera neke sentsazio batekin... Atzeritar hizkuntza bat egitean, gehiago kostatuko balitzait bezala. Niretzat hori izan zen... la bomba. Ni euskalduna naiz, gurasoekin euskaraz egiten dut... niretzat deskubrimentu txar bat izan da hori. Erdaraz egin dut liberatzeko.

Orain, Gernikan, nire lanean denok gara euskaldunak. Zuk egiten baduzu euskaraz, nahiz eta besteek erdaraz egin, ba hori pegatu egiten da. Umeekin oraindik eta gehiago. Umeez ez dute egiten esandakoa, ikusitakoa baizik. Gernikako udaletxean euskaldun giroa dago. Denek egiten dute euskaraz. Hor lotsatu egiten zara erdarari

ematen. Ezin dut han erdaraz bota berba bat, denek egiten badute euskaraz. Etxean eredua izan dut gurasoek euskaraz egiten zutela beraien artean, baina nire alabari galdetzen badiote... ez zu esango hori.

TAB-H7: Uste dut zure esperientziak erakusten duela zein izan behar den jarrera. Jarrera ez da jendeari behin eta berriro esatea euskaraz egin behar duela.

TAB-H4: Hor egonda da tarte bat erdaraz egingo dutena, nerabezaroa-edo, kontra egiteagatik. Bain gero bueltatuko zaie berriro euskaraz egiteko beharra.

TAB-H2: Nik uste dut giroaren arabera dela. Aulestin ez dago ume bat erdaraz berba egiten duena. Ondarroa, Markina eta Lekeitiok inbidia ematen dit niri. Haiek ere ikusten dituzte telebistako zerrikeria horiek, baina ez dute erdaraz egiten berba. Izan ere, azkenean 24 orduz daude etxean euskara entzuten. Bermeo beti izan da apur bat erdalduna kasu horretan, beti izan dugu ondoan erdarako zarata.

TEB-H9: Bermeo ez da izan horren erdalduna, eh. Begira datuak...

TAB-H7: Bai, ba. Egon da zerbait Bermeon beste inon ez dena gertatu, zeren nik ez dut ulertzen nola jende helduak ez dakien erdaraz, eta halako batean, beraien seme-alabak hasten diren umeei erdaraz hitz egiten. Nire aiton-amonak 80 eta piko urterekin, erdaraz ez dute egiten berba bat ere. Eta haien seme-alabak, hau da, nire gurasoek 53 urterekin, beti erdaraz egiten dute. Zer gertatu da hor? Gaur egun 40-50 urte duen jendek galdu du. Gainera, euskararen kalitatea bera txarra da. Batuari esker zerbait heldu diogu, nahiz eta jendeak asko kritikatzan duen hemen batua.

TEB-H1: Kontua da gehienok erdaraz ikasi genuela...

TEB-H9: Bai, baina belaunaldi horren aurrekoak izan du gaitasuna ikastola bat martxan jartzeko. Ez da transmititu indar hori.

EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

TAB-H3: Aukera badago. Zuk ezartzen dituzu zure lehentasunak. Batzuekin erdaraz egiten duzu beti, beti erdaraz egin duzulako haiekin. Beste batzuekin, ezagutu dituzu euskaraz, eta euskaraz egiten duzu. Nire kasuan zailagoa da, ni euskaldunberria naiz, eta batuan egiten dut. Orduan, Bermeoko jendearekin, askotan, kostatu egiten zait. Nire umeei ere bermeotarrez egiten dute. Batzuetan, hor sortzen da talka bat-edo. Ulertzen gara, baina... ez dakit, deseroso sentitzen zara.

TAB-H5: Zuk egin bermeotarrez.

TAB-H3: Saiatzen naiz, baina ez da nire ama hizkuntza, eta ez dut euskara horrela ikasi. Leloa bezala sentitzen naiz.

LAGUNARTEA

TAB-H5: Nik orokorrean, erdaraz.

TEB-H9: Orain arte esan dugun bezala, segun eta non eta norekin.

TAB-H2: Nik uste dut senoi gertatzen zaigula segun eta norekin hori. Adibidez, nire mutil lagune bermeotarra da, baina erdaraz hobeto moldatzen da, erraztasun gehiago du. Ama erdalduna da, eta... berak aukera erdaraz egin du. Kuriosoa da bere lagunekin elkarrizketa bat badugu, berari egiten diotela erdaraz, eta niri euskaraz. Grazia egiten dit. Pertsona ez da horren kontziente, baina hola egiten dugu.

TEB-H8: Niri ere beti euskaraz egiten didate. Agian, bagaude denok elkarrizketa berean, eta beraien artean ari dira erdaraz, baina gero esan behar didatenean zerbait justu niri, euskaraz hasten dira.

TEB-H1: Neuk erdaraz bada konbertsazioa, erdaraz jarraitzen dut.

TAB-H5: Beno, ulertzen badute, ez dago arazorik.

TAB-H7: Gure kuadrilla da oso berezia. Guk beti dena euskaraz egiten dugu, ez da erdararik egiten.

TAB-H2: Bai, eta nik uste dut kuadrilla bakarra dela Bermeen.

TAB-H7: Bai, bakarretakoa izango da. Udan bai etortzen dela kanpoko jendea... Barakaldokoak eta ez dakit zer... horiek erdaraz egiten dute beti. Hala ere, guk euskaraz egiten dugu. Denok gara oso militanteak, baina salbuespena gara.

TAB-H2: Niri, adibidez, orain arte ez zait inporta izan nire bikotekideak niri erdaraz egitea. Berak erdaraz egiten zuen, nik euskaraz, eta horrelaxe. Baina orain ume txiki bat daukagu, eta esponja bat da. Mindu egiten nau umea erdaraz entzuteak. Tripak buelta ematen dit, "si" eta "no" eta halakoak esaten dituenen.

TAB-H5: Beno, baina hori ere ez da txarra, eh! Ingeleseztan ere entzuten badu, egingo du.

TAB-H2: Bai, bai, baina horrek ni enau kezkatzen.

TAB-H7: Nire lehengusuek bertsio originalean jartzen dizkiete umei marrazkiak. ETB3an ikusten badute, ba euskaraz lagatzen dute; baina Clan eta horrelakoetan jatorrizko bertsioan egiten dute. Umeak hiru hizkuntza entzuten baditu, ez du hegemoniko bat jasotzen.

LEHEN HITZA

TEB-H9: Nik Bermeen beti egiten dut lehen hitza euskaraz.

TAB-H2: Niri erdaraz egiten didate dendan askotan adinekoek. Nik beti lehen hitza euskaraz egiten dut, baina haiek erdaraz. Ez dakit pentsatzen duten guk erdaraz egiten dugula-edo... Eta zuk antzematen duzu beraiek euskaldunak direla, baina beraiek jarraitzen dute erdaraz.

TAB-H4: Niri ere gertatzen zait, nagusi bat etorri eta erdaraz hitz egin zuzenean.

Ainara: Hori zerbaitengatik izango da, ezta? Ikusiko dute gizartea erdaldunagoa dela.

TAB-H6: Nik gutxi gorabehera ikasi dut euskaraz, eta dendako sarreran denetik gertatu zait. Beraiek erdaraz hizketan egon, eta niregana euskaraz zuzendu; edo, alderantziz, euskaraz hitz egin beraiek, eta niri erdaraz. Nik, dena dela, beti esaten diet euskaraz egin nahi dudala. Horrela ikasi dut, gure bezeroak izan dira nire berbalagunak. Une batean erabaki nuen euskaraz bizitzea, eta hola ikasi dut. Kuadrillan, batzuekin euskaraz eta besteekin erdaraz. Ni beti saiatzen naiz, ahal bada, euskaraz egiten. Ez dut sumatu bereziki hemen ez naizelako jaio erdaraz egin didatenik.

TEB-H9: Ba nik askotan esan behar izan dut euskalduna naizela. Hasieran, kanpotik etorria nintzelako, jende askok egiten zidan erdaraz.

Nik eraikuntzen munduan egiten dut lana, eta hori oso erdalduna da. Hori da sasoi batean egon zirelako hemengo denak itsasoan, eta Espainiako jendea hasi zen arlo horretan. Beraz, nik ikusten dut beste erri batzuetan aurkezten direla proiektuak euskaraz, eta hemen... zure bezeroak ez daki euskaraz.

LANA ETA MUGIKORTASUNA

TEB-H9: Harreman zuzena du lanera kanpora joateak, Bilbora kasu, eta handik erdara ekartzeak.

TAB-H7: Nire ustez ere bai. Baina Bermeon bertan ere oso erdalduna da lan mundua, eta jendeak erdaraz egiten du lana. Hala ere, esango nuke bermeotar gehienek kanpoan egiten dutela lana.

HIZKUNTZA ALDATU KANPORA JOATEAN

TAB-H7: Bilbo oso nekagarria da euskaraz bizitzeko. Hiru urtez, Deustun bizi nintzen, berez auzo euskaldunena, baina nekagarria da, zeren jende gehienak ez daki. Beti euskaraz egin, eta beti entzutea ez dakitela... ba beno. Trago txarrak ere pasatu ditut, Bizkaibuseko txofer batek autobusa paratu zuen behin, nik euskaraz egiten niolako. Ez zuen arrankatu... Anekdotak bat da, baina nekagarria da militantzia Bilbon.

Bermeon, ordea, berez baditugu baldintzak euskaraz bizitzeko. Arazoa da ez dugula egiten.

TEB-H9: Ni Bilbotik nator, ikastola eremu batetik, eta izan da oso euskaltzalea. Guk auzo-sare bat genuen eta bagenekien non erosi, euskaraz egingo zigutelako. Hemen ez dago horrelakorik. Agian, euskara oso modu naturalean egon delako.

DATUEKIN NOLA JOKATU

TEB-H9: Nik uste dut datu hauek atera behar direla, ezagutarazi egin behar direla, jendeak hausnarketa egin dezan.

TEB-H1: Egia da ez badizkigute datuak parean jartzen, beti pentsatzen dugula albokoaren arazoa dela. Ni euskalduna naiz, eta kitto.

TEB-H8: Kontua da ikusi nahi e duenak ez duela ikusiko. Hamabost metroko pankarta bat jarri dezakegu ikastetxe aurrean, eta hala ere, batzuek ez dute ikusiko.

TAB-H4: Agian, ez dute ikusten arazo moduan.

TAB-H7: Baina jendea konturatuko da ba kalean erdaraz egiten dela?

TAB-H4: Bai, baina beti esaten dugu Bermeo herri euskalduna dela...

TAB-H7: Hori fama da, bai, baina...

TEB-H9: Adibidez, ikasturte hasieran beti batzarra izaten dugu irakaslearekin. Ba, irakaslea bera ez dago prest duintasunarekin esateko batzarra euskaraz egingo dela. Momentua da esateko euskaraz egiten dugula hemen, eta norbaitek erdaraz nahi badu, gero esango diogula. Baina hori ezin da esan erdi lotsatuta, hori naturaltasunez esan behar da, duintasunagaz. Prestatu behar dira zentroak, irakasleak eta orokorrean gizartea.

NOLA LANDU AURRERA BEGIRA

TAB-H7: Sistema erdalduna da: telebista, irratia, prentsa, lana... dena dago erdaraz. Hori aldatzen ez den bitartean, euskara erabiltzeko modu bakarra edo arrazoi bakarra militantzia da. Era natural batean ez da egingo euskaraz.

TEB-H5: Baina lehen ere sistema erdalduna zen.

TAB-H7: Bai, baina gure aiton-amonek zenbat ordu kontsumitzen zuten telebista? Noiz hasi ziren erdaraz egiten? Non egiten zuten lana? Itsasoan eta arrain kontserberatan... gaur egun dena aldatu da. Ahozotasunak garrantzia handiagoa zuen. Jendeak hitz egiten zuen.

TAB-H2: Pertsona euskaldun horren bihotzean zerbait sortu behar da. Nik alabarekin ikusi dudana bezala. Orain artean ez ninduen gehiegi kezkatzen hizkuntza batean edo bestean egiteak... Eta orain, ikusi dudanean alabak egiten duela erdaraz, ba... desberdina da.

TEB-H1: Sentimendua da, bai.

TEB-H9: Harrera planak egiten dira etorkinentzat, euskaraz ez dakitenentzat. Eta halako zerbait ezin da egin euskaldunentzat? Bermeo kanpotik datozenentzat. Ikusteko hemengo egoera nolakoa den, eta zer garrantzia duen hizkuntzak.

TAB-H7: Gero, kanpotik datorren jendeak pentsatzen du: "Nik zertarako ikasiko dut euskara, gero, bertakoek ere egiten ez badute?"

TAB-H3: Ni seme gaztea jaio zenean hasi nintzen euskara erabiltzen.

TEB-H8: Bide bat izan daiteke bermeotarrei esatea hauexek direla datuak, eta serio jartzea behingoz. Niri, behintzat, datu hauek min egin didate, izututa gelditu naiz.

TEB-H9: Eskolan egin genuen batzar batean komentatu nuen nola ikusten nuen umeak eskolatik kanpo hiru multzo nagusitan ibiltzen diren: kirola, hizkuntzak eta kultura. Hizkuntza eta kirola mantentzen da, baina kultura gero eta beherago doa matrikulazioetan. Ez da berba berdina egiten kulturari edo kirolari lotutako jardueratan. Kultura arloan dagoen eskaintza oso zurrina da.

TAB-H4: Eskolaz kanpoko ekintzetan euskararen erabilera zer puntu arte dago bermatuta?

TAB-H7: Ni igerilekuan ibiltzen naiz, eta ondoan igeriketa ikastaroak ematen egoten dira. Askotan, umei erdaraz hitz egiten entzuten diet. Ez da inor seinalatzeagatik, orokorrean da igoa, hitz egin beharko litzateke kiroldegiko zuzendariarekin-edo.

TAB-H5: Hori pasatzen da futbol zelaietan ere... eta arraunean, eskubaloian... asko egiten da erdaraz. Gero, pertsona horiek badira nor haurrentzat.

TAB-H7: Kiroldegia publikoa da %100, horrek ezin du izan horrela.

TAB-H2: Gainera, egin du lana horren inguruan udalak, ezta? Eta ia-ia ume zein begirale denak dira euskaldunak.

PROPOSAMENAK

TEB-H9: Nik falta bat dut. Ez dakit nola jokatu beti erdaraz egiten duen jendearen aurrean. Uste dut badela TELP tailerra-edo, horrelakoren bat antolatzea ondo legoke. Ikastetxeetan ere halako zerbait egin beharko litzateke.

TEB-H1: Nik uste dut, dena den, bermeotarrak ez garela tailerretara eta horrelakoetara joatekoak. Bermeotarrak bai, baina hemen ez. Agian, itsasoa ukitzen duenean bai animatzen dela jendea, baina bestela... gatza.

TAB-H5: Nik uste dut gauzak diren bezala esan behar direla. Hondoan jo dugu, eta hauek dira datuak. Horrelaxe.

TAB-H7: Nik bi proposamen ditut. Batetik, indartu eskolak eta udalak duen harremana, eta hor saiatu eragiten. Azken finean, badakit horretan ari zaretela. Bigarren proposamen moduan, Egiak eginiko eredu hori edo halako zerbait egin dezakegu.

TEB-H9: Niri gertatzen zait umeak hartu, eta ez dudala jakiten nora joan... eta balego euskarari lotutako espazio bat, joango nintzateke hara. Bilbon, adibidez, hori da kafe antzokia.

TAB-H6: Bai, ideia ona da hori.

TAB-H2: Bai, arazoa da horrekin berriro euskaltzaleengana iristen garela.

TEB-H9: Ikastaroak eta ondo daude, baina zerbait behar dugu ludikoagoa eta arinagoa.

TEB-H1: Nire alaba, adibidez, Agenda 21ean dago eskolan, baina halako talde bat badago euskarari lotuta? Umeak inplikatzeko badira, eta konpromisoa hartzen badute, horrek lagunduko du. Gurasoena garrantzitsua da, baina alderantziz ere egin daiteke hori.

TAB-H7: Nire sasoiaren egoten zen euskara taldea, DBH 4an uste dut zela. Urtetik urtera pasatzen zen, eta jolastorduetan batzen ginen. Hezkuntza sistemaren akats handienak dira ez dela ahozotasuna lantzen eta ez dela egoera soziolinguistikoa azaltzen.

ADINEKOEN TALDE EZTABAIDA: 51 URTETIK GORA

TEB-A1: 53 urte, Bermeon jaio nintzen. Logopeda naiz, eta eskola publikoan egiten dut lan. Ama hizkuntza euskara dut, baina biak pareko erabili ditut. Etxean euskaraz hitz egiten dut.

TEB-A2: 59 urte, bermeotarra. Ama hizkuntza euskara dut, eta etxean beti euskara egin dugu. Euskara irakaslea naiz, herritik kanpo, Leioan, eta %90ean euskaraz bizi naiz. Erdaraz eta euskaraz ondo moldatzen naiz bietara.

TEB-A3: Bermeotarra, 61 urte, mekanikoa naiz lanbidez, eta beti egin dut euskaraz etxean. Euskaraz moldatzen naiz ondo.

TEB-A4: 71 urte, bermeotarra eta itsasoan lanean ibilia. 56 urterekin unibertsitatara joan nintzen, humanitateak ikastera. Etxean beti euskaraz egin dugu.

TEB-A5: 68 urte, etxeko andrea eta emakumeen taldekoa. Beti egin dugu euskaraz etxean, kalean, umeekin. Idazten ez dut ikasi, baina euskaraz hobeto moldatzen naiz.

TEB-A6: 71 urte, Bilbon bizi izan naiz 40 urtean, ezkondu eta Bilbora joan nintzen. Nire gizonak ez zuen egiten euskaraz, eta mimikaz hitz egin dugu etxean beti. Seme-alabek badakite euskaraz. Bilbon torpetu egin naiz euskaraz, eta orain hemen asko kostatzen zait. Erdarara saltatzeko ohitura dut. Nahi dut hori aldatu, eta egiten dut ahalegina.

TEB-A6: 64 urte, bermeotarra. Etxean beti euskaraz, eta ahalegindu gara ohitura hori zabaltzen. Jubilatuta nago orain, eta euskaraz bizi naiz, ia 24 ordutan ez dut behar erdararik erabiltzea. Nire errealitatea Bermeon hori da.

TEB-A8: Bermeon jaioa, Bermeon bizi eta hemen nago oraindik. 68 urte ditut eta euskaraz bizi naiz. Alkate izan naiz 16 urtez eta 12 urtez zinegotzi Bermeon. Gure etxean beti euskara hutsean egin da, eta orain ere euskara hutsean egiten da. Ikasketak eta lana askotan erdaraz egin behar izan dut, baina etxera eta kalera beti euskaraz itzuli naiz. Peritu industrialaren titulua dut.

TEB-A9: 56 urte ditut eta pentsioduna naiz, gaur egun. Etxean euskaraz egin izan dut, eta azken urteetan berbalagunen nabil boluntario bezala. C1 maila ateratzeko ari naiz hizkuntza eskolan euskara hobetzen.

PERTZEPZIOAK

TEB-A3: Nik uste dut beherantz doala, esango nuke 20 urtetik hona gertatu den zerbait dela. Zerikusia izan dezake geografiak. Gu muga baten gaude. Hemendik oso gertura jada ez da egiten euskaraz, muga-mugan gaude, eta hiriburua ere, Bilbo, oso gertu daukagu. Mungian ere asko galdu da, edonongo jendea bizi da han ere. Ez da berdina Ondarroan bizitzea, inguruko herri denak euskaldunak diren leku batean; edo

hemen. Eta, gero, gertatzen dena da aspaldiko 30 urtetik hona, agian, umeari: “Aber, Unai, etorri hona!”; Eta gero beraien artean: “Si porque luego vamos a ir...”. Hori, behintzat, hemen eta leku askotan gertatzen da.

TEB-A4: Kanpoko jendea ere asko etorri dela uste dut. Behar egitera, eta... herri handietara, igoal, jende gehiago etorri da.

TEB-2A: Mundaka Bermeo baino dezentez txikiagoa da, eta han ere galdu da ba...

TEB-A4: Orain berreskuratzen ari dira.

TEB-A6: Kanpokoak baino guk ere badugu errua. Zer pentsatzen genuen guk, erdaldunak euskaldunak baino eleganteagoak zirela? Hori Mundakan eta Gernikan ere bai. Akonplejatu puntua.

TEB-A4: Nire belaunaldiko jendeak beti erdaraz egin izan du, eta Gernikan ere bai. Urriko astelehenean Gernikara joaten ginen, eta hantxe ezagutu genituen neska batzuk Muxikakoak-eta, Gernikara joaten ginen inguruko herri denetako jendea. 83 eta 84an ari naiz esaten eh! Dena egiten zuten erdaraz. Ba, orain urte bi topo egin nuen neska haiegaz, eta euskaraz ari ziren berbetan, eta pentsatu nuen... “Gu zertan ibili ginen hauekin erdaraz berbetan?”.

TEB-A9: Bai, lehen, eta orain ere... Gure etxepeko bileretan batek bakarrik ez daki euskaraz, beste denak euskaldunak gara. Euskaraz ez dakien horrek Bermeon daramatza 50 eta 60 urte, eta halere, denok erdaraz egiten dugu. Zergatik? Niri horrek ez dit balio. Pasatzen da azkenean ez dugula euskara kontuan hartzen, horren erakusle zuk kontatu duzun hori, Gernikakoa. Niri ere pasatu zitzaidan, bidala batean Basauritar bat ezagutu, eta biak denbora guztian gaztelaniaz. Basaurira heldu, eta halako batean berak: “Beno, agur eh!”. Eta nik: “Euskalduna zara ba?”. Eta halaxe izan. Zer gertatu zen? Berba egiten hasten garela gaztelaniaz, eta...

TEB-A6: Zuk pentsatzen duzu Bermeo dagoela askoz ere hurbilago Bilbotik, baina Ondarroara ere erdaldun asko joan dira arrantzatik lan egitera, eta begira... nik ez dut uste hori denik faktore handiena. Nik pentsatzen dut identitatea galtzen ari garela, eta horrek duela benetan pisua.

TEB-A4: Bai, bai, hori bai! Euskalduntasuna galtzen ari gara.

TEB-A6: Kanpotarrak ikasten dute, eta ume atzeritarrek hemengoek bezala egiten dute euskaraz.

TEB-A1: Eskolan 30 urte baino gehiago daramatzagu D ereduarekin eta euskara bultzatzen. Gero eta gauza gehiago egiten dira euskararen alde, baina ikusten duguna da lehen 12 urte ingururekin hasten baziren gaztetxoak erdararen modagaz, jaitsi egin dela. 8 urtera jaitsi zen hori, eta orain 6 urtekoak erdara hutsean dabilta. Eskolan ez da ezer aldatu, lehen eta orain, beti dena euskaraz egiten zen. Beraz, gizarteko zerbait da.

TEB-A5: Atzo ikusi genituen datuak... 16-24rako pertsona horiek erabat erdaldunduta daude Bermeon. Kontzientziarik ez dute.

TEB-A4: Geu ere bagara apur bat gaiztoak. Adibidez, nire andrea da azpeitiarra, 10 urtegaz heldu zan hona etxe batera beharrera. Berak azpeitiarrez egiten zuen, eta esaten zioten, hemen gure baserritarra! Eta hasi zen erdaraz egiten... gauza horiek ere kontuan hartu behar dira.

TEB-A6: Nik iloba dut 13 urtekoa. Erdaraz egiten du hark... Eta esaten diogu euskaraz egiteko, baina esaten du lagunekin erdaraz egiten duela.

TEB-A1: Kontua da etorkin umeek denek ikasi egiten dutela hizkuntza, eta euskaraz egiten dute. Gero, ordea, 6-7 urtegaz denak hasten dira gaztelaniaz. Eta esaten dugu etorkinengatik dela, baina ez... adin hori artean euskaraz egiten dute-eta etorkinek ere. Horrena ez da. Gainera, etorkinak beste umeekin identifikatuta sentitzen dira euskara bereganatzen dutenean.

TEB-A2: Nik ikusten dudana da bizitzan zehar, aro desberdinetan, interes desberdinak daudela. Harremanetarako ere aldatu egiten dira hizkuntzak. Musika, Internet, hedabideak... askotan erdarara jotzen dugu. Beste hizkuntza, kultura, musika motak eta modak eragina dute. Baina kontuz, hori ez da txarra, hori hor dago, baina jakin behar dugu errealitate hori kontuan hartuta, gureari balioa ematen. Eskaintza asko dago, baina transmisioa beste era batera egin behar dugu. Historian interes asko egon dira... baina arduradunak nor gara? Nork dugu interesa hau mantentzeko? Zenbat kate ditugu euskaraz? ETBk berak sortu zuen erdarazko katea, eh!

TEB-A8: Alde batetik, gure edadekoei tokatu zaigu garai bat ia-ia debekatuta egon dela euskaraz egitea. Hori gainditu egin dugu, gure gurasoek ere egiten zigutelako den-dena euskaraz, beraien hizkuntza eta beraien sena zelako. Momentu batzuetan egon da masa sozial oso garrantzitsu bat Bermeon eragina zuena herriko bizitzan: arrantzaleez ari naiz. 1.200 pertsona ibiltzen ziren bajura. Bestetik, orain ikusten dugu euskaraz ikasten duten horiek, euskara guk baino hobeto menderatzen duten horiek, lana euskaraz egin dezaketen horiek, horiek ez dutela egiten. Jakin bai, baina zenbat erabiltzen da? Gauza da nahitaez gure gazte denboran militante izan ginen bezala, gure gurasoei esker, euskararen militanteak behar direla. Daukagun gazte kuadrilla pasatzen denean, ematen du gaudela Santoñako Lameran. Militantzia, beraz, argi dago nondik jaso behar den, ezta? Gurasoengandik.

TEB-A9: Askotan da ohitura hartzea euskaraz egiteko. Telebista eta horiek nik bigarren milako bezala ikusten ditut... Athletic nahi baduzu ikusi, ba dagoen hizkuntzan ikusiko duzu. Baina, gero, kalean, gaztelaniaz dabil. Jendea ere kalean ezagutzen denean, lehen aldiz gaztelaniaz egiten badute, gero jarraitzen dute gaztelaniaz. Nik uste dut guztia dela ohitura. Nik baditut lagun euskaldunak, eta haietako batzuekin dena egiten dut gaztelaniaz. Hasieratik euskaraz hasiz gero, dena egiten dugu euskaraz gero. Kontua da txikitatik heziketan sartzea lehen hitza beti behar dela egin euskaraz, eta gero hori landu, landu eta landu.

TEB-A1: Esan dugu umeak, gazteak, helduak... beherantz egin dutela... baina jarri al duzue belarria nagusiengan? Adinekoek, arrantzaleak eta saregileak izandakoak, zelan ibiltzen dira kalean? Euskaldun peto-petoak, eh! Agian, ez dago inor kuadrillan erdalduna denik, eta danba! erdaraz. Txitxarron kuadrillakoak-eta...

TEB-A4: Bai, Txitxarron kuadrillakoak.

TEB-A1: Jakingo bagenu zerk motibatzen duen jende hori guztia erdaraz aritzera, berdina egiteko aukera izango genuke... zer da motibatzen duena?

TEB-A5: Erraza, zelako eskaintza dagoen erdaraz, telebistako estilo guztietako kateak erdaraz dira, kultura nagusia erdaraz da... hizkuntza dominantea da. Erdaragaz ezin da konparatu euskaraz, dirutik eta ospetik hasita.

TEB-A1: Arrazoi, baina emozionalki zerk erakartzen die?

TEB-A5: Inguruak, inertziak.

TEB-A6: Tribalak gara, eta umeek ikusten badute inguruak nola egiten duen, ba halan egingo dute.

TEB-A3: Dena den, badira batzuk oraindik euskaraz egiten dutenak, gazteen artean ere bai, eta ezin dugu hitz egin orokorrean.

TEB-A6: Juan Karlosek aipatu du militantziarena. Baina nik uste dut orain beste era batera transmititu behar dugula hori. Beste era bateko sentimendua, maitasunetik abiatuta-edo. Zerbait baikorra: gu garelako, gure hizkuntza delako, gure identitatearen zeinua delako eta gure kulturaren ondare nagusia delako. Gauza askogatik, baina maite dugulako, batez ere.

TEB-A6: Baina hori betiko mezua da.

TEB-A9: Nik ikusten dut, esate baterako, Deia. Deia sortu zen Euskal Herriko gauzak bultzatzeko. Ikusten duzu, eta dena erdaraz dago. Ni sindikatutan nago CCOO-n, eta han behintzat orri guztietan ekartzen digute laburpen bat. Deia eta horiek enpresak izango dira, baina euskara sustatzeko ere badute ardura, eh!

TEB-A4: Eta hor dago Gara ere! Eta bi egunkari horiek sortu ziren, apurka-apurka, gehiago egiteko euskaraz. Non gelditu dira horiek?

TEB-A8: Berria ere badago. Baina nork erosten du? Begiratu harpidetzak eta salmentak. Gure adineko jendearen artean, gainera, sekulako kritikak daude Bermeoko Udalak defenditzen duen “euskaraz bizi” ideologia horrekiko, gainera, euskaldunen artean, eh! Mediatika hain gogorra da, eta haien kontra aritzea hain gatz da... ez daukagu besterik guk. Hain aberatsa den gaztelania dugu, gu ez gaude inongo hizkuntzaren kontra, baina bada egia euskara gehiago landu behar dela. Euskara oso hizkuntza aberatsa da, baina euskaldunek ere gehiago lantzen dugu erdara. Zoritxarrez, hau ez da Bermeoko arazoa. Orain arte ez dugu bide egokia aurkitu... hizkuntza bat ez denean erabiltzen, hil egiten da.

TEB-A4: Gero, egia da gure euskara ere kaxkarra dela. Zenbat aditz jaten ditugu?

TEB-A6: Ez, ez, ez, hori bai ezetz. Nik testuak itzultzen-eta lan egin dut urteetan, eta gauza bat da batua eta bestea bermeotarra. Orain bakarrik falta zaiguna da etxera joan eta amari esatea: “Ama, ilea moztuko dizut”. Ba ez.

TEB-A6: Egia esan, euskaldun berriekin ez gara saiatzen, baina ez dakit intentzioa jartzen al dugun ere. Egin batekin eta bestearekin, eta pixkanaka ikasiko duzu, edo?

TEB-A3: Erraztasunak egiten du erabiltzea...

TEB-A4: Gu Gipuzkoara ere joan gara beharrera askotan, eta haiek lelengo hitza: "Ez dugu ulertzen". Ahalegindu, ezta? Ni Azpeitira joaten naiz, lehengusu batzuk-eta baditut han, eta ez dute ulertzen.

TEB-A2: Hori da jendearen gogoia... zu zoaz Arratiara, eta segituan egiten zaizu belarria, ez dut uste oztopo denik.

DATUAK

TEB-A6: Nik aurreko datuak ikusita, eta kalean entzuten dudanarekin, ba bai... bai egon daitekeela jaitsiera, espero genezakeen. Hori bai, harritu egiten zaitu... nahiko deprimentea delako. Baina, harritu-harritu, benetan, ez. Okerrerantza goazela sumatzen dugu.

TEB-A5: Ikusten da garbi... dakienak ez du erabiltzen.

TEB-A9: Baina zergatik? Ba hori, bat erdalduna badago, beste denok egiten dugulako erdaraz.

TEB-A5: Ez dut pentsatzen hori denik arrazoi nagusia.

TEB-A9: Beno, ba hori ere bai, behintzat. Kontatu dizuet nire etxepeko kontua...

TEB-A4: Tardion semea ere hor dago... horrek ez dizu esango, ezta agur ere eh! Eta gero dago kontratista, Tomas, baserritarra bera. Ba hori ere erdaraz. Holan ditugu adibide pila bat. Joxe Felix, Telletxea... "hasta luego!" esaten dute kalean.

TEB-A3: Guk errespetuaz hitz egiten dugu, baina... beraiek ez dute errespeturik horrenbeste urtez hemen bizi eta euskaraz hitz bat bera ere ez egiteko?

TEB-A9: Dena da ohitura. Ni erosketetara joaten naizenean egoten da neska bat, nik euskaraz egiten diot eta berak erdaraz... azkenean bera pasatzen da euskarara.

TEB-A5: Egia da. Pentsatzen dugu ez dutela ulertuko, eta erdaraz egiten dugu. Eta, argi eta garbi, euskaldunak euskaldunari erdaraz egiten dio.

TEB-A4: Guri kastigua eta zartatekoak ematen zizkiguten euskaraz egiteagatik, begitu nondik gatozen. Beno, dena dela, adinekoen datuaz ez dakit zer esan, niri ez dit pertzepzio hori ematen kaleak. Adin horretako pertsonak normalean euskaraz ari dira, ez?

TEB-A9: Helduak adineko egiten dira, eta adinekoak hil. Hori ere izan daiteke, edo?

TEB-A3: Nire ustez belaunaldi bat hilda dago.

TEB-A4: Ez dugu landu behar bezala euskararen kontua, eta hori pasatu da orain.

TEB-A6: Edadeagaz ahaztu egiten zaizu...

TEB-A4: Bai, baina, orduan, erdaraz ere bai, ezta?

TEB-A6: Zaila da euskaraz irakurtzea, gero eta zailagoa.

TEB-A8: Gaztelaniaz ere... gauza batzuk oso zailak dira irakurtzeko eta ulertzeko, ehl Euskara ez da gatza euskara delako.

TEB-A2: Ez dakit, baina adinekoen datu hauek apur bat drastikoak-edo iruditzen zaizkit. Batik bat, nik ezagutzen ditudan adinekoek ez dutelako halako erraztasunik erdaraz hitz egiteko.

TEB-A5: Ba fijatu, ikusiko duzu.

TEB-A2: Edadekoengatik diot, ehl

TEB-A5: Bai, bai... edadekoak, arrantzaleak eta erdaraz hala moduz egiten dutenak, bai. Zu fijatu.

TEB-A9: Hor arrantzaren bueltan ere Extremaduratik etorri zen jendea, eta batzuk moldatu dira hona, baina beste batzuk geto modura bizi dira. Euskara ikasi, zertarako?

TEB-A5: Umeena ere... segitzen dut esaten entzuten dutena egiten dutela.

TEB-A6: oso inguru erdaldunean bizi dira ume horiek. Ez soilik familian eta kalean, baita hedabideak ere, belarrietatik sartzen zaien dena. Mundu modernoak, esan dezagun, erdaraz da. Guk esfortzua egin behar dugu... eskoletara, paperetara heldu da euskaraz; falta zaigu belarrietara iristea.

HAUTUA DA EUSKARA? GIZARTEAK GAZTELANIARA GARAMATZA?

TEB-A2: Nire inguruan ez.

TEB-A3: Segun non eta norekin zabitzen, baina ni goizetik eta gauera euskaraz bizi naiz, hautu oso kontzienterik nahita, behintzat, egin gabe.

TEB-A5: Nahi izanez gero, ahal dugu.

TEB-A3: Dena den, zu bazoaz parrandara Bermeon, jartzen duzu belarria, eta euskaraz entzutea arraroa da. Entzuten duzu, eta badakizu, gutxi gorabaherea, nor den.

TEB-A9: Gazteek egiten dute asko tabernetan erdaraz. Esparru horiek aldatu behar dira. Tabernetan eta horietan aldatu behar da. Ez da inor behartzea, baina gutxika-gutxika lantzea.

TEB-A2: Karo, zuk ezin diozu inori esan zer egin behar duen...

TEB-A4: Hor dago beste gako bat. Gu 16 urterekin-eta joaten ginen txikiteora, txikito bat hartzea gauza handia zen. Zer mugimendu egoten zen? 1.200 arrantzale, denak euskaldunak, lana herrian. Orain hori ez dago. Txikiteoa amaitu da. Txikiteoak badu bere gauza soziala. Hitz egiten duzu, zuri nor gustatzen zaizu?, amuarraia halakoa!... Begira arrantzale hori, zer morroskoa, Ducados erretzen du, eta euskaraz dago berbatan. Zuk, orduan, 16 urterekin imitatu nahi duzu hori. Baina, orain, ez daukate eredu bat halakoa. Ez dago lenoko giroa.

TEB-A3: Bai, nik ikusten ditut gazteak arraunean-eta ibiltzen direnak, erdaraz egiten dutela. Bat dago lekeitiarra, eta hari egiten diote euskaraz.

TEB-A4: Egoerak izaten dira. Gernikako ospitalean pasatu zitzaidan medikuak ez egitea euskaraz, eta nik berari euskaraz... eta segi eta segi. Azkenean etorri zen erizaina eta egin zidan euskaraz, eta zer polito, gainera. Hori da ohitura.

TALDEAN BAT ERDALDUNA DENEAN

TEB-A9: Etxepekoa jarri dut adibide, baina lagunartean ere badugu joera. Ni neu saiatzen naiz euskaraz egiten ahal dudanean.

TEB-A4: Gaur egunean, baldin bada baten bat ez duena euskaraz egiten, begiratuko dut nor den, zenbat denbora daraman Bermeon... eta 50 urte badoa, nik egingo diot

euskaraz, eta popatik hartzera. Etortzen bada zure lehengusua Valentziatik, ez naiz kabrola izango, eta erdaraz egingo dut.

9.7. Ondarroako talde dinamiketako transkripzioak

ONDARROA TALDE EZTABAIDA 16_24

Aurkezpenak

TEO-G1: 22 urte dauzka, ondarrutarra, bizi osoa Ondarroan bizi izan da. Aita Durangon jaio zen, bere gurasoak kanpotarrak ziren baina berak beti euskaraz egin izan du. Durangon gehien bat erdaraz egin izan du aitak, etxean erdaraz egiten zuen bere gurasoekin, baina orain etxean euskaraz egiten du seme-alabekin. Lagun taldearekin beti euskaraz ari da, erdara ez dakitela zer den ere dio. Erdaraz egitea ez zait bururatu ere egin, koletila batzuk igual baina ezer ere ez gehiago.

TEO-G2: 22 urte ditu eta ondarrutarra da betidanik. Etxean euskaraz egiten du berba, eskolan, kalean eta denean besterik ez daukatela dio.

TEO-G3: 17 urte, ondarrutarra, gurasoak ere ondarrutarrak ditu eta etxean beti euskaraz egiten dute. Bai kalean, bai lagun taldean, bai eskolan beti euskaraz ari dira.

TEO-G4: 23 urte ditu. Lau urte Bilbon egon da bizitzen ikasketak bertan egin dituelako. Bertan momentu batzuetan erdaraz egin behar izan du berba. Ondarroan beti euskaraz egin du berba bai lagunekin bai etxean eta arraroa egiten zaio Ondarroatik ateratzen denean erdaraz egin behar izatea eta euskaraz egiten duenean poztasuna hartzen duela dio, horrek min ematen dio.

TEO-G5: 21 urte, ikaslea da, Donostian ari da ikasten. Bere ama hizkuntza euskara da, baina bere aita eibartarra da eta urduri jartzen denean bai hasten da erdaraz, baina inork ez diola segi izan erdaraz dio. Donostian beti lehenengo salakera euskaraz egiten du, gero zer erantzuten duten beste gauza bat da. Beste hizkuntzak beste funtzio batzuetarako erabiltzen ditu.

DATUAK MAHAI GAINEAN

Ezagutza: 2001 %83,4k zekien. Zer gertatu da zuen ustez 2011n?

TEO-G5: altxa niretzat ez behintzat.

TEO-G3: ez dut pentsatzen, hortxe bueltan ibiliko da.

TEO-G4: joera behintzat gorantz ikusten da.

TEO-G2: igual zaharrak gehiago erdaraz eta gazteen artean gorantz.

TEO-G1: nik ez nuke esango gehiago egiten denik.

Etxean, lehen hizkuntza, 2001ean %74,1 zen, zer gertatu da 2011n?

TEO-G4: mantendu egin dela esango nuke.

TEO-G3: nik ere mantendu esango nuke, bestela hemen herritarrak euskaraz.

Etxeko erabilera dagokionez, zer gertatu da 2011n?

TEO-G5: nik pentsatzen dut gora egin duela

TEO-G1:kalean entzuten baduzu norbait erdaraz arraroa egiten zaizu, kanpotarra dela pentsatzen duzu

TEO-G3: lehenengo burura hori etortzen zaizu.

TEO-G1: gero bistaz ezagutzen baduzu... baina bestela, pentsatzen duzu "hau etorri da bizitzera!"

Kaleko erabilera datuei dagokionez, zer uste duzue gertatu dela 2011 eta 2016an?

TEO-G3: nik esango nuke igo egin dela, kalean ez da entzuten erdaraz.

TEO-G1: eske ez da entzuten

TEO-G4: gazteek eta Ondarroan daudenak ikasten euskaraz egiten dute.

TEO-G2: besterik ez daukate-eta

Adin tarteka, zeinek pentsatzen duzue gehien hitz egiten dutela?

TEO-G2: adinekoek esango nuke gehien hitz egiten dutela euskaraz.

TEO-G3: nik haurrek esango nuke, ze eskoletara joaten direnak denek egiten dute euskaraz, nahiz eta etxean erdaraz egin norbaitekin.

TEO-G1: niretzako adinekoek hitz egiten dute gehien.

TEO-G2Ainara: umeekin ibiltzen direnak amama eta aititak... ikusten dudana da %99ak euskaraz egiten duela. Nire amamak Torreviejan etxea zuenean eta hara joaten zirenean kosta egiten zitzaion. Nire amamak Torreviejan ikasi zuen erdaraz. Bueno ikasi zuen Donostiara joaten zenean langosta saltzera. Ondarroan niretzako euskaraz gehien egiten dutenak nagusiak dira.

TEO-G1: eta erdaraz indio egiten dute askok. Bueno nik ere bai, eh?

TEO-G3Lore: nik ere bai. Ni lotsatu egiten naiz erdaraz berbetan. Kosta egiten zait eta euskaraz pentsatzen dudanez itzuli bezala egin behar dut berba egin aurretik eta zaizkit etortzen aditzak eta berbak, ez zait ateratzen. Klasekoengatik, bestela ez nuen jakingo erdaraz berba egiten.

TEO-G2: ni magisteritza nago ikasten eta praktikak egiten ari naiz. Bajak daudenean gu jartzen gaituzte ordezkapenak egiten eta esan zidatenean gaztelera eman behar

nuela sustoa hartu nuen. Pentsatu nuen ni baino gehiago jakingo zutela ikasleek.

Datuak hauek dira.

TEO-G3: ez nuke esango.

TEO-G1: nik ere ez.

TEO-G2: bajoi handia da.

TEO-G3: lotsagarria da.

TEO-G2: lotsagarria.

TEO-G1: gero bakoitza non mugitzen den... baina pentsatzen dut denok antzerako lekuetan mugitzen garela, herria ez da handia.

TEO-G5: niri bai pasatzen zait burutik jende bat gaztea erdaraz berba egiten duena.

TEO-G3: nik bai ikusten dut ni baino gazteagoak direnak, interneten eraginaz, gaur egun entzuten duten musikaren eraginez... nik entzuten dut ni baino hiru lau urte gazteagoak elkarren artean erdaraz berba egiten.

TEO-G1: igual modan ipini delako ere bai.

TEO-G3: bai, eta nire koadrilako batzuk ere badakarte joera esaldiren bat edo erdaraz egiteko eta gero erdaraz jarraitzen dute, eta nik esaten diet "baina, neskak, zertan zabize, txo!" Baina bai ikusten dut zenbat eta gazteagoak badakartela joera, baina batzuk.

Zein ondorio aterako zenukete?

TEO-G2: igual etorkinen kulpak ez da izango dena, baina azkenean etorkin askok ikasten du erdaraz errazena hori delako, azkenean erdaraz errazagoa da mundu guztiarekin komunikatu ahal izateko. Euskararekin Bilbora joaten zara eta agian ezin zara mundu guztiarekin komunikatu, baina erdararekin bai.

TEO-G3: pixka bat dezepzioa moduan, ezta?

TEO-G4: guk ez badiogu euskaraz egiten kanpotik datorrenari, erdaraz ibiliko da.

TEO-G3: Ze berak erdaraz egiten digun momentuan guk erdaraz erantzuten diogu ez gara kontziente. Orain bezala berba egiten jarri arte

TEO-G2: ze egin behar duzu ba, ez baldin badaki?

Aldaketarik sumatu duzue azken urteetan?

TEO-G3: ez zait etortzen.

TEO-G1: bakoitzak bere ingurua ezagutzen du eta nire ingurua euskalduna da. Nik ez daukat koadrilan inor zailtasuna daukanik, ez dut pentsatzen hortik aurrerago.

Esperotako erabilera baino altuagoa da Ondarroako erabilera. Zuen ustez zeintzuk dira arrakastarako faktoreak?

TEO-G3: ba kalean dena entzuten duzula euskaraz. Baina ez daukat arrazoirik, herri euskaldun bat da, beti bizi izan gara euskaraz.

TEO-G4: baina beste herri euskaldun batzuetan erdaraz egin izan da askotan. Hasi euskaraz eta gero erdaraz jarraitu. Baina zergatik den, ba ez dakit.

TEO-G2: ba zortea daukagulako.

TEO-G2: Nik erdara eskolan ikasi dut.

TEO-G1: eta telebistan.

TEO-G5: ez dago beste eredurik.

TEO-G4Jon: jaio garenetik hori hartu dugu.

TEO-G1: burugogorrek gara.

TEO-G2: naturala egiten zaigu, normala egiten zaigu eta datozen belaunaldiei euskaraz egiten diegu

TEO-G5: umeei ondarrutarra ikasiko dute, kanpoko jendeak eskolan ondarrutar ikasiko dute, ez dago inongo dudarik, gero kalean nahi dutenak egingo dute baina eskolan euskaraz egingo dute.

TEO-G3: nahiz eta eman laguntzak azkarrago ikasten dute ondarrutarrez euskara batuan baino, ikasleekin eta kalean.

HIZKUNTZA OHITURAK ETA ZERGATIAK

Taldean norbait erdalduna baldin badago zein ohitura daukazu?

TEO-G1: ba segun...

TEO-G2: guri orain erdaldun bat etorri zaigu ingurura eta etorri zenean lehenengo aldiz, pixkana erakusten hasi ginen: zerbait galdetzen bazioten erantzunak nola eman, sartu norabaitera eta lehenengo agurra nola egin eta gero betikoa, zenbakiak eta halako gauzak. Eta beno, orain hor dago estankatuta, ikasi du horra arte, baina ez da formatzen ere. Etortzen da hilean behin eta berba egiten diogu eta berak esaten du, “bai”, “oso ondo”... Tabernara sartzen garenean guk esaten diogu eskatzeko “bi zurito eta ez dakit zer” eta berak eskatzen du. Bera kontzientzia dadila guk hemen euskaraz egiten dugula eta gurekin nahi badu geratu euskaraz ikasi beharko duela.

TEO-G1: bai, guk tarteka eduki izan dugu norbait kanpoko, koadrilakoak kanpoan dauzkagu ikasten eta norbait etortzen denean jaiak pasatzera erdaraz egiten dugu. ..Guk euskaraz egiten dugu gure artean, baina bera dagoenean hor saiatzen gara erdaraz egiten, baina kosta egiten zaigu erdaraz berba egitea, joera daukagu euskaraz egiteko, “ostia hemen da, erderaz egin behar diogu berba”, kosta egiten

zaigu, baina azkenean erdaraz egiten duzu. Egun baterako etorri bada ez diozu esango euskaraz egiteko berba.

TEO-G3: nik lehengusina daukat Bartzelonakoa eta urtero etortzen da eta badaki. Bi edo hiru egun egiten ditu eta dena ulertzen du, klaro, gero gaudenean lokalean elkarriketa baten eta hasten garenean erdaraz berbetan, ez gara kontziente euskarara pasatzen garela eta "ostia hemen dago!". Zailena da lagunen artean erdaraz egitea. Nik entzuten badut lagunena bat erdaraz berbetan arraroa egiten zait, itsusia moduan. Baina gero ere badute koadrila askotan, menorkarrak eta beste herrialde batzuetakoak eta erosotasunagatik ez dira salatu euskaraz hitz egiten eta besteek erdaraz egiten diotenez ez dute egiten saiakerarik. Niretzat hori da tristea, ze gazteak etortzen dira eta beraiek ez saiatzea... baina bien aldetik, bai hemengo jendeak erakusten bai beraiek interesa erakusten.

TEO-G4: hemen Ondarroan bertan ez, Bilbon bai batzuekin erdaraz egin behar izatea, baina hemen ez.

Aisialdian (kirola, kultura...) zein hizkuntzatan ibiltzen zarete?

TEO-G1: dena euskaraz

TEO-G2: ni joaten naiz ingelesera, baina ingelesera, horregatik bakarrik. Beste zerbait aukeratzen badut dena euskaraz.

TEO-G3: telebista igual erdaraz.

TEO-G5: ETB oso pobrea da.

TEO-G3: ez dago programarik guretzako, gehiago dago umeentzako. Hainbeste kanal daude erdaraz, ba joera daukazu...

TEO-G5: jartzen dizute programa on bat EUSKALDUNA NAIZ eta kendu egiten dizute.

TEO-G3: Goenkale...

Kultur eskaintza, kontzertuak, ikastaroak, antzerkiak, nola kontsumitzen dituzue?

TEO-G4: ni antzerkira ez naiz joan izan.

TEO-G5: igual etxe lilan ekarri izan dugunean kanpotik hizlari bat eta berak erdaraz badaki.... baina bestela ez.

TEO-G3: kanpoko taldeak, baina normalean hemen inguruko taldeak mugitzen dira eta horiek euskaraz.

Erreferenteei buruz zer esan dezakegu?

TEO-G5: badaude kirolariak, musika taldeak, gazte taldeak... baina beste pertsona batzuk izango balira bezala dira.

TEO-G1: ez diegu ematen tratu berezi bat.

TEO-G2: ez dute destakatzen.

TEO-G4: adibidez Ondarroatik kanpo izan daiteke, baina guretzat bat gehiago da.

TEO-G1: dauzkagu abeslariak, futbolariak, idazleak, danetik, fama daukatenak munduan, baina herrian ez dira gehiago.

Eta gertuagokoak direnak?

TEO-G5: ni Leirek eta horrela, horrela mugitzen naute ni. "Oihane, zure izena eman didate, horrela beti"

Herrian badago mugimendurik? Gazte asanbladarik, gaztetxerik?

TEO-G5: bai, baina hain da anitza. Jende ezberdina eta garai bakoitzean... orain daude batzuk, gero berriak

Zein hizkuntzatan mugitzen da jendea?

Denak: euskaraz.

TEO-G4: erdaraz egitea ez zait burutik pasatu ere egiten.

TEO-G1: erostera joan eta hemen erdaraz?

TEO-G2: urbanoko txoferra kanpotarra da eta eskatu zien euskaraz ikasteko eta arrazoia daukate, nagusiek ez dakit euskaraz eta ume txikiek ere ez.

TEO-G5: berak ere ez du eman behar elkarrizketarik, igual ahal du ikasi hiztegi klabe bat.

TEO-G3: ume bat sartzen bada eta galdetzen badio "zenbat da" eta berak ez badaki euskaraz zerbait sartu da ez?

TEO-G2; goizeko autobusa joaten da umez beteta, orduan...

Kanporako joera badaukazue?

Denek: bai.

TEO-G2: niri gertatzen zait EHtik kanpora joaten naizenean, esango dizut "hola" edo "epa" edo "agur", ez dit ardura txinoa bada edo japoniarra den, beti "agur" esango diot.

TEO-G3: jende pila bat eta "barkatu, barkatu" eta lagunak "baina ez dizute ulertzen!" baina "ez dit ardura!".

TEO-G5: ondarrutarrak sartzen garenean daukagu ohitura esateko "hola" baina ez erdaraz delako "kaixo" ez dugulako esaten. Baina irteterakoan "agur" esango dugu.

TEO-G3: “adios” esatea ez zaigu ateratzen.

Zuk aipatu duzu Bilbora joan zarenean erdararako joera handitu dela

TEO-G4: bai joan erosketak egitera eta erdaraz edo joan trago bat eskatzera eta erdaraz.

Zuk nola egiten duzu lehenengo hitza ezbadazu ezagutze?

TEO-G4: ba segun. Ze igual kristoren haserrearekin nago eta esan badit “que?” orduan eta gehiago haserretzen naiz. Baina bestela umore oneko banago saiatzen naiz euskaraz egiten.

Eta ikaskideekin?

TEO-G4: segun. Ze batzuetan gertatzen da ondarrutarra ez dutela ulertzen eta erdararako joerak irteten du.

TEO-G3: ondarrutarrez ez digutenez ulertzen euskara batuan egitea kosta egiten zait.

TEO-G4: besteak ez badu joera euskaraz egiteko hasten zara ondarrutar, gero hasten zara euskara batuan eta azkenean erdaraz amaitzen duzu.

Besteok kanpora ateratzen zaretenean zein hizkuntza ohitura dituzue?

TEO-G2: Durangoko Eroskin euskaraz, ni erosketak egitera ez naiz joaten Bilboraino.

TEO-G5: Nik Bilbon edo Donostian konparatuta arropa bat eskatzeko dendari bati Bilbon joera gehiago erdarara baina Donostian euskara gehiago entzuten da.

TEO-G4: nik ere esango nuke Donostian gehiago egiten dela euskaraz.

TEO-G1: bai, nik ere esango nuke errazago egiten dela Bilbon baino.

Herrian euskalgintzako mugimendurik ba al dago?

TEO-G3: guk institutuan daukagu normalkuntza proiektua.

TEO-G5: AEK eta ahuakemonala programa.

TEO-G1 baina ez nuke esango gehiago.

TEO-G2 guk ere euskararen egunean antzerkia eta Ondarroako berbak, arrainetan idatzita eta hor jendeari “ezagutzen dozu berbi?”

TEO-G1 tabernetan jarri zituzten Ondarroako berbak eta lehiaketa moduko bat egin zuten.

Zuek ikusten duzue lanik egiteko badagoela?

TEO-G4: eske beharrik ere ez dugu ikusten, ez da beste herri batzuetan moduan, hemen erdara eta euskara parekatuta daude.

TEO-G2: edo erdara gehiago euskara baino.

Belaunaldien artean badago desberdintasuna hizkeran?

TEO-G3: hauen generaziotik nireira ikusten dut aldea. Nire aurretik beti ibili dira zerbait egiten, ekiten. Eta nire belaunaldian jarri sofan eta egon lokalean telebista ikusten. Ez trago bat hartzera lagunekin..

TEO-G1: nik uste dut hori belaunaldi denetan dela.

TEO-G5 guk ere eduki genuen adin bat lokalean sartuta egoteko, Baina gero esaten duzu lokala agur eta kalea goaz.

TEO-G3: baina nire lagunak ez dira ateratzen.

TEO-G1: baina oraindik trankil, igual bai.

TEO-G3: espero.

TEO-G1 gu noiz atera ginen lokaletik?

TEO-G2: nire lagunak orain atera dira

...

TEO-G3: nire adinean 18k errepikatu zuten DBH3 eta gehienak moduluetan daudenez, Batxilerrean gela bakarra gara 23 lagunekoa... pentsatzen dute moduluak direla jauja eta egiten dutena da lokaletan sartuta egon eta horrela izango dela. Gero ere batzuk Durangora joan dira eta esaten dute asko kosta zaiela aldaketa, han klasean erdaraz direla eta ez dutela euskaraz egiten berba.

TEO-G1: nik ikasi nuen Ibaizabalen Durangon eta han elkartzen gara Durangotik gutxi, Galdakaotik, Zornotzatik... eta haiek esaten dute asko poztan direla gu joateagatik bertara, azkenean derrigortzen ditugula beste batzuk euskaraz egitera.

TEO-G2: gutxienez etxean euskaraz egiten dutenak. Ze niri hori esan didate, etxean euskaraz bai, baina gero kalera atera eta lagun giroan dena erdaraz dela. Eta klasean baldin badauzkazu zu bezala euskaraz egiten dutenak berba, beraiekin batu eta euskarari ekiten diotela.

TEO-G4: eta ondo egiten dute normalean ez dute zailtasunik izaten.

TEO-G1: beraien erara egiten dute baina ondo egiten dute.

Nola esango zenukete bizi duzuela euskararekin duzuen harremana, zein sentimendurekin lotuko zenukete?

TEO-G2: Hemen kontrakorriente da erdaraz datozenak

Badago gazte talderik erdaraz funtzionatzen duenik?

TEO-G4: egongo dira

TEO-G1: egongo dira, etorkinak

TEO-G5-: nik ezagutzen ditut batzuk erdaraz egiten dutenak, ez dira erlazionatzen herritarrekin.

Ondarrutarrak hemen bizi direnak?

TEO-G3: euskaraz pentsatu eta euskaraz bizi gara.

TEO-G2: ez dena naturala da erdaraz hitz egitea.

TEO-G1: nik badaukat koadrila bat buruan, baina bat edo bi izango dira.

TEO-G5: seguru koadrila bera dela pentsatzen ari garena

Harrotasunez bizi duzue euskalduntasuna?

TEO-G1: bai, bai.

TEO-G2: bai, normaltasun osoz.

Zuek kanpora ateratzen zaretenean ere euskara zabaltzen duzue?

TEO-G3: atera egiten zait euskara kanpoan ere.

TEO-G5: ez gara lotsatzen.

TEO-G1: gutxiago ez, gehiago sentitzen gara.

TEO-G2: kanpora atera eta euskara entzutean poztu egiten gara.

---:

Hizkera harrotasunez bizi duzue?

TEO-G1: bai, bai.

TEO-G2: hori bai dela gurea.

TEO-G5: batzuk inbidia ere bai, batzuk ez daukate.

---:

Erdarakadak egiten duzue?

TEO-G1: bai, bai, silli, benatani

Biraoak nola esaten dituzue?

TEO-G5: lantzou...

TEO-G2: tontu, pringau

Nola imajinatzen duzue Ondarroa etorkizunean?

TEO-G1: nahiko nuke pentsatu horrela mantenduko dela, inoiz ezin duzu jakin, baina...

TEO-G2: gehiago ez da jaitsiko.

TEO-G5: azkenean bakoitzak bere ingurua ikusten du eta nik aldaketarik ez dut ikusi gertatu denik.

TEO-G3: erdaraz egiten dutenak beraien artean erlazionatzen badira eta gurekin ez, zuretzat ez dago aldaketarik...

Globalizazioak duen eragina zuengan nabari duzue? Interneta, telebista..

TEO-G5: inkontzientean, ohitu gara horretara, berez badakar eragina baina egunerokotasunean guk berdin berdin euskaraz egiten dugu nahiz eta musika eta telebista erdaraz ikusi edo erdaraz irakurri.

Zerbaiti heldu behar izanez gero zeri heldu beharko litzaioke?

TEO-G3: nik pentsatzen dut etorkinei, bai gazteei bai helduei laguntza bat eman beharko litzaiekeela. Zuk ez badiezu sakatzen beraiek ez dakarte berez. Adibidez udaleku ibiltarian orain dela bi urte etorri ziren hamabost egun lehenago bi senegaldar eta bakarrik zekiten ingelesa, oinez ibiltzera etorri ziren hamabost egunez eta guk egiten genuen jartzen genituen izkina batean eta koaderno batean euskarazko hitzak eta ingelesera itzultzen. Eta poliki poliki badoaz, eskolan hasi dira, euskaraz dabilta kalean. Ez dakienari laguntza eman eta dakienak erabili eta ez aldatzea.

Ondarroa ezaguna etorkinak euskarara integratzeko daukazuen gaitasunagatik, beste inon baino gehiago lortzen da euskalduntzea. Zergatik uste duzue?

TEO-G1: gehiago umeak.

TEO-G2: zaharrak egongo dira kasuak.

TEO-G5: erdaraz ikasten dute normalean, erdaraz egiten badiegu ez dute beharrik euskaraz ikasteko

Taldetan, elkarteetan bazabiltzate?

TEO-G1:Ez

TEO-G5Mutrikuko sokatira taldean, baina dena euskaraz egiten dugu.

TEO-G3: musika eskolan dena euskaraz, kiroldegian euskaraz.

Futbola?

TEO-G2: euskaraz.

TEO-G1: arraunean ere euskaraz.

TEO-G1: beste leku batzuetan ikusi izan dut euskaraz.

TEO-G5: esango nuke denek egiten dutela euskaraz.

TEO-G3: nik pentsatzen dut saiatzen direla zerbitzuak ematen dituztenak euskaraz emateko, ze hori garrantzitsua da ere bai. Ez da berdina erdaraz edo euskaraz egin.

Zerbitzuak?

TEO-G1: txinoak kenduta, dena euskaraz.

TEO-G2: fruta denda berriak, pakistandarrenak eta kebabetan ere gaztelaniaz.

TEO-G5: baina batek euskaraz daki ezta? Zuk esaten badiozu durum eta patata pakete bat ulertzen dizu.

TEO-G3: bai, baina hortik eta egitera...

Zuek horrelakoetan nola egiten duzue?

TEO-G2: kebabean erdaraz baina bestetan euskaraz.

TEO-G1: neuk ere bai kebabean erdaraz.

TEO-G3: eta txinoekin erdaraz eta indio.

TEO-G2: baina erdaraz berak ere justu ulertzen du

Tabernetako giroa nolakoa da?

TEO-G5: euskalduna.

Eta musika?

TEO-G2: segun non.

TEO-G1: nik esango nuke egunean zehar denak nahiko euskaldunak direla, gero ja ordu batetik aurrera...

TEO-G5: parrandan pare bat taberna eta txosnetan musika euskaraz jartzen dute, bestela besteetan regeatoia eta txunba txunba.

TEO-G2: bai, baina gero barruan giroa euskalduna eta tabernariak euskaraz, musika bakarrik erdaraz.

Zein musika jarraitzen duzue?

TEO-G1: denetik.

TEO-G2: euskaraz gehienak nire kasuan.

TEO-G5: nik ingelesez ez.

TEO-G2: nik ingelesez eta euskaraz, ez zait erdaraz gustatzen.

TEO-G3: niri bai, baina ez betiko Melendi, betiko roiloa. Musika dezentea entzutea gustatzen zait. Ez dut nahi esan bestea ez denik dezentea baina ez. Erdararekin lotura musikak askok egiten du.

TEO-G1: musikak, jokuak, telebistak, denak...

Herri mugimendua bada?

TEO-G5: bai, badago.

TEO-G4: orain dela urte batzuetakoa ez da, baina badago.

Antolatzen dira ekitaldiak?

TEO-G1: bai.

Gazte jendearentzako eskaintza badago?

TEO-G2: beti ez dago, baina bai.

TEO-G1: aisialdi taldeak umeentzako gauzak antolatzen dira.

Asteburuetan kanpora ateratzen zarete?

TEO-G3: normalean ez.

TEO-G5: oraingoan Mutrikura, berdel egunera.

TEO-G2: neguan ikasketak direla-eta, gutxiago batzen gara baina udan oso herri bizia da.

TEO-G1: dena daukazu, hondartza, hondartzatik atera eta helatua, taberna.

TEO-G4: kanpoan bizi diren ondarrutarrak udan herrira etortzen dira.

TEO-G1: baina ez da Lekeitio moduan.

TEO-G2 Lekeitiora Bilboko jendea etortzen da baina hemen herrikoak egoten gara.

TEO-G4: herritik kanpora lanean dagoena udan Ondarroara etortzen da.

TEO-G1: normalean etortzen diren kanpotarrak alokairura datoz edo Saturrarango kanpinera, frantsesak eta tarteka etortzen dira.

Udan sumatzen da aldaketa?

TEO-G5: igartzen da hondartzan kanpoko jendea etortzen denean, Ermuko jendea.

TEO-G1: udalekutakoak ere bai.

TEO-G2: kalean ez, hondartzan.

Eta zergatik da horren euskalduna ?

ez dugu erantzunik.

ESKERRIK ASKO

ONDARROA, TALDE EZTABAIDA 25-50

Aurkezpenak

TEO-H1: ondarrutarra, 34 urte ditu, ama hizkuntza euskara du, lagun taldean eta familian euskaraz hitz egiten du. Ikasi ere euskaraz egin du, bai eskolan bai unibertsitatean. Lan ere euskaraz egiten du. Irakaslea da eta euskaraz irakasten du.

TEO-H2: bizitza %100ean euskaraz egiten du, ingeleseko irakaslea, filologian ikasgai batzuk ingelesez zituen, baina bestea euskaraz. Eskolak ingelesez eta frantsesez ematen ditu. Bestela orokorrean euskaraz bizi da.

TEO-H3: ondarrutarra, 30 urte. Haur hezkuntzan lan egiten du. Ikasketa guztiak euskaraz, lagun taldean, familian euskaraz. Bere arazoa gaztelania da.

TEO-H4: ez daki euskaraz ondo hitz egiten. Ikasten dabil, bere kontura, internet bidez. Perfila atera nahi du eta laster azterketa du. Kostatzen zaio hitz egitea, freno bat duela dio. Ondarroan jaio zen, baina gero Galiziara joan zen bizitzera, zortzi urterekin itzuli zen Ondarroara. Etxean dena gaztelaniaz eta galizieraz egin izan dute. Lagun artean gaztelaniaz egiten dute, hasten da euskaraz batzuetan baina gaztelaniaz bukatzen du.

TEO-H5: 48 urte ditu. Ikasketa batzuk gaztelaniaz eta beste batzuk euskaraz egin ditu. Ondo moldatzen da bi hizkuntzetan baina bizitza euskaraz egiten du. Dendari elkarteko lehendakaria da. Bertan euskaraz funtzionatzen dute, baina batzuekin badu derrigortasuna gaztelaniaz egiteko. Etxean, kalean, lagunekin euskaraz egiten du. Kanpoko den lagun bat etortzen denean gaztelaniaz egin behar izaten dute, bestela beti euskaraz.

Datuetara etorrita...

Ezagutza: 2001 %83,4k zekien. Zer gertatu da zuen ustez 2011n?

TEO-H2: mantendu egin dela, jaitsi ez.

TEO-H5: jaitsi ez.

Etxean, lehen hizkuntza, 2001ean %74,1 zen, zer gertatu da 2011n?

TEO-H2: gora egin duela.

TEO-H1: bai, gora.

TEO-H5: nik ez, kanpotarrak gehiago badira, horiek etxean ez dute euskaraz egingo.

Imanol: bai, baina kanpotarren lagina txikia da, ez dut ezagutzen kanpotarren kopurua, baina ez zait iruditzen asko izango denik.

TEO-H2: bai, baina kanpotarrek etxean ez dute euskaraz egingo, nahiz eta eskolan euskaraz egin.

TEO-H4: etxean beharbada gaztelaniaz egiten dute, baina eskolan euskaraz egiten dute. Lehen ez zegoen hori, guk gaztelaniaz ikasi genuen eta ez genuen aukera izan euskaraz ikasteko.

TEO-H3: lehengo etorkinak ez ziren euskalduntzen, orain bai D ereduarekin.

TEO-H5: ni ez nago horrekin ados, Horiek gero euskara ikasi zuten, azkenean euskaldunak egin dira. Errazagoa zen erdaraz bakarrik ikastea. Nik esaten dudana da senegaldarrek-eta, nahiz eta eskolan euskaraz egin, etxean ez dutela euskaraz egingo.

Etxeko erabilera dagokionez, zer gertatu da 2011n?

TEO-H3: etxean erabili gurasoen arabera izango da.

TEO-H5: herrikoak garenok euskaraz bizi gara etxeetan.

TEO-H3: nik jaitsi ez nuke esango, baina gora egin ere ez.

Kaleko erabilera datuei dagokionez, zer uste duzue gertatu dela 2011 eta 2016an?

TEO-H3: nik uste dut gazteok euskaraz hitz egiten dugula. Orain D eredua dagoenez, pentsatzen dut euskaraz egingo dela berba.

TEO-H4: euskaraz asko.

TEO-H2: igotzen doala pixkanaka.

TEO-H3: etorkinen seme-alabak ere euskaraz entzuten dira.

TEO-H2: lehenengo urtean ez, baina gero ikasten joaten dira. nik uste dut gorantz joango dela.

TEO-H5: hemen da Katalunian bezala, hona datorren batek euskara ikasi behar du integratu nahi baldin badu.

TEO-H3: guk ohitura handia daukagu kanpotik datorrenari ere euskaraz egiteko, ez gaude ohituta gure artean erdaraz egitera.

TEO-H4: lanean denok euskaraz egiten dugu, gero nire lagunekin, batzuek euskaraz hitz egiten dute eta besteak hasten dira nirekin euskaraz baina azkenean erdaraz bukatzen dugu.

TEO-H3: pertsona batzuekin badugu ohitura erdaraz egiteko.

Adin tarteka, zeinek pentsatzen duzue gehien hitz egiten dutela?

TEO-H5: haurrak eta gazteak euskaraz egiten dute, gora egingo zuen.

TEO-H3: adineko ondarrutarrak dira euskaraz gehien egiten dutenak.

TEO-H5: heldutan badaude Susana bezalakoak direnak eta hor gutxiago egingo da.

Datuak hauek dira. Zein ondorio ateratzen duzue?

(Ez zuten espero, harrituta)

TEO-H1: ez dut ulertzen 5 urtean %14 jaistea.

TEO-H5: nik esango nuke 2011koak direla errealak. 2016an euskaldunak ez ginen kalera aterako.

TEO-H1: honek zer nahi du esan, haurrak eta gazteak garenean euskara erabiltzen dugula eta heldu bihurtzen garenean ez dugula egiten?

TEO-H5: ez, orain momentuan heldu direnek ez dutela egiten.

TEO-H1: orain dela 15 urte gaztea izango zen, beraz, ez da ez dakitelako.

TEO-H3: nik ez dut entzuten kalean erdararik.

TEO-H4: joan direnak, hil direnek ere badute eragina.

TEO-H5: baina portzentajea da bizi den jendearena.

TEO-H1: arraroa egiten zait bost urtean kopurua ez dela aldatu eta aldi berean erabilera datuak aldatu izana. 2011koa izan daiteke puztuta egotea. %93ko erabilera bai ikusten dut kantoso, beste urteetan %80ren bueltan dago eta 2011koak oso altuak dira. Umetan bai ikusten dut erabilera altua dela.

TEO-H5: bai, bai, guztiak. Herrikoak eta kanpokoak ere bai., denak. Etortzen direnek ere ikasi egiten dute.

TEO-H3: eta gazteek ere bai.

TEO-H5: helduen inguruan, guraso erdaldunak zeukatenak, ikasketak gaztelaniaz egin zituztenek eragina dute.

TEO-H3: eta euskaldundu ez direnak, eta horiek orain adinekoak dira.

TEO-H4: eta horiek ez daude euskaldunduta, lehen hemen zetorrenak ez zuen euskaraz ikasten, baina orain hasiera hasieratik euskaraz ikasten dute, hor badago abantaila bat integratzeko. Niri asko kostatu zait integratzea eta oraindik integratzeko ahalegina egiten ari naiz, euskara izateko egunerokotasunean, bai lanarengatik, bai nire seme-alabengatik, bai inguruarengatik bai nirengatik. Nire belaunaldiko batzuk bagaude %50 inguru, bai ulertzen dugunak baina espresatzeko arazoak ditugunak. Falta izan zait hasierako ikaskuntza hori.

TEO-H5: dena dela ez da normala jende berdintsua bizita horrenbeste aldatu izana erabilera.

Ezagutzarekin alderatuta hala ere erabilera altua da. Zergatik izango dela uste duzue?

TEO-H5: ez dakigulako erdaraz.

TEO-H1: zure inguru guztiak euskaraz egiten duenean ogia erosterakoan, kartel guztiak euskaraz daudenean, ez daukazu aukerarik A eredura joateko, euskara ardatz hartuta daukazu dena.

Bermeon ere politika denak euskararen aldekoak dira

TEO-H5: beharbada komertzioa. hemen goizean jaikitzen zaretenik dena da euskaraz, ez daukazu gaztelaniaz norekin egin.

TEO-H3: Bermeora beharbada Bilboko jendea asko joaten da eta horrek izan dezake eragina.

TEO-H1: ikusi beharko litzateke zein hezkuntza mota eman den, ez baita berdina euskaraz erakustea eta euskara lantzea.

TEO-H3: moda edo itxura kontua izan daiteke. Nik hemen Ondarroan ez dut ikusten jendea gaztelaniaz hizketan. Lehen esaten zen gaztelaniaz egiteak prestigioa ematen zuela.

TEO-H5: Markinan sasoi baten gaztelaniaz egiten zuten eta niri kosta egiten zitzaidan gaztelaniaz egitea. Sesta puntaren garaian erdaraz egiten zuten. Estatusa zen.

...

TEO-H5: ez da jarrera kontua, gure bizia da

TEO-H1: gauza naturala da

TEO-H3: ez dugu pentsatzen, gure inguru guztia horrela da, gure bizitza horrela da.

TEO-H5: beharbada isolatuta gaudela izango da.

TEO-H4: zuek ez duzue beharra gaztelaniaz egiteko, nire kasuan badaukat behar bat euskaraz hitz egiteko. Nire ustez Ondarroan gaizki ikusten da gaztelaniaz hitz egitea, gaztelaniaz ari bazara jendeak esango dizu euskaraz hitz egiteko. Eta ez badakizu ba ikasi egin behar duzu edo gutxienez intentzioa izan. Nik sentitzen dut beharra euskara ikasteko. Londresera joango banintz bezala da. Ondarroara etortzen bazara edo euskaraz hitz egiten duzu edo jai.

TEO-H1: sentsazio hori izan baduzu ez dut partekatzen. Bai ikusten dut zu bezalako jendeak euskaraz ikas dezan politikak atera behar direla. Udaletxeak baliabideak eskaini behar ditu euskara ikasi ahal izateko. Gero ikasi nahi ez baduzu, orduan bai ikus. Gurekin %100ean integratu nahiz baduzu ikasi egin behar duzu, baina lagundu egin behar da.

TEO-H3: guk ez dugu esaten "ikasi egin behar duzu" baina gure jarrerak bai behar hori sortzen du.

TEO-H1: meritu handia duzula uste dut.

TEO-H2: niretzako kristoren ahalegina da gaztelaniaz hitz egitea, kosta egiten zaigu.

TEO-H5: nire sentimenduak gaztelaniaz adieraztea gehiago kostatzen zait.

TEO-H1: gurasoekin erdaraz egin behar duzunean bilera gaizki pasatzen dut.

TEO-H5: guri erdaraz gertatzen zaiguna da ez dugunez egiten ez dugula erraztasunik.

TEO-H2: erdaraz egin behar badut bakarka bilerak egitea nahiago dut taldean baino.

Taldean norbait erdalduna baldin badago zein ohitura daukazu?

TEO-H5: guk badugu lagun bat Santo Domingokoa dena eta hura dagoenean gaztelaniaz egin behar izaten dugu, baina kosta egiten zaigu, gure artean tarteka euskaraz egiten dugu, baina saiatzen gara erdaraz egiten. Zaila egiten zaigu

TEO-H4: nik abantaila bat daukat. Nik bi hizkuntza egiten ditut, koinatuak euskaraz egiten du, beraien etxean guztiek euskaraz egiten dute nire ahizpak izan ezik. Guk badugu zailtasun hori, nahiz eta dena ulertu euskaraz hitz egiteko fretoa dugu. Lagun taldea ele bia da, euskaldunak eta erdaldunak daude. Nire kasuan alderantziz gertatzen zait, ondo espresatu nahi dudanean gaztelaniara jotzen dut.

TEO-H2: gure lagun taldera etortzen da euskaraz ondo moldatzen ez den bilbotar bat. Guregana etortzen denean eta euskaraz hasten denean lotsatu egiten da, birekin bakarrik dagoenean euskara batuan aritzen gara nahiz eta batzuetan zerbait gaizki esan. Baina nik gaztelaniaz astakeriaren bat botatzen badut denak barrez hasten dira

eta lotsatu egiten naiz. Baina batzuetan bai mozten gara gaztelaniaz hitz egiten. Erdaraz gaizki hitz egitea ez da berdin ikusten. Gero egia da ondarrutarrak hasten garenean arin-arin hitz egiten euskara batuan hitz egiten duenak ez digu ulertzen.

TEO-H5: bai eta ondarrutar askok ez daki euskara batuan hitz egiten. Nik OHO erdaraz egin nuen eta Batxilerra euskaraz, baina jende asko dago ikasketak gaztelaniaz egin dituztenak, ez daude euskaraz alfabetizatuta. Dendarien artean zirkularrak euskaraz bidaltzen ditudanean batzuek gaztelaniaz eskatzen dute ez dutelako euskarazkoa ulertu.

TEO-H5: ondarrutar egiten da, baina jendea ez dago alfabetatuta.

Nola esango zenukete bizi duzuela zuen euskararekin duzuen harremana, zein sentimendurekin lotuko zenukete?

TEO-H3: harrotasunez bizi dugu!

TEO-H5: hemen ez dago horrelakorik

TEO-H2: saiatu behar duguna da ez sartzen horrenbeste erdarakada, baina harro gaude gu

TEO-H3: akabo ba!

TEO-H1: nagusiek kalitate hobea dute guk ibiltzen duguna baino.

TEO-H5: lehengo berbak galdu egin dira.

TEO-H2: koletilak erdaraz egiten dira. Gazteen artean bai igartzen da erdarako kolettilak erabiltzen dituztela.

Aisialdian (kirola, kultura...) zein hizkuntzatan izaten da?

TEO-H5: ematen digutena.

TEO-H3: zerbitzu asko euskaraz. Kontzertuak eta bietara.

TEO-H1: umeekin orain dena euskaraz. Baina norbera badoa zerbait kontsumitzera antzerki on bat, izan daiteke gaztelaniaz izatea, beste aukerarik ez dagoelako. Kafe antzokiak ekartzen duena baina ez da hainbeste.

TEO-H3: zinerik ez da jada.

TEO-H5: Maite saiatzen zen pelikula euskaldunak ekartzen, baina ez da erraza.

Aisialdiaz gozatzera, erosketak egitera, lanera edota ikastera norako joera duzue?

TEO-H3: merkatal gunera.

TEO-H2: segun.

TEO-H4: Donostiara.

TEO-H1; nik Donostiara egiten dut.

TEO-H2: normalean Donostiara.

TEO-H3: bi lekuak antzera geratzen zaizkigu.

TEO-H5: ni asko Donostiara, han egon naiz 10 urte lanean-eta.

Zein hizkuntzatan aritzen zarete?

TEO-H3: ni saiatzen naiz lehenengo euskaraz egiten

TEO-H1: saiatu beti euskaraz. Bilbon ere haur eta gazteen artean beraien artean ez egin arren, zerbait galdetuz gero askotan erantzungo dizute. A eredua erreziduala da han.

Kultur, aisialdi eskaintzarik ba al dago? Ekintzak antolatzen al dira eta nola?

TEO-H3: astebururo ez, baina kirol arloko aktibitateak egiten dira. Talde asko daude.

TEO-H2: euskaraz egiten dute guztiek.

TEO-H5: bai, elkarte asko daude eta euskaraz dira. Entrenatzaile erdalduna etorriko balitz beste gauza bat litzateke, hemengoak badaude beti euskaraz. Dena euskaraz da. Nik uste dut isolatuta gaudelako dela

TEO-H4: nik ez dut hartzen parte.

TEO-H5: kiroldegira joaten bazara monitore denak euskaraz egingo dizute

TEO-H2: hemen administrazioan euskaraz egiten da dena.

TEO-H5: medikuak ere justuan egiten du euskaraz, baina saiatzen da, Ondarroara etorri eta derrigor egin behar duzu euskaraz.

Elkartegintzari buruz zer esango zenukete?

TEO-H3: bai bai, badago eta euskaraz dira denak.

TEO-H5: lanean ere jaurlaritzatik jasotzen diren kartelak ele biz egoten dira, baina guk euskara hutsez egiten dugu. Ekintzak antolatzeagatik ematen diren diru-laguntzak ele biz egon behar dute, beste herri erdaldunagoetan euskaraz egongo dela bermatzeko, baina guk ez dugu arazorik, guk euskaraz bakarrik egiten dugu. Guk ez dugu horrelako neurrien beharrik, hemen euskaraz egiten dugu eta listo.

TEO-H4: niretzat hizkuntza fretoa izan da elkarteetan parte hartzeko. Hori gaizki bizi dut.

TEO-H2: komunitateko batzarretan gertatzen dira eztabaidak batzuetan hizkuntza kontuengatik. Hemen egoten dira horrelako gora beherak, norbaitek gaztelaniaz hitz

egiteagatik haserreak sortzen dira. Euskaraz bakarrik egiteko eskatzen dutenak egoten dira eta jendea baztertuta sentitu daiteke horrelako jarrerekin. Adibidez mendia erori zenean, batzar batean sortu zen iskanbila. Hainbat herritarrek euskaraz bakarrik izango zela esan zuten. Baina ez zekitenek eskubidea zuten enteratzeko zer zen gertatzen zena. Eta ni ez naiz esaten ari dena erdaraz egin behar zenik, gero azalpen txiki bat eman daiteke gaztelaniaz.

TEO-H5: kasu horretan berdin-berdin azaldu behar da gaztelaniaz.

TEO-H1: bai, baina helburua izan behar da euskaraz ikastea.

TEO-H5: baina 60 urteko bati... eta ez bakarrik erdaldunei. Euskaldun batzuei kosta egiten zaie euskaraz irakurtzea eta eskatu egiten dute hurrengo gaztelaniaz bidaltzeko. Ni saiatzen naiz ondarrutar idazten eta letra handiekin, saiatzeko euskaraz irakurtzen. Gaztelaniaz egin baino ondarrutar egiten dut.

TEO-H1: ni ez noa inor derrigortzera, Ondarroak eman behar dizkio ez dakienari baliabideak eta erraztasunak euskaraz ikasteko. Hortik aurrera ez badu nahi beste kontu bat da.

TEO-H5: nire bizilagun galziarrak... badago jende bat ez duena ikasi nahi.

TEO-H4: orain dela bost urte faltan dut erraztasunik ez ematea. Nire semeekin asko ikasi dut euskaraz eta pozik nago, nire senarrarekin ere egiten dut. Nik nahi dut nire seme-alabek ere parte hartzea. Edo aurrera egiten dut edo ez dut zer eginik.

Mugikortasuna: lana egitera/ikastera nora joaten zarete?

TEO-H3: Gu lanerako ez gara mugitzen

TEO-H1: ni Getarian bizi naiz baina, bueno... lanera, Cicautxora, Itziarrera, Eikara...

TEO-H4: Elgoibar, Elorriora edo itsasora.

TEO-H5: lana egiteko asko mugitu behar da.

Zein hizkuntzatan aritzen zarete?

TEO-H2: komertzial moduan bazabiltza beste hizkuntza batzuk behar dituzu. Lankidearen arabera alda daiteke hizkuntza.

TEO-H4: euskalkia batzuetan izaten da muga.

TEO-H5: Ondarroara etortzean mantentzen da.

TEO-H2: ikastera Gasteizera.

TEO-H1: Donostiara.

TEO-H5: ni Donostiara.

TEO-H2: gu unibertsitatean euskaldunekin batzen ginen.

TEO-H3: gu ere bai.

Euskara zabaldu duzuela uste al duzue?

TEO-H1: nik uste dut euskara zabaldu dugula unibertsitatera joan garenean. Nik bai izan dut sentsazioa, ni tartean egon banaiz euskaraz egin dutelako

TEO-H5: donostiarrei gainera gustatu egiten zaie euskaraz egitea

Euskararen aldeko lanak zein izan beharko lukeela uste duzue?

TEO-H3: kantitatearekin baino kalitatearekin badago zeregina.

TEO-H1: etorkinekin lanketa berezi bat egin behar da, Ikastetxe bakoitza bere aldetik ibili beharrean lanean guztiei bateratuta euskarako errefortzua eman. Matematika erakutsi aurretik euskara erakutsi behar zaie. Horrek integratzen lagundu egingo dio, eta gero ikasiko du matematika. Baina izan behar du udaletxeak lagunduta.

Udalaren politikak nola ikusten dituzue?

TEO-H2: oso euskaldunak.

TEO-H4: txarto ez dut ikusten, ze ulertzen dut. Hori niretzat ez da muga bat, ulermena badut. Euskara nirea ere bada. Ni jaio naizen familian jaio izanak ezin du aitzakia izan euskara ez ikasteko. Zailtasunak izan ditudala, ba egia da. Maila orokorrean ulertzen dut dena, nire zailtasuna mintzamena da. Psikologikoa da freinoa. Nik egoitzan egiten dut lan eta han euskaraz egiten dut. Egunero-egunero pixka bat hobeto egiten. Seme-alabekin saiatzen naiz baina beraientzat arraroa da. Informazio falta ere badago euskaldundu nahi dugunontzat. Orain arte Ondarroako AEK bakarrik ezagutzen nuen, baina badaude beste aukera batzuk ere. AEKn nengoenean, Ondarroan jaioa izategatik pentsatzen zuten nik hainbat gauza jakin egin behar nituela, falta bota nuen hainbat kontu ez azaldu izana. Ez naiz atera batxe horretatik, orain nire kontura ari naiz eta erosoago sentitzen naiz, orain oinarria jasotzen ari naiz. Interneten ere euskaraz ikasteko aukera dagoela jende askok ez daki. Beste abantaila bat ere badut, udaleko langilea naizenez, IVAPetik aukera dut euskara dohainik ikasteko.

Etorkizuna nola irudikatzen duzue?

TEO-H5: izan dezake aldaketa txiki batzuk baina ez dut pentsatzen askorik.

TEO-H2: igual okerrago hitz egiten dela, baina galdu ez.

TEO-H3: ez dut uste okerrera egingo duenik.

Turismoa/hirigintzari buruz zer esan dezakegu?

TEO-H5: eskurtsioak bakarrik etortzen dira.

TEO-H1: ez daukagu azpiegiturarik turismoa jasotzeko.

TEO-H5: niretzat turismoak huts egiten du.

TEO-H3: jendea joan egin da. Hemen garestiagoak ziren etxeak inguruko herrietan baino eta jendea kanpora atera da.

TEO-H5: Lea-artibai mailan biztanle kopuru berdina dago baina Ondarroa hustu egin da, hemendik jende asko joan da Markinara, Berriatura bizitzera.

TEO-H1: nik nire lagun taldean ikusten dut, 25etik Ondarroan bizitzen erdiak egongo dira. Adibidez, nire bi umeak ez daude hemen, Getarian daude.

TEO-H5: nire senarraren lagun taldean ere 40tik erdia kanpoan dago.

TEO-H1: Getarian nire emaztearen lagun taldean kopurua mantendu egin da.

TEO-H5: herritarrentzako ez dago lanik, eta jendeak lana kanpoan bilatzen duenean, gero kanpoan geratzen da. Nik adibidez hemen mutil laguna bilatuta neukanez Ondarroara itzuli nintzen, baina Donostian bilatu izan banu han geratuko nintzen.

TEO-H1: eta zergatik Getarian ez da biztanleria jaisten?

TEO-H3: ba Donostian lana egin arren gero badaukazu Getariara joatea. Ondarroan bizita lana Donostian badaukazu gero Ondarroara etortzea nekagarriagoa da.

TEO-H1: baina hemengoak ez dute Donostian lana. Hemengoak Itziarren, Cicauchon daude...

TEO-H5: baina jende asko kanpoan dago lanean.

TEO-H2: nire lagun asko kanpoan daude lanen: Txinan, Madrilen...

TEO-H5: hemen kanpoko gehienak udaletxean egongo dira, baina gero joan egiten dira beraien herrietara. Bere garaian hona etorri ziren asko beraien herrietara itzuli dira.

TEO-H1: hor ikusten dut nik arazoa, biztanleria jaitsieran. Demografia hartzen duzu eta ikusten duzu jaisten eta jaisten eta ez duzu ikusten igotzeko aukerarik.

TEO-H5: bai eta nagusiak asko eta umeak gutxi.

TEO-H5: lana da dena.

TEO-H1: eta etxearen prezioak. Hemen etxebizitzak merkatuz gero, Mutrikun bizi diren denak, Berriatuan bizi diren denak Ondarroara etorriko lirateke bizitzera.

TEO-H3I: Mutrikun babes ofizialetan dauden erdian Ondarroakoak dira. Eta nik entzun diet hona etorri nahiko luketela.

ESKERRIK ASKO

ONDARROA, TALDE EZTABAIDA 25-50

TEO-A1, 65 urte: euskara ama hizkuntza.

TEO-A2, 50 urte: euskara ama hizkuntza, arrantzarekin lotutako ikastetxe batean.

TEO-A3, 71 urte: euskara ama hizkuntza.

TEO-A4, 57 urte: erdaraz ikasi, familian erdaldunak baditu, arrantzura etorriak; baina ama hizkuntza euskara.

TEO-A5, 65 urte: ama hizkuntza euskara.

TEO-A6, 73 urte: ama hizkuntza euskara.

TEO-A7, 78 urte: ama hizkuntza euskara.

TEO-A8, 73 urte: ama hizkuntza euskara.

TEO-A9, 67 urte: ama hizkuntza euskara.

Pertzepzioak

TEO-A3: Gure etxean euskaraz egiten da. Erdaraz deskuidoan ere ez. Agian, sumatu dut beste etxe batzuetan, tarteka, erabiltzen dutela erdara, baina gurean ez dugu pentsatu ere egiten beste modu batera egin dezakegunik. Uste dut kontzientzia badela euskaraz egiteko, baita kalean eta gazteen artean ere.

TEO-A6: Umeek ere euskaraz hitz egiten dute hemen. Ez da beste herri batzuetan bezala, behin 14 urte eginda, gaztelania erabiltzen hasten direla. Beste herri batzuetan ikusi dut kuadrillan batek ez egitea euskaraz, eta gainontzekoak hasia erdaraz egiten. Hori hemen ez da gertatzen. Bestalde, uste dut aldaketak egon direla hizkuntzaren erabileran, ahoskeran, batik bat. Kezkatuta nago: guk beti esan izan dugu “ikusi zaitut”, eta hasi ziren “ikusitzut”, “ikusitzat” esaten. Horrela galtzen joaten da hizkuntzaren kalitatea.

TEO-A7: Guk euskara erabiltzen dugu gure artean, baina Ondarroan bada jende bat urte asko damakizkiena herrian bizitzen. Ulertu egiten dute, baina ez dute euskaraz egiten. Egia esanda, neuk pertsona horiekin batzen naizenean, erdarara jotzen dut. Uste dut, oro har, denok egiten dugula hori. Berez ulertzen dute, baina... erderaz egiten dute, eta guk ere bai.

TEO-A5: Bai, Ondarrora etorritako pertsonak badira ez dutenak euskara ikasi. Ulertu bai, baina... horiek ingurua erdalduntzen dute.

TEO-A6: Kanpotarrak diogunean, Euskal Herriko beste herri batzuetakoengatik ere ari gara, ezta? Buruan dut andra bat euskalduna dena, baina beti erdaraz egiten duena. Hori, normalean, ondarrutarrek ez dute egiten. Eta nik uste dut ondarrutarrok euskaraz erantzuten diogula, nahiz eta berak erdaraz egin. Hemengo euskaldunok

euskaraz egiten dugula esango nuke nik, baldin eta besteak euskaraz badaki.

TEO-A4: Niri gertatu izan zait euskaraz hastea batzarrak, eta batek euskaraz ez dakielako norbaitek eskatzea dena erdaraz egiteko. Horrek sarri sortu izan du eztabaida gure artean. Guk esaten dugulako batengatik ez dugula dena erdaraz egingo, eta esplikatuko diogula zer ari garen esaten. Nire mina egiten dit horrek, ez gaitezen jarri era horretara. Erakutsi egin behar diogu euskaraz ez dakien pertsona horri non bizi den, konturatu dadin hemen euskaraz bizi garela. Askotan kontrakoa egiten dugu, geu bere korrontean sartu, eta denok bere erara jarri. Barru-barrutik horrek ematen dit mina, eta egoskorrean jarri behar izaten dute “bai”, “ez” eta halako erantzun laburrak euskaraz ematen. Zenbat urteetan horrela?

TEO-A3: Bai, ia denok euskaldunak izan arren, nahikoa da bat egotea sekulako endredoa sortzeko, eta gainera bera baztertzen ari garela aldarrikatzeko.

TEO-A8: Halako jarrerak ere badira, baina bestelakoak ere bai. Ez da denbora asko udaletxean batzar bat egin genuela, eta erdaldun bat zen bertan. Berak esan zuen berarengatik lasai egiteko euskaraz, norbaitek azalduko ziola, zalantzaren bat izanez gero. Salbuespenak egongo dira, bai, baina nik uste dut Ondarroan jende askok ikasi duela euskaraz. Agian, gure adinekoak ez horrenbeste, baina gazteagoak bai. Esango nuke euskararen egoera Ondarroan ona dela. Igual, orain dela 20 urte-edo, egon zen halako joera bat erdara sartu zuena. Baina ez dut uste oraingo egoera hori denik, nik gazteei ez diet erdaraz entzuten. Niri kezka sortzen didana da gure gurasoek erabiltzen zuten euskara eta gaur egun erabiltzen dutena asko aldatu dela. Erdarazko adierazpide asko hartu ditugu, esate baterako. Gure gurasoek ez lukete sekula “tubillue” esango, “orkatila” baizik; ez lukete “kadera” esango, “mokorra” baizik, eta halako adibide pila bat ditugu.

TEO-A4: Pasa den urtera arte ludotekan egin izan dut nik lana. Batek denuntzia jarri zidan “zikina” esan niola-eta, eta bik “zirkin” esan nion, gauzak batzeko esateko, alegia. 12 urteko umeak gaizki ulertu ninduen. Bestalde, ni konturatu naiz umeek erdaraz asko hitz egiten dutela. Jolasteko asko erabiltzen dute erdara.

TEO-A5: Niri atentzioa eman dit gaur, autobusean gentozen, eta mutil gazte batzuk 20taka urtekoak, euskara eta erdara nahasian hitz egiten. Ikasleak ziren. Txokatuta etorri naiz bide guztian. Bilbotik Ondarrura zetozen. Euskaraz egoki egiten zuten, baina asko tartekatzen zuten erdara ere.

TEO-A3: Bai, Mutrikun eta Markinan hori asko egiten da. Baina Ondarroan ere bai?

TEO-A7: Niri iruditzen zait, hala ere, inguruko herrietan baino hobeto heltzen zaiola

hemen euskarari. Begira Markinan ere, adineko pertsona askok egiten dute lehen hitza erdaraz, oso mingarria iruditzen zait hori. Hemen ez da pasatzen halakorik. Ni kiroldegira joaten naiz, eta gaztelaniaz entzuten ditut beraien artean. “Kaixo, Ondarru!” esaten didate niri, baina gero erdaraz egiten dute beraien artean. Egun on bakarrik esaten didate euskaraz, eta euskaldunak dira. Zelako mina egiten didan niri horrek.

TEO-A8: Ondarroan hori egiten dutenak oso gutxi dira.

TEO-A3: Ondarroan, dendatan ere, igoal, zuk dendari erdaldunez erdaraz agurtzen diezu, eta haiek euskaraz erantzuten dizute. Ez badakite ere, jarrera aldekoa da.

TEO-A5: Hori lotuta dago hizkuntzaren estatusarekin. Markinan gaztelaniak indar handia izan zuen. Zesta puntan jokatzeko zutenek erdaraz egiten zuten beti, eta horrek herri osoan izan zuen eragina. Markinako neskak ere erdaraz hitz egiten hasi ziren, eta gaur egun hor dirau horren eraginak ere.

TEO-A2: Guk erdaraz etxetik kanpo ikasi genuen, ikasi genuena, baina guretzako herritik kanpo erabiltzeko hizkuntza bat zen.

Datuak aztertu ondoren

10 elkarrizketatik 8 euskaraz izan dira Ondarroan 2016an. Jaitsiera bat izan da azken urteetan, batik bat, 25-64 urteko pertsonetan eta 65etik gorakotan. 10 puntuko jaitsiera helduetan, eta adinekoetan ia 20 puntu.

TEO-A1: Bai? Hori horrela al da? Ondarroan?

TEO-A3: Harrituta nago ni.

TEO-A7: neure inguruan ez dut nik halakorik ikusten. Ez, behintzat, adin tarte horietan.

TEO-A5: Litekeena da gazteak, igoal, gutxiago egitea, edo ohiturak aldatu izana. Baina adin horietan, bai?

TEO-A6: Erbesteko jendeak egingo du gehiago gaztelaniaz?

TEO-A9: Baina 65 urtetik gorako pertsona asko joan egin dira herritik. Bere garaian lanera etorri ziren, eta jubilatuta berriro beraien herrialdera bueltatu dira.

TEO-A8: Bai. Baina horiek galegoak, Extremadurakoak-eta dira, ez euskaldunak. Ez dauka zentzurik esaten ari garenak. Gure inguruan, behintzat, ez dugu pertzepzio

hori.

TEO-A1: 25etik 64ra, akaso. Izan liteke, bai... baina nagusiena? Hori ez dut ulertzen.

Zuen inguruan, beraz, ez duzue sumatu halako jaitsierarik?

TEO-A9: ez, ez, nola ba.

TEO-A2: Sasoi batean 13.000 lagun bizi ginen Ondarroan, baina orain asko jaitsi da poblazioa. 9.000 gara orain. Uste dut euskaldunagoa dela orain herrian, garai batean izan ziren etorkin gehiago ere. Orduan, ez dakit zer esan nik...

TEO-A6: Lehen aipatu dugu erdaldunekin egiten dugula erderaz, eta horrek izan du eragina, agian, neurketa egiterakoan? Baina zenbateraino?

TEO-A9: Irakurtzeko zailtasunak dituzte pertsona horiek, ez direlako euskaraz alfabetatu. Baina horrek ez du zerikusirik kalean erabiltzen den hizkuntzarekin, ez?

TEO-A7: Gure edadeko jendeak dena erdaraz irakurtzen du, bai, erraztasunagatik.

TEO-A4: Esan beharra dago gaur hemen bildu garenok ondarrutarrak eta euskaldunak garela, gure ingurua euskalduna dela erabat. Ni, ordea, asko ibiltzen naiz kalean, eta entzuten dira erdarazko elkarriketak. Zenbat bider pentsatu dudana: zergatik ari dira horiek erdaraz hizketan? Biek dakite euskaraz!. Aurreko egun batean gertatu zitzaidan udaltzainak erdaraz entzutea. Zer adin izango dute haiek? Gazteak dira, gu baino gazteagoak, 30 bat urte? Erdaraz ari ziren beraien artean, eta gu hurbildu ginenean euskaraz hasi ziren, eta euskaraz jarraitu zuten. Honekin esan nahi dudana da guk pentsatzen duguna baino jende gehiagok egiten duela erdaraz.

Bestalde, lehen aipatu da aditzak eta hitzak gaizki esatearena. Erdararen eragin handiagoa dute gaurko gazteek, eta gurasoek zuzentzen al diete? Ez, utzi egiten diete gaizki egiten. Horri lotuta, ikusten dut gehiago tartekatzen direla euskara eta erdara elkarriketa berean, gure garaian ez zen halakorik.

TEO-A9: Gure gurasoengandik guk jaso ditugun berbak ez dakit zenbateraino jakin izan dugun transmititzen. Transmititu, igoal, bai, baina orain beste leku batzuetatik jasotzen dituzten hitzek eragin handiagoa dute. Adibidez, kiroldegian entzuten ditudanean “kendu” eta “ipini” esaten, harritu egiten naiz. Guk bizitza osoan “jantzi” eta “erantzi” esan izan dugu, eta gure ondorengoek ez dute erabiltzen hori horrela. Eskolatik jasoko dituzte, edo... eta uste dut beharrezkoa dela gure hizkuntzari heltzea, gure berezitasunei, bestela hau galdu egingo da.

TEO-A1: Geuk galdu ditugu hainbat berba. Baina egia da lehen geure artekoa zela

bizitza, egunerokoa, eta orain zabalagoa da. Beste lekuetako jendearekin daude, eta beste iturri batzuetatik ere jasotzen dute hizkuntza. Lehen etxea zen dena.

TEO-A5: Bada jendea kezkatuta dagoena erdara ikastearekin ere. Erdaraz jakin beharra dutela umeei, eta etxean hasi erdaraz berba egiten, hor zehar doazenean ez emateko motel itxurarik.

TEO-A6: Bai, ez lotsatzeko.

TEO-A5: Niri okurritu ere ez litzaidake egingo hori, baina ondarrutarrez ari naiz hizketan.

TEO-A3: Niri ere esan didate hori, horrelako jarrera hartu dutela. Baina ikusi behar dena da gure hizkuntza euskara dela, eta bai... Madrilera joaten banaiz bizitzera, zenbat kostatuko zait erdaraz moldatzea? Hilabete? Hiru hilabete? Baina badakigu erdaraz, eta hartuko diogu. Edonora joanda ere, tope-tope, lau hilabetez zoragarri egingo du zure semeak erdaraz. Ez dakit nik zenbateraino merezi duen etxean erdara sartzen hastea, euskara oraindik behar bezala menderatzen ez duten bitartean.

TEO-A3: Nik euskara maite dut. Ardura bat badugu, eta maitasun bat ere bai. Erdaraz ikasi dugu, nahi gabe, hori ez da arazoa.

TEO-A7: Nik ez dakit zuek nola ikasi zenuten erdara, baina nik derrigortuta. Guk eskolan ez genuen euskaraz egiten ezta lagunarekin ere, ezin zelako, debekatuta zegoelako. Behartu gintuzten gure artean ere erdaraz egitera.

ARRAZOIAK

Datuak datu, ikusten da euskara nagusi dela Ondarroan, eta inguruko herriekin alderatuta, jakin duzuela zuen hizkuntzari eusten, etxeko hizkuntza izaten eta kaleko hizkuntza izaten. Zuen ustez, zergatik heldu zaio ohitura horri Ondarroan, eta ez horren ondo inguruko herrietan?

TEO-A6: Itsasoak zerikusia izan dezake?

TEO-A4: Bai, izan dezake, bai, bai.

TEO-A6: Ez dakit zer esan, kontrako efektoa ere izan dezake horrek. Niri gertatu zait kalean egotea lagunekin, eta matxurriano bat etorri niri, eta esan *háblame en cristiano*.

TEO-A7: Bai, ni gogoratzen naiz portura joaten ginela, eta han gure amari esaten

ziotela a mi háblame en cristiano, eta gure amak egiten zuena zen azken berba soilik esan kastellanoz.

TEO-A8: Bai, zuk diozun horri lotuta, uste dut ondo eusten diogula guk beti euskarari. Lehen aipatu duzue zuek erraz aldatzen dugula hizkuntzaz erdaldunen aurrean, baina ni ez nago horrekin ados. Guk, orokorrean, euskaraz egiten dugu beti, eta aurrean erdaldunak baditugu ere, geu euskaldunak bagara, euskaraz egiten dugu. Beraz, ez dakit etorkinek zenbaterainoko eragina duten, ezta? Gainera, entzuten, horrelaxe ikasi dute hemen zerbait erdaldunek. Eta nire ustez, zuk galdetzen duzunari erantzunez, hori izan da oinarri bat hemen euskaraz jarraitzeko.

TEO-A6: Jon, baina hori... lehen bai, baina uste dut ja ez dela horrela. Uste dut orain etsi egiten dugula.

TEO-A8: Ba nik ez dut pentsatzen horrenbesterako denik.

TEO-A6: Beharbada, zuek gazteak zinetenean horrela egingo zen, baina orain beste korronte batzuek indar gehiago dute.

TEO-A7: Ba nik bat egiten dute Jonekin, eta uste dut hemen hizkuntza horren ondo irautearen arrazoietako bat horixe dela, gure jarrera.

TEO-A4: Guk galegoa dugu osaba bat, eta bera aurrean denean ere beti euskaraz egiten dugu. Horrelaxe egin dugu beti, eta horretara ohitu da bera ere. Bere semeak ere euskaraz egiten du, eta dena ulertzen du aitak.

TEO-A3: Ez lotsatzea ere bada, harro egotea gure izateaz. Markinara joaten ginen, eta han jaungoikoarekin ere erderaz, bazter guztietan erdaraz egiten zuten. Gu hara joan, eta guk euskaraz egiten genuen, jakina; eta denek burla egiten ziguten.

TEO-A7: Zu zer ari zara hitz egiten lehen egiten zenaz? Ba gaur berdin-berdina gertatzen da.

TEO-A3: Nire semea Aurreran ibiltzen zen futbolean, eta Gipuzkoako herrietara tokatzen zitzaion joatea. Herri asko euskaldunak: Azkoitia, Aretxabaleta eta horrelakoak; jokalaria ere euskaldunak. Eta euren artean den-dena erdaraz. Badakizu zer burla egiten zieten gureei? "Caxeros" esaten zieten. Haiantzako ondarrutarrak gutxiago ziren, ez zutelako erdaraz egiten.

TEO-A8: Egia esan guk ere euskaraz egiten ez zutenei mantxurrianoak eta maketoak deitzen genien.

TEO-A5: Nik uste dut kontuan hartu behar dela ondarroan gertatutako gauza bat. Ez

dakit beste herrietan gertatu ote den. Gu gazteak ginenean, baziren familia batzuk pixka bat altutxuagoak zirenak. Gu arrantzaleen umeak ginen, eta haiek fabriketako-eta arduradunak. Nolabait, altuxeago bizi zirenak. Horiek erdaraz egiten zuten berba. Gaur da eguna familia horiek ere gugaz euskaraz egiten dutena. Euren artean, agian, egingo dute erdaraz, ez dakit; baina guri euskaraz hitz egiten digute, eta hori lehen ez zen horrela, inondik inora. Haiek aurreratuak bezala ziren garai hartan, erderaz egiteagatik. Gaur egun, ez dugu horrela ikusten, eta uste dut herri moduan lortu dugula hori.

TEO-A9: Bai, orain euskaraz egiten dute, ondarrutarrez. Eta pentsatzen duzu... honek lehen ez zuen-eta berba bat bera ere egiten euskaraz...

TEO-A8: Herriko jauntxoek hizkuntza zen erdara, eta gu, euskaldunak, askoz ere beherago ginen. Eurentzako gu beste maila batekoak ginen, haien semeak ez ziren batzen gure modukoekin, nolaba!

TEO-A7: Garai hartan ekonomikoki boterea zutenak, nahiz eta ondarrutar peto-petoak izan, erdaraz egiten zuten. Hori horrela da. Familia osoek egiten zuten erdaraz. Medikuek eta horrelakoak. Herrira gutxi hurbiltzen zen jendea zen.

TEO-A6: Status bat jarri zioten eurek euren buruari, eta gu ginen itsasoko jende xumea. Haiez gain, kanpotik etorritako jendeak ere esango nuke baduela joera erdaraz egiteko. Kanpotik esaten dudanean, ez naiz ari atzerritarrez, euskaldunetz ari naiz: Gernika, Markina, Durango... leku horietakoei gustatzen zaie erdaraz egitea.

TEO-A2: Statusa aipatu duzu zuk. Uste dut status hori zutenek ez ziotela baliorik ematen euskarari. Eurak euskaraz hitz egiten zutenak baino zerbait gehiago ziren. Pentsatzen zuten erdaraz hitz egiteak ematen ziotela kategoria. Nik, ordea, ikusten dut euskararenganako pertzepzio hori aldatu egin dela. Orain denek normaltasunez hitz egiten dute euskaraz.

TEO-A6: Bai, orain balioa ematen zaio euskarari, hori asko aldatu da. Lehen, Bilbora joateko, geuri ere euskaraz egitea. Guk, gainera, ez genekien erdaraz ondo, kostatzen zitzaigun espresatzea. Gogoan dut Zazpi Kaletako denda batera sartu ginela, eta barre egin zigutela. Bilbora joateko erdaraz jakin behar zen. Jende horrek eta egoera horrek egiten zuen euskara herriko jendearen gauza izatea, edo guk hala sentitzea. Hori aldatu egin da.

Herri hizkera berezia eta bereizia izateak ba al du eraginik zuen nortasunean eta euskarari eusteko saiakera horretan?

TEO-A6: Bai, bai, gu oso harro gaude.

TEO-A4: Bai, harro-harro.

TEO-A7: Ondarraoa oso berezia da, eta bertako hizkuntza ere bai. Bertan bakarrik esaten diren hitzak ditugu, eta guk harrotasunez heltzen diogu horri.

TEO-A2: Bai, harrotasun puntua ematen du horrek, eta hizkuntza baloratzeko gehigarria da.

TEO-A6: Jendeak esaten du ez digutela sinisten, baina guk euskaraz hitz egiten dugu, aizu! Gure hizkuntza berezia eta polita da, eta merezi du hau ondo zaintzea.

TEO-A8: Dudarik gabe, oso garrantzitsua da gure euskalkia kontu honetan.

Kultur ereduai dagokionez, zer ohitura dituzue?

TEO-A6: Niri, adibidez, ez zaizkit sartzen pelikulak euskaraz. Euskaraz eginak badaude bai, baina ez itzulitakoak.

TEO-A7: Sofia Loren musu ematen euskaraz... horri ez diot zentzu handirik aurkitzen nik. Ez, ez... horiek erdaraz.

Egunkaria?

TEO-A6: Bai, egunkaria bai. HITZA irakurtzen dugu guk.

TEO-A5: Irratia ere euskaraz entzuten dugu, eta telebista ere bai ia beti. Baina erdaraz ere kontsumitzen dugu.

Baduzue ohitura herrititik kanpora irteteko? Erosketak, lana, aisia... edo hemen egoten zarete gehiago?

TEO-A9: Ni neu hemen gelditzen naiz.

TEO-A1: Ni mugitzen naiz, baina hemen ere denbora asko pasatzen dut.

TEO-A6: Beno, danetarik, baina asko egoten gara herrian bertan.

Eta kanpora zoaztenean, euskarari heltzen diozute Ondarrun egongo bazinate bezala?

TEO-A2: Segun zenekin batzen zaren...

TEO-A8: Ni, normalean, ez naiz irteten Ondarrutik, baina irteten banaiz, lehen berba beti egiten dut euskaraz. Durangora-edo joan behar badut... beno, lehen hitza

euskaraz egiten dut.

TEO-A3:: Atzo Bilbora joan nintzen ni, eta galdetu egin nion zer paradatan atera behar nuen gazte bati. Zalantza egin nuen, baina euskaraz galdetu nion. Euskaraz erantzun zidan, eta horrek sekulako poza ematen du.

TEO-A4: Ilobarekin Bilboko Zarara joan nintzen ni, praka batzuk eroatera. Hango langileak ez zekien euskaraz, baina, halere, niri lelengo euskaraz irteten zait. Hemen egon edo kanpoan.

Aurrera begira, zuen ustez zer lan egin behar da edo zer gauza hartu behar dira kontuan euskara dagoen bezala mantentzeko? Zer da lehentasuna?

TEO-A6: Toki publikoetan jende euskalduna jartzea.

TEO-A2: Lanbide, anbulatorioa... halako lekuetan, orain artean, dena erdaldunak egon dira. Orain aldatzen ari da, baina... herria euskalduna den artean, ezin dira zerbitzuak gaztelaniaz eman.

Kontzientziari dagokionez, ikusten duzue badela kontzientzia edo sentimendu bat hizkuntza zaintzeko? Edo zerbait naturala da?

TEO-A1: Nik uste dut hori pentsatu beharrik ere ez dugula Ondarroan. Kalera irtetea nahikoa da ikusteko gu euskaldunak garela.

TEO-A8: Eskoletan euskaraz irakatsiko diete, ezta? Gehiago behar da? Ez dakit...

TEO-A7: Pentsa... guri ez ziguten euskaraz irakatsi, eta mantendu egin dugu, inungo zalantza eta ezbairik gabe.

TEO-A2: Orain, gainera, karrera eta ondorengo ikasketak ere egin ditzakete euskaraz, ez dut ikusten arriskurik gauzak aldatzeko.

Adibidez, Bermeon ere dena euskaraz ikasten dute eskolan, baina sekulako jaitsiera izan du erabilerak. 10etik 3k hitz egiten dute kalean euskaraz. Ondarroan hori ez da horrela, beraz, beste faktore batzuk ere eragingo dute kontzientzia horretan, ez? Eskolak dena bermatzen du?

TEO-A6: Jakina, arrazoi. Hori etxetik datorrena da.

TEO-A8: Ba zaindu egin behar da hau. Erabiltzea eta ondo erabiltzea. Uste dut eskolek egin beharko luketela ahalegin gehiago horretan.

TEO-A3: Eskola aparte lagata. Begira, guk debekatuta izan genuen euskaraz egitea. Debeku horrek amor propioa pizten du. Orain ez dago debekatuta, eta errazago lagatzen dugu bazterrean; hori horrela da guztiarekin bizitza honetan. Gazteek gutxiago dute militantzia puntu hori. Beste herrietan, agian, horrek izan du eragin gehiago?

TEO-A1: Nik uste dut euskaraz hobeto egin beharko genukeela. Erdarako berba asko tartekatzen ditugu, eta hori ezin al da konpondu? Momentu honetan erabilerak baino gehiago kezkutzen gaitu kalitateak.

TEO-A7: Nire ilobak esaten dit... emangotzut puñetazo bat? Sekulako belarriko mina ematen dit horrek.

TEO-A2: Ikasle bermeotarrak ditut nik, eta zuk esaten dituzun datuak nik eskolan ikusten ditut. Badute erdararako joera, nahiz eta euskaldunak izan. Uste dut azken hamar urteetan asko aldatu dela Bermeoko bizitza. Kanpora joaten dira atuneroak eta halako enpresak, eta bermeotarrek ere kanpora joan behar izan dute. Ikasleen artean 40 urte ingurukoak ere baditut. Ikusten dut gazteek erdararako joera handia dutela, eta helduek euskaraz egiten dutela.